

**Doktore-tesia**

**Bizitegi-parkeen birgaitze energetikorako ikuspegi integrala**

---

**Bilboko kasua**

Jon Fernandez Luzuriaga



Zuzendariak:

Iván Flores Abascal

Luis del Portillo Valdés

**2023**

eman ta zabal zazu



Universidad  
del Pais Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**Bizitegi-parkeen birgaitze energetikorako ikuspegi  
integrala: Bilboko kasua**

## Laburpena

Larrialdi klimatikoaren eta kanpo-mendekotasun energetikoaren erronkei aurre egiteko, Europar Batasunak 2050ean klimatikoki neutroa den ekonomia baterantz jotzeko konpromisoa berretsi du. Helburu hori erdiesteko, «lehenik, energia-eraginkortasuna»-ren lema Europako klima eta energia arloko gobernantzaren printzipio gidaria bilakatu da.

Europar, eraikuntza-sektorea azken energia-kontsumoaren %40aren erantzule da, eta CO<sub>2</sub> emisioen %36 sortzen du. Izan ere, egungo eraikin-parkearen antzintasuna handia da eta tarte handia du bere eraginkortasun energetikoa hobetzeko. Halaber, eraikinen ordezkapen-tasa nahiko txikia da eta, beraz, eraikin berriek, eraginkorragoak direnak, energia-kontsumoaren eta CO<sub>2</sub> emisioen murrizketan izan dezaketen eragina mugatua da. Hala, karbono gutxiko ekonomia lehiakor baterako trantsizioan, egungo eraikin-parkearen birgaitze energetikoa lehentasun bat da Europar Batasunarentzat.

Hala ere, hori sustatzeko laguntza-mekanismoak ezarri diren arren, Europar bizitegi-eraikinen urteko birgaitze-tasa baxua izaten jarraitzen du. Beharrezkoa da, beraz, birgaitze energetikoko prozesuaren alderdi ezberdinetan sakontzea, egungo birgaitze-tasa eta energia-aurrezkia areagotu ditzakeen energia-plangintza adimentsua definitu ahal izateko.

Halaber, tokiko agintariak laguntza handia izan dezakete eraginkortasun energetikoko politikak ezartzeko eta, alde horretatik, gero eta joera handiagoa dago azterketa energetikoko tresnak hiri-mailara egokitzeko.

Eremu horietan laguntzeko asmoz, tesi honek hiru ikerketa-ildo lantzen ditu: egungo bizitegi-parkearen karakterizazioa, eraginkortasun energetikoko neurrien analisi tekniko-ekonomikoa eta etxejabeek beren etxebizitzak birgaitzeko erabaki-prozesuaren azterketa. Garatutako ezagutzak eraginkortasun energetikoko politikak zehazten lagundu dezake, finantza-baliabide publikoen ustiapen eraginkorra bermatzen dutenak.

Alde batetik, tesiak hiri-mailako bizitegi berokuntza-kontsumoa karakterizatzeko metodologia bat aurkezten du. Metodologia horrek, hurbileko ikuspegi baten bidez, egungo bizitegi-parkea etxebizitza-kategoria ezberdinetan sailkatzea baimentzen du, energia-eraginkortasuneko politika egokienak ikertzeko oinarri gisa. Proposaturiko metodologia Bilboko bizitegi-parkean inplementatu da, eraikin-arketipo nagusiak identifikatuz.

Karakterizazio horretan oinarrituta, eta eraginkortasun energetikoa sustatu beharreko lehentasunezko eremuak identifikatzeko asmoz, ondoren birgaitze energetikoko hainbat neurriren azterketa tekniko-ekonomikoa burutu da, eraikin-arketipo bakoitzean. Europako Batzordeak zehaztutako kostu-maila optimoaren metodologia egokituz, eraikin mota bakoitzean sustatu daitekeen energia-jarduera tarte egokia identifikatu eta hori erdiesten lagun dezaketen pizgarri ekonomiko ezberdinek amortizazio-epean izango luketen eragina ebaluatu da.

Hala ere, analisi tekniko-ekonomiko horrek ez ditu etxebizitzaren arteko desberdintasun sozioekonomikoak kontutan hartzen. Izan ere, etxejabe bakoitzak modu desberdinean balora ditzake birgaitze energetikoak dakartzan onurak eta, ondorioz, birgaitze hori aurrera eramateko prestasuna asko alda liteke kasu batetik bestera.



Beraz, azterketa tekniko-ekonomikoa osatzeko eta giza faktore hori aztertzeko, azkenik etxejabeek beren etxeak termikoki isolatzeko erabaki-prozesua ikertu da. Azken hau baldintzatzen duten faktoreak ebaluatuz, aukera diskretuko eredu bat garatu da, zeinaren aplikazioa Espainian oraindik ere mugatua den arlo espezifiko honetan. Tesi honek hutsune hori bete nahi du hein batean.

Aukera diskretuko eredu horrek hainbat laguntza-mekanismok etxebizitza-kategoria ezberdinek energetikoki birgaitzeko probabilitatean izan ditzaketen eragina ebaluatzeko aukera ematen du, finantza-baliabide publikoak ahalik eta hobekien esleitzen lagunduz.

Laburbilduz, tesi honetan garatutako esparru metodologiko orokorrak birgaitze energetikoko politikak hurbileko ikuspegi batetik formulatzen laguntzen du eta tokiko agintariak prozesu horretan laguntzeko informazioa ematen du.

## Resumen

Con objeto de abordar los retos de la emergencia climática y de la dependencia energética exterior, la Unión Europea ha ratificado su compromiso de avanzar hacia una economía climáticamente neutra en 2050. Para alcanzar este objetivo, el lema «primero, la eficiencia energética» se ha convertido en el principio rector de la gobernanza europea en materia de clima y energía.

En Europa, el sector de la edificación es responsable del 40% del consumo de energía final, y genera el 36% de las emisiones de CO<sub>2</sub>. Efectivamente, el parque edificatorio actual tiene una elevada antigüedad y dispone de un amplio margen de mejora en eficiencia energética. Asimismo, la tasa de sustitución de los edificios es relativamente baja, por lo que el impacto de los nuevos edificios, más eficientes, sobre la reducción del consumo de energía y de las emisiones de CO<sub>2</sub> es limitado. De esta forma, en la transición hacia una economía competitiva baja en carbono, la rehabilitación energética del parque de edificios existente es una prioridad para la Unión Europea.

Sin embargo, a pesar de los mecanismos de ayuda que se han establecido para ello, la tasa de rehabilitación anual de edificios residenciales en Europa continua siendo reducida. Es necesario, por tanto, profundizar en los diferentes aspectos asociados al proceso de rehabilitación energética, para poder definir una planificación energética inteligente que permita incrementar la tasa actual de rehabilitación y el ahorro energético.

Asimismo, las autoridades locales constituyen un apoyo crucial para la implantación de políticas de eficiencia energética y, en este sentido, existe una tendencia creciente de adaptación de las herramientas de análisis energético a la escala urbana.

Con el fin de contribuir a esta materia, esta tesis profundiza en tres líneas de investigación: la caracterización del parque residencial actual, el análisis técnico-económico de medidas de eficiencia energética y el análisis del proceso de toma de decisión de los propietarios en relación con la rehabilitación de sus viviendas. El conocimiento desarrollado puede contribuir a la definición de políticas de eficiencia energética que garanticen una explotación eficiente de los recursos públicos.

Por un lado, la tesis presenta una metodología para la caracterización del consumo de calefacción residencial a nivel urbano. Esta metodología permite, desde una perspectiva cercana, clasificar el parque residencial existente en distintas categorías de viviendas, como base para el análisis de las políticas de eficiencia energética más adecuadas. La metodología se ha implementado en el parque residencial de Bilbao, identificando sus principales edificios arquetipos.

A partir de esta caracterización, y con el fin de identificar las áreas prioritarias en las que promover la eficiencia energética, a continuación se realiza el análisis técnico-económico de diversas medidas de rehabilitación energética en cada edificio arquetipo. Adaptando la metodología del nivel óptimo de rentabilidad definida por la Comisión Europea, se ha identificado el rango de eficiencia energética que es razonable promover en cada tipo de edificio y se ha evaluado el impacto que diferentes incentivos económicos orientados a su consecución tendrían en el período de amortización de la inversión.



No obstante, este análisis técnico-económico no tiene en cuenta la disparidad socioeconómica existente entre viviendas. En realidad, cada propietario puede valorar de forma diferente los beneficios de la rehabilitación energética y, en consecuencia, la disposición para llevarla a cabo puede diferir mucho entre casos.

En consecuencia, con el fin de complementar el análisis técnico-económico y analizar ese factor humano, por último se ha investigado el proceso de toma de decisión de los propietarios con relación a aislar térmicamente sus viviendas. Evaluando los factores que influyen en esta toma de decisión, se ha desarrollado un modelo de elección discreta. Su aplicación en este ámbito sigue siendo limitada en España, por lo que esta tesis pretende cubrir parcialmente este vacío.

Este modelo de elección discreta permite evaluar el impacto que diversos mecanismos de ayuda pueden tener en la probabilidad de rehabilitación energética de las distintas categorías de viviendas, contribuyendo así a una mejor asignación de los recursos públicos.

En resumen, el marco metodológico general desarrollado en esta tesis contribuye a formular políticas de rehabilitación energética desde una perspectiva cercana y proporciona información a las autoridades locales para ayudarlas en este proceso.

## Abstract

In order to address the challenges of the climate emergency and energy imports dependency, the European Union has ratified its commitment to move towards a climate-neutral economy by 2050. To achieve this objective, the slogan «first, energy efficiency» has become the guiding principle of European governance in climate and energy.

In Europe, the building sector is responsible for 40% of final energy consumption and causes 36% of CO<sub>2</sub> emissions. Indeed, the existing building stock is very old and has wide room for improvement in energy efficiency. Furthermore, the replacement rate of buildings is relatively low, so the impact of new, more efficient buildings on reducing energy consumption and CO<sub>2</sub> emissions is limited. Thus, in the transition to a competitive low-carbon economy, the energy rehabilitation of the existing building stock is a priority for the European Union.

Nevertheless, despite the support mechanisms that have been put in place for it, the annual energy renovation rate of residential buildings in Europe remains scarce. It is therefore necessary to deepen the various aspects associated with the energy rehabilitation process, in order to set an intelligent energy planning that would allow to increase the current renovation rate and energy savings.

Local authorities are also a crucial support for the implementation of energy efficiency policies and, in this respect, there is a growing trend to adapt energy analysis tools to the urban scale.

Aiming to contribute to this field, this thesis deepens into three research lines: the characterization of the current residential stock, the techno-economic assessment of energy efficiency measures and the analysis of the homeowners' decision-making process in relation to the energy rehabilitation of their homes. The acquired knowledge can contribute to the definition of energy efficiency policies that ensure an efficient exploitation of public resources.

On the one hand, the thesis presents a methodology for the characterization of residential space heating energy consumption at city level. This methodology allows, from a close perspective, to classify the existing residential stock into different dwelling categories, which constitute a basis for the investigation of the most appropriate energy efficiency policies. The methodology has been implemented in the residential stock of Bilbao, in which the main building archetypes have been identified.

Based on this characterization, and in order to identify the priority targets in which to promote energy efficiency, afterwards a techno-economic assessment of various energy efficiency measures is carried out in each building archetype. By adapting the methodology of the cost-optimal level set by the European Commission, the suitable range of energy performance that is reasonable to promote in each building type is identified and the impact that different financial incentives aimed at achieving it would have on the investment's payback period is assessed.

However, this techno-economic assessment does not take into account the socioeconomic disparity between households. In fact, each homeowner might assess the benefits of energy rehabilitation differently and, as a result, the willingness to carry it out could differ greatly in each case.



Consequently, in order to complement the techno-economic assessment and to analyze this human factor, finally the homeowners' decision-making process in relation to the thermal insulation of their homes is investigated. By evaluating the factors that influence this decision-making, a discrete choice model is developed. In Spain, the application of discrete choice models is still limited in this specific field, so this thesis aims to partially fill this gap.

This discrete choice model allows assessing the impact that different support mechanisms may have on the probability of energy rehabilitation in the different dwelling categories, thus contributing to a better allocation of public resources.

In summary, the general methodological framework developed in this thesis contributes to designing energy rehabilitation policies from a close perspective and provides information to local authorities to help them in this process.



## Esker onak

Lehenbizi, nire tesi zuzendariei. Ivani, ikerketaren mundua ezagutzera emateagatik eta tesian zehar agertutako oztopoei aurre egiteko irtenbideak bilatzen laguntzeagatik. Luisi, zure aholku, zentzu eta gidagatik.

Petr eta Davidi, EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean emandako harreragatik, eta tesiaren hirugarren fasea burutzeko eskainitako laguntza eta prestasunagatik.

Enpresan izan ditudan nagusiei, arduraldi partzialean egindako tesi hau gauzatzeko emandako konfiantza eta malgutasunagatik, eta baita lankideei ere, zuen etengabeko sostengu eta eskuzabaltasunagatik.

Eskerrak bereziki lagunei, atsedena behar izan dudanean beti hor egoteagatik, alaitzeko prest, eta zuen etengabeko animo eta laguntzagatik. Mila esker tesia nirekin batera “pairatzeagatik”.

Azkenik, eskerrik handienak nire familiari. Amamari, gauza garrantzitsuenak zeintzuk diren ez ahaztea egiteagatik. Ama, aita eta anai-arrebei, osaba-izebei, emandako kemenagatik, uneoro laguntzeko prest egoteagatik eta erakutsitako pazientzagatik. Eta Marta, bide luze hau gertuen bizi izan duzuna. Mila esker, bihotzez, erdietsitako lorpen bakoitza nirekin ospatzeagatik eta momentu zailenetan emandako babesagatik.

Tesi hau zuentzako da.

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**Bizitegi-parkeen birgaitze energetikorako ikuspegi  
integrala: Bilboko kasua**

## Aurkibidea

|   |    |
|---|----|
| Laburpena .....   | 3  |
| Resumen.....  | 5  |
| Abstract .....  | 7  |
| Esker onak .....  | 9  |
| Aurkibidea .....  | 11 |
| Irudien zerrenda.....   | 13 |
| Taulen zerrenda .....   | 15 |
| Glosarioa .....   | 17 |
| Lehenengo Atala: ikerketaren planteamendua eta garapena .....                   | 19 |
| 1. Sarrera.....   | 19 |
| 1.1 Testuingurua .....  | 19 |
| 1.1.1 Aurrekariak.....  | 19 |
| 1.1.2 Lege-esparrua.....  | 20 |
| 1.2 Tesiaren motibazioa eta ekarpena.....                                       | 23 |
| 1.3 Tesiaren egitura.....   | 25 |
| 2. Ikerketa hipotesia eta tesiaren helburuak .....                              | 27 |
| 2.1 Ikerketa hipotesia.....   | 27 |
| 2.2 Tesiaren helburuak.....   | 27 |
| 3. Esparru teorikoa eta metodologia .....                                       | 29 |
| 3.1 Esparru teorikoa .....  | 29 |
| 3.1.1 Eraikuntza parkearen karakterizazioa .....                                | 29 |
| 3.1.2 Energia-jardueraren kostu-maila optimoa .....                             | 31 |
| 3.1.3 Aukera diskretuko ereduak .....   | 37 |
| 3.2 Metodologia .....   | 41 |
| 3.2.1 Lehenengo fasea: eraikuntza parkearen karakterizazioa.....                | 41 |
| 3.2.2 Bigarren fasea: energia-jardueraren kostu-maila optimoaren kalkulua ..... | 58 |
| 3.2.3 Hirugarren fasea: aukera diskretuko ereduaren estimazioa .....            | 68 |
| 4. Emaitzak .....   | 73 |
| 4.1 Lehenengo fasearen emaitzak .....   | 73 |
| 4.2 Bigarren fasearen emaitzak.....   | 76 |
| 4.3 Hirugarren fasearen emaitzak.....   | 89 |
| 5. Erreferentzia iturriak.....  | 98 |



|  |     |
|--|-----|
| Bigarren Atala: ikerketaren ondorioak.....             | 107 |
| 6. Ondorioak eta etorkizunerako ikerketa-lerroak ..... | 107 |
| 6.1 Ondorioak.....                                     | 107 |
| 6.1.1 Lehenengo fasearen ondorioak.....                | 107 |
| 6.1.2 Bigarren fasearen ondorioak.....                 | 108 |
| 6.1.3 Hirugarren fasearen ondorioak.....               | 110 |
| 6.2 Etorkizunerako ikerketa-lerroak.....               | 112 |

## Eranskinak

I. Argitaratutako lanak

II. Bilbo hiriaren bizitegi-parkearen karakterizazioa

## Irudien zerrenda

|  |    |
|--|----|
| 1. Irudia: Espainiako etxebizitza-sektoreko energia-kontsumoaren bilakaera. ....   | 20 |
| 2. Irudia: tesi honetan jorratutako hiru ikerketa-ildoak. ....   | 24 |
| 3. Irudia: Kostu-optimizazioa eta kostu-eraginkortasunaren eskema. ....  | 32 |
| 4. Irudia: energia-jardueraren kostu-maila optimoak ebaluatzeko prozesua. ....   | 33 |
| 5. Irudia: kostu ezberdinen kategorizazioa. ....   | 35 |
| 6. Irudia: denboraren arabera kostuen irudikapena. ....  | 35 |
| 7. Irudia: metodologiako lehenengo fasearen aurkezpen orokorra. ....   | 42 |
| 8. Irudia: eraikin-arketipo bakoitzari forma eta jarraitasuna esleitzeko prozedura. ....   | 45 |
| 9. Irudia: energia-fakturetako kontsumo-datu historikoen grafikoa (adibidea). ....   | 49 |
| 10. Irudia: udako UBS kontsumoaren estimazioan oinarritutako datuen azterketa. ....  | 51 |
| 11. Irudia: etxe-erabileren arabera erregai kontsumoaren banaketan oinarritutako datuen azterketa. ....  | 52 |
| 12. Irudia: erregreasioan sartu beharreko datuaen prestaketa-prozesua. ....  | 54 |
| 13. Irudia: jasotako eraginkortasun energetikoaren etiketen adibidea. ....   | 55 |
| 14. Irudia: etiketatik lortutako balioetatik berokuntza-kontsumoak estimatzeko definitutako metodoa. ....  | 56 |
| 15. Irudia: etxeko biztanle kopuruaren arabera eguneko UBS per capita kontsumoa. ....  | 63 |
| 16. Irudia: DCEan erabilitako aukera-multzoen txartelen adibidea. ....   | 71 |
| 17. Irudia: eraikin-arketipoen urteko berokuntza-eskariak, eraikuntza-aldia eta hiri-morfologiaren arabera. ....                                     | 74 |
| 18. Irudia: berritze-pakete pasiboekin lortutako EP-eb eta KGen mapa. ....   | 77 |
| 19. Irudia: neurri-paketeek eragindako efektuen ikuspegi pribatu kualitatiboa, GN kontsumitzen duten EEtan. ....                                     | 78 |
| 20. Irudia: neurri-paketeek eragindako efektuen ikuspegi pribatu kualitatiboa, sistema termiko elektrikoak dituzten EEtan. ....                      | 78 |
| 21. Irudia: kostu-maila optimoekin lortuko litzatekeen EP-eb aurrezpenen banaketa. ....  | 81 |
| 22. Irudia: 14. EERI dagozkion hainbat berritze-paketeren KG banaketa. ....  | 82 |
| 23. Irudia: EE1 – GNrentzat lortutako KG kurba. ....   | 82 |
| 24. Irudia: EE5 - Erentzat lortutako KG kurba. ....  | 83 |
| 25. Irudia: birgaitze energetikoaren bidez lortu daitezkeen EP-eb aurrezki maximoak, horiekin lotutako KGaren igoeren arabera. ....                  | 84 |
| 26. Irudia: aurreztutako EP-eb unitate bakoitzeko beharrezkoa den KGren igoera, birgaitutako etxebizitza bakoitzeko EP-eb aurrezkiaren arabera. .... | 85 |



|   |    |
|---|----|
| 27. Irudia: kostu-maila optimo makroekonomikoak amortizazio-epe pribatu ezberdinekin lortzeko beharrezkoa izango litzatekeen diru-laguntza.....   | 87 |
| 28. Irudia: %2ko finantzazio-tasarekin EE bakoitzak behar duen diru-laguntzaren zatia, 15 urtetik beherako amortizazio-epea bermatzeko aldaera optimoetan. ....   | 88 |
| 29. Irudia: diru-laguntzen banaketa 15 urteko amortizazio-epearentzat.....  | 88 |
| 30. Irudia: Bilboko etxebizitzaren banaketa-funtzioa, fatxadak isolatzeko egin beharreko inbertsioaren arabera. WTP totala erakusten du, eta baina errenta baxuko etxeena ( $WTP_{eb}$ ) eta errenta ertain eta handikoena ere ( $WTP_{ea}$ ). .... | 94 |
| 31. Irudia: birgaitzeko probabilitatearen aldaketa diru-laguntzaren mailaren arabera. ....  | 95 |
| 32. Irudia: %60ko birgaitze-probabilitatera iristeko beharko lukeen diru-laguntza.....  | 96 |

## Taulen zerrenda

|   |    |
|---|----|
| 1. Taula: helburuen sailkapena artikuluen arabera. ....   | 27 |
| 2. Taula: bizitegi-sektore osoetako energia-kontsumoa modelizatzeko metodo bakoitzaren onurak eta ahuleziak. ....       | 31 |
| 3. Taula: ikuspegi bakoitzean kontuan hartutako kostu-elementuak.....   | 36 |
| 4. Taula: hiri-morfologia mota nagusien deskribapena. ....  | 46 |
| 5. Taula: erregai bakoitzaren konbertsio-faktoreak.....   | 56 |
| 6. Taula: banakako sistemen sasoiko batez besteko efizientziak. ....  | 57 |
| 7. Taula: Bilboko etxebizitza adierazgarri bakoitzaren berokuntza eta UBS ekoizpen-sistemen banaketa.....               | 61 |
| 8. Taula: kostu-maila optimoaren metodologia aplikatu zaien EEak.....   | 62 |
| 9. Taula: aztertutako EENen deskribapen orokorra. ....  | 64 |
| 10. Taula: EE bakoitzari aplikaturiko isolamendu lodiera-mailak eta birgaitutako fatxadaren U-balioak. ....             | 65 |
| 11. Taula: IL <sub>i</sub> -x isolamendu-maila bakoitzarekin simulatutako EEN pasiboen konbinazioak.....                | 65 |
| 12. Taula: simulatutako neurri pasibo eta sistemen konbinazioak.....  | 66 |
| 13. Taula: simulatutako eguzki-kolektore termikoen eta sistema fotovoltaikoen dimentsionamendua. ....                   | 67 |
| 14. Taula: EEN ezberdinentzako kontsideratutako bizitza-erabilgarria eta urteko mantentze-kostua.....                   | 67 |
| 15. Taula: DCEan erabilitako atributuak eta atributu-mailak. ....   | 69 |
| 16. Taula: laginaren ezaugarri sozioekonomikoen alderaketa EUSTATEk emandako Bizkaiko populazioaren banaketarekin. .... | 71 |
| 17. Taula: modelatutako eraikin-arketipoen urteko berokuntza-eskariak. ....   | 73 |
| 18. Taula: eraikuntza-aldiaren araberrako batez besteko berokuntza-eskariak.....  | 74 |
| 19. Taula: modelizatutako berokuntza-kontsumoaren alderaketa baliozkotze-datuekin.....                                  | 75 |
| 20. Taula: modelatutako berokuntza-eskarien alderaketa erregresioaren emaitzekin. ....                                  | 75 |
| 21. Taula: modelatutako bizitegi berokuntza-eskari agregatuaren alderaketa Bilboko datu historikoarekin. ....           | 76 |
| 22. Taula: GN kontsumitzen duten EEen kostu-maila optimoak. ....  | 79 |
| 23. Taula: sistema termiko elektrikoak dituzten EEen kostu-maila optimoak.....  | 80 |
| 24. Taula: agertoki desberdinetan balioetsitako batz besteko kostu-maila optimoko aldaerak. ....                        | 84 |
| 25. Taula: MXL ereduaren estimazioaren emaitza.....   | 90 |
| 26. Taula: aztertutako eraikin-arketipoen ezaugarri nagusiak. ....  | 95 |



27. Taula: belioetsitako probabilitate aldaketak, oinarritzko kasuarekiko, atributu-aldaketa bakoitzarentzako..... 97



## Glosarioa<sup>1</sup>

|        |   |
|--------|---|
| AIC    | Akaike information criterion  |
| ASC    | Alternative-specific constant   |
| BRL    | Base Refurbishment Level  |
| CNMC   | Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia  |
| CTE    | Código Técnico de Edificación   |
| DCE    | Discrete Choice Experiment  |
| E      | Emisibitatea  |
| EA     | Etxebizitza Adierazgarria   |
| EB     | Europako Batasuna   |
| EE     | Erreferentziatzko eraikina  |
| EEE    | Energiaren Euskal Erakundea   |
| EEN    | Eraginkortasun energetikoko neurria   |
| EEZ    | Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria   |
| EF     | Energia finala  |
| EIT    | Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa  |
| EP     | Energia primarioa   |
| EP-eb  | Energia Primario ez-berriztagarria  |
| ERESEE | Estrategia a largo plazo para la Rehabilitación Energética en el Sector de la Edificación en España |
| EUSTAT | Euskal Estatistika Erakundea  |
| GBA    | Goi bero-ahalmena   |
| GHG    | Greenhouse gas  |
| GN     | Gas naturala  |
| GTR    | Grupo de Trabajo sobre Rehabilitación   |
| IDAE   | Instituto para la Diversificación y Ahorro de la Energía  |
| INE    | Instituto Nacional de Estadística   |
| KG     | Kostu Globala   |
| LCA    | Life cycle assessment   |
| LRT    | Likelihood ratio test   |
| MNL    | Multinomial logit   |

<sup>1</sup> Akronimo batzuk ingelesez mantendu dira, beren esparruan ezagunagoak baitira.



|       |   |
|-------|---|
| ML    | Maximum-likelihood                                    |
| MXL   | Mixed logit   |
| NZEB  | Nearly zero-energy building                           |
| PGL   | Petrolio Gas Likidotua                                |
| PNIEC | Plan Nacional Integrado de Energía y Clima 2021-2030  |
| RITE  | Reglamento de Instalaciones Térmicas en los Edificios |
| RUT   | Random Utility Theory                                 |
| SIC   | Schwarz information criterion                         |
| TEP   | Tokiko Ekintza Plana                                  |
| U     | Transmitantzia termikoa                               |
| UBS   | Ur Bero Sanitarioa                                    |
| WTP   | Willingness to pay                                    |

## Lehenengo Atala: ikerketaren planteamendua eta garapena

### 1. Sarrera

#### 1.1 Testuingurua

##### 1.1.1 Aurrekariak


Atmosferako CO<sub>2</sub>-aren batez besteko kontzentrazioak 403 ppm-ak gainditu ditu jada, XIX. mendearen erdialdean baino %40 handiagoa izanik [1]. Aldi berean, ebidentzia zientifikoak erakutsi du gizakiak eragindako tenperatura globalaren igoera, industriaurreko mailarekiko, 1°C-tik gorakoa dela dagoeneko, eta 0,2°C handitzen ari dela hamarkada bakoitzeko [2]. Europako Batzordearen arabera, azken bi hamarkadetan Europan erregistratutako urterik beroenetako 18 izan ditugu [3]. Joera argia da: larrialdi klimatikoak berehalako ekintza eskatzen du.

Bestalde, Europar Batasunaren (EB) energia-inportazioekiko mendekotasuna, bereziki petrolio eta gas naturalarekiko, energia-horniduraren segurtasunarekin lotutako kezka politikoen oinarria da. 2019an, EBko energia-beharren %61 (Espainiaren kasuan %80) inportazioen bidez bete ziren [4], eta horrek agerian uzten du hirugarren herrialdeekiko duen zaugarritasun-maila. Datozen hamarkadetarako aurreikusitako energia-kontsumo globalaren igoerak, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeen hazkunde ekonomikoak eta demografikoak bultzatuta [5], energia-baliabideen lehia areagotu besterik ez du egingo. EBk badaki hori, eta badaki *“Europar Batasunaren oparotasuna eta segurtasuna energia-hornidura egonkor eta ugariaren mende daudela”* [6].

Europako epe luzerako ikuspegi estrategikoak [3], EBk erronka horiei aurre egiteko duen politikaren oinarria dena, 2050ean klimatikoki neutroa den ekonomia baterantz jotzeko konpromisoa berretsi egin zuen. Horretarako, berotegi-efektuko gasen (GHG, ingelesez) emisioak %80-%95a murriztu behar dira, 1990eko datuekin alderatuta. Tarteko helburu gisa, 2030erako helburuen artean GHGen emisioak %40 murriztea, energia berriztagarrien kuota kontsumoaren %32 izatea eta eraginkortasun energetikoa %32,5ean hobetzea daude. Izan ere, aurreztearen bidez saihestutako energia-kontsumoa “energia-baliabide” garrantzitsua bihurtu da EBrentzat.

EBan eraikuntza-sektoreak GHG emisioen %36 sortzen du, eta azken energia-kontsumoaren %40aren erantzule da. Tasa altu horien arrazoietakoa bat EBko eraikinen %35ak 50 urte baino gehiago izatea da [7]. Europako egungo bizitegi-eraikin gehienak 1940 eta 1970 artean eraiki ziren [8]. Beraz, karbono gutxiko ekonomia lehiakor baterako trantsizioan, eraikuntzaren sektorea eraginkortasun energetikorako potentzial handiena duen sektoretako bat da.

Espainiari dagokionez, etxebizitza-sektorearen energia-kontsumoak joera lau bat erakusten du (1. Irudia), 2008ko krisiak eragindako geldialdia eta kontsumo globalaren murrizketa gorabehera. Etxebizitza-sektoreak Espainiako energia-kontsumo osoaren %17 hartzen duela kontuan hartuta (%25, energia elektrikoaren kontsumoa soilik kontuan hartuz gero), gutxiagotzeko erakutsi duen erresistentziak energia-eraginkortasuneko politikak diseinuan funtsezko sektorea bihurtzen du.



### 1. Irudia: Espainiako etxebizitza-sektoreko energia-kontsumoaren bilakaera (GWh) [9].

Bestalde, eraikinen errotazio-tasa nahiko txikia da, batez ere herrialde industrializatuetan [10] eta, hori dela eta, 2050ean existituko diren eraikinen %80 jadanik eraikita daudela estimatzen da [11]. Beraz, eraikin berriek energia-kontsumoaren eta GHG emisioen murrizketan izan dezaketen eragina mugatua da, ezinbestekoa bihurtuz egungo eraikin-parkearen eraginkortasun energetikoa hobetzea. Hau sustatzeko politikak ezarri diren arren, European eraikinen urteko berritze-tasak %0,4etik %1,2ra bitartekoa izaten jarraitzen du [12].

Egun, eraikin-parkearen birgaitze energetikoa lehentasun bat bilakatu da EBrentzat, funtsezkoa baita epe luzeko klima- eta energia-helburuak lortzeko.

#### 1.1.2 Lege-esparrua

Azken hamarraldian, eraikinen eraginkortasun energetiko handiagoa sustatzera bideratutako Europako lege-esparruak bi arau hauek izan ditu oinarri: 2010/31/EB Zuzentaraua [13], eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzkoa, eta 2012/27/EB Zuzentaraua [14], eraginkortasun energetikoari buruzkoa.

2010/31/EB Zuzentarauak –2002/91/EB Zuzentaraua [15] moldatu egin zuena–, eraikinen eraginkortasun energetikoa kalkulatzeko esparru orokor bera sortu zuen EBko Estatu guztientzat. Halaber, besteak beste:

- Salgai edo alokagai jartzen diren etxebizitza guztietan eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria (EEZ) izateko betekizuna ezarri zuen.
- Eraginkortasun energetikoaren kostu-maila optimoaren ikuspegia sartu zuen, hots, eraikinaren balio-bizitzaren zikloan kosturik txikiena dakarren esku-hartze energetikoaren maila. Era berean, EBko Estatuak beren kostu-maila optimoak aldizka kalkulatu eta jakinarazteko betebeharra ezarri zuen, esparru metodologiko konparatibo beraz baliatuta, emaitzen arabera zehazteko arautegi nazionalen indarrean dauden eraginkortasun energetikoaren gutxieneko betekizunak. Hortaz, ondoren, EBko Estatu guztientzako esparru metodologikoa garatu zen, Europako Batzordearen 244/2012 Erregelamendu Delegatuaren [16] eta horrekin batera doazen gidalerroen bidez [17].

- “Energia-kontsumo ia-nuluko eraikina” (*Nearly Zero Energy Building*, NZEB) kontzeptua definitu zuen, eta EBko Estatu bakoitzari eskatu zion hari loturiko energia primarioaren (EP) zenbakizko adierazlea zehazteko, ezaugarri nazionalen arabera. 2021eko urtarriletik aurrera, eraikin berriek baldintza hori bete behar dute.

Lehendik dauden eraikinetako etxebizitzak salgai edo alokagai jartzen direnean EEZ egin beharra 235/2013 EDaren bitartez [18] egokitu zitzaion Espainiako ordenamendu juridikoari, ziurtagiriak egiteko oinarrizko prozedura onartuz. Harrezkerotik egindako EEZk erabiltzeko aukera aztertzen du lan honek, simulazio-softwareren bidez eraikitako eraikinen eredu fisikoak baliozkotzeko.

Halaber, bizitegi-parkearen kostu-maila optimoaren kalkularen txostenak bidaltzen dizkio Espainiak EBri. Azken txostenak, 2018koak [19], Espainiako bizitegi-parkea familia bakarreko erreferentziatzko eraikin biren eta apartamentu-blokeen beste bi eraikinen bidez karakterizatu du, eta horien jarduera energetikoaren kostu-maila optimoak kalkulatu ditu. Nabarmentzekoa da erreferentziatzko eraikin-kopuru hain txikiaren erabilera, egungo bizitegi-parkearen tamaina handiarekin eta heterogeneotasunarekin alderatuta. Hortaz, tesi honek kostu-maila optimoak kalkulatzeko metodologia eskala txikiago batean aplikatzea proposatzen du, hirikoan, alegia. Horrela, nahiko uniformeak eta homogeenak diren eraikinen tipologiak arabera sailkatu daiteke bizitegi-parkea, eraikin ezberdinen arteko jarduera energetikoaren kostu-maila optimoen desberdintasuna ezagutu ahal izateko eta, eraikinak birgaituz gero, horiek NZEBen eraginkortasun energetikoaren maila lortzearen bideragarritasuna aztertzeko. Azken hau 2019ko abenduan zehaztu zen Eraikuntzaren Kode Teknikoan (CTE) [20].

Bestetik, 2012/27/EB Zuzentarauak eraginkortasun energetikoa sustatzeko neurrien esparru bera ezarri zuen Estatu guztientzat, EBk 2020rako eraginkortasun energetikoaren gainean zuen helburua betetzen zela ziurtatzeko eta ondoren hobekuntzak egiteko bidea prestatzeko. Neurri horien artean, eraikuntza-sektoreari dagokionez, hurrengo azpimarratu beharra dago: epe luzerako estrategia taxutzeko eskatzen zien EBko Estatuei, egungo bizitegi-parkea birgaitzeko inbertsioak mobilizatzeko.

Espainiak agindu hori bete egin du Espainiako Eraikuntza-sektoreko Birgaitze Energetikorako Epe Luzeko Estrategia (ERESEE) prestatuz. Estrategia hori 2014an zehaztu zen [21], eta hiru agertoki definitzen zituen 2014tik 2020ra bitartean birgaitze energetikorako: oinarrizko agertokia, eraikinen eraginkortasun energetikoa hobetzeko dirulaguntzak, aurretik hitzemandakoak, luzatzearen ondorio dena, eta 6 urte horietan, hurrenez hurren, 1,4 eta 2 milioi etxebizitzaren birgaitze energetikoa kontuan hartzen zuten agertoki ertain eta altuak.

Estrategia ezarri eta hurrengo urteetan etxebizitzak birgaitzeko obra-zuzendaritzako oniritzi-kopuruaren bilakaera oso ona izan bazen ere, bizitegi-parkea berritzeko tasa balio horietatik urrun dago oraindik Espainian. Egoera horren erakusgarri da azken urteetan ezarritako laguntza-programa nagusienetako batzuen esparruan energetikoki birgaitutako etxebizitzakopurua: PAREER-CRECE programak 42.000 etxebizitzaren eraginkortasun energetikoa hobetzea diruztatu zuen 2013-2016 denboraldian, eta horren jarraipenak, PAREER II programak, beste 30.000 etxebizitzatarako laguntza gehigarriak onartu zituen 2017tik 2020ko martxora bitartean [9].

Bien bitartean, Parisko Akordioaren konpromisoak betetze aldera eta munduko energia-trantsizioa lideratzen jarraitzeko, 2019an, EBk politika energetikoaren esparrua berraztertu zuen, eta neurri batzuk hartu zituen *Energia garbia europar guztientzat* izenburupean [22], besteak beste:

- 2018/844 (EB) Zuzentaraua [23], 2010/31/EB Zuzentaraua aldatu zuena, eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzkoa. 2050ean baino lehen eraginkortasun energetiko handiko bizitegi-parke deskarbonizatuak lortzeko helburua ezarri zen, lehendik dauden eraikinak NZEB eraikin bilakatzea errazteko.
- 2018/2002 (EB) Zuzentaraua [24], 2012/27/EB Zuzentaraua aldatu zuena, eraginkortasun energetikoari buruzkoa. 2030erako eraginkortasun energetikoa gutxienez %32,5 handitzeko helburua ezarri zen, 2007ko ereduaren proiektioei zegokienez.
- 2018/1999 Erregelamendua [25], Energiaren Batasunaren eta Klimaren aldeko Ekintzaren gobernantzari buruzkoa, EBko Estatuak hurrengoak definitu beharra xedatu zuena:
  - Energia eta Klimaren 2021etik 2030erako Plan Nazional Integratua, hurrengo gaien gainean helburuak eta politikak aurkezteko: deskarbonizazioa, eraginkortasun energetikoa, energia-segurtasuna, energiaren barne-merkatua eta ikerketa, berrikuntza eta lehiakortasuna.
  - Epe Luzerako Estrategia GHGen isuriak murrizteko, gutxienez 30 urteren buruan.

Oraintsu, 2018/1999 Erregelamendua betetze aldera, Espainiako Gobernuak ezarritako Epe Luzerako Estrategia [26] eta Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratua (PNIEC [27]) koherentziaz taxutu dira, epe ertaina (2030) eta epe luzea (2050) ikuspegi estrategiko bakarrean integratuz, neutraltasun klimatikorantz aurrera egiteko. Hauxe da ibilbide-orria datorren hamarraldirako:

- EBk onartutakoaren arabera, 2030erako eraginkortasun energetikoa %32,5 handitzeko helburua bere egitea (%39,5 handitzea espero da).
- Bizitegi-parkea 2050erako deskarbonizatzeko helburua bere egitea, 2030erako etxeko energia 26.394 GWh aurrezteko epe ertainerako helburua zehaztuta.

2030erako aurrezki-helburu hori etxeko berokuntza eta ur bero sanitarioaren (UBS) erabilera biltzen da batik bat, eta aurrez ikusten denez, etxeko aurrezki energetiko guztiaren %55 eta %28 izango lirake, hurrenez hurren. Aurrezki hori lortzeko bidea Espainiako ERESEE strategiaren azken eguneraketan xehatu da, eta horrek adierazi duen bezala, ez da nahikoa etxeko berokuntza eta UBS ekipamendu eta instalazioetan bakarrik esku hartzea: nahitaezkoa da, gainera, 2020-2030 denboraldian gutxienez 1.200.000 etxebizitzaren inguratzaile termikoaren eraginkortasun energetikoa hobetzea. Hori lortzeko, urtean 30.000 etxebizitza energetikoki birgaitzetik, 2030ean 210.000 eta 300.000 artean birgaitzera igaro beharko da.

Halaber, 2020ean Europako Batzordeak Europako Itun Berdea onartu zuen [12], hots, ekimen politiko multzo bat, 2030ean GHGak %55 murrizteko eta 2050ean neutraltasun klimatikoa

lortzeko helburu nagusiekin. 2021eko uztailean, xede hauek lege bihurtu ziren Europako Klima Legearen bidez [28].

Europako Itun Berdeak klima eta energiaren arloko politikaren oinarri gisa definitu zuen efizientzia energetikoa, ahaleginak areagotu beharreko eremuetako bat eraikuntza-sektorea izanik. Horrela, Itun Berdearen esparruan, 2020ko urrian Europako Batzordeak Berritze Olatuaren estrategia aurkeztu zuen [29], eraikinen birgaitze energetikoa sustatzeko. Honen helburua da, gutxienez, eraikinen urteko berritze-tasa bikoiztea 2030erako.

Egun, eraikuntzaren sektorea eskulanean intentsiboa dela eta tokiko enpresetan oinarrituta dagoela kontsideratuz, eraikinen birgaitze energetikoak funtsezko ekarpena izan dezake COVID-19 pandemia osteko susperraldi ekonomikoan. Alde horretatik, *NextGenerationEU* berreskuratzeko-funtsak eta urte anitzeko finantza-esparruak, birgaitze hauek aktibatzen erabil daitezkeen aurrekaririk gabeko baliabide-bolumena eskainiko dute.

Aldi berean, Berritze Olatuaren estrategiaren esparruan, funtsezko ekimenetako bat Eraikinen Efizientzia Energetikoaren Zuzentarauaren berrikusketa da. 2021eko abenduan Europako Batzordeak proposaturiko aldaketek [30], besteak beste, jarduera energetiko minimozko arauak pixkanaka sartzera aurreikusten dute, jarduera txarreko eraikinen birgaitzea bultzatzeko. Proposamen horrek 2030rako eraikin-sektorearen emisioak %60 murriztea du helburu, 2015ekoekin konparatuz.


## 1.2 Tesiaren motibazioa eta ekarpena

Bizitegi-sektoreko energia-kontsumoa eta CO<sub>2</sub> emisioak murrizteko eta, aldi berean, hazkunde ekonomikoa sustatu eta ongizatea hobetzeko, energia-plangintza adimentsua beharrezkoa da. Gaur egun, energia aurrezteko politikak ikuspegi orokor batean oinarrituta daude, Estatu-mailako politika amankomuna izan ohi delako.

Alde horretatik, tokiko agintariek laguntza handia izan dezakete eraginkortasun energetikoko politikak ezartzeko. Hala, Europako Batzordeak sustatutako ekimenen artean Alkateen Ituna dago, EBko klima- eta energia-helburuak aplikatzeko konpromisoa hartu duten milaka udal-gobernu biltzen dituen [31]. Prozesu horretan tokiko agintariei laguntzeko, gero eta joera handiagoa dago modelizazio energetikoko tresnak hiri-mailara egokitzeko.

Eremu horretan laguntzeko asmoz, tesi honek hiru ikerketa-ildotan sakontzen du, 2. Irudian adierazten direnak. Ildo horietako bakoitzak, tesi honek aurkezten duen metodologiaren fase bat osatzen du.

**Lehenengo faseak**, hiri-mailako bizitegi berokuntza-kontsumoa karakterizatzeko metodologia bat aurkezten du. Metodologia horrek, hurbileko ikuspegi baten bidez, egungo bizitegi-parkea etxebizitza-kategoria ezberdinetan sailkatzea baimentzen du, energia-eraginkortasuneko politika egokienak ikertzeko oinarri gisa. Hain zuzen ere, bigarren eta hirugarren faseetan burututako azterketak karakterizazio honen emaitzetan oinarritzen dira. Proposaturiko metodologia Bilboko bizitegi-parkean implementatu da, eraikin-arketipo nagusiak identifikatuz.



## 2. Irudia: tesi honetan jorratutako hiru ikerketa-ildoak.

Karakterizazio horretan oinarrituta, eta eraginkortasun energetikoa sustatu beharreko lehentasunezko eremuak identifikatzeko asmoz, **bigarren fasean** birgaitze energetikoko neurri ezberdinen azterketa tekniko-ekonomikoa burutu da. Europako Batzordeak zehaztutako kostumaila optimoaren metodologia egokituz, eraikin mota bakoitzean sustatu litekeen energia-jarduera tarte egokia identifikatu eta hori lortzen lagun litzaken pizgarri ekonomikoek amortizazio-epetan izango luketen eragina ebaluatu da.

Hala ere, analisi tekniko-ekonomiko horrek ez ditu etxebizitzaren arteko desberdintasun sozioekonomikoak kontutan hartzen. Izan ere, etxejabe bakoitzak modu desberdinean balora ditzake birgaitze energetikoak dakartzan onurak eta, ondorioz, birgaitze hori aurrera eramateko prestasuna asko alda liteke kasu batetik bestera.

Beraz, bigarren fasearen azterketa osatzeko eta giza faktore hori aztertzeko, **hirugarren fasean** etxejabeek beren fatxadak termikoki isolatzeko erabakia hartzeko prozesua ikertu da. Azken hau baldintzatzen duten faktoreak ebaluatuz, aukera diskretuko eredu bat garatu da, zeinaren aplikazioa Espainian oraindik ere mugatua den arlo espezifiko honetan. Tesi honek hutsune hori bete nahi du hein batean.

Garatutako aukera diskretuko ereduak, hainbat laguntza-mekanismok fatxaden birgaitze energetikoaren probabilitatean izan ditzaketen eragina ebaluatzeko aukera ematen du. Etxebizitza-kategoria bakoitzean pizgarri ezberdinek izan dezaketen eraginkortasuna balioestean, finantza-baliabide publikoak ahalik eta hobekien esleitzen lagun dezake.

Bestalde, tesi honek bi eremu konbinatu ditu: modelizazio-eremua eta eremu esperimentalak. Alde batetik, hainbat software erabili dira analitikoki eredu ezberdinak eraikitzeko, hala nola DesignBuilder [32], Matlab [33], SAM [34] eta R [35]. Bestetik, modelizazio-eremu hori landa-ikerketen bidez bildutako datuekin elikatu eta balioztatu da uneoro, ereduak errealitatea fidelki adierazten dutela bermatuz.

Laburbilduz, tesi honetan garatutako metodologiak eraginkortasun energetikoko politikak formulatzeko informazioa ematen du, laguntza-mekanismok ezberdinek birgaitze energetikoko



inbertsio pribatuen sustapenean izan ditzaketen eragina iragarri. Azken buruan, burututako ikerketaren jomuga gaur egungo eraikinen energia-aurrezkia eta birgaitze-tasa areagotzea izan da.

### 1.3 Tesiaren egitura

Tesi hau artikulu bildumaren bidez aurkeztutako lana da eta argitaratutako hurrengo hiru artikuluek osatzen dute.

1. FERNANDEZ, J.; DEL PORTILLO, L.; FLORES, I. *A novel residential heating consumption characterization approach at city level from available public data: Description and case study*, Energy and Buildings, 2020, vol. 221, 110082.
2. FERNANDEZ, J.; FLORES, I.; DEL PORTILLO, L. *Identification of cost-optimal levels for energy refurbishment of a residential building stock under different scenarios: Application at the urban scale*, Energy & Buildings, 2021, vol. 240, 110880.
3. FERNANDEZ, J.; FLORES, I.; DEL PORTILLO, L.; MARIEL, P.; HOYOS, D. *Accounting for homeowners' decisions to insulate: A discrete choice model approach in Spain*, Energy & Buildings, 2022, vol. 273, 112417.

Artikulu hauek I. Eranskinean agertzen dira.

Artikulu bakoitza 2. Irudiaren ikerketa-ildo edo fase bati dagokio, eta horretan garatutako ikerketa aurkezten du. Hala, artikulu bakoitzak deskribatzen dituen egungo egoeraren analisia, metodologia, emaitza eta ondorioak, guztiak batera, auto-esplikatzaileraren unitate bat osatzen dute.

Idazlan honek, batez ere, artikulu horiek osatzea du helburu, burututako ikerketaren haria aurkeztuz. Halaber,

- Esparru teoriko eta metodologiaren deskribapena hedatzen du, artikuluen ohiko luzerak ez baitu horretan sakontzea baimentzen.
- Lehenengo fasean garatutako metodologiaren inplementazioan, hots, Bilboko bizitegi-parkearen karakterizazioan, sakontzen du. Inplementazio hau II. Eranskinean aurkezten da.

Tesia sei kapitulutan banatzen da. 1. kapituluak bizitegi-sektorearen energia-kontsumoa murriztearen garrantzia deskribatzen du, eta hori lortzeko EBk azken hamarkadan garatutako lege-esparrua. Halaber, tesiaren motibazioa eta ekarpena aurkezten ditu, eta bere egitura deskribatzen du.

2. kapituluan ikerketaren hipotesia eta tesiaren helburuak agertzen dira, horietako bakoitza zein artikulutan landu den laburbilduz.

Esparru teorikoa eta metodologia 3. kapituluan lantzen dira. 3.1.1, 3.1.2 eta 3.1.3 atalek ikerketa-ildo edo fase bakoitzaren oinarri teorikoak laburbiltzen dituzte eta, ondoren, horietako bakoitzean jorratutako metodologian 3.2.1, 3.2.2 eta 3.2.3 ataletan sakontzen da, hurrenez hurren.

Metodologia osoa Bilbo hiriaren bizitegi-parkeari aplikatu zaio. Hala, balioetsitako emaitzak, eta horiei buruzko eztabaida, 4. kapituluan aurkezten dira.

Halaber, idazlan honetan zehar erabilitako erreferentzia iturriak 5. kapituluan adierazten dira. Horietaz gain, artikuluko bakoitzak horretan erabilitako beste batzuk adierazten ditu ere.

Azkenik, 6. kapituluak tesiaren ondorio eta ekarpen nagusiak laburbiltzen ditu, eta baita etorkizunerako ikerketa-lerroak ere.

Esandakoak esanda, bi modutan burutu daiteke tesiaren irakurketa:

- Fase metodologikoen arabera, idazlaneko kapituluaren ordenean; hau da, esparru teoriko, metodologia, emaitzak eta ondorioen egiturarekin, atal horietako bakoitzean hiru ikerketa-ildoak jarraian aurkezten direlarik.
- Ikerketa-ildoak bereiziz, eta bakoitzaren esparru teorikoa, metodologia, emaitzak eta ondorioak jarraian irakurriz. Horrela, adibidez, lehenengo ikerketa-ildoaren garapena 3.1.1, 3.2.1, 4.1 eta 6.1 ataletan aurkituko litzateke.

## 2. Ikerketa hipotesia eta tesiaren helburuak

### 2.1 Ikerketa hipotesia

Tesiaren motibazioko atalean azaldutakoaren arabera, tesi honetan frogatu nahi den hipotesia horrela laburbil daiteke:

*Bizitegi-eraikinen modelizazio energetikoa, birgaitze neurriekin lotutako alderdi tekniko-ekonomikoaren eta giza portaeraren azterketekin konbina daiteke, eraginkortasun energetikoa sustatzeko agertoki ezberdinen eragina balioesteko.*

*Ikuspegi integral horrekin erdietsitako emaitzek informazio garrantzitsua eman dezakete tokiko agintariak birgaitze energetikoko politikak ezartzen laguntzeko.*

### 2.2 Tesiaren helburuak

Tesi honen helburu nagusia bizitegi-eraikinen birgaitze energetikoa era integralean aztertzea izan da, prozesu horren alderdi ezberdinak bildu eta erlazionatzen dituen esparru orokor bat eratuz.

Garatutako ezagutza eraginkortasun energetikoko politikak definitzen laguntzera bideratuta dago, finantza-baliabide publikoen ustiapen eraginkorra lortzeko.

Helburu nagusia kontuan hartuta, helburu zehatzak hurrengoak izan dira:

1. Bizitegi-parkeen berokuntza-eskaria fidelki karakterizatzeko metodologia bat garatzea, hiri-mailari egokituta eta egungo metodoen ahuleziak gainditzera bideratuta dagoena.
2. Metodologia horren bideragarritasuna erakustea, Bilboko bizitegi-parkeari aplikatuz.
3. Gaur egungo energia-kontsumoa eta CO<sub>2</sub> emisioak murrizteko potentziala hurbileko ikuspegi batetik kuantifikatzea, behetik gorako prozesu bat jarraituz.
4. Eraginkortasun energetikoko maila optimoak hiri eskalan identifikatzea, bizitegi-parkearen heterogeneotasuna atzemateko eta Estatu mailan adierazitakoekin egon daitezken aldeak frogatzeko.
5. Etxejabeek beren etxebizitzak birgaitzeko duten alde-aurretiko jarrera aztertzea, eta baita erabaki hori hartzeko prozesuan eragiten duten faktoreak ere.
6. Finantza-pizgarri ezberdinek erabaki hori baldintzatu dezaketen neurria estimatzea, etxebizitzaren ezaugarrien arabera.

1. Taulak helburu bakoitza zein artikulutan landu den laburbiltzen du.

1. Taula: helburuen sailkapena artikuluen arabera.

| Helburu zehatza | Artikulua    |
|-----------------|--------------|
| 1               | 1. artikulua |
| 2               |              |
| 3               | 2. artikulua |



|   |              |
|---|--------------|
| 4 |              |
| 5 | 3. artikulua |
| 6 |              |

### 3. Esparru teorikoa eta metodologia

#### 3.1 Esparru teorikoa

##### 3.1.1 Eraikuntza parkearen karakterizazioa

Eraginkortasun energetikoko politikak definitzeko, funtsezkoa da lehenik eta behin eraikin-parkearen energia-kontsumoaren banaketa modu fidagarrian karakterizatzea. Horrela, eraikin-parkearen ereduaren garapena garrantzitsua da, alde batetik, eredu horiek egungo energia-kontsumoari buruzko informazio kuantitatiboa eskaintzen dutelako eta, bestetik, politika-neurri ezberdinek eragin dezaketen energia aurrezpena aurreikustea ahalbidetzen dutelako.

Bizitegi-sektore osoetako energia-kontsumoa modelizatzerakoan, bi ikuspegi nagusi bereizten dira: goitik beherakoa eta behetik gorakoa [36] [37]. Terminologiak erabilitako datu-sarrerak duten mailari - bizitegi-sektore osoarekiko - egiten dio erreferentzia. Beraz, teknika bakoitza sarrerako informazio mota desberdinetan oinarritzen da eta, halaber, aplikazio ezberdineko emaitzak ematen ditu.

Goitik beherako metodoek energia-sarbegi gisa hartzen dute bizitegi-sektore guztia eta, energia-kontsumo historikoan oinarrituz, kontsumoan influentzia izan dezaketen hainbat faktoreen eragina aztertzen dute; hala nola, adierazle makroekonomikoak (barne-produktu gordina, enplegu-tasak, prezio-indizeak, etab.), baldintza klimatikoak, aparatuen jabetza-estimazioak [36].

Hala ere, metodo hauek ez dituzte energia kontsumoan eragina duten banakako osagai fisikoak esplizituki modelatzen eta, beraz, ez dira gai teknologia-aldaketen eragina xehetasunez atzemateko, ezta teknologia ezberdinekin lotutako politikak aztertzeko ere.

Bestetik, behetik gorako metodoak osagai banatuen datuetatik abiatzen dira, desagregazio-maila era askotakoa izan daitekeelarik: azken energia-erabilerak, etxebizitza indibidualak edota etxebizitza taldeak. Ondoren, lortutako emaitzak agregatu egiten dira, osagai bakoitzari dagokion pisuaren arabera, eraikin-parke osoaren energia kontsumoa adierazteko. Halaber, sarrerako datuen arabera 2 motatako behetik gorako metodoak daude:

- Metodo estatistikoak, datu historikoetan eta euren erlazioen azterketa estatistikoan oinarritzen direnak. Hainbat teknika existitzen diren arren, behetik gorako metodo estatistikoaren artean erregresio metodoak dira nagusi.

Neurtutako energia-kontsumo datu errealean oinarritzen direnez, metodo hauen abantaila nagusia zorizko izaera duten giza portaerek energia-kontsumoan duten eragina barneratzeko gaitasuna da [38]. Hori dela eta, euren erabilera interesgarria da ingeniari-tza-metodoetan oinarritutako ereduak kalibratu eta baliozkotzeko.

Hala ere, metodo estatistikoek ez dute xehetasun ezta malgutasun handirik eskaintzen, eta, beraz, ahalmen mugatua dute energia-eraginkortasun neurri potentzialen eragina ebaluatzeko.

- Ingeniari-tza-metodoak, zeinen funtsa eraikinen fisikan oinarritutako kalkuluak dira. Hori dela eta, bizitegi-sektoreko energia kontsumoa kalkulatzeko gai diren metodo bakarrak dira, informazio historikoaren beharrik gabe.

Ingeniaritza-metodoak hiru teknika nagusitan sailka daitezke; hain zuzen ere distribuzioetan, arketipoetan eta laginetan oinarritutakoak. Euren artean, eraikin arketipoak dira erabilienak. Azken hauek eraikin adierazgarri (arketipo) multzo ezberdinetan sailkatzen dute etxebizitza-parkea, hainbat irizpideren arabera: ezaugarri geometrikoak, eraikuntzaren ezaugarriak, erabilitako sistema aktiboak, etab. Arketipo bakoitzari dagokion energia kontsumoa kalkulatu ondoren agregatu egiten da, arketipo bakoitzaren pisuaren arabera, bizitegi-sektore osoko kontsumoa lortzeko.

Metodo hauek esplizituki kalkulatzen dute, erlazio fisiko eta termodinamikoetan oinarritutako ereduak eraikiz, azken energia-erabilera bakoitzari dagokion energia-eskaera. Beraz, energia aurrezpen potentzial nagusia duten arloak identifikatzeko gai dira eta, aldi berean, metodo egokienak dira teknologia ezberdinek eta neurri politikoek CO<sub>2</sub> isurien murrizketan izan dezaketen inpaktuak aztertzeko [39].

Konplexutasun eta desagregazio-maila ezberdineko eredu ugari daude, euren emaitzen aplikagarritasuna ezberdina izan daitekeelarik. Adibidez, eredu jakin baten bereizmena egokia izan liteke maila nazionaleko iragarpenetarako, baina ez, ordea, eskala espazial finago baterako, hala nola udal-mailarako. Oro har, eredu baten desagregazio-maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta emaitza zehatzagoak bueltatuko ditu energia-eraginkortasun neurri ezberdinak konparatzean.

Hala ere, metodo hauen eragozpen nagusia osagai desagregatu bakoitzaren zehaztapenak eskatzen dituen datu enpiriko ugariaren beharra da. Eskuragarri dagoen datu kopuruak edo, zehazkiago, datu faltak, baldintzatzen baitu maiz ereduaren egitura. Ereduak eraikitze nahikoa laguntza-datu ez dagoenean eta suposatze asko egin behar direnean, ereduak askatasun-gradu gehiegi izan ditzake eta, beraz, bere iragarpenetan fidagarritasuna galtzeko arriskua.

Halaber, metodo hauen beste ahulezi nagusia modelizatutako eraikinen biztanleen portaera energetikoaren suposizioetan datza, zeinak zorizko izaera duten portaera errealetatik aldentzeko arriskua duen.

2. Taulak aurkeztutako metodo bakoitzaren onurak eta ahuleziak laburbiltzen ditu. Garatutako metodologiak behetik gorako ingeniaritza-metodo batean oinarritzen da, eraikuntza-parke osoa adierazten duten eraikin-arketipoen ereduak eraiki eta baliozkotzea ahalbidetzen duena. Halaber, metodologia bereziki bideratuta dago metodo hauen ohiko eragozpenak gainditzera, hala nola, sarrera-informazio ugariaren beharra eta giza portaera atzemateko zailtasuna, eraikitzen diren ereduaren sinesgarritasunean eragina izan dezaketenak. Hala, helburua oinarri fidagarri bat erdiestea da, eraginkortasun energetikoko neurriak eta politikak ebaluatzeko tresna gisa.

2. Taula: bizitegi-sektore osoetako energia-kontsumoa modelizatzeko metodo bakoitzaren onurak eta ahuleziak [37].

|                    | Goitik beherako metodoak  | Behetik gorako metodo estatistikoak  | Behetik gorako ingeniari-tza metodoak  |
|--------------------|---|--|--|
| <b>Onurak</b>      | Energia sektorearen eta ekonomiaren erlazioa aztertzea                                    | Giza-portaera energetikoaren eragina atzemateko gai izatea                   | Egungo eta etorkizuneko teknologiak xehetasunez deskribatzeko gai izatea                           |
|                    | Deskribapen teknologiko xeheak ekiditea   | Garatzeko eta erabiltzeko errazak izatea                                     | Eraginkortasun energetikoko neurri ezberdinen eragina estimatzeko gai izatea                       |
|                    | Eskuragarri daude datu ekonomiko agregatuak erabiltzea                                    | Xehetasun handiko daturik behar ez izatea                                    | Energia eskaria asetzeko beharrezkoa den teknologia konbinazio egokiena identifikatzeko gai izatea |
| <b>Eragozpenak</b> | Energia-ekonomia erlazio historikoan oinarritzen dira, etorkizuneko bilakaera iragartzeko | Datu historikoetan oinarritzen dira, etorkizuneko bilakaera iragartzeko      | Giza-portaera energetikoaren eragina atzemateko ezintasuna   |
|                    | Teknologia ezberdinekin lotutako politikak aztertzeko ezintasuna                          | Lagin handiak behar izatea   | Datu kopuru handiaren beharra  |
|                    | Merkatu efizienteak kontsideratzea, "efizientzia hutsune" gabekoak                        | Eraginkortasun energetikoko neurri ezberdinen eragina estimatzeko ezintasuna | Energia eta makroekonomiaren arteko erlazioa kontuan ez izatea                                     |


### 3.1.2 Energia-jardueraren kostu-maila optimoa

Lehen aldiz, 2010/31/EB Zuzentarauak [13] esparru bat definitu zuen, eraikinen energia-jarduera epe luzera hobetzeko baldintzak sortu zituen. Zuzentarauaren arabera, aurrerantzean estatu kideek eraikinentzako energia-jardueraren gutxieneko eskakizunak kostu-maila optimoa lortzeko asmoz ezarri behar dituztela, kalkulu-metodologia harmonizatu bat aplikatuz. Hala, Europako Batzordeak 244/2012 Erregelamendu Delegatuaren [16] garatu zuen kostu-maila optimoa kalkulatzeko metodologia. Estatu kideek metodologia hau aplikatu eta lortutako kostu-maila optimoak eraikuntzako arau nazionaletan ezarritako energia-jardueraren eskakizunekin alderatu behar dituzte, Europako Batzordeari aldizka aurkeztu beharreko txostenetan.

Funtsean, kostu-maila optimoa kalkulatzeko metodologia epe luzeko analisi bat da, eraikinak zaharberritzeko hainbat aukeraren errentagarritasunak alderatzen dituena bakoitzarekin aurreztuko litzatekeen energiaren arabera. Horrela, energia-eraginkortasunerako neurrien sustapena ez litzateke soilik euren energia-aurrezkian oinarritu behar, baizik eta bizi-ziklo osoaren kostuetan ere. Ikuspegi honek energia-jardueraren eskakizunak helburu ekonomikoekin lotu zituen lehen aldiz, eraikinen kostu ekonomikoak kontuan hartzeko beharra erantsiz energia-jarduera ebaluatzean. Beraz, GHGen isuriak murriztearen lehen mailako ingurumen-helburua lortzen laguntzea du helburu eta, aldi berean, eraikin baten bizi-zikloaren kostuak txikiagotzea.

Kostu-eraginkortasunaren eta kostu-optimizazioaren kontzeptuak erlazionatuta daude baina desberdinak dira. Kostu-optimizazioa kostu-eraginkortasunaren kasu berezia da. Birgaitze energetikoko neurri bat errentagarria da baldin eta eskatzen duen inbertsioa bere bizi-zikloan zehar eragindako energia aurrezkiaren kostua baino txikiagoa den. Beraz, bere balio eguneratu garbia positiboa bada, birgaitze neurria errentagarria da. Neurri errentagarrien artean, kostu-maila optimoari dagokiona balio eguneratu garbia maximizatzen duena da, hau da, bizi-

zirkloaren zeharreko kostua txikiagotzen duena. Hurrengo irudiak bi kontzeptuen arteko harremana erakusten du.



3. Irudia: Kostu-optimizazioa eta kostu-eraginkortasunaren eskema [40].

Ikuspegi ekonomiko honek ingurumen-ikuspegia bigarren maila batean utz dezakeen zalantza sorrarazten du. Bestela esanda, bilatutako kostuen optimizazioak, benetan, epe-luzeko ingurumen-helburu nagusia lortzea baimenduko duen, CO<sub>2</sub>-ren emisioak behar bezain beste murriztuz. Ez delako ahaztu behar kostuen optimizazioa ez dela, berez, EBren epe luzeko estrategiaren azken helburua eta, beraz, kostuak kontuan hartzeak ez luke etorkizunerako ingurumen-helburuak alde batera uztea eragin behar.

Edonola ere, kostu-optimoaren metodologia esparru baldintzak hobetzeko tresna bezala hartu behar da, gaur egun indarrean dauden energia-eskakizunak aldatu eta epe-luzeko ingurumen-helburuak lortzera bideratzeko. Hain zuzen ere, estatu kideek egindako kostu-optimoen lehenengo kalkuluek erakutsi zuten moduan, EBko herrialdeen erdietan, gutxi gorabehera, alde nabarmena existitzen den kostu-maila optimoen eta indarrean zeuden energia-eskakizunen artean [41]. Gauza bera ondorioztatu zuten [42]-ek, kostu-maila optimoei lotutako energia primarioak indarrean dauden estandar nazionalak baino nabarmen txikiagoak direla frogatuz.

Halaber, kostu-optimoen ebaluazioen emaitzak lagungarriak izan daitezke eraikinen birgaitze energetikoak sustatzeko politikak garatzen dituzten legegileentzat, diru-laguntzak, interes-tasa murriztuak eta abar ezartzerako orduan.


### 3.1.2.1 Metodologiaren ikuspegi orokorra

4. Irudia bizitegi-sektore bateko energia-jardueraren kostu-maila optimoak ebaluatzeko prozesu osoa deskribatzen du. Prozesuaren abiapuntua eraikin parkea ordezkatzan duten erreferentziako eraikin multzoa definitzea da. Halaber, energia-eraginkortasuneko neurrien definizioa metodologiaren funtsezko zatia da, ebaluazioaren benetako irismena ezartzen baitu. Neurri-pakete posibleak ere bildu behar dira, hau da, erreferentziako eraikinetan aplikatu beharreko energia-eraginkortasuneko neurrien konbinazioak.

Ondoren, kalkulu-etapa bi zatitan bereizten da, erreferentziako eraikin eta neurri-pakete konbinazio bakoitzarentzako: energia-jardueraren kalkulua eta errentagarritasun ekonomikoaren kalkulua. Lehen zatiaren helburua energia primarioaren urteko kontsumoa zenbatestea da. Bigarren zatiaren kalkulua lehenengo zatiaren emaitzen bidez elikatzen da.



2010/31/EB Zuzentarauaren arabera, energia-jardueraren ebaluazioan sartu beharreko azken energia-erabilerak hurrengoak dira: berokuntza, hozketa, aireztapena, ur beroa eta argiztapena. Horiez gain, etxetresna elektrikoetan eta entxufeetan kontsumitutako elektrizitatea ere sar liteke, baina azken hau ez da nahitaezkoa. Beraz, aipatutako azken erabileretarako kalkulatu behar da energia-eskaria, CEN arauak edota kalkulu-metodo baliokideak erabiliz. Ondoren, energia primarioarako bihurketa-faktoreak erabiliz, energia primarioaren kontsumoa zenbatetsi eta eraikinaren azalera erabilgarriaren metro karratuko adierazten da.



4. Irudia: energia-jardueraren kostu-maila optimoak ebaluatzeko prozesua [43].

Ebaluatutako neurri-paketeen emaitza-aniztasunetik abiatuta, kostu-kurba bat ondoriozta daiteke erreferentziatzko eraikin bakoitzarentzako, y-ardatzean zaharbertzeen kostu globalak adieraziz eta x-ardatza energia primario kontsumoa izanik. Horrela, kurbaren zatirik baxuenak optimo ekonomikoa adieraziko luke, 4. Irudiak erakusten duen moduan. Egia esan, kostu-maila optimoaren kokapena erabilitako datuen ziurgabetasunetik sentikorra izan daiteke; beraz, posible da kalkuluetan lortutako maila optimoak irudikoak bezain argiak ez izatea. Aldiz, litekeena da neurri-paketeen aniztasunak kurba zehatz bat osatu beharrean, datu-puntu

hodei bat eratzea, zeinetik batez besteko kurba bat ondorioztatu daitekeen. Beraz, kostu-maila optimoa ez da normalean eraikin bati aplikatutako neurri-pakete bakar gisa aurkituko, baizik eta eskualde batean kokatzen diren neurri-pakete multzoak osatzen duen kostu optimo "tartetzat".

Oro har, 244/2012 Erregelamendu Delegatuaren ezarritako metodologiak kalkulu-arau uniformeak definitzen ditu baina, aldi berean, malgutasun handia eskaintzen du sarrera-datuak ebaluatu eta hautatzeko, egoera espezifikoak kontuan hartzea ahalbidetuz eta neurria egindako analisiak baimenduz. Lan honetan burututako analisiaren irismena 3.2.2.1.1. atalean deskribatzen da.

### 3.1.2.2 Ebaluazio ekonomikoa: kostu globalaren kalkulua

Kostu-maila optimoaren metodologia balio eguneratu garbiaren metodoan oinarritzen da. Horrela, metodologiarekin kalkulatzeko diren *kostu globala*-ren terminoa, EN 15459 arautik hartua [44], literaturan orokorrean bizi-zikloaren kostua deritzonari dagokio. Beraz, hasierako inbertsioa ez ezik, kostu gehigarriak ere barne hartzen ditu, hala nola kostu operatiboak, mantentze-lanetakoak, ezabatze-kostuak eta energia aurreztekoak. Ikuspegi makroekonomikoaren kasuan, GHGen emisioen kostua ere hartzen da kontutan. Horrela, metodologiak bizi-zikloaren ikuspegi osoa du, eta ez da epe laburreko optimizazioetara mugatzen. Hala ere, bizi-zikloaren ebaluazioan (LCA) ez bezala, energia grisaren ingurumen-inpaktuak alde batera uzten ditu.

Kostu mota ezberdinak batzerakoan, deskontu-tasa aplikatu behar da kostu guztiak hasierako urteko balio gisa adierazteko, 1. ekuazioan bezala.

$$C_g(\tau) = C_I + \sum_j \left[ \sum_{i=1}^{\tau} (C_{a,i}(j) \cdot R_d(i) + C_{c,i}(j)) - V_{f,\tau}(j) \right] \quad (1)$$

non  $\tau$  kalkularen aldia den,  $C_g(\tau)$  kostu globala kalkulu-aldian zehar, hasierako urteko balio gisa adierazita,  $C_I$  neurri-paketearen hasierako inbertsio-kostua,  $C_{a,i}(j)$   $i$  urteko  $j$  neurriaren kostua,  $C_{c,i}(j)$   $i$  urteko  $j$  neurriaren karbonoaren kostua,  $V_{f,\tau}(j)$   $j$  neurriaren hondar-balioa kalkulu-aldiaren amaieran, hasierako urtera deskontatuta eta  $R_d(i)$   $i$  urteko deskontu-faktorea,  $r$  deskontu-tasaren arabera zenbatetsia 2. ekuazioak adierazten duen moduan.


$$R_d(p) = \left( \frac{1}{1 + \frac{r}{100}} \right)^p \quad (2)$$

non  $p$  hasierako urtetik aurrerako urte-kopurua den, eta  $r$  deskontu-tasa erreala.

Kostuen kategorizazioa, 5. Irudian aurkeztzen dena, EN 15459 arauan oinarritzen da. Aztertutako neurri-pakete guztientzat berdinak diren kostuak, edota energia-jardueran eraginik ez duten eraikuntza-elementuekin zerikusia dutenak, alde batera uzten dira. Halaber, 6. Irudiak kostu-kategoria ezberdinak adierazten ditu, non 1 kalkulualdia den, 2 inbertsio-kostua, 3 funtzionamendu kostua eta 4 ordezkatzeko-kostua.


EN 15459 arauak, berez, 50 urteko balioa proposatzen duen arren bizitegi-eraikinetarako kalkulu-aldi gisa, 244/2012 Erregelamendu Delegatuak 30 urteko kalkulualdia ezartzen du

hauentzat. Kalkulu-aldi luzeagoak ez lirateke gomendagarriak; izan ere, 30 urtetik gora, are zailagoak bihurtzen dira interes-tasei eta energiaren prezio-aurreikuspenei buruzko hipotesiak. Hala ere, aukeratutako kalkulu-aldiak emaitzan duen eragina mugatua da, kalkulu-aldiaren amaierako hondar-balioak kontuan hartzen direlako.



(\*) Perspektiba makroekonomikoaren kalkulurako soilik

### 5. Irudia: kostu ezberdinen kategorizazioa [17].



### 6. Irudia: denboraren araberako kostuen irudikapena [44].

#### 3.1.2.3 Perspektiba ezberdinak

Kalkuluan kontuan hartzen diren kostu eta onuren arabera, bi ikuspegi nagusi bereizten dira kostu-maila optimoa zenbatesteko.

- Perspektiba soziala, ikuspegi makroekonomikoari dagokiona.
- Azken erabiltzailearen edo erabiltzaile pribatuaren banakako perspektiba: ikuspegi mikroekonomikoa.

Bakoitzak bere berariazko justifikazioa du. Alde batetik, gizartearen ikuspegi makroekonomikoa erregulazio politika ezberdinak definitzerakoan normalki erabiltzen den ikuspegi ekonomikoa da. Gizartearen edozein atalek jasandako kostu eta onura guztiak hartzen dira kontutan, zeharkakoak barne, non gertatzen diren desberdinu gabe. Beraz, ez dira bereizten gizarteko hainbat sektorek dituzten kostuak eta onurak, eta saldo garbia da garrantzitsua.

Bestalde, ikuspegi mikroekonomikoak inbertitzaile potentziala izan daitekeen partikular batek aurre egin beharreko kostu eta onura zuzenak baino ez ditu kontuan hartzen. Oro har, erabiltzaile tipikoak definitzea eskatzen du, eta hauei gizartearen ikuspegitik desiragarriak izan daitezkeen erabakiak hartzea eragozten dieten merkatu-oztopoak identifikatzen laguntzen du, inbertitzaile batentzako mugak erakutsiz. Hala ere, metodologia ikuspegi pribatu batetik aplikatzeak azken erabiltzaile “tipiko” bat (idealizatu) definitzea eskatzen du. Beraz, kontuan hartu behar da azterketaren emaitzek desberdintasun sozioekonomiko handiak ezkuta ditzaketela azken erabiltzaileen artean.

Esandakoaren arabera, ikuspegi sozialerako eta pribaturako kostuen kalkuluak desberdinak dira kontuan hartu beharreko interes-tasei, diru-laguntzei, zergei eta abarri dagokienez, eta ondorioz emaitza desberdinak eman ditzakete. 3. Taulak [41] bi ikuspegiak bereizten dituzten kostu-elementuak aurkezten ditu.

3. Taula: ikuspegi bakoitzean kontuan hartutako kostu-elementuak.

|                                       | <b>Ikuspegi pribatua</b> | <b>Ikuspegi makroekonomikoa</b> |
|---------------------------------------|--------------------------|---------------------------------|
| <b>Interes-tasa</b>                   | merkatuko tasa           | gizartearen interes-tasa        |
| <b>Diru laguntzak</b>                 | ✓                        | ×                               |
| <b>Zergak</b>                         | ✓                        | ×                               |
| <b>CO<sub>2</sub> emisioen kostua</b> | ×                        | ✓                               |

Interes-tasei dagokienez, ikuspegi makroekonomikoan, “deskontu-tasa sozialarekin” eguneratzen dira, tasa hori, normalean, nahiko txikia izanik: urtean %3 inguru termino errealetan [40]. Ikuspegi mikroekonomikoan, kapitala lortzearen kostua nabarmen handiagoa izan ohi da.

Ikuspegi sozialean, zergak eta diru-laguntzak alde batera uzten dira, gizartearen atal batetik bestera dirua transferitu baino ez dutelako egiten, kostu edo irabazi agregatu bat suposatu gabe. Oro har, diru-laguntzak eta bestelako pizgarriak eraikinen jabeen eta inbertitzaileen ikuspegi pribatuari lotutako alderdiak dira. Horregatik, perspektiba mikroekonomikotik burututako kalkuletan diru-laguntza zuzenak inbertsio-kostuetatik deduzitu egiten dira, kenkari fiskalen eragina dute urteko funtzionamendu-kostuetan eta mailegu bigunek deskontu-tasa txikituko lukete, adibidez.

Bestalde, kanpo-eraginak deiturikoen kostu eta onurak zenbatesten ditu, hala nola karbono dioxidoaren emisioei lotutako kaltea ingurugiroan. Kasu horretan bere kostuak kalkulatzeko metodo espezifikoak badaude, eskuarki onartuak daudenak. Hala ere, praktikan ezinezkoa da gizartearentzako zuzeneko eta zeharkako kostu eta onura guztiak harrapatzea, batzuk ukiezinak edo zenbatu-ezinak direlako, edota ezin direlako monetizatu. Hala nola, eskulanean intentsiboak diren energia-eraginkortasuneko zaharberritzeek sorturiko lanpostuak, gizarte-segurantzaren arindu dezaketenak, edota etxebizitzaren baldintza termikoak hobetzeak osasun-sistema publikoan izan dezakeen eragina. Alderdi hauen eragina zenbatestea oso zaila bihurtzen da, eta beraz onura gehigarritzat hartzen dira maiz, kualitatiboki, kalkulu ekonomikoetan sartu gabe.

### 3.1.2.4 Sorrarazitako gogoeta

Ezbairek gabe, kostu-optimoaren metodologia aplikatzeak funtsezko informazioa eman dezake 2050. urterako ingurumen-helburuak lortzen laguntzeko, hainbat analisi-mota ahalbidetuz. Metodologiak eskainitako emaitzek eremu anitzetan lagun dezakete administrazio-publikoa, hala nola:

- Eraikinen birgaitze energetikoarekin lotutako energia aurrezki potentzialaren magnitude-ordena ebaluazioan.
- Energia-eraginkortasun maila ezberdinak lortzeko beharrezkoa den inbertsioaren kalkuluan.
- Zaharberitze-estrategia egokienaren identifikazioan, erreferentziatzko eraikin bakoitzerako birgaitze neurri multzo optimoa adieraziz.
- Birgaitze-maila jakin batzuk lortzeko beharrezkoak diren diru-laguntzen zenbatespenean.

Halere, metodologia aplikatzeko moduari arreta jarri behar zaio. 244/2012 Erregelamendu Delegatuak bi eraikin kategoria bereizten zituen bizitegi-sektorearentzako: familia bakarreko etxeak eta apartamentu-blokeak. Horrela, kategoria bakoitzarentzako gutxienez erreferentziatzko eraikin bi definitzea baino ez zien eskatzen estatu kideei. Eraikin-parke nazionalen heterogeneotasun handia kontuan hartuta, galdera argia da: benetan izan daiteke, hain eraikin kopuru txikia, eraikin-parke nazional baten adierazgarri?

Halabeharrez, erreferentziako eraikin batzuen edo besteen hautaketak eragina du ebaluazioaren emaitzetan. Beraz, onartzen den ziurgabetasun bat dago beti erreferentziako eraikinen aukeratzearekin lotuta. Nolanahi ere, erreferentziatzko eraikin bakoitzarentzako lortutako emaitzak tipologia bereko gainerako eraikinei modu sinesgarrian hedatu ahal izatea metodologiaren erabilgarritasunarentzako oinarritzko baldintza da. Erreferentziatzko eraikin kopurua nahikoa ez bada eraikin parke handi bat behar bezain homogeenoa diren eraikin-tipologietan sailkatzeko, ezinezkoa da ebaluazioaren emaitzak parke osoaren mailara estrapolatzea. Zentzu honetan, badaude ikerlariak euren buruari galdetzen ea kostu-optimoaren metodologiak tipologia bereko eraikin guztientzako emaitza fidagarriak bermatzen dituen [10]. Horrenbestez, lan honek estatu-mailako eraikin-parkeak baino eskala txikiago bat eta erreferentziatzko eraikin kopuru handiagoa konbinatzen ditu.

## 3.1.3 Aukera diskretuko ereduak

### 3.1.3.1 Oinarri teorikoa

Aukera diskretuko ereduak Ausazko Erabilgarritasunaren Teorian (Random Utility Theory, RUT) oinarritzen dira [45]. Honen arabera, gizabanako bakoitza erabakitzaile arrazional bat da, hautaketa baten aurrean alternatiben ezaugarriak ebaluatzen dituena eta, ondoren, erabilgarritasuna maximizatzen duena aukeratzen du.

Erabakitzaile batek,  $J$  alternatiben arteko hautaketari egin behar dio aurre. Aukera bakoitza hautatuz gero, erabakitzaileak erabilgarritasun-maila jakin bat lortuko luke.  $j$  aukeratik  $i$  erabakitzaileak lortzen duen baliagarritasuna  $U_{ij}$  da ( $j = 1 \dots J$ ). Erabakitzaileak erabilgarritasun

handiena ematen dion alternatiba aukeratzen du. Beraz, jokabide-eredua hurrengoa da:  $n$  aukera hautatuko du, baldin eta  $U_{in} > U_{ij} \forall j \neq n$ .

Baina behatzaile batek ez du erabakitzailearentzako erabilgarritasuna ezagutzen, alternatiben eta erabakitzailearen ezaugarri edo atributu batzuk baino ez baititu ikusten. Horrela, alternatiba bakoitzaren erabakitzailearentzako erabilgarritasuna ezaugarri horien funtzio moduan defini daiteke, azaldu ezin den erabilgarritasunaren zatia akats estokastikoko termino batez adieraziz. Beraz,  $i$  erabakitzaile batek  $j$  aukeratik lortzen duen erabilgarritasuna 3. ekuazio gisa adieraz daiteke [46].

$$U_{ij} = V_{ij} + \varepsilon_{ij} = \beta_j^0 + \beta' X_{ij} + \varepsilon_{ij} \quad (3)$$

non  $V_{ij}$  erabilgarritasunaren osagai determinista den eta  $\varepsilon_{ij}$  zorizko osagaia, erabilgarritasunearan eragina duten baina  $V_{ij}$  -n sartuta ez dauden faktoreak atzematen dituena.  $X_{ij}$   $j$  alternatibaren eta  $i$  erabakitzailearen ezaugarrien (atributuen) bektorea da, eta  $\beta$  atributu horien bektore-koefizientea.  $\beta_j^0$   $j$  alternatiben konstante espezifikoa (*alternative-specific constant*, ASC), aukera honek besteekiko duen lehentasun erlatiboa adierazten duena.

Aukera diskretuko ereduen artean, gaur egun zabalduea, zalantzarik gabe, *logit*<sup>2</sup> (MNL) eredua da. Eredu hau  $\varepsilon_{ij}$  zorizko osagaiari banaketa konkretu bat esleituz lortzen da; hots, Gumbel probabilitate-dentsitatea. Zehaztapen horrekin, *logit* eredu baten probabilitatea 4. ekuazioan adierazitakoa dela frogatu daiteke.

$$P_{in} = \frac{e^{V_{in}}}{\sum_{j=1}^J e^{V_{ij}}} = \frac{e^{\beta_n^0 + \beta' X_{in}}}{\sum_{j=1}^J e^{\beta_j^0 + \beta' X_{ij}}} \quad (4)$$

Erabilgarritasunaren funtzioan alternatiben ezaugarriak sartzen direnean, lortutako diren ereduak bereziki egokiak dira gobernu-politikek alternatiba ezberdinen erakarpenean duten eragina balioesteko. Politika-neurri batek alternatiben ezaugarri bat aldatzen duenean, honen balio berria erraz kontsideratu daiteke zenbatetsitako eredu eta ondoriozko erabilgarritasuna birkalkulatu.

Hala ere, *logit* ereduak zenbait muga dituzte. Besteak beste, lehentasunaren aldaketa sistematikoa baino ezin dezakete adierazi; hots, erabakitzailearen ezaugarriekin zerikusia duen lehentasun-aldaketa. Baina ez ausazko lehentasun-aldaketarik, hau da, behatutako ezaugarriekin lotu ezin diren lehentasun-aldaketarik. Muga hauek gainditzeko, *mixed logit* (MXL) eredu malguagoak erabil daitezke, edozein zorizko erabilgarritasun-eredu egokitu dezaketenak. Lan honetan MXL eredu bat estimatu da.

MXL ereduaren zehaztapena MNL ereduarenaren antzekoa da, baina  $\beta$  koefizienteak konstanteak izan beharrean, populazioko erabakitzaileen artean aldatu egiten dira  $f(\beta)$  dentsitate batekin. Beraz, MXL eredu zorizko koefizienteetan oinarritzen da, populazioko  $b$  batezbesteko eta  $W$  bariantza parametroen arabera definitzen direnak. Gehien erabilitako  $f(\beta)$  dentsitate-funtzioak normala –  $\beta \sim N(b, W)$  – eta log-normala –  $\ln \beta \sim N(b, W)$  – dira.

<sup>2</sup> Literaturan, *multinomial logit* eta *conditional logit* ereduak bereizten dira, kontsideratutako atributuak erabakitzailearenak edota alternatibenak direnaren arabera, hurrenez hurren. Halere, sarritan *multinomial logit* (MNL) izena erabiltzen da *logit* ereduaren sinonimo bezala. Lan honetan MNL akronimoa erabiltzen da *logit* ereduari erreferentzia egiteko.

Horrela,  $i$  erabakitzaileak  $n$  aukera aukeratzeko probabilitatea 5. ekuazioan adierazitakoa litzateke. Hau da, MXL ereduaren probabilitatea MNL ereduaren probabilitateen batzbesteko haztatua da,  $\beta$  balio ezberdinetan ebaluatutakoa.

$$P_{in} = \int \left( \frac{e^{V_{in}}}{\sum_{j=1}^J e^{V_{ij}}} \right) \cdot f(\beta) \cdot d\beta \quad (5)$$

### 3.1.3.2 Aukera diskretuko esperimendua

Erabaki batean aldagai edo atributu ezberdinek duten eragina zehazteko, aukera diskretuko esperimenduak (*discrete choice experiment*, DCE) metodorik erabilienetakoak dira. Hauetan, elkarrizketatutako lagin baten aukerak behatu eta aztertu egiten dira. Literaturan, DCEak burutzeko gida ugari daude [47] [48].

Funtsean, inkestatutakoei hautaketa-lan batzuk osatzeko eskatzen zaie, zenbait aukera-multzo aurkeztuz eta bakoitzean aukera bat hautatzeko eskatuz. Aukerak atributu batzuen arabera definitzen dira, aukera bakoitzak dagozkion atributu-mailak izanik. Aukera-multzoak diseinatzerakoan, konpromezu bat bilatu behar da atributu bakoitzaren eraginaren eta estatistikoki esanguratsuak diren erlazioak detektatzeko esperimenduak duen gaitasunaren artean.

Kontzeptualki, DCE baten diseinua balio-matrize bat zehaztea besterik ez da, atributu-mailen bidez aukera ezberdinak definitu eta hauek aukera-multzoetan elkartzen dituen. Tradizionalki, diseinu experimental ortogonalak erabili izan dira, baina gaur egun gero eta gehiago erabiltzen dira diseinu *efizienteak*. Azken hauek, zenbatespen-helburuetarako datuen korrelazioa minimizatzen saiatzeaz gain, ahalik eta errore estandarrik txikieneko parametroak erdiesteko datuak lortzen saiatzen dira.

Errore estandar hauek kobariantza-matrize asintotikoaren diagonaleko elementuen erro karratuak dira. Baina, aldi berean, kobariantza-matrize hau ( $\Sigma$ ) balioestekak esperimenduari lortu nahi diren parametroak ezagunak izatea eskatzen du. Beraz, normalean parametro hauen balioak aurretiaz suposatu egiten dira (beste lan batzuetan oinarrituz, adibidez) eta hurbilketa horretan oinarrituz kobariantza-matrizea estimatzen da.

DCE baten diseinuaren efizientzia neurtzeko, D-errorea da gehien erabiltzen den neurria, kobariantza-matrizearen determinantean oinarritzen dena. 6. ekuazioak D-errorearen adierazpena ematen du,  $k$  estimatutako parametro kopurua izanik. Diseinu efizienteen helburua D-errorea minimizatzea da.

$$D - errorea = |\Sigma|^{-\frac{1}{k}} \quad (6)$$

### 3.1.3.3 Ereduaren estimazioa

Populazio baten parametro ezezagunak zenbatesteko problema batean,  $N$  behaketako ausazko lagin batetik abiatuz, egiantz funtzioak 7. ekuazioaren forma hartzen du.

$$L(\beta) = \prod_{i=1}^N P_i(\beta) \quad (7)$$

Non  $P_i(\beta)$   $i$  erabakitzailearen hautaketaren probabilitatea den eta  $\beta$  estimatu beharreko parametroen bektorea. Funtzio honen orde, erabiliagoa den egiantzaren logaritmo-funtzioa 8. ekuazioan adierazten da.

$$\log L(\beta) = \sum_{n=1}^N \log P_n(\beta) \quad (8)$$

Parametroen estimazioaren helburua da  $\log L(\beta)$  maximizatzen duten  $\beta$  balioak lortzea. Egiantzaren logaritmo-funtzioa egiantzaren funtzio monotonoki gorakorra denez,  $\log L(\beta)$  maximizatzen duten balioek  $L(\beta)$  ere maximizatuko dute.

Egiantz handieneko (*maximum likelihood*, ML) estimazioarentzako algoritmo ugari existitzen dira, hala nola, Newton-Raphson, Berndt-Hall-Hall-Hausman, etab. [46].

### 3.1.3.4 Doikuntza-egokitasuna

Eredu lineal estandarretan, estimazioaren doikuntza-egokitasuna oro har  $R^2$  determinazio-koefizientearekin ebaluatzen da, ereduak azaltzen duen mendeko aldagaiaren aldakuntza totalaren proportziotzat. Hala ere, aukera diskretuko ereduak bezalako eredu ez-linealetan hau ez da aplikagarria.

Horren orde, ML estimazioaren doikuntza-egokitasuna aztertze, pseudo- $R^2$  deituriko koefiziente ezberdinak daude. Gehien erabiltzen dena 70ko hamarkadan McFaddenek proposaturikoa da (9. ekuazioa). Funtsean, koefizienteak neurtzen du zer ongi portatzen den eredu, zenbatetsitako parametroekin, parametro guztiak zero diren ereduarekin (eredu nuluekin) alderatuta. Horretarako, bi eredu horien egiantzen logaritmo-funtzioak erabiltzen ditu.

$$R_{pseudo}^2 = 1 - \frac{\log L(\beta)}{\log L(0)} \quad (9)$$

non  $\log L(\beta)$  eta  $\log L(0)$  egiantzaren logaritmo-funtzioak diren, zenbatetsitako parametroekin eta parametro guztiak zero direnean, hurrenez hurren. Aipatu beharra dago pseudo- $R^2$  koefizientearen interpretazioa ez dela inondik ere erregresioetan erabiltzen denaren antzekoa. pseudo- $R^2$  koefizienteak ez du intuizioz interpreta daitekeen zentzurik. Egiantzaren logaritmo-funtzioaren gehikuntzaren ehunekoa baino ez da, parametroak zero diren balioaren gainetik. Unitatetik gertu dagoen balioak zero balioa baino doitze hobe adierazten du [49].

Bestalde, aukera diskretuko bi eredu ezberdin alderatzeko, egiantza-ratioaren testa (LRT) erabiltzen da. Zehazki, bi ereduetako bati mugaren bat ezarriz gero lortzen den eredu-murriztua ( $\beta_r$ ) mugarik gabeko eredu askearekin ( $\beta$ ) konparatzeko. Egiantza-ratioaren estatistikoa beren egiantzeen logaritmo-funtzioen ( $\log L$ ) diferentzia gisa adierazten da, 10. ekuazioak adierazten duen moduan. Aztertutako datuek murrizketa hori berrestuko balute (hau da, hipotesi nulua baztertu), bi egiantzeen logaritmo-funtzioak antzekoak izango liriateke eta, beraz, estatistikoaren balioa oso txikia izango litzateke. Baztertze balio kritikoa  $\chi_q^2$  banaketa batek ematen du,  $q$  murrizketa-kopurua izanik.

$$LRT = 2 \cdot [\log L(\beta_r) - \log L(\beta)] \sim \chi_q^2 \quad (10)$$



Hala ere, konparatutako bi ereduen parametro kopuruak kontuan izan behar dira, eredu baten egiantzaren logaritmo-funtzioa nahierara handitu egin daitekeelako parametro gehiago eta gehiago erantsiz. Beraz, bi eredu alderatzean, parametro kopuru handiena daukan ereduaren ugaritasun erlatibo hori nolabait zigortu egin behar da. Horretarako 2 metodo nagusi daude. Akaikeren informazio-irizpidean (AIC), 11. ekuazioa minimizatzen duen eredia aukeratuko genuke  $p$  ereduaren parametro kopurua izanik.

$$AIC = -2 \cdot \log L(\beta) + 2p \quad (11)$$

Schwarz informazio-irizpidean (SIC), berriz, 12. ekuazioa minimizatzen duen eredia aukeratuko genuke,  $N$  behaketa kopurua izanik.

$$SIC = -2 \cdot \log L(\beta) + p \log N \quad (12)$$

## 3.2 Metodologia

### 3.2.1 Lehenengo fasea: eraikuntza parkearen karakterizazioa

Proposatutako metodologia behetik gorako ingeniari-tza-metodo batean oinarritzen da, eraikuntza-parke osoa adierazten duten eraikin-arketipoen ereduak eraiki eta ebaluatzea ahalbidetzen duena. Metodo honek, balizko birgaitze energetiko ezberdinen eragina xehetasun handiarekin ebaluatzea ahalbidetzen du. Halaber, eraginkortasun energetikoko politikak ezartzen laguntzeko metodo egokiena den arren, behetik gorako ingeniari-tza-ikuspegi honek eragozpen batzuk ere baditu, esparru teorikoan aipatu den bezala. Metodologia honek eragozpen horiei aurre egitera bideratuta dago.


Analisiaren irismena etxebizitza-parkea hartzen du barne, eraikuntza sektorearen zatirik handiena dena. Halaber, etxe-berokuntza aztertzen du gehienbat, etxeko energia kontsumoaren erantzule nagusia dena eta baita eraikinaren ezaugarriek gehien baldintzatzen duten energia erabilera ere. Gainera, metodologia honen aplikazioaren bitartez, UBSren erabilera ere aztertzen da zeharka.

Laburbilduz, proposatutako metodologiak hurrengorako balio du:

- Hiri-mailako etxebizitza-parkea eraikin-arketipo adierazgarrien multzo ezberdinetan sailkatzeko, eta
- Euren energia-kontsumo termikoa karakterizatzeko; hau da, berokuntza eta UBS kontsumoak modu fidagarrian balioesteko.

Erabiltzen dituen informazio-iturri nagusiak kontuan hartuta, metodologia hau Estatu mailako edozein hiritan litzateke aplikagarria. Lan honetan, Bilbo hiriaren bizitegi-sektoreari aplikatu zaio, 17 eraikin-arketipo modelatuz. Inplementazio hau II. Eranskinean aurkezten da.

Jarraitutako metodologia hiru urrats nagusitan banatzen da, 7. Irudian laburbiltzen direnak: eraikuntza parkearen analisia eta segmentazioa, eraikuntza parkearen modelizazioa eta ereduaren balioztatzea.



### 7. Irudia: metodologiako lehenengo fasearen aurkezpen orokorra.

1.1. urratsaren helburua modelatu eta simulatu beharreko eraikin-arketipoak definitzea da. Horrela, segmentazio-irizpideak zehazten dira, horien arabera eraikin-arketipo ezberdinak identifikatzeko. 1.2. urratsa arketipo-ereduak eraikitzeko beharrezkoak diren parametro fisikoak eta bestelako sarrera-datuak zehaztera bideratuta dago eta baita eredu horien simulaziora softwarearen bidez. 1.3. urratsak etxebizitzaren benetako energia kontsumoa lortzeko metodo ezberdinak aztertzen eta proposatzen ditu, simulazioen emaitzekin alderatzeko eta, horrela, eraikitako ereduak balioztatzeko. Hurrengo atalek urrats bakoitzean sakontzen dute.

#### 3.2.1.1 1.1. urratsa: eraikuntza parkearen analisia eta segmentazioa

1.1. urratsak egungo etxebizitza-parke osoa fidelki adieraz dezakeen eraikin-arketipo multzoa definitzea du helburu. Horretarako, lehenik eta behin etxebizitzak talde edo multzo homogeenetan sailkatu behar dira. Sailkapen horrek zenbait segmentazio-irizpide zehaztea eskatzen du, aplikatu beharreko irizpide kopurua bilatutako zehaztasun mailaren arabera izanik. Zehaztasun egokia ezinbestekoa da, aurrerago eraikin-arketipoei aplikatu dakizkiekeen birgaitze energetikoen analisen zehaztasuna mugatzen baitu. Aldi berean, konpromiso bat beharrezkoa da eraikin parkearen segmentazioaren sakontasunaren eta ondoriozko eraikin-arketipo ereduak eraikitzeko behar den denbora eta ahaleginaren artean.

Metodologia honek hurrengo hiru segmentazio-irizpideak aplikatzen ditu:

- Eraikinaren eraikuntza-garaia, ingurutzailaren eraikuntza-ezaugarriak baldintzatzen dituen. Zentzu honetan, kontuan hartu beharreko mugari garrantzitsuen artean karga-horma lodietatik horma arinetara igarotzea, orri bakarrek hormetatik orri

bikoitzerako aldaketa edota isolatzaile termikoaren eransketa izango genituzke. Azken batean, eraikuntza-ezaugarriak garai bakoitzeko arau teknikoen arabera irateke.

- Eraikinaren altuera, solairu kopuruari dagokionez. Honek eraikinaren inguratzaile termikoaren azaleraren eta bolumen osoaren ratioa den forma-faktorean eragiten du, eraikinaren trinkotasunaren adierazle dena eta bere energia kontsumoan eragina duena. Aldi berean, eraikinaren altuera segmentazio-irizpide gisa erabiltzeak eraikin-arketipo bakoitzari esleia dakizkiokeen hiri-morfologia posibleen sorta murrizten laguntzen du, eraikinaren forma eta jarraitasunaren (aldameneko eraikinekiko loturaren) esleipena erraztuz.
- Etxebizitzaren azalera erabilgarria. Eraikuntzaren trinkotasunean ere eragina izateaz aparte, eraikin-arketipo jakin bat kokatu daitekeen auzoak mugatzen ditu. Beraz, irizpide honek eraikin-arketipo bakoitzari dagozkion hiri-morfologia eta eraikuntza-forma espezifikoetara bideratzen du zeharka.

Berokuntza-sistema mota ez da segmentazio-irizpide gisa definitu. Eraikin-arketipoen portaera energetikoak energia-eskari moduan simulatuz, gerora energia-kontsumora aise bihur daitezke dagokien sasoiko batez besteko efizientziak aplikatuz. Horrela, gehiegizko segmentazio-irizpideen ezarpena saihesten da, proposatutako hiru irizpideetan oinarritutako eraikuntza parkearen sailkapen sakonagoa ahalbidetuz.

Hiru segmentazio-irizpideak konbinatuz etxebizitzaren kluster-mapa bat sortzen da, talde homogeneo adierazgarrienak identifikatzea ahalbidetuz. Segmentazio-irizpide bakoitzaren muga-balioak eta tarteak parametro horiek eraikuntza parkean duten banaketa orokorraren arabera izan behar dira.

Azterketa hori egiteko, datu-iturri nagusia Espainiako Estatistika Institutu Nazionalak (INE) hamar urtean behin egiten duen Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Errolda da [50], azken aldiz 2011. urtean egin zena. Informazio eskuragarri gehiena norbanako etxebizitzari buruzkoa da, eta ez eraikinei buruzkoa. Eraiki eta simulatu beharreko arketipoak, ordea, eraikin osoak dira, eta ez etxebizitza indibidualak. Beraz, lehenik eta behin talde homogeneo ezberdinen adierazgarritasuna etxebizitza indibidualei dagokienez ebaluatu behar dira eta, ondoren, erlazio bat ezarri etxebizitza adierazgarri horien eta hauek osatutako eraikin-arketipoen artean.

II. eranskineko II.10. taulak Bilboko bizitegi-sektorearentzat modelatutako 17 eraikin-arketipoen ezaugarriak adierazten ditu.

### 3.2.1.2 1.2. urratsa: eraikuntza parkearen modelizazioa

Eraikin-arketipo ereduaren eraikuntzak datu kopuru handia eskatzen du sarrera gisa. Datu enpiriko ugarien beharrak nahitaezkoa bihurtzen du ereduari sartutako informazioaren xehetasun-mailaren eta datuak biltzeko denboraren arteko konpromisoa.

Badaude eraikinei lotutako zenbait ezaugarri euren portaera termikoan beste batzuek baino eragin handiagoa dutenak eta, beraz, metodologia honek horietan jartzen du arreta. Hurrengo hiru faktore nagusiak identifikatu dira:

- Fatxadaren konposizioa.

- Eraikina kokatuta dagoen hiri-morfologia, eraikinaren forman eta jarraitasunean eragina duena.
- Bizilagunen portaera energetikoaren profilak.

#### 3.2.1.2.1 *Fatxadaren konposizioa*

Atal honek fatxada konposizio ohikoenak ebaluatzea eta modelatu beharreko eraikin-arketipoei esleitzea du helburu. Ildo horretan, datu-baseen gabezia berretsi da eskualde mailan eta, beraz, informazio hori erdiesteko bestelako iturriak mota askotarikoak izan daitezke. Halere, kontuan izan behar da helburua hemen ez dela existitzen diren fatxada konposizioen azterketa zehatza egitea, ezta horiek sakonki karakterizatzea. Hain arlo zabal horrek beste ikerketa-lerro ezberdin bat osatuko luke bera bakarrik.

Badaude eraikuntza parkea karakterizatzen duten aurretiko proiektuak, estatu eta eskualde mailan, ohiko eraikuntza konposizioen ikuspegi orokor bat eman dezaketenak [51] [52] [53] [54]. Oro har, ikerlan horiek deskribatzen dituzten fatxada konposizioak oso antzekoak dira, desberdintasun txikiak izan arren xehetasunei dagokienez; adibidez, orri bikoitzeko hormak zabalki erabiltzen hasi ziren uena.

Ikuspegi orokor hori arkitektura arloko argitalpen tekniko zehatzagoekin osa liteke. Sarritan, kokapen zehatz bateko estilo arkitektonikoen garapena aztertzen duten doktore-tesiek eta liburuak historikoki erabilitako eraikuntza material eta osaerei buruzko informazioa dute [55]. Bestalde, eraikinak birgaitzeko katalogoak ere existitzen dira, non egungo eraikinen ingurutzailerik adierazgarrienen osaerari buruzko informazioa ere aurki daitekeen [56].

Azkenik, Eraikinen Ikuskaritza Teknikoen (EIT) txostenek kokapen zehatz bateko eraikuntza ingurutzailerik ezberdinen banaketari buruzko informazioa eman dezakete. Eraikin baten azterketaren osteko EIT txostenak eraikin horren egoera adierazten du, hiru alderdirekin harreman duta: bere kontserbazio-egoera, irisgarritasun unibertsalaren araudiaren konplimendua eta bere eraginkortasun energetikoa. EITen inguruko araudia Estatuko legedian oinarritzen da, 8/2013 legea [57] izanik erreferentzia nagusia 7/2015 Errege Dekretuak neurri handi batean salbuetsi zuen arte [58], baina autonomia erkidego eta udal mailako araudia dira legeria hori garatzen dutenak. EIT txostenek daukaten informazio mota dela eta, eraikinaren fatxadaren ezaugarriak barne, garrantzizko datu-iturritzat erabil daitezke ingurutzailerik konposizioari buruzko informazioa biltzeko.

#### 3.2.1.2.2 *Hiri-morfologia*


Askotan eraikinen eraikuntza-tipologiek lotura estua dute kokatzen diren hiri-ehunarekin. Hiri-morfologia zabalago baten zati gisa, eraikinak ezin dira banan-banan ebaluatu kokatuta dauden hiri antolamenduaren ikuspegi integralagorik gabe.

Energiaren ikuspuntutik, hiri-morfologiak eraikinen portaeran duen efektua balioestea konplexua da, eragina izan dezakeelako eraikinen ezaugarri geometrikoetan (forman eta jarraitasunean), inguruko elementuek sorrarazitako kanpo-itzelean (eta, beraz, iristen zaion eguzki-erradiazioan) eta tokiko mikrokliman eta aire-fluxuaren patroian. Faktore horiek guztiak aldi berean simulatzearen zailtasuna da, hain zuzen ere, hiri-eredu termiko integralen gabezia azaltzen duena. Gaur egun, hiri morfologiak energia-kontsumoan duen eragina eztabaidan

jarraitzen du [59]. Metodologia honen helburua ez da azterketa horretan sakontzea. Horren ordez, bere arreta hiri-morfologiak eraikin-arketipoen propietate geometrikoetan duen eraginean jartzten du; hau da, eraikinen forman eta jarraitasunean.

Bestalde, badira Espainiako tokiak non eguzki-erradiazioaren eragina eta, beraz, hiri-morfologiaren ondoriozko itzalarena, benetan garrantzitsua izan daitekeen. AEMETek neurtutako eguzki-irradiazioaren datuek [60] kokapen zehatz batean kanpo-itzalaren eragina kontuan hartzearen garrantzia adieraz dezakete. Bilboren kasuan, eguzki-irradiazioaren eragina ez da beste hiri batzuetan bezain garrantzitsua: 1983-2005 aldiaren neurtutako eguzki-irradiazioaren datuen arabera, eguzki-irradiazio txikiena duen Espainiako hiriburua da; eguneko 3,54 kWh/m<sup>2</sup>-ko bataz bestekoarekin. Gainera, bere topografia bereziak, muinoz inguratua, are txikiagoa egiten du eguzki-izpien eragina.

Prozedura bat proposatzen da eraikin-arketipo bakoitzari eraikin forma eta jarraitasun zehatz bat esleitzeko. 8. Irudiak prozesua laburbiltzen du, hiri mailako etxebizitza adierazgarrietatik auzo mailara jaisten dena, eta gero berriro hiri-mailara itzuli.



#### 8. Irudia: eraikin-arketipo bakoitzari forma eta jarraitasuna esleitzeko prozedura.

Hasiera batean, etxebizitza adierazgarrien banaketa espaziala aztertzen da, etxebizitza mota zehatz bat gehien kontzentratzen den hiri-auzoak identifikatuz. Zenbait hiri-auzo hautatzen dira etxebizitza adierazgarri bakoitzeko.






Ondoren, identifikatutako auzo bakoitzean arreta jarritz, etxebizitza adierazgarriarekin (edo, gauza bera dena, honek osatutako eraikin-arketipoarekin) erlazionatutako auzoaren hiri-morfologia nagusia aztertzen da, auzoz auzo. Sarritan, auzoek hiri-morfologia erregularra erakusten dute, prozesu hau erraztuz. Halere, udal mailako datu-base geo-erreferentziaturik ez egoteak prozesu hau neketsua bihur dezake. Kasu horretan, eraikinen adin-mapak eraiki behar dira, katastroarekin eraikin bakoitzari dagokion eraikuntza garaia eta solairu kopurua identifikatuz.

Prozesu honetan ez da kontuan hartzen eraikin-arketipoari dagokion etxebizitza-azalera. Alde batetik, eraikinen eraikuntza-garaia eta solairu kopurua kontuan hartuta, orokorrean argi eta garbi nagusitzen den hiri-morfologia bat dagoelako, etxebizitza-azalera edozein delarik ere. Halaber, askotan zaila izan daiteke eraikin bati etxebizitza-azalera bat esleitzea, eraikin beraren barruan azalera ezberdinetako etxebizitzak egon daitezkeelako. Beraz, etxebizitza-gainazala kontuan hartzea nekeza izateaz gain, onura nabarmenik gabekoa litzateke.

Azkenik, eraikin-arketipo eta auzo bikote bakoitzari hiri-morfologia espezifiko bat esleitu ondoren, hiri mailan nagusi den hiri-morfologia inferitzen da. Horretarako, eraikin-arketipoak auzo ezberdinetan duen banaketa kontuan hartzen da.

Azaldutako prozedurarekin aurki daitezkeen hiri-morfologia mota nagusiak 4. Taulan erakusten dira. Hasiera batean, bost hiri-morfologia mota nagusi identifikatzen dira. Halere, kanpo itzalaren eragina mespretxagarritzat hartzekotan, 2, 3 eta 4. hiri-morfologiak mota bakar batean bildu litezke.

4. Taula: hiri-morfologia mota nagusien deskribapena.

| Hiri-morfologia |   | Ezaugarriak  | Trazatuaren adibidea  |
|-----------------|---|--|---|
| 1               | <b>Bloke solidoa</b>                    | XIX. mendeko zabalgunetako forma tipikoa. Eraikinak trazatu trinko batean integratzen dira fatxada bakarra izanik kalera emanaz.   |    |
| 2               | <b>Barruko patioa duen bloke itxia</b>  | Eraikinak XIX. mendeko hiri-trazadura tipikoa betetzen duen perimetro baten barruan daude, kanpoko itxura bloke solidoaren antzekoa izanik.  |    |
| 3               | <b>Barruko patioa duen bloke irekia</b> | Aurrekoaren antzeko hiri forma. Blokearen alde bat galtzen du, eraikigarritasuna txikituz baina argia eta aireztapena irabaziz, eta eraikinen arteko jolas-eremuak sortuz.                             |  |
| 4               | <b>Bloke lineala</b>                    | Ohiko bloke arrazionalista, argiaren, aireztapenaren eta eguzki-argiaren ideal higienikoen arabera eraikia. Garai bateko etxebizitza gabeziari eraikin sinpleen serializazioaren bidez erantzun ziona. |  |
| 5               | <b>Banakako eraikinak</b>               | Beste eraikin batzuekin inguratzailearen zatirik kontaktuan ez duten eraikinak.  |  |

### 3.2.1.2.3 Bizilagunen portaera energetikoa: ereduaren kalibraketa

Bizilagunen portaera energetikoaren izaera estokastiko eta anizkuna dela eta, bere modelizazioa eraikinen jardura energetikoa ebaluatzearen erronka handienetakoa da. Horren aurrean, bizilagunen portaera espezifiko ezberdinak zehatz-mehatz deskribatu beharrean, metodologia honek portaera orokorrak ditu aztergai.

Metodologiak okupazio-profil deterministak erabiltzen ditu bizilagunen portaeraren alderdi ezberdinak modelizatzeko, hala nola, berokuntzaren erabilera-aldiak, termostatoaren tenperatura edota etxetresnen erabilera-programazioak. Profil hauek bizilagunen portaera kuantitatiboki adierazteko aukera ematen dute, nahiz eta bizilagunen jokabidearen

ausazkotasunak, etxebizitzaz etxebizitzako ikuspegi batean, desadostasun handiak eragin ditzakeen modelatutako portaera energetikoaren eta errearen artean.

Askotan, estatu-mailako eraikuntza-kodeek erreferentziazko okupazio-profilak eskaintzen dituzte eraikinen azterketa energetikorako. Hala ere, aipatu den bezala, bizilagunen portaeraren modelazioak dakarren ziurgabetasuna da maiz ingeniari-tza-metodoen bidez eraikitako arketipo eredu sinesgarritasuna mugatzen duena. Gabezia hori gainditzeko, lan honek metodo alternatibo bat proposatzen du, kontsumo errearen datuetan oinarrituta, profil hauek lortzeko. Metodo enpiriko honek berokuntza zentrala duten eraikin-komunitateen faktura-datu errealak erabiltzen ditu.

Berokuntza zentrala duten eraikin-komunitate horiei dagokienez, 2012/27/EB Zuzentarauak [14] banakako neurgailuak jartzera derrigortzen zuen 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera, etxebizitza bakoitzari bere benetako energia kontsumoa kobratzeko. Zuzentarauaren transposizioaren aurreikuspenak komunitate asko neurgailuak instalatzera bultzatu zituen, Espainiako legearen argitalpenari itxaron gabe. Komunitate hauen fakturretan, ohiko da etxebizitza bakoitzean neurtutako kontsumo balioak agertzea, guztiak batera. Beraz, horrelako faktura gutxirekin etxebizitza askoren kontsumo datuak bildu daitezke, UBS eta berokuntza ere bereizten dituztenak.

Metodologiak berokuntza zentrala duten 1981aren osteko hainbat eraikinetako berokuntza-kontsumoak biltzea proposatzen du, hipotesi hauetan oinarrituz:

- Bizilagunen portaera energetikoa batez ere ezaugarri soziodemografikoekin lotuta dago, hala nola, bere adinarekin edota egoera ekonomikoarekin, eta ez eraikinaren ezaugarri fisikoekin.
- Bildutako kontsumo-datuekin lotutako eraikinak etxebizitza anitzez osatuta daude, non mota guztietako talde soziodemografikoak bizi daitezkeen. Guztira, talde bakoitzaren ekarpena eraikinaren berokuntza kontsumoari dagokionez, etxebizitza parke osoan gertatzen denaren adierazgarritzat jo daiteke.
- NBE-CT-79 arauak [61] transmitantzia balio batzuen konplimendua ezartzen zuenez 1981etik geroztik eraikitako eraikinetazako, euren inguratzaileren U-balioak arauak eskatutakoak direla suposatuta daitezke eta, beraz, fidagarritasun handiagoarekin zehaztu.

Horrela, kalibraketa-metodoa hurrengo urratsetan datza, kontsumo-datuak bildutako eraikin bakoitzarentzako errepikatu behar direnak:

- a) Lehenik eta behin, lortutako berokuntza-kontsumoaren datuetatik, etxebizitza bakoitzarentzako urteko kilowatt-orduetan adierazita daudenak, eraikin osoaren berokuntza kontsumoa kalkulatu da, kilowatt-orduetan gainazal unitateko ( $\text{kWh/m}^2$ ). Horretarako, etxebizitza bakoitzaren azalera katastrofik lor daiteke.
- b) Ondoren, eraikina bere aztarna eta ezaugarri geometriko errearen arabera modelatzen da, eta aplikagarriak diren inguratzaileren transmitantzia balioak NBE-CT-79 aruaren arabera esleitzen dira. Berokuntza erabilera-ordutegi ezberdinak definitzen dira, definitutako profil bakoitza eredu sartu eta simulatuz.

- c) Azkenik, lortutako berokuntza-kontsumoaren emaitzen multzoa eraikinaren benetako kontsumoarekin alderatzen da, eta errealitatera gehien hurbiltzen den berokuntza-profila hautatzen da.

### 3.2.1.3 1.3. urratsa: ereduaren balioztatzea

Urrats honen helburua eraikin-arketipoen modelazioaren emaitzak datu enpirikoekin baliozkotzea da, eraikitako ereduaren doitasun eta fidagarritasuna zehazteko.

Hasieran, aurreko analisi eta literaturako emaitzetan oinarritutako baliozkotzea proposatzen da. Datuak erraz eskura daitezkeenez, ikuspegi horrek badu abantaila argi bat: eraginkorra da denborari dagokionez. Hala ere, baliteke literaturak aztertutako hiri zehatzaren errealitate espezifikoak ez islatzea nahitaez. Beraz, aztertutako kokapenarekin lotutako datu enpirikoak biltzen dira baita ere, eraikin-arketipoen modelizazioaren emaitzekin alderatzeko. Alde batetik, etxebizitzaren erregai-kontsumoari buruzko inkesta bat burutzen da. Gainera, erregresio lineal anizkunaren erabilera proposatzen da, etxebizitza-tipologia mota ezberdinen berokuntza eskariak lortzeko modu alternatibo eta osagarri gisa, eraikin-ereduaren baliozkotzea indartzeko. Azkenik, baliozkotzea eskala agregatuan ere egiten da.

#### 3.2.1.3.1 Literatura

Eraikin-arketipoen modelizazioaren emaitzak balioztatzeke, berehalakoa da literaturako informazioa erabiltzea. Etxebizitzaren azken energia-erabileraren araberrako kontsumo banaketari dagokionez, SECH-SPAHOUSEC analisia [62] da ziurrenik Espainian egindako ikerketarik zabalena. Behetik-gorako zenbait metodo konbinatzen ditu, hala nola, telefono zundaketak, in situ egindako inkestak eta tokiko monitorizazioa, energia kontsumo datu errealak biltzeko.

SECH-SPAHOUSEC proiektuak azken energia-erabilera bakoitzari lotutako energia kontsumoa ematen du, Espainia hiru klima-eremutan banatuz (atlantikoa, kontinentala eta mediterraneoak) eta horietako bakoitzean familia bakarreko etxeak eta eraikin blokeak bereiziz. Lan honetan zona atlantikoaren eraikin blokeei dagozkien hurrengo datuak erabiltzen dira erreferentzia gisa:

- Azken energia-erabileraren araberrako etxeko energia-kontsumoaren banaketa.
- Etxebizitzaren batez besteko berokuntza kontsumoa (kWh/m<sup>2</sup>).

#### 3.2.1.3.2 Erregai-kontsumoaren inkesta


Etxebizitzaren berokuntza eta UBS kontsumoekin lotutako informazio errealak lortzeko, erregai-kontsumoari buruzko inkesta bat egitea proposatzen da. Erregai-kontsumoa erabiltzearen zergatia honekin asetako azken energia-erabilera kopuru murriztua da, bakoitzari dagokion zatia esleitzea errazten duena. Izan ere, etxeetan erregaiak ondorengo hiru erabilera termikoetan baino ezin daitezke erabili: etxebizitzaren berokuntzan, UBSan eta sukaldean. Beraz, berokuntza elektrikoaren sistemak dituzten etxebizitzak alde batera uzten dira inkesta honetan, eta etxebizitza indibidualerako erregai-kontsumoaren informazioa baino ez da biltzen, gas naturala izan daitezkeena edota beste petroleoaren deribatuenak.



### 3.2.1.3.2.1 Datuak biltzeko prozesua

Eraikin-arketipo ereduak balioztatzeko informazio garrantzitsua den arren, inkesta honek dakarren konplexutasuna ez da hutsala. Etxebizitzen energia faktura-datuak informazio pribatutzat hartzen dira askotan, horiek partekatzeko gogo argirik gabe. Gainera, inkesta honi erantzuteak gutxienez urtebeteko epea osatzen duten faktura kopuru jakin bat bildu beharra dakar eta horietariko bakoitzean fakturatutako kontsumoak batzea. Prozesu hau, jakina, neketsua da inkestatuentzako. Ondoren azaltzen den datu-bilketa prozesua eragozpen horiek gainditzera bideratua dago.

Espanian, etxebizitza indibidualen energia fakturek fakturatutako aldiko datuez gain (normalean hilabete bat edo biko epea), azken bi urteetako erregai-kontsumoaren datu historikoak ere adierazten dituzte, grafiko moduan. Hemen proposatutako inkestan, edozein fakturatan agertzen den grafiko horren argazkia soilik eskatzen da. Horrela, inkesta erantzuteko beharrezkoa den denbora murrizten da, bildutako datuen xehetasunean eragin nabarmenik gabe, grafikoaren barrak erraz neurtu baitaitezke.



#### 9. Irudia: energia-fakturetako kontsumo-datu historikoen grafikoa (adibidea).

Aipatutako grafikoaz gain, gainontzeko hiru datu eskatzen zaizkie inkestatuei:

- Etxebizitzaren helbidea, katastrofik etxebizitzaren azalera lortzea ahalbidetzen duena, horrek etxebizitza bakoitzaren urteko berokuntza-kontsumoa normalizatzeko aukera emanez ( $\text{kWh}/\text{m}^2$ ).
- Bizilagun kopurua, UBS kontsumoa estimatzen laguntzen duena.
- Sukalde mota (elektrikoa edo erregai bidezkoa), azken-erabilera horrek erregaiaren urteko kontsumoan eragina duen ala ez jakitea ahalbidetzen duena.

Laburbilduz, erregai-kontsumoari buruzko datu errealak biltzeko beste modu bat aurkeztu da, datuak biltzeko prozesua errazten duena. Proposatutako prozesuak erregai-fakturen edukiaz baliatzen da, ahalegin handirik egin gabe informazioa biltzeko.

### 3.2.1.3.2.2 Laginaren gutxieneko tamaina

Inkesta guztiek akatsen bat dakartzate, lagina populazio estatistiko osoa baino txikiagoa baita. Hain zuzen ere, errore onargarriaren esleipena da beharrezkoa den laginaren gutxieneko tamaina zehazten duena.

Errore onargarri hori bi parametro desberdinen bidez definitu ohi da. Alde batetik, errore-marjina bilatutako balioarentzako espero den kokapen-tartea da. Bestalde, konfiantza-tarteak bilatutako balioa aipatutako errore-marjinaren barruan dagoenaren ziurtasuna adierazten du. Errore-marjina, konfiantza-tartea eta laginaren tamaina estuki lotuta daude. Jakina, errore-marjina murrizten bada edota konfiantza-tartea handitu, beharrezko lagin-tamaina handitu egingo da.

Limiteen Teorema Zentralak frogatzen du, baldintza orokorretan, zorizko aldagai askeen batura banaketa normal – kanpai kurba gaussiar – batera hurbiltzen dela, aipatutako batura nahikoa handia denean. Teoremaren honen arabera, laginaren batez besteko balioa ebaluatutako populazioaren batez besteko balio probablenera izango litzateke, horretatik urrundu ahala bere probabilitatea banaketa gaussiar baten arabera murriztuz. Hori dela medio, laginaren tamaina 13. ekuazioaren bidez kalkula daiteke:

$$n = \frac{N \cdot Z^2 \cdot \sigma^2}{(N - 1) \cdot e^2 + Z^2 \cdot \sigma^2} \quad (13)$$

Non  $n$  laginaren tamaina den,  $N$  populazioaren tamaina,  $Z$  konfiantza-tartea bermatzeko batez besteko balioarekiko desbideratze onargarria (beharrezkoa den konfiantza-tartearen arabera,  $Z$ -rentzako balioa banaketa gaussiarrak emango luke),  $e$  gehieneko errore-marjina eta  $\sigma^2$  populazioarentzako espero den bariantza. Azken hau zehazteko ohiko metodoa lagina biltzen hastea da eta, jasotako lagin kopurua nahikoa denean, behin-behineko lagina honen bariantza kalkulatzeko.

Populazioaren tamaina behar bezain handia denean, 14. ekuazio sinplifikatua erabil daiteke laginaren tamaina kalkulatzeko, 13. ekuazioaren orde. Bi formulak emaitza bera ematen dute.

$$n = \frac{Z^2 \cdot \sigma^2}{e^2} \quad (14)$$

Lan honetan, populazioa aztertutako hiriaren etxebizitzek osatuko lukete hertsiki. Hala ere, datu-bilketa are gehiago errazteko, aztertutako hiria inguratzen duten udalerrak edota probintzia osoa ere sar litezke inkestan eta, horrela, horien laginak ere baliagarriak izango lirateke, datuak jasotzeko aukera gehiago eskainiz. Hau egin ahal izateko baldintzak udalerriz guztiek antzeko baldintza klimatikoak eta eraikuntza-ezaugarriak izatea dira, eta populazioa aztertutako hiriaren etxebizitza-parketik probintzia osoko bizitegi sektorera aldatzen den arren, 14. ekuazioak adierazten duenez populazioko tamaina jakin batetik gora laginaren gutxieneko tamaina ez dago populazioaren mende. Horrela, aztertutako hiriari ez ezik, inkestan emaitzak udalerriz guztiei ere esleitu dakioko.

### 3.2.1.3.2.3 *Bildutako datuen azterketa*

Inkestan bildutako datuak aztertuz, hurrengo balioak lortzen dira:

- Etxebizitzaren berokuntzako urteko batez besteko energia-konsumoa ( $\text{kWh}/\text{m}^2$ ). Hala, literatura analisiaren urratsean bildutako berokuntza kontsumoa balioetsi daiteke.
- UBS litroen batez besteko kontsumoa eguneko eta pertsona bakoitzeko. Honek UBSren kontsumo-maila errealean sakontzea ahalbidetzen du, eta baita literatura

analisiaren urratsean ebaluatutako azken energia-erabileraren araberako kontsumo banaketa berrestea.


Helburu hauek lortzeko, bi ikuspegi osagarri ezberdin aplikatzen dira.

- Lehenengo metodoa, 10. Irudian azaltzen dena, udako erregai-kontsumoa erabiliz estimatutako UBS kontsumoan oinarritzen da, udan berokuntzarekin lotutako erregai-erabilerarik ez dagoela suposatuz.

Udari dagozkion erregai-fakturak uztaila, abuztua, iraila eta urrikoak direla kontsideratzen da. Lau hilabete osoak kontsideratzen dira, denbora tarte luzeagoa kontuan hartzeko eta oporraldiak energia kontsumoan izan dezakeen eragina txikiagotzeko.

Erregai kontsumoa kontuan hartutako denbora tartearen egunekin eta biztanle-kopuruarekin zatituz, pertsona bakoitzak egunean kontsumitzen duen UBS kantitatea lortzen da, kWh-tan. Erregai bidezko sukaldeak duten etxebizitzaren kasuan, udako erregai-kontsumoari sukaldeko azken erabilerari dagokion kontsumo zatia kendu behar zaio lehenbizi. Horretarako, literaturak sukalde erabilerari esleituriko kuota urte osoko erregai-kontsumoari aplikatzen zaio. Ondoren, zati 365 egun eginez, sukaldeari dagokion eguneko erregai-kontsumoa estimatzen da.


kWh unitatetan lortutako pertsona eta eguneko UBS kontsumoa litroetara pasatzeko, aztertutako hiriko sareko uraren batez besteko tenperatura erabiltzen da, udako batez besteko tenperaturari hurbildu daitekeena. Ura 60°C-tara berotzen dela kontsideratzen da. Ondoren, pertsona eta eguneko litroak erabiliz, urteko UBS kontsumoa estimatzen da, tokiko urteko batez besteko tenperatura sareko uraren tenperatura gisa erabiliz. Azkenik, sukaldeari eta UBS-ari lotutako kontsumo-kuotak urteko erregai-kontsumo osoari kenduta, berokuntzarekin lotutako urteko kontsumoa lortzen da.



10. Irudia: udako UBS kontsumoaren estimazioan oinarritutako datuen azterketa.

- Bigarren ikuspegia, funtsean, etxe-erabileren araberako erregai kontsumoaren batez besteko banaketan oinarritzen da, literatura-analisiaren urratsetik datorrena. Prozesua 11. Irudian laburbiltzen da.

**Erregai-kontsumoa - Faktura**



**11. Irudia: etxe-erabileren araberako erregai kontsumoaren banaketan oinarritutako datuen azterketa.**

Bi ikuspegietako emaitzak alderatu egiten dira, antzekoak direla konprobatzeko. Konparaketa hori modu berezian egin liteke, laginetik lortutako berokuntza-kontsumoaren edo UBSren datu guztiak grafikatu. Gainera, lortutako berokuntzaren eta UBSren batez besteko energia-kontsumoak konparatzen dira.

Azkenik, garrantzitsua da deskribatutako prozeduraren oinarri diren hipotesiak egiaztatzea, hau da, laginak banaketa normala jarraitzen duela eta baita laginaren gutxieneko tamaina kalkulatzeko aurreikusitako bariantza balioa ere. Emaitzak histogrametan grafikatu, bildutako laginaren normaltasuna egiazta daiteke.

**3.2.1.3.3 Erregresio lineal anizkoitza**

Atal honetan, etxebizitza mota ezberdinen berokuntza-eskaerak lortzeko proposatzen den behetik gorako erregresio estatistikoaren metodoa deskribatzen da, kontsumo errearen datuetan oinarritutakoa eta eraikin-arketipoen ereduen emaitzak balioztatzen lagun dezakeena.

**3.2.1.3.3.1 Erregresio lineal anizkoitzaren oinarriak**

Erregresio lineal anizkoitza modelizazio estatistikoko teknika bat da, menpeko aldagai baten ( $y$ ) eta aldagai aske bat baino gehiagoren ( $x_i$ ) arteko eredu linealak doitzeko erabiltzen dena. Helburua, beraz, ekuazio-sistema bateko  $b_i$  koefizienteak lortzea da,  $j$  kasu bakoitzeko hurrengo itxurako ekuazioz osatuta dagoena.

$$y_j = b_0 + b_1 \cdot x_{1j} + b_2 \cdot x_{2j} + b_3 \cdot x_{3j} + \dots + b_n \cdot x_{nj} + u \quad (15)$$

non  $u$  ausazko termino edo perturbazioa den, eredian sartu gabeko aldagaiek eragindako efektuak edota ausazko eraginak adierazten dituen.  $b_i$  koefizienteak behatutako eta aurreikusitako balioen arteko diferentzien karratuen batura minimoa izan dadin definitzen

dira, hondar-bariantza minimizatuz. Ekuazio-sistemaren ebazpena notazio matrizialean dagoen 16. ekuazioak ematen du.

$$b = (X'X)^{-1}X'y \quad (16)$$

non  $b$  estimatutako koefizienteen bektorea den,  $y$  menpeko aldagaien balioen bektorea eta  $X$  aldagai askeen matrizea. Ekuazioa erraz ebatzi daiteke software matematikoekin. Lan honetan Matlab programa erabili da.

$R^2$  determinazio-koefizienteak erregresio-ereduak azaltzen duen mendeko aldagaiaren bariantzaren ehunekoak zehazten du. 0,6 – 0,8 bitarteko balioa egokitzat hartzen ohi da.


### 3.2.1.3.3.2 *Proposatutako prozesua*

Literaturan eraikuntza parkeen energia kontsumoa kalkulatzeko posta-kode mailako kontsumo-datu agregatuak erabiltzen dituzten zenbait ikerketa aurki daitezke [23][24]. Beraz, analisi horien esparrua hiri-eskala da. Hala ere, Espainian ez da ohikoa posta-kode mailako kontsumoak publikoki eskuragarriak egotea, eta horrek zaila egiten du aurreko planteamendua aplikatzea. Horren ordez, metodologia honek erregresio teknika eskualde-eskalan aplikatzea proposatzen du, udal-mailako kontsumo balio agregatuak erabiliz.

Agenda 21eko testuinguruan udalek ezarritako Tokiko Ekintza Planek (TEP) zenbait Iraunkortasun Adierazleren erabilera bultzatzen dute, plan horien jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko. Adierazle horietako batzuk udalerriko energia-kontsumoarekin erlazionatuta daude, sarritan gas natural kontsumoa barne hartuz. Proposatutako prozedurak datu horietaz baliatzen da erregresio lineal anizkoitza aplikatzeko. Zentzu honetan, bi aspektu hartu behar dira kontuan:

- Gas naturala etxeko berokuntza-eskaria ez ezik, etxeko beste erabilera termiko batzuk asetzeko ere erabiltzen da, hala nola, UBS eta sukaldea.
- Udallerri baten etxebizitzaren berokuntza-eskaria gas naturalarekin ez ezik, beste energia-iturri eta erregai batzuekin ere asetzen da, hala nola elektrizitatea, GLP edo gasolioa.

Beraz, Iraunkortasun Adierazleetatik lortutako gas natural bizitegi-kontsumo municipalen datuak jorratu egin behar dira lehenbizi, 12. Irudian adierazitako prozesua jarraituz, erregresioan erabili beharreko balioak lortzeko, hau da, udallerri ezberdinen etxebizitza-parkeen berokuntza-eskaera agregatuak. Horretarako, SECH-SPAHOUSEC analititik lortutako azken energia-erabilerei lotutako erregai-kontsumoaren banaketa, IDAEk berokuntza sistemarako proposaturiko sasoiko batez besteko efizientziak [54] eta INEk adierazten duen berokuntzarako energia-iturrien distribuzioa [50] erabiltzen dira.



## 12. Irudia: erregresioan sartu beharreko datuen prestaketa-prozesua.

Izan ere, planteamendu honetan erregresioaren aldagai askeak udalerrri ezberdinen etxebizitza-parkeen berokuntza-eskaera agregatuak dira, parkearen azalera osoarekin normalizatuta ( $\text{kWh/m}^2$ ).  $X_i$  aldagaiak etxebizitza-mota bakoitzaren azalaren zatia dira (%), udalerriko parkearen azalera osoarekiko. Lortu nahi diren  $b_i$  koefizienteak, beraz, etxebizitza-mota bakoitzaren berokuntza-eskaera izango lirateke, gainazal unitateko. Idealki, erregresioan sartu beharreko etxebizitza-motak lan honetan modelatutako eraikin-arketipoen berdinak izan beharko lirateke, zeinen berokuntza-eskaerak balioztatu nahi diren. Hala ere, erregresioan erabili daitezkeen etxebizitza-mota kopurua, eskuragarri dauden udal kontsumo-datu kopuruak mugatzen du. Zenbat eta kontsumo datu gehiago, orduan eta sakonagoa izango da erregresioak onartzen duen etxebizitza-moten sailkapena.

Bestalde, kontuan izan behar da horrelako metodo estatistikoaren aplikazioaren helburua etxebizitza-mota ezberdinen energia-eskaria lortzea dela, kokapen zehatz batean eta, beraz, baldintza klimatiko batzuentzako. Beraz, metodo hau hiri-mailatik goragoko eskala batean aplikatzeak hurrengo koherentzia-baldintzak mantentzera behartzen du, egiaztatu behar direnak:


- Baldintza klimatikoak antzekoak izan behar dira erregresioan sartutako udalerrri guztietan. Beraz, gradu-egun ezberdineko udalerrriak kontuan izateak ez luke koherentziarik izango.
- Udalerrri guztiek antzeko etxebizitza-motak izan behar dituzte, analisisan sartutako etxebizitza-moten multzoa udal-parke osoaren zati esanguratsua izanik.

### 3.2.1.3.4 Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Ebaluazioa

Atal honen xedea Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien (EEZ) aplikagarritasuna aztertzea da, eraikinen energia-ereduen emaitzak balioztatzekeko modu osagarri gisa. Egun, etxebizitzak

saltzeko edo alokatzeko ezinbesteko betekizuna da ziurtagiria izatea eta, ondorioz, EEZ horiek datuen iturri zabal eta interesgarri bihurtu dira.

EEZen erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren web orrian aurki daiteke [63]. EEZ osoaren orde, datu-base horrek etxebizitza bakoitzaren eraginkortasun energetikoaren azken etiketa eskaintzen du, 13. Irudian adierazitakoaren modukoa. Ondoren azaldutako ikerketa etiketa horien analisisan oinarritzen da.




13. Irudia: jasotako eraginkortasun energetikoaren etiketen adibidea.

Espainiako energia eraginkortasunaren ziurtapenak historikoki CO<sub>2</sub> emisioak izan ditu adierazle nagusi gisa. Hasieran, 93/76/CEE Zuzentarauaren ondorioz, CO<sub>2</sub> emisioak mugatzearekin lotua zegoena. Ondorengo 2002/91/CE Zuzentarauak ez zuen esplizituki zehaztu eraginkortasuna neurtzeko zein adierazle erabili. Aurrerago, 2010/31/UE Zuzentarauak lehengo aldiz EEZ-etan Energia Primarioaren (EP) adierazlea ere erabiltzearen betekizuna ezarri zuen.

Gaur egun EEZen etiketetan agertzen diren bi balio horietaz, CO<sub>2</sub> emisioak eta EP kontsumoa, baliatzen da aurkeztutako metodoa. Espainian jarraitutako energia ziurtapen prozedurari jarraiki, etxebizitzaren kasuan balio horiek berokuntzaren, hozketaren eta UBSren azken erabilerei dagozkie, eta baita energia berriztagarrien bidezko autokontsumoari (hemen aipatuko ez dena). Azterketa honetan hozketaren azken erabilera alde batera uzten da eta, beraz, metodo hau hozketa hutsala den lekuetan baino ez lizateke aplikagarria izango.

14. Irudiak burututako azterketa laburbiltzen du, non eraginkortasun energetikoaren etiketetako balioak urdinez adierazten diren.

Eraginkortasun energetikoaren etiketetako datuak etxebizitzako azaleraren metro karratuko daude adierazita. Beraz, lehenbizi, katastrofik ateratako etxebizitzaren azalera erabiliz, urteko EP kontsumo totala eta urteko CO<sub>2</sub> emisio totalak kalkula daitezke.



**14. Irudia: etiketatik lortutako balioetatik berokuntza-kontsumoak estimatzeko definitutako metodoa.**

Ondoren, aztertutako etxebizitzari zein erregai dagokion aztertu da. CE3, CE3X eta “Herramienta unificada LIDER-CALENER” (HULC) ziurtapen programek erabiltzen dituzten azken energiako konbertsio faktore berak hartu dira kontuan, zeinak gasolioari, PGLri, gas naturalari eta elektrizitateari dagozkien. 5. Taulak konbertsio-faktore horiek laburbiltzen ditu. CTE-rekin eta RITE-rekin beharrezkoa den koherentziak bultzatuta, biak 2013an eguneratuak, Espainiako eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko prozedura eguneratu behar izan zen. Horrela, 2016ko urtarrilean 5. Taulako konbertsio-faktoreak aldatu egin ziren eta berriak aplikatzen hasi [64]. Halere, lan honetan aztertu diren energia-etiketa guztiak aitzineko ziurtapen prozedura indarrean zegoenekoak dira eta, ondorioz, hemen bildutako faktoreak aplikatu behar dira.

**5. Taula: erregai bakoitzaren konbertsio-faktoreak.**

|                       | $kWh_{EP}/kWh_{EF}$ | $kgCO_2/kWh_{EF}$ |
|-----------------------|---------------------|-------------------|
| <b>Gasolioa</b>       | 1,08                | 0,287             |
| <b>PGL</b>            | 1,08                | 0,244             |
| <b>Gas naturala</b>   | 1,01                | 0,204             |
| <b>Elektrizitatea</b> | 2,61                | 0,649             |

Urteko CO<sub>2</sub> emisioei eta EP kontsumoari konbertsio-faktoreak aplikatuz, erregai bakoitzarekin bi modutara lortzen da etxebizitzako azken energia kontsumoa. Hurrengo arrazoibidea jarraitzen da.

- Azken energia kontsumoen balioen arteko alderik txikiena ematen duen erregaia hautatzen da.



- Gutxieneko alde hori onargarria ahal bada, suposatzen da azken erabilerak (hau da, UBS eta berokuntza), hautatutako erregaiarekin asetzen direla eta energia kontsumoaren azken balioa hori ontzat ematen da (hemen, alde txikiak beti egongo direla izan behar da kontuan; adibidez, energia-etiketako balioen biribiltzea dela-eta).

Baliteke kasu batzuetan lortutako azken energia kontsumo balioen aldea handia izatea. Hainbat arrazoirengatik izan daiteke hori. Hainbat sistema edo erregai egoteagatik UBSrako eta berokuntzarako, edota energia berriztagarriek asetzen duten eskaera energetikoko zati bat existitzeagatik. Kasu horiek azterketatik kanpo uzten dira.

Bestalde, UBSren eskaera “*Documento de condiciones de aceptación de Programas Informáticos Alternativos*” dokumentuaren arabera kalkulatzen da [65], metro karratuko 0,03 pertsonako okupazioa eta eguneko 22 litro UBS *per capita* kontsumoa suposatuz. UBS-a 60°C-ra berotzen dela onartu daiteke, eta urteko batez besteko sarrera temperatura zona klimatikoari dagokiona. Horrela, urteko UBSren energia-eskaera lortzen da.

Dagokion kontsumoaren balioa kalkulatzeko, etxebizitzek berokuntzarako eta UBS-rako sistema bera erabiltzen dutela suposatzen da, eta sistema hori banakakoa dela. Hori dela medio, 6. Taulako sasoiko batez besteko efizientziak aplikatzen dira.

6. Taula: banakako sistemen sasoiko batez besteko efizientziak [54].

| Sasoiko batez besteko efizientziak – Banakako sistemak |     |
|--|-----|
| Gasolioa   | %75 |
| PGL  | %75 |
| Gas naturala   | %70 |
| Elektrizitatea   | %99 |

UBSri dagokion kontsumoa kenduta, berokuntzari dagokion azken energia kontsumoa kalkulatzen da.

### 3.2.1.3.5 Maila agregatuzko balioztatzea

Aurreko urratsak modelatutako eraikin-arketipoen berokuntza eskariak modu berezian balioestera bideratuta daude, eta eraikin-mailako balioen konparazioan oinarritzen dira. Hala ere, erregresio-analisan erabilitako datuak hiri-mailako balioztatze agregatu baterako ere erabil litezke.

Izan ere, deskribatutako erregresioak udalerrri ezberdinen etxebizitza-parkeen berokuntza-eskari agregatuak erabiltzen ditu sarrerako datu gisa, horien artean aztertutako hiriarri dagozkion balioak daudelarik. Beraz, balio hauek modelatutako eraikin-arketipoen emaitzen balioztapen agregatu bat burutzeko erabil daitezke, arketipo bakoitzaren emaitza bizitegi-parkean duen pisuaren arabera agregatuz.

Halaber, Bilboko TEPearen agertzen den informazioa osatzeko eta, horrela, hiriaren bizitegi-sektorearen gas natural kontsumoaren bilakaera historikoari buruzko informazio gehiago

lortzeko, Udaleko Ingurumen Saila kontaktatu da. Bere laguntzari esker, 2004-2017 aldiko kontsumo bilakaera osoa bildu eta horrekin, erregresiorako azaldu den prozesua jarraituz, bizitegi-sektoreko berokuntza-eskaria estimatu egin da.

### **3.2.2 Birgarren fasea: energia-jardueraren kostu-maila optimoaren kalkulua**

#### **3.2.2.1.1 Aplikaturako metodologiaren irismena**

Tesi honek kostu-maila optimoaren metodologia hiri-mailan aplikatzea proposatzen du. Eskala horrek estatu-mailakoa baino txikiagoa den eraikin heterogeneotasun bat eskaintzen du, eta eraikuntza-ezaugarrien azterketa sakonagoa egiteko aukera ematen du.

Proposaturiko metodologia Bilbo hiriarri aplikatu zaio, lehenengo fasean modelaturako 17 eraikin-arketipoak erreferentziatzeko eraikin gisa erabiliz. Eraikin-arketipo horien ezaugarriak II. eranskineko II.23. taulan laburbiltzen dira. Bizitegi-sektore osoa ordezkatzen duten arketipo horiei, energia-eraginkortasuneko neurri ezberdinak aplikatu zaizkie.

Azterketaren kalkulu-aldia 28 urtekoa izan da, 2022an hasi eta 2050ean amaitzen dena, ekonomia deskarbonizatzeke Europako helburua lortu beharreko unea.

Atal honetan burututako analisiaren irismena deskribatzen da.

##### **3.2.2.1.1.1 Sistemen erabilera eta kudeaketa**

Eraikin bateko energia-kontsumoa zehazten duten faktoreen artean, eraikinaren energia-sistemen erabilera eta kudeaketa daude. Energia-eraginkortasunaren ikuspegitik, erabilera hori arrazionalizatzea sustatu beharrezko lehenengo ekintza kontsideratzen ohi da, eta horrek eragin nabarmena izan dezake eraikinaren energia-eskaeran.

Kudeaketa-sistema inteligenteak sustatzeaz aparte, energia-sistemen erabileran eta kudeaketan eragiteko moduek ez dute izaera teknikoa. Hain zuzen ere, erabiltzaileen kemena da beharrezkoa, efizienteagoak izateko, eta hori heziketa eta sentsibilizazio ekintzen bidez sustatu beharra dago.

Zentzu honetan, zaila da energiaren erabilera eta kudeaketa eraginkorrago batek energia-kontsumoan izan dezakeen eragina kuantifikatzea, eta ez da bizitegi-sektorearentzako horrelako kalkulurik topatu. Eskuragarri dagoen informazio bakarra GTRk administrazio eta hezkuntza eraikinentzako estimatutako %10ko kontsumo murrizketa da [21].

Halaber, eraikin-arketipoen modelizazio eta simulazioan, azaldu den bezala, erabiltzaile arrazional baten batz besteko portaera bat kontsideratu da, berokuntza-sistemen erabilera-profilei dagokienez. Beraz, lan honetan ez litzateke egokia izango aipaturiko arrazionalizazio energetikoak ebaluatzeak, eta baztertu egiten dira. Horrenbestez, birgaitze neurri-pakete ezberdinei dagozkien energia-kalkulu guztiak eraikinaren barne-baldintza berberekin burutzen dira.

##### **3.2.2.1.1.2 Aztertutako azken energia-erabilerak**

Etxeko elementu askok, hala nola etxetresna elektrikoek eta argiztapenak, erabiltzen diren ordu-kopuruarekiko proportzionala den energia-kontsumoa dute, berezko energia-

eraginkortasunarekin ere lotuta dagoena. Horien erabilera optimotik hurbil dagoela jotzen bada edo, gutxienez, erabilera hori saihestezina dela, energia-kontsumoa murrizteko modu bakarra eraginkortasuna hobetzea da, egungo ekipoaren ordeztu eraginkorrago bat jarritz.

Oro har, ekipo hauek berritzeak ez du operazio konplexurik eskatzen, ekipo zaharra deskonektatu eta berria konektatzearekin nahikoa da. Halaber, etxetresna elektrikoek eta argiztapenaren ordeztapenak ekonomikoki oso bideragarriak frogatu dira, amortizazio-aldia laburra delarik. Gainera, ekipo horien ordeztapena euren bizitza erabilgarriaren amaieran baino ez dela burutzen suposatzen bada ere, epe-luzean erabat berrituko direla kontsidera daiteke. Beraz, kostu-maila optimoaren metodologiaren aplikazio honek ez ditu etxeko tresnen eta argien hobekuntza energetikoak kontuan hartzen, datozen urteetan zehar derrigorrez gertatuko baitira.

Bestalde, Bilboko baldintza klimatikoetan hozte-eskaria baztergarria da. Beraz, burututako analisiak berokuntzaren eta UBS kontsumoaren azken energia-erabilerak hartzen ditu kontutan.

### 3.2.2.1.1.3 Kalkulu-prozesu orokorra

Kostu-maila optimoaren metodologiak eraikin bati hornitutako Energia Primarioa (EP) baino ez du kontuan hartzen eta, beraz, tokiko energia berriztagarri ekoizpena alde batera uzten du. Aldi berean, CTEk eraikinentzako ezartzen duen EP kontsumo maximoak tokiko energia berriztagarri hori barne hartzen du. Beraz, balio horiek ez dira alderagarriak. Hala, kostu-maila optimoaren metodologiaren emaitzak Espainiako araudiak ezarritako EP atalaseekin alderatzeko, EP ez-berriztagarriaren (EP-eb) kontsumoa erabili da adierazle gisa, azken honetarako ere muga-balioak definitzen baititu CTEk. Bilboko zona klimatikorako, CTEk 32 kWh/m<sup>2</sup>-urte-ko muga – NZEB maila – ezartzen du eraikin berrietarako.

Halaber, soluzio tekniko ugari daude UBSko eta berokuntzako energia-kontsumoa murrizteko; beraz, birgaitze aukeren konbinazioa oso zabala izan daiteke. Análisi honetan eraginkortasun energetikoko neurri (EEN) posibleen arrazoizko multzo bat kontsideratu da, ez duena osoa edota itxia izan nahi. Hautatutako EENak gaur egungo praktika hedatuetan oinarritzen dira, teknikoki bideragarriak direla eta eraikin askotan aplikatu daitezkeela egiaztatzen direnak.

Esku-hartzeek hiru helburu nagusi dituzte: berokuntza-eskaria murriztea, beharrezkoa den energia modu eraginkorragoan hornitzea eta energia berriztagarrien ekarpena handitzea. Horrela, EP-eb kontsumoan duten eragina ebaluatzeko, lau pausuko prozedura burutu da:

- Lehenik eta behin, berokuntzako energia-eskaria kalkulatu da, Design Builder softwarean eraikin-ereduak simulatuz. Bestalde, UBS energia-eskaria metodologiaren lehenengo faseko erregai-kontsumo inkestaren emaitzen arabera estimatu da.
- Ondoren, eskari horieri dagozkien azken energia-kontsumoak kalkulatu dira, horiek asetzeko sistemen sasoiko batez besteko efizientziak aplikatuz.
- Energia berriztagarriko sistemen ekoizpena SAM softwarearekin [34] egin da.
- Azkenik, EP-eb kontsumoa kalkulatu da, azken energia-kontsumoari dagozkien igarotze-faktoreak aplikatuz eta energia berriztagarrien ekarpenak eraziz.

### 3.2.2.1.2 Berokuntza eta UBS sistemak

EEEren arabera [66], Euskadin ohikoa da UBS ekoizteko sistemak berokuntza sistemarekin bat egitea. Beraz, berokuntza-sistema kolektiboa zein banakakoa izan, etxebizitzek normalean sistema bera erabiltzen dute UBSa hornitzeko.

Antzeko ondorio bat atera daiteke SPAHOUSEC II proiektuaren emaitzetatik [67], Ipar Atlantikoko zona klimatikoan dauden berokuntza eta UBS sistemen distribuzioari dagokionez. Horien arabera, apartamentu-blokeetan kokatutako etxebizitzek %67,4k berokuntza espazialerako galdara bat (konbentzionala edo kondentsaziozkoa) erabiltzen dute, eta %28,1k sistema elektrikoren bat. UBSren ekoizpen-sistemari dagokionez, etxebizitzek %68,6k galdara erabiltzen dute, eta beste %18,2k sistema elektrikoa; %10,7k, berriz, gas naturaleko termoak erabiltzen dituzte. Beraz, ondorioztatu daiteke berokuntzako sistema elektrikoa erabiltzen duten etxebizitzek zati batek gas naturala erabiltzen duela UBS ekoizteko erregai gisa. Hala ere, berokuntzarako eta UBSrako erregai eta sistema desberdinak erabiltzen dituzten etxebizitzek proportzioa itxuraz txikiagoa izaten jarraitzen du.

Horren ondorioz, lan honetako erreferentziazko eraikinetan, etxebizitzek UBSren ekoizpen-sistema berokuntza-sistemaren berdina kontsideratzen da, eta INEren azken honen distribuzioari buruzko estatistiken arabera zehazten da. Alde batetik, 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldak etxebizitzek berokuntza-sistemak sistema kolektiboetan, banakako sistemetan eta berokuntza-gailu independenteetan banatzen ditu [50], baina ez du sistema horiek erabilitako erregaiari buruzko informazioa ematen. Hori lortzeko, aurreko errolda, 2001. urteari dagokiona, aztertu behar da. Errolda horretan, berokuntzan erabilitako erregaiak gas naturalean, elektrizitatean eta petrolioaren eratorrietan (gasolioan) banatzen ditu, baztergarriak diren beste batzuen artean (besteak beste, zura).

Bestalde, Euskadin gas naturala askoz gehiago erabiltzen da banakako berokuntza-sistemetan berokuntza kolektiboko sistemetan baino. Gasolioa, berriz, sistema zentralizatueta erabiltzen ohi da [66]. Hori dela medio, hipotesi hauek ezarri dira modelatutako eraikin-arketipo bakoitzarentzako berokuntza-sistema motarekin eta kontsumitutako erregaiarekin lotutako datuak gurutzatzean.

- Banakako berokuntza-gailuak elektrikotzat hartzen dira.
- Berokuntzarako energia elektrikoa erabiltzen duten gainerako etxebizitzek berokuntza-sistema indibidualak dituztela kontsideratzen da.
- Gas naturalezko sistemak banakakoak edo kolektiboak izan daitezke. Beraz, gas naturalezko banakako sistemak dituzten etxebizitzek proportzioa hurrengo bi balioen artean txikiena dela jotzen da:
  - Gas naturala kontsumitzen duten etxebizitzek kuota.
  - Aldez aurretik estimatutako berokuntza-sistema indibidual elektrikoak dituzten etxebizitzek zatia kenduta, banakako berokuntza-sistemak dituzten etxebizitzek gainerako zatia.
- Gas naturala erabiltzen duten gainerako etxebizitzek berokuntza sistema kolektiboak dituztela suposatzen da.

- Berokuntza sistema kolektiboak dituzten gainerako etxebizitzek gasolioa kontsumitzen dutela jotzen da.
- Berokuntzarako gasolioa erabiltzen duten gainerako etxebizitzek sistema indibidualak dituztela kontsideratzen da.

Hipotesi hauetan oinarrituz 7. Taula lortu da, Bilboren kasuan identifikatutako etxebizitza adierazgarri bakoitzaren berokuntza eta UBS ekoizpen-sistemen banaketa gisa.

7. Taula: Bilboko etxebizitza adierazgarri bakoitzaren berokuntza eta UBS ekoizpen-sistemen banaketa.

| Etxebizitza adierazgarria <sup>3</sup> | Banakako berokuntza gailuak | Sistema indibidual elektrikoa | Gas naturalezko sistema indibiduala | Gasoliozko sistema indibiduala | Gas naturalezko sistema kolektiboa | Gasoliozko sistema kolektiboa |
|--|-----------------------------|-------------------------------|-------------------------------------|--------------------------------|------------------------------------|-------------------------------|
| 1. EA                                  | %46,2                       | %13,0                         | %36,0                               | %4,8                           | %0,0                               | %0,0                          |
| 2. EA                                  | %30,5                       | %16,9                         | %47,3                               | %3,6                           | %0,0                               | %1,7                          |
| 3. EA                                  | %32,7                       | %20,3                         | %39,7                               | %5,7                           | %0,0                               | %1,5                          |
| 4. EA                                  | %23,1                       | %15,4                         | %52,8                               | %0,1                           | %0,0                               | %8,5                          |
| 5. EA                                  | %2,3                        | %22,7                         | %55,2                               | %0,0                           | %6,3                               | %13,5                         |
| 6. EA                                  | %0,0                        | %11,4                         | %43,4                               | %0,0                           | %24,4                              | %20,8                         |
| 7. EA                                  | %45,4                       | %10,4                         | %41,3                               | %1,1                           | %0,0                               | %1,8                          |
| 8. EA                                  | %24,1                       | %16,5                         | %46,3                               | %0,0                           | %2,1                               | %11,0                         |
| 9. EA                                  | %35,7                       | %2,8                          | %51,7                               | %0,9                           | %0,0                               | %8,9                          |
| 10. EA                                 | %20,5                       | %13,3                         | %36,1                               | %0,0                           | %10,2                              | %19,9                         |
| 11. EA                                 | %2,3                        | %12,2                         | %8,4                                | %0,0                           | %30,0                              | %47,1                         |
| 12. EA                                 | %35,0                       | 33,4                          | %20,5                               | %1,5                           | %0,0                               | %9,6                          |
| 13. EA                                 | %15,8                       | %4,0                          | %33,5                               | %3,6                           | %0,0                               | %43,1                         |
| 14. EA                                 | %2,7                        | %8,7                          | %13,4                               | %0,0                           | %20,1                              | %55,1                         |
| 15. EA                                 | %3,8                        | %17,1                         | %64,8                               | %0,0                           | %0,0                               | %14,3                         |
| 16. EA                                 | %0,0                        | %18,4                         | %55,5                               | %2,6                           | %0,0                               | %23,4                         |
| 17. EA                                 | %0,0                        | %10,2                         | %21,9                               | %0,0                           | %22,2                              | %45,8                         |

Ikus daiteke sistema kolektiboak garrantzitsuak direla zenbait etxebizitza adierazgarritan, hala nola 6, 11, 13, 14 eta 17.etan. Hala ere, argazki orokorrari erreparatu gero, gas natural bidezko berokuntza-sistema indibidualak dira ohikoenak, etxebizitza guztien %40,9 osatuz. Ondoren, sistema elektrikoek etxebizitzaren %34,8 osatzen dute, berokuntza-gailuak eta banakako sistemak biak batera kontuan hartuz.

### 3.2.2.1.3 Erreferentziatzko eraikinak

Aurreko analisian oinarrituta, 17 eraikin-arketipoetako bakoitza bi erreferentziatzko eraikin (EE) ezberdinetan banatzen da:

<sup>3</sup> Bilborentzat definitutako 17 etxebizitza adierazgarrien eta hauek sorturiko 17 eraikin-arketipoen ezaugarri nagusiak II. Eranskineko II.7. eta II.23. taulatan laburbiltzen dira, hurrenez hurren.



- Berokuntza eta UBS ekoizpenerako sistema elektrikoak erabiltzen dituzten etxebizitzet osatutako erreferentziatzko eraikina, sistema horien sasoiko batez besteko efizientzia %99 dela suposatuz.
- Berokuntza eta UBS ekoizpenerako gas naturalezko galdara indibidualak erabiltzen dituzten etxebizitzet osatutako erreferentziatzko eraikina, sistema horien sasoiko batez besteko efizientzia %82 dela suposatuz.

Beraz, kostu-maila optimoaren metodologia 34 EEEi aplikatzen zaie. Hauek, eraikin-arketipo guztiek osatutako etxebizitza-multzoaren %76 adierazten dute edo, gauza bera dena, Bilboko bizitegi-parkearen %67.

EE bakoitzaren adierazgarritasuna 8. Taulan adierazten da. Kostu-maila optimoaren metodologiarekin aztertutako etxeak erdia baino gehiago direla etxebizitza adierazgarri guztietan, 11., 14. eta 17.ean izan ezik.

8. Taula: kostu-maila optimoaren metodologia aplikatu zaien EEak.

|               | <b>Etxebizitza kopurua</b> | <b>Gas naturalezko sistema duten EEak</b> | <b>Sistema elektrikoak duten EEak</b> | <b>Analisian sartutako etxebizitzet zatia</b> |
|---------------|----------------------------|---|---------------------------------------|---|
| <b>1. EA</b>  | 9.124                      | %36,0                                     | %59,2                                 | %95,2   |
| <b>2. EA</b>  | 9.926                      | %47,3                                     | %47,4                                 | %94,7   |
| <b>3. EA</b>  | 5.802                      | %39,7                                     | %53,0                                 | %92,7   |
| <b>4. EA</b>  | 13.060                     | %52,8                                     | %38,5                                 | %91,4   |
| <b>5. EA</b>  | 5.336                      | %55,2                                     | %24,9                                 | %80,2   |
| <b>6. EA</b>  | 3.749                      | %43,4                                     | %11,4                                 | %54,8   |
| <b>7. EA</b>  | 7.474                      | %41,3                                     | %55,8                                 | %97,1   |
| <b>8. EA</b>  | 8.663                      | %46,3                                     | %40,6                                 | %86,9   |
| <b>9. EA</b>  | 7.947                      | %51,7                                     | %38,5                                 | %90,2   |
| <b>10. EA</b> | 20.154                     | %36,1                                     | %33,8                                 | %69,8   |
| <b>11. EA</b> | 4.397                      | %8,4                                      | %14,5                                 | %22,9   |
| <b>12. EA</b> | 4.516                      | %20,5                                     | %68,3                                 | %88,9   |
| <b>13. EA</b> | 14.238                     | %33,5                                     | %19,8                                 | %53,3   |
| <b>14. EA</b> | 5.592                      | %13,4                                     | %11,4                                 | %24,8   |
| <b>15. EA</b> | 6.223                      | %64,8                                     | %20,8                                 | %85,6   |
| <b>16. EA</b> | 7.691                      | %55,5                                     | %18,4                                 | %73,9   |
| <b>17. EA</b> | 3.134                      | %21,9                                     | %10,2                                 | %32,1   |

### 3.2.2.1.4 Oinarritzko UBS eskaria

3.2.1.3.2. atalean, eraikin-arketipoen ereduak balioztatze erabilitako kontsumo-datu errealak biltzeko burututako inkesta deskribatzen da. Inkesta horrek, urteko berokuntza energia-kontsumoari buruzko informazioa emateaz gain, Bilboko biztanleen batez besteko UBS kontsumoa ere zenbatesten du.


Emaitzek egunean 59 litrotik 69ra bitarteko batez besteko kontsumoa erakusten dute, aplikatutako ikuspegiaren arabera. Estimazio horietan 45°C-ko entrega-temperatura hartzen da kontuan UBSrentzako. Bestalde, CTE arauak emandako erreferentziatzko UBS kontsumoa,

egunean pertsonako 28 litro dena, 60°C-ko entrega-temperaturan definitzen da. Beraz, Bilbori dagozkion hileko batez besteko temperaturak erabiltzen dira inkestaren emaitzak 60°C-ko entrega-temperaturara egokitzeko. Temperatura horretan, egunean 37-43 litroren *per capita* erabilera lortzen da; hau da, CTEk emandako kontsumoa baino %32 eta %53 gehiago.

Beraz, bidezkoa dirudi galdetzea egungo estandar nazionala zaharkituta dagoen edota UBS kontsumo erreala behar bezala adierazten duen. Zentzu horretan, burututako inkestaren emaitzak etxebizitzaren UBS erabilerari buruzko informazioa biltzen duten beste azterketa magnitude-ordenaren barruan daude. Adibidez, [68]-k eguneko 45 litroko *per capita* kontsumoa ematen du Kanadarentzako, 52°C-tan adierazita. Australian, [69]-en kalkuluen arabera eguneko 62 litro kontsumitzen dituzte biztanleek, 40 °C-tan. Erresuma Batuko etxeek, berriz, egunean 122 litro UBS erabiltzen dituzte batez beste, 52 °C-tan [70]. Familien batez besteko tamaina 2,5 pertsonakoa izanik, biztanle bakoitzeko 49 litro lortzen dira.

Bestalde, dutxetan erabilitako UBS emariari dagokienez, 40°C-tan dagoen 0,13 – 0,14 l/s inguruko emari balioa tipikotzat har daiteke, [71]-k egindako azterketaren arabera. Horrek esan nahi du 5 minutuko dutxa bakar batean jada 42 litro UBS erabiliko lireratekeela, eta honi UBS kontsumitzen duten gainerako erabilerak gehitu behar zaizkio, hala nola sukaltarriarena, konketarena eta abar. Beraz, inkestatik lortutako UBS batez besteko kontsumoaren emaitzak espero diren balioen artean daudela ondoriozta daiteke.

Halaber, inkestaren emaitzek joera interesgarri bat erakusten dute: etxeko biztanle kopurua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa da UBS *per capita* kontsumoa (15. Irudia). Hau eskala-ekonomia efektu baten ondorio da, sukaltarriarenaren moduko kontsumoak biztanle gehiagoren artean banatzen direlako. Ondorioz, biztanle gutxiagoko etxebizitzek estandar nazionalak adierazten dutena baino UBS gehiago kontsumitzen dute pertsonako, beste ikerketa batzuetan gertatzen den bezala [72]. Aldiz, biztanle kopurua handitu ahala, UBSren batez besteko kontsumoa asko hurbiltzen da estandarren baliora.



**15. Irudia: etxeko biztanle kopuruaren arabera eguneko UBS per capita kontsumoa.**

Birgaitze energetikoen ebaluazioan, lor daitekeen energia-aurrezkoa gain-zenbatestea saihesteko, egunean 40 litroko UBS kontsumoa kontsideratzen da pertsonako, 60°C-ko temperaturan. Eraikin-arketipo bakoitzean egunean kontsumitzen den UBS balioesteko, arketipo bakoitzaren etxebizitza-kopurua eta hauen batez besteko okupazioa hartzen dira kontutan.

### 3.2.2.1.5 Eraginkortasun energetikoko neurriak

Aztertutako EENak 9. Taulan laburbiltzen dira.

9. Taula: aztertutako EENen deskribapen orokorra.

| EEN                                 | Deskribapena   | Izena               | Ezaugarri tekniko nagusiak   | Inbertsio-kostua               |
|-------------------------------------|--|---------------------|--|--------------------------------|
| Fatxadaren isolamendu termikoa      | Fatxadaren isolamendu-mailaren hobekuntza, kanpotik, morteroz finkatutako artile mineralako panelekin eta kanpoko mortero apaingarri iragazgaitzarekin. Beharrezko aldamiaioa barne.   | IL <sub>i</sub> - E | Artile minerala ( $\lambda = 0,038\text{W/mK}$ )   | 59 – 78 €/m <sup>2</sup>       |
|                                     | Fatxadaren isolamendu-mailaren hobekuntza, barrutik, artile mineralarekin eta igeltsuzko panelen zuzeneko estaldurarekin. Azken pintura barne.   | IL <sub>i</sub> - I | Artile minerala ( $\lambda = 0,038\text{W/mK}$ )   | 30 – 56 €/m <sup>2</sup>       |
| Teilatuaren isolamendu termikoa     | Zeramikazko teilak desmuntatzea, artile mineralako panelak zuzeko listoen artean instalatzea eta geruza iragazgaitza eta zeramikazko estalki berria jartzea. Isolamendu-panelen lodiera fatxadaren isolamenduarekin parekatu da.             | R <sub>li</sub>     | Artile minerala ( $\lambda = 0,038\text{W/mK}$ )   | 83 – 98 €/m <sup>2</sup>       |
| Barneko pareten isolamendu termikoa | Berokuntzarik gabeko eremuekin kontaktuan dauden hormei 1 cm-ko isolamendua gehitzea.  | PI                  | EPS ( $\lambda = 0,038\text{W/mK}$ )   | 30 €/m <sup>2</sup>            |
| Leihoen ordezkapena                 | Beira bikoitzeko 4/6/4 leihoak jartzea, PVCzko markoarekin.  | W1                  | $U_{\text{beira}} = 3,3 \text{ W/m}^2\text{K}$ ; $g = 0,76$  | 267 €/m <sup>2</sup>           |
|                                     | Emisibitate txikiko eta beira bikoitzeko 6/16/4 leihoak jartzea, PVCzko markoarekin.   | W2                  | $U_{\text{beira}} = 1,4 \text{ W/m}^2\text{K}$ ; $g = 0,63$  | 307 €/m <sup>2</sup>           |
| Berokuntza-sistemaren hobekuntza    | Kondentsaziozko galdara berria instalatzea.  | CB                  | 25 kW<br>Sasoiko efizientzia = %86 (GBA)   | 2.000 €                        |
|                                     | GN hornitzeko linea berri bat, kontagailua, etxebizitzaren GN instalazioa, termostatoa, ur beroa banatzeko hodiak eta erradiadoreak instalatzea.   |                     | -  | 41 – 52 €/m <sup>2</sup>       |
| Eguzki-kolektore termikoak          | UBS ekoizteko kolektore lauen instalazioa, euskarri-egiturak, konexio hidraulikoak, bero-trukagailua, ponpak, UBS biltegitratze-depositua eta etxebizitza bakoitzera UBS banatzeko hodiak barne. UBS eskariaren %30 asetzeko dimentsionatua. | DHW 30%             | Kolektorearen azalera = 2,3 m <sup>2</sup><br>$F_R(\tau\alpha)_n = 0,76$<br>$F_R U_L = 4 \text{ W/m}^2\text{K}$                        | 1.046 – 1.419 €/m <sup>2</sup> |
|                                     | UBS ekoizteko kolektore lauen instalazioa, euskarri-egiturak, konexio hidraulikoak, bero-trukagailua, ponpak, UBS biltegitratze-depositua eta etxebizitza bakoitzera UBS banatzeko hodiak barne. UBS eskariaren %60 asetzeko dimentsionatua. | DHW 60%             |  | 688 – 844 €/m <sup>2</sup>     |
| Energia fotovoltaikoa               | Teilatuan sistema fotovoltaiko baten instalazioa, multi-c-Si panelez osatua, haren euskarri-egitura eta inbertsorearekin. Muntaketa-ziurtagiriak eta instalazioa legeztatze beharrezko txosten teknikoak barne.                              | PV                  | 330 W <sub>p</sub> panelak (1,95 m <sup>2</sup> )<br>Panelen ef. nominala = %17<br>Inbertsorearen ef. = %97<br>Degradazioa = %0,8/urte | 205 – 220 €/m <sup>2</sup>     |

Kanpoko isolamendu termikoaren lau maila eta barneko isolamendu termikoaren hiru maila ezberdin aztertu dira, aurreko CTEaren [20] eta EnerPHit-en [73] mailen artean. Kasu bakoitzean, isolamendu-maila bera aplikatu zaio fatxada eta teilatuari, ingurutzaileren isolamendu koherente bat bermatuz. 10. Taulak EE bakoitzari aplikaturiko isolamendu-lodierak adierazten ditu, jatorrizko fatxada-motaren arabera desberdinak direnak. 1981aren osteko eraikinak jadanik zertxobait isolatuta daudenez, horietan kanpoko hiru isolamendu-maila baino ez dira ebaluatu. Bere jarraitutasuna dela eta, kanpo-isolamenduak nabarmen murriztu dezake zenbait zubi termikoren eragina: analisisian kontuan hartu diren transmitantzia linealeko birgaitu osteko balioak CTEko katalogotik lortu dira [74].



10. Taula: EE bakoitzari aplikaturiko isolamendu lodiera-mailak eta birgaitutako fatxadaren U-balioak.

|                   |   | EE                                      | 1           | 2           | 3           | 4           | 5           | 6           | 7           | 8           | 9           | 10          | 11          | 12          | 13          | 14          | 15          | 16          | 17          |      |  |      |  |  |  |      |  |  |  |  |
|-------------------|---|---|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|------|--|------|--|--|--|------|--|--|--|--|
|                   |   | <b>Fatxadaren U (W/m<sup>2</sup>K)</b>  | <b>1,77</b> | <b>1,77</b> | <b>2,09</b> | <b>1,77</b> | <b>1,77</b> | <b>1,77</b> | <b>1,26</b> | <b>1,26</b> | <b>1,26</b> | <b>1,38</b> | <b>1,26</b> | <b>1,38</b> | <b>1,38</b> | <b>1,38</b> | <b>0,63</b> | <b>0,93</b> | <b>0,75</b> |      |  |      |  |  |  |      |  |  |  |  |
| Kanpo-isolamendua | IL1 - E                                 | Gehitutako isol. lodiera (cm)           | 3           | 3           | 3           | 3           | 3           | 3           | 2           | 2           | 2           | 2           | 2           | 2           | 2           | 2           | 2           | 3           | 2           |      |  |      |  |  |  |      |  |  |  |  |
|                   |   | Birg. fatxadaren U (W/m <sup>2</sup> K) | 0,74        | 0,74        | 0,78        | 0,74        | 0,74        | 0,74        | 0,76        | 0,76        | 0,76        | 0,8         | 0,76        | 0,8         | 0,8         | 0,8         | 0,47        | 0,54        | 0,54        |      |  |      |  |  |  |      |  |  |  |  |
|                   | IL2 - E                                 | Gehitutako isol. lodiera (cm)           | 5           | 5           | 6           | 5           | 5           | 5           | 4           | 4           | 4           | 4           | 4           | 4           | 4           | 4           | 4           | 4           | 6           | 5    |  |      |  |  |  |      |  |  |  |  |
|                   |   | Birg. fatxadaren U (W/m <sup>2</sup> K) | 0,47        | 0,47        | 0,48        | 0,47        | 0,47        | 0,47        | 0,54        | 0,54        | 0,54        | 0,56        | 0,54        | 0,56        | 0,56        | 0,56        | 0,56        | 0,38        | 0,38        | 0,38 |  |      |  |  |  |      |  |  |  |  |
|                   | IL3 - E                                 | Gehitutako isol. lodiera (cm)           | 7           | 7           | 8           | 7           | 7           | 7           | 7           | 7           | 7           | 7           | 7           | 7           | 7           | 7           | 7           | 7           | 9           | 8    |  |      |  |  |  |      |  |  |  |  |
|                   |   | Birg. fatxadaren U (W/m <sup>2</sup> K) | 0,37        | 0,37        | 0,38        | 0,37        | 0,37        | 0,37        | 0,38        | 0,38        | 0,38        | 0,39        | 0,38        | 0,39        | 0,39        | 0,39        | 0,39        | 0,29        | 0,29        | 0,29 |  |      |  |  |  |      |  |  |  |  |
|                   | IL4 - E                                 | Gehitutako isol. lodiera (cm)           | 11          | 11          | 11          | 11          | 11          | 11          | 10          | 10          | 10          | 10          | 10          | 10          | 10          | 10          | 10          |             |             |      |  |      |  |  |  |      |  |  |  |  |
|                   |   | Birg. fatxadaren U (W/m <sup>2</sup> K) | 0,29        | 0,29        | 0,29        | 0,29        | 0,29        | 0,29        | 0,29        | 0,29        | 0,29        | 0,3         | 0,29        | 0,3         | 0,3         | 0,3         |             |             |             |      |  |      |  |  |  |      |  |  |  |  |
| Barne-isolamendua | IL1 - I                                 | Gehitutako isol. lodiera (cm)           | 3           | 3           | 3           | 3           | 3           | 2           | 2           | 2           | 2           | 2           | 2           | 2           | 2           |             |             |             |             |      |  |      |  |  |  |      |  |  |  |  |
|                   |   | Birg. fatxadaren U (W/m <sup>2</sup> K) | 0,74        | 0,74        | 0,78        | 0,74        | 0,74        | 0,74        | 0,76        | 0,76        | 0,76        | 0,8         | 0,76        | 0,8         | 0,8         |             |             |             |             |      |  | 0,8  |  |  |  |      |  |  |  |  |
| IL2 - I           | Gehitutako isol. lodiera (cm)           | 4                                       | 4           | 4           | 4           | 4           | 4           | 3           | 3           | 3           | 3           | 3           | 3           | 3           |             |             |             |             |             |      |  |      |  |  |  |      |  |  |  |  |
|                   | Birg. fatxadaren U (W/m <sup>2</sup> K) | 0,62                                    | 0,62        | 0,65        | 0,62        | 0,62        | 0,62        | 0,63        | 0,63        | 0,63        | 0,66        | 0,63        | 0,66        | 0,66        |             |             |             |             |             |      |  | 0,66 |  |  |  |      |  |  |  |  |
| IL3 - I           | Gehitutako isol. lodiera (cm)           | 6                                       | 6           | 6           | 6           | 6           | 6           | 5           | 5           | 5           | 5           | 5           | 5           | 5           |             |             |             |             |             |      |  |      |  |  |  |      |  |  |  |  |
|                   | Birg. fatxadaren U (W/m <sup>2</sup> K) | 0,47                                    | 0,47        | 0,48        | 0,47        | 0,47        | 0,47        | 0,47        | 0,47        | 0,47        | 0,49        | 0,47        | 0,49        | 0,49        |             |             |             |             |             |      |  |      |  |  |  | 0,49 |  |  |  |  |

Halaber, leihoak ordezkatzarekin lotutako hermetikotasun hobekuntza ere kontsideratu da. Beraz, airearen infiltrazio-tasa txikiagotu da leihoen ordezkapena ematen denean. Kontuan izanik hermetikotasun handiko leihoen jarduera ere murriztu daitekeela hauek instalatzerakoan izandako akatsen ondorioz (adibidez, markoaren muntaia desegokia), eta lor daitekeen energia-aurrezkiaren estimazioan alde seguruan egoteko, analisi honetan infiltrazio-tasa %25 murrizten dela kontsideratu da. Hau Iberiar Penintsulan egindako zenbait ikerketen emaitzen beheko tartean kokatzen da [75] [76] [77] [78].

Neurri-paketeak osatzeko, lehenengo EEN pasiboen konbinazioak aztertu dira, hauekin lortutako berokuntza-eskari hobetuak Design Builder softwarearen bidez kalkulatzeko. 11. Taulak fatxadako IL<sub>i</sub>-x isolamendu-maila bakoitzarekin simulatutako neurrien konbinazioak laburbiltzen ditu.

11. Taula: IL<sub>i</sub>-x isolamendu-maila bakoitzarekin simulatutako EEN pasiboen konbinazioak.

| Konbinazioa | Fatxadaren isolamendua | Leihoen ordezkapena | Teilatuaren isolamendua | Barneko paretan isolamendua |
|-------------|------------------------|---------------------|-------------------------|-----------------------------|
| 1           |                        | W1                  |                         |                             |
| 2           |                        | W2                  |                         |                             |
| 3           | IL <sub>i</sub> - x    |                     |                         |                             |
| 4           | IL <sub>i</sub> - x    | W1                  |                         |                             |
| 5           | IL <sub>i</sub> - x    | W2                  |                         |                             |
| 6           | IL <sub>i</sub> - x    |                     | RI <sub>i</sub>         |                             |
| 7           | IL <sub>i</sub> - x    | W1                  | RI <sub>i</sub>         |                             |
| 8           | IL <sub>i</sub> - x    | W2                  | RI <sub>i</sub>         |                             |
| 9           | IL <sub>i</sub> - x    | W1                  | RI <sub>i</sub>         | PI                          |
| 10          | IL <sub>i</sub> - x    | W2                  | RI <sub>i</sub>         | PI                          |

Ondoren, berokuntza-eskariaren emaitzak sistema termikoen eta energia berriztagarrien esku-hartzeekin konbinatu dira, 12. Taularen arabera. Guztira, 464 neurri-pakete aplikatu zaizkio EE bakoitzari.

**12. Taula: simulatutako neurri pasibo eta sistemen konbinazioak.**

| Esku-hartzeen konbinazioa |                              |
|---------------------------|------------------------------|
| 1                         | Neurri pasiboak bakarrik (P) |
| 2                         | P + CB                       |
| 3                         | P + DHW 30%                  |
| 4                         | P + DHW 60%                  |
| 5                         | P + PV                       |
| 6                         | P + CB + DHW 30%             |
| 7                         | P + CB + DHW 60%             |
| 8                         | P + CB + PV                  |

UBS ekoizteko eguzki-sistemaren dimentsionamendua lortu nahieko eguzki-ekarpen faktorearen arabera egin da; hots, eguzki-energiarekin asetutako urteko UBS-eskariaren zatia. CTE araudiaren azken eguneratzeak %30etik %60ra igo du Bilboko zonalde klimatikoan etxe berrietan aplikatu beharreko gutxieneko eguzki-ekarpena. Horrela, analisi honek bi eguzki-ekarpen faktoreak aztertu ditu.

Sistemaren dimentsionamendua F-Chart metodo erdi-enpirikoa [79] erabiliz burutu da. Honekin, eguzki-ekarpen faktore bakoitzera hurbiltzeko beharrezkoak diren kolektore kopurua eta biltegitratze-deposituaren edukiera estimatu dira, kolektoreen orientazioa eraikinaren berdina dela jotz. Dimentsionamendu honekin, SAM softwarearen Solar Water Heat modulua [80] erabili da urteko ekoizpen kalkulua ordu-tarteetan egiteko. Modulu horrek begizta itxiko plaka lau kolektore bat modelatzen du, laneko fluidotik UBS biltegitratze-depositura energia bero-trukagailu baten bidez transferitzen duena.

Sistema fotovoltaikoari dagokionez, CTEk elektrizitate berriztagarria sortzeko gutxieneko potentzia bat ezartzen du eraikin batzuentzako, beren guztizko azaleraren arabera. Halaber, instalatu beharreko gutxieneko potentzia horrentzat goi-muga bat ere ezartzen du, eraikinaren teilatuaren azaleraren arabera. Lan honek kalkulu-metodo horiek erabili ditu sistema fotovoltaikoak dimentsionatzeko irizpide gisa, SAM softwarearen Detailed Photovoltaic Model ereduarekin [81] simulatu direnak. Moduluetakako efizientziak eguzki-energia elektrizitate bihurtzeko CEC Performance Model ereduaren bidez kalkulatu dira. 13. Taulak EE bakoitzean kontsideratutako modulu kopurua eta inbertsio-potentzia adierazten ditu, eta baita simulazioen emaitzak ere jarduera-ratio (Performance Ratio, PR) moduan. Definitutako DC/AC erlazioa 1,15ekoa izan da.

Bai eguzki-kolektore termikoetarako, eta baita modulu fotovoltaikoetarako ere, eraikinaren teilatuaren espazio erabilgarria bere azalera osoaren %50 dela kontsideratu da, murrizketa hori kasu guztietan bermatzen dela egiaztatuz.

Bestalde, EEN ezberdinen inbertsio-kostuak, 9. Taulan adierazten direnak, merkatuko prezioetan oinarritu dira. Horretarako, CYPE datu-basea [82] eta Eusko Jaurlaritzaren eraikuntzaren eta urbanizazioaren prezioen datu-basea [83] erabili dira, kostu materialak eta lan-kostuak barneratzen dituztenak. Horien gainean, %5eko kostu orokorrak eta %8ko marjina aplikatu dira. Gainera, ikuspegi mikroekonomikoan %10eko BEZ eta %2,5eko obren gaineko zerga kontsideratu dira, azken hau %60ko hobariarekin eguzki sistemetarako.

13. Taula: simulatutako eguzki-kolektore termikoen eta sistema fotovoltaikoen dimentsionamendua.

|       | Eguneko UBS kontsumoa (l) | DHW %30 sistema   |               |                         | DHW %60 sistema   |               |                         | PV sistema     |                  |                           | PR   |
|-------|---------------------------|-------------------|---------------|-------------------------|-------------------|---------------|-------------------------|----------------|------------------|---------------------------|------|
|       |                           | Kolektore kopurua | Depositua (l) | Eguzki-ekarpen faktorea | Kolektore kopurua | Depositua (l) | Eguzki-ekarpen faktorea | Modulu kopurua | Inbertsorea (kW) | Urteko ekoizpena (kWh/kW) |      |
| EE 1  | 640                       | 3                 | 1.000         | 0,36                    | 7                 | 1.000         | 0,62                    | 14             | 1 x 4,2 kW       | 1.105                     | 0,78 |
| EE 2  | 640                       | 3                 | 1.000         | 0,36                    | 7                 | 1.000         | 0,62                    | 18             | 1 x 5,2 kW       | 1.105                     | 0,78 |
| EE 3  | 1.120                     | 5                 | 1.500         | 0,31                    | 14                | 1.700         | 0,58                    | 24             | 1 x 6,5 kW       | 985                       | 0,79 |
| EE 4  | 1.120                     | 5                 | 1.500         | 0,31                    | 14                | 1.700         | 0,58                    | 27             | 1 x 7,9 kW       | 985                       | 0,79 |
| EE 5  | 1.680                     | 8                 | 2.000         | 0,33                    | 22                | 2.600         | 0,60                    | 36             | 2 x 5,3 kW       | 983                       | 0,78 |
| EE 6  | 1.680                     | 8                 | 2.000         | 0,33                    | 22                | 2.600         | 0,60                    | 40             | 2 x 6 kW         | 982                       | 0,78 |
| EE 7  | 960                       | 4                 | 1.200         | 0,33                    | 10                | 1.200         | 0,60                    | 22             | 1 x 6,3 kW       | 1.105                     | 0,78 |
| EE 8  | 960                       | 4                 | 1.200         | 0,33                    | 10                | 1.200         | 0,60                    | 27             | 1 x 7,8 kW       | 1.096                     | 0,77 |
| EE 9  | 1.440                     | 6                 | 1.600         | 0,33                    | 15                | 1.800         | 0,60                    | 32             | 2 x 4,6 kW       | 1.092                     | 0,77 |
| EE 10 | 1.440                     | 6                 | 1.600         | 0,33                    | 15                | 1.800         | 0,60                    | 40             | 2 x 5,6 kW       | 1.092                     | 0,77 |
| EE 11 | 1.440                     | 6                 | 1.800         | 0,30                    | 18                | 2.100         | 0,58                    | 54             | 2 x 7,7 kW       | 981                       | 0,78 |
| EE 12 | 2.880                     | 11                | 3.000         | 0,32                    | 30                | 3.500         | 0,61                    | 32             | 2 x 4,6 kW       | 1.092                     | 0,77 |
| EE 13 | 2.880                     | 11                | 3.000         | 0,32                    | 30                | 3.500         | 0,61                    | 39             | 2 x 5,6 kW       | 1.090                     | 0,77 |
| EE 14 | 4.320                     | 16                | 4.500         | 0,32                    | 42                | 5.000         | 0,62                    | 54             | 2 x 7,7 kW       | 1.166                     | 0,79 |
| EE 15 | 1.440                     | 6                 | 1.600         | 0,34                    | 15                | 1.800         | 0,61                    | 27             | 1 x 7,8 kW       | 1.096                     | 0,77 |
| EE 16 | 2.160                     | 9                 | 2.400         | 0,34                    | 23                | 2.700         | 0,62                    | 40             | 2 x 5,7 kW       | 1.092                     | 0,77 |
| EE 17 | 4.680                     | 18                | 5.000         | 0,32                    | 42                | 5.200         | 0,57                    | 40             | 2 x 5,6 kW       | 1.092                     | 0,77 |

Halaber, lan honetan kontsideratutako urteko kostuak mantentze-, ordezkate- eta energia-kostuak dira. Ikuspegi makroekonomikotik egindako kalkuletan karbonoaren kostua ere sartu da. Mantentze-kostua inbertsio-kostuaren ehuneko gisa ezarri da, 14. Taulan adierazten den moduan. Ez da kondentsazio-galdara berrirako mantentze-kosturik kontuan hartu, suposatu baita egungo sistemaren kostuaren antzekoa izango litzatekeela.

14. Taula: EEN ezberdinentzako kontsideratutako bizi-tza-erabilgarria eta urteko mantentze-kostua

|                                   | Bizi-tza-erabilgarria | Urteko mantentze-kostua |
|-----------------------------------|-----------------------|-------------------------|
| Inguratzailerearen osagai opakak  | 50                    | %0,0                    |
| Leihoak                           | 30                    | %0,0                    |
| Kondentsazio galdara              | 20                    | %0,0                    |
| Kobrezko hoditeria, erradiadoreak | 30                    | %0,0                    |
| Eguzki-sistema termikoa           | 25                    | %0,5                    |
| Sistema fotovoltaikoa             | 25                    | %0,5                    |

Esku-hartze bakoitzerako kontuan izandako bizi-tza-erabilgarria ere 14. Taulan adierazten da. 28 urteko kalkulu-aldia baino bizi-tza-erabilgarri laburragoa duten elementuetarako, suposatu da etorkizuneko ordezkapen-kostua inbertsio-kostuaren berdina litzatekeela, termino errealetan. Bestalde, kalkulu-aldia baino bizi-tza-erabilgarri luzeagoa duten osagaiantzat, hondar-balioak inbertsioaren (edo ordezkapen-kostuaren) balio-galera lineala kontsideratuz ezarri dira, kalkulu-aldiko hasierako unera deskontatuta. Ez dira ezabatze-kostuak kontuan izan.

### 3.2.3 Hirugarren fasea: aukera diskretuko ereduaren estimazioa

Ikerketaren azken fasearen helburua, etxejabeek beren etxebizitzak termikoki isolatzeko duten alde-aurretiko jarrera aztertzea izan da, eta baita erabaki hori hartzeko prozesuan eragiten duten faktoreak ere. Halaber, finantza-pizgarri ezberdinek erabaki hori baldintzatu dezaketen neurria ere aztertu da, etxebizitzaren ezaugarrien arabera.

Horretarako, aukera diskretuko eredu bat garatu da, DCE baten bidez bildutako lagin-datuetatik batean oinarritzen dena. Eredu horrek etxejabeek etxea termikoki isolatzera bultzatzen dieten faktoreak neurtzen ditu, etxebizitzaren ezaugarrien eta finantza-pizgarri ezberdinen arabera espero daitezkeen birgaitze-tasak kuantitatiboki zenbatetsiz.

Espezifikoki, analisi hau:

- Fatxaden isolamendu termikoan zentratu da, etxebizitzaren berokuntza-kontsumoan eragin gehien izan dezakeen eraginkortasun energetikoko neurria delako.
- Apartamentu-blokeen analisisira mugatu da, hauek baitira batik bat Bilboko (eta Euskadiko) bizitegi-parkea osatzen dutenak.

Halaber, azterketa honen helburua ez da isolamendu termikoko teknologia lehiakideen artean etxejabeek dituzten lehentasunak aztertzea, baizik eta energia-eraginkortasuneko neurri honetan inbertitzea ala ez erabakiaren dikotomia aztertzea. Horrela, erabaki horretan eragin dezaketen faktoretan sakontzen du.

#### 3.2.3.1 Aukera Diskretuko Esperimentuaren diseinua

Eraginkortasun energetikoko neurriarekiko etxejabeek duten jarrera aztertzeko, azken hauetariko lagin bati zenbait aukera-multzo aurkeztu zaizkio, kasu bakoitzean gehien gustatzen zaien aukera hautatzeko eskatuz.

Bizitza errealeko hautaketa-egoerak islatzeko, bere eraikinaren jabeekideen batzarra eraikin komunitarioaren fatxada termikoki isolatu ala ez eztabaidatzen ari dela imajinatzen eskatu zaie inkestatuei. Batzarra bitan banatuta dago eta, beraz, azken erabakia inkestatuaren botoaren mende dago. Kontextu honetan, inkestatuei fatxada isolatzeko bi aukera ezberdin edo egungo egoera mantentzeko (birgaitzerik ez egiteko) aukera eskaini zaizkie, hiru aukera horien artean gehien gustatzen zaiena hautatzeko eskatuz.

Bi birgaitze alternatibak ezaugarri edo atributuen batzuen bidez deskribatu dira, etxea termikoki isolatzea aukeratzekoan etxejabeentzako garrantzitsutzat jo direnak. Hasiera batean, atributu horien behin-behineko multzo bat definitu da, literaturaren berrikuspen sakon batean eta esperientzian oinarrituta. Ondoren, *focus group* eztabaida-saio bat garatu da, egoera sozioekonomiko ezberdineko 12 etxejabeekin, behin-behineko atributu multzoarekiko iritziak jasotzeko helburuarekin. Saioan zehar, DCEan sartu beharreko atributuak identifikatzeaz gain, parte-hartzaileek emandako garrantziaren arabera, atributu bakoitzaren mailak ere zehaztu dira.

Horrela, birgaitze alternatibak bost atributuen bidez karakterizatu dira: inbertsio-kostua, urteko energia-aurrezkoa, zuzeneko diru-laguntza publikoa, finantziazioaren interes-tasa eta kerkari fiskala. Finantza-pizgarri ezberdinen eragina aztertzearren helburuarekin bat, azken hiru

atributuak gobernuak ezar ditzakeen aldagaiak. Analisisan erabilitako atributu bakoitzaren mailak 15. Taulan adierazten dira.

15. Taula: DCEan erabilitako atributuak eta atributu-mailak.

| Atributuak                      | Atributu-mailak |
|---------------------------------|-----------------|
| Inbertsio-kostua (k€-tan)       | 6, 12           |
| Urteko energia-aurrezkia        | %30, %45        |
| Zuzeneko diru-laguntza publikoa | %0, %20, %35    |
| Finantziazioaren interes-tasa   | %2, %5          |
| Kenkari fiskala                 | %18, %25        |

Ezarritako atributu-mailek fidelki islatzen dute bizitza erreala. Inbertsio-kostuaren eta urteko energia-aurrezkiak bigarren fasean burututako azterketan oinarritzen dira. Diru-laguntza publikoaren mailak Espainian egon diren laguntza-programekin koherentea da [84] [85] [86]. Finantziazioaren interes-tasaren mailak definitzeko, maileguren merkatua aztertu da [87] [88] [89] [90]. Gaur egun, %5eko batz besteko interes-tasa egiaztatu da eta, horrekin alderatuta, %2ko tasa murriztua definitu da balizko finantziazio bigun alternatibotzat. Era berean, egungo arau fiskalak aukera ematen du horrelako birgaitze energetikoetan inbertsio-kostuen %18 deduzitzeko [91]. Halaber, %25eko kenkari fiskal handiago bat definitu da, etxeek laguntza-mekanismo honekiko duten sentikortasuna ebaluatzeko.

Bestalde, hautaketaren konplexutasunarekin lotutako limiteek esperimentuan sartu daitekeen atributu-kopurua mugatzen dute, inkestatuari karga kognitiboa arintzeko. Hasiera batean urteko CO<sub>2</sub>-aurrezkia atribututzat definitzea kontsideratu den arren, ingurumen-ikuspegia barneratzeko, eztabaida-saioan zehar alde batera utzi da, urteko energia-aurrezkiarekin estu lotuta dagoela ulertuz. Amortizazio-aldia ere esperimentuaren diseinutik kanpo utzi da, inbertsio-kostuarekin eta ondoriozko energia-aurrezkiarekin lotuta dagoela kontsidera baitaiteke. Gainera, horrela, bizitza errealean maiz ematen den itzulera ekonomikoaren inguruko ziurgabetasuna adierazten da ere.

15. Taulako atributuen eta mailen konbinazioak 48 birgaitze alternatiba posible sortuko lituzke. Alternatiba hauek bikoteka parekatuz gero, 1128 multzo posible existituko liriateke. Beraz, zenbatetsi beharreko parametroen fidagarritasuna maximizatzen duen multzo espezifikoak identifikatzeko, kobariantza-matrize asintotikoaren elementuak minimizatuz, diseinu D-efiziente bat sortu da [47]. Azken hau zenbatetsi ahal izateko, ordea, estimatu nahi den aukera diskretuko ereduaren parametroei buruzko aurretiko informazioa behar da.

Hala, atariko urrats gisa, analisi pilotu bat burutu da, sei aukera-multzoko galdera-sorta bat eratuz. Horrekin, 8 elkarrizketa kognitibo egin dira adin desberdinetako pertsonekin, galdeketa- ulergarritasuna eta informazio-maila egiaztatzeko. Jasotako feedback-ean oinarrituta, galderen argitasuna hobetu da, idazketa- eta diseinu-alderdi batzuk finduz. Inkesta osatzeko beharrezko denboraren egokitasuna ere egiaztatu da, eta baita proposatutako atributuen mailak ere, aukera-multzoetan alternatiba dominanterik ez dagoela egiaztatzeko. Analisi pilotua bi astetan zehar egin da, 62 inkestatuen erantzunak bilduz. Informazio horrekin,

definitutako bost atributuek eta isolamendu termikoaren alternatiben konstante espezifikoak osatutako ereduaren parametroak estimatu dira.

Atariko parametro horiek DCE diseinu D-efiziente bat sortzeko erabili dira, R softwarea erabiliz [35]. Inkestatuen lan-efortzua murrizteko, esperimendu hau 6 aukera-multzora mugatu da. Diseinu-murrizketa bat ere ezarri da, aukera-multzo bakoitzean bi birgaitze alternatibek inbertsio-kostu bera izan dezaten, hautatze-lanaren balizko izaera murriztuz. Fedorov truke-algoritmo aldatua aplikatu da, hasierako diseinu-matrize baten alternatibak trukatzeko dituen kobariantza-matrize asintotikoaren determinatzailearen D-errorea minimizatzeko. Hala ere, onartzen da geroago eredia estimatzean baliagarritasun-funtzioari aldagai sozioekonomikoak gehitzeak diseinu esperimentalaren efizientzia murriztu dezakeela.

### 3.2.3.2 Bildutako lagina

Burututako esperimentuaren xede-populazioa, Bizkaiko apartamentu-blokeetan bizi diren etxejabeak izan dira. Beraz, familia bakarreko etxeak alde batera utzi dira. Gainera, birgaitze energetikoak egiteko erabakietan benetan parte hartzen duten norbanakoei bideratu da inkesta (hots, etxejabeek), alokatutako etxebizitzetan bizi diren maizterrak azterketatik kanpo geratuz. Galdeketa hasieran, baldintza horiek betetzen dituzten pertsonak filtratu dira.

Datuak 2022ko urtarrilaren erdialdetik 2022ko otsailaren bukaerara arte jaso dira, probintziako hainbat etxetara galdeketa online egiteko esteka bidaliz. Galdeketa lau ataletan banatu da: 1) sarrera, 2) fatxaden isolamendu termikoari buruzko informazioa, 3) esperimendua bera eta 4) inkestatuaren datu sozioekonomikoak. Sarreran, esperimendua zertan datzan azaldu da, bere helburua eta behar bezala egiteko jarraibideak deskribatuz. Bigarren atalean, fatxaden isolamendua hobetzeak dakartzen onurei buruzko informazioa eman da, hala nola, konfort-termikoa, airearen kalitatea eta zarataren aurkako babesa hobetzea. Horrez gain, birgaitze lanak egiteak dakartzen eragozpenak ere deskribatu dira. Besteak beste, zarata, hautsa, segurtasunik eza, eta baita ekarriko duen energia-aurrezkiarekin lotutako ziurgabetasuna ere. Hirugarren atalean, inkestatutakoek 6 aukera-multzo erantzun dituzte, horietako bakoitzean emandako hiru alternatiben artean bakarra hautatu behar izan dutelarik. Aukera-multzo bakoitza txartel antzeko bat izan da, fatxada isolatzeko bi alternatiben ezaugarriak erakusten dituen, egungo egoera mantentzeko aukerarekin batera (16. Irudia). Azkenik, banakako ezaugarriei buruz galdetu zaie elkarrizketatuei: sexua, adina, errenta, etxeko tamaina, berokuntza-sistema mota, etab.

Guztira 223 galdeketa jaso diren arren, horietako 32 analitiko kanpo utzi dira, datu sozioekonomikoek buruzko informazioa falta zaielako. Horrela, lan honetan aztertutako datu-multzoa 191 inkestatu eta beren 1.145 behaketek osatzen dute. 16. Taulak laginaren ezaugarri sozioekonomikoen banaketa EUSTATEk emandako Bizkaiko populazioaren banaketarekin alderatzen du. Análisi estatistikoak berresten du lagina nahiko adierazgarria dela sexuari, adinari, etxeko errentari eta abarri dagokienez. Hala ere, aipatu beharra dago 65 urtetik gorako nagusiak gutxiegi aurkezten direla laginean, eta baita errenta txikiagoko etxebizitzak ere (20,000€ baino gutxiagokoak).



Orain baldintza hipotetikoak aldatu egin dira.

Zein aukera hautatuko zenuke?

|                               | Fatxada isolatzeko<br>1. alt.    | Fatxada isolatzeko<br>2. alt.    | Ez nuke birgaitzerik<br>egingo         |
|-------------------------------|----------------------------------|----------------------------------|--|
| Inbertsio-kostua              | 12.000€                          | 12.000€                          |  |
| Urteko energia-aurrezkia      | %45                              | %30                              |  |
| Diru-laguntza publikoa        | -                                | %20                              | -                                      |
| Finantziazioaren interes-tasa | %5                               | %2                               |  |
| Kenkari fiskala               | %25                              | %18                              |  |
|                               | <input type="checkbox"/> 1. Alt. | <input type="checkbox"/> 2. Alt. | <input type="checkbox"/> Egungo egoera |

16. Irudia: DCEan erabilitako aukera-multzoen txartelen adibidea.

16. Taula: laginaren ezaugarri sozioekonomikoen alderaketa EUSTATEk emandako Bizkaiko populazioaren banaketarekin.

| Ezaugarria                              | Lagina (N = 191) | Bizkaiko populazioa<br>(EUSTAT) |
|---|------------------|---------------------------------|
| <b>Sexua</b>                            |                  |                                 |
| Gizonezkoa                              | %57              | %48                             |
| Emakumezkoa                             | %43              | %52                             |
| <b>Adina</b>                            |                  |                                 |
| 19 - 35                                 | %19              | %18                             |
| 36 - 45                                 | %17              | %16                             |
| 46 - 55                                 | %18              | %19                             |
| 56 - 65                                 | %37              | %18                             |
| 65 baino gehiago                        | %9               | %29                             |
| <b>Etxeko errenta</b>                   |                  |                                 |
| 20.000€ baino gutxiago                  | %5               | %22                             |
| 20.001 – 35.000€                        | %23              | %24                             |
| 35.001 – 50.000€                        | %28              | %23                             |
| 50.001 – 70.000€                        | %26              | %15                             |
| 70.001€ baino gehiago                   | %18              | %16                             |
| <b>Berokuntza-sistema</b>               |                  |                                 |
| Elektrikoa                              | %11              | %23                             |
| Gas naturala                            | %75              | %66                             |
| Beste bat                               | %14              | %11                             |
| <b>Berokuntza kontsigna-tenperatura</b> |                  |                                 |
| <= 19°C                                 | %21              | %23                             |
| 20°C                                    | %37              | %43                             |
| 21°C                                    | %30              | %22                             |
| 22°C                                    | %9               | %10                             |
| > 22°C                                  | %3               | %3                              |

### 3.2.3.3 Ereduaren estimazioa

Lan honetan estimatu den MXL ereduak ausazko koefizienteak ezarri ditu alternatiben ezaugarrietarako. Oro har, koefiziente hauek banaketa normalari jarraitzen dutela kontsideratu da, inbertsio-kostuen koefizientea izan ezik. Azken honi zeinu negatiboko banaketa log-normala esleitu zaio. Lehentasun-heterogeneotasuna kontuan hartzeko, ereduaren *mean shifter* batzuk sartu dira ere, atributuen eta aldagai soziodemografikoen arteko interakzioen bitartez.

Ereduaren zenbatespena R softwarea [35] erabiliz burutu da, probabilitate maximoko estimazioa 2000 pseudo-Monte Carlo erauzketekin eginez. Halaber, MNL ereduaren zehaztasun zehatetsi da MXL eredurako erreferentzia gisa.

Ereduaren parametroak zenbatetsi ondoren,  $k$  atributu batengatik ordaintzeko gogoaren banaketa (*willingness to pay*, WTP) 17. ekuazioaren bidez kalkulatu da.

$$WTP_k = - \frac{\mu_k + \gamma_k \cdot z + \sigma_k \cdot d_k}{-\exp(\mu_c + \gamma_c \cdot z + \sigma_c \cdot d_c)} \quad (17)$$

non  $\mu_k$  eta  $\mu_c$   $k$  atributuaren eta inbertsio-kostuaren batez besteko zenbatetsiak diren, hurrenez hurren,  $\sigma_k$  eta  $\sigma_c$  zenbatetsitako desbideratze estandarrak,  $\gamma_k$  eta  $\gamma_c$   $z$  aldagai soziodemografikoari lotutako interakzio-koefizienteak, eta  $d_k$  eta  $d_c$   $N(0,1)$  banaketaren ausazko erauzketak. WTP balioak ausazko 10.000 erauzketa erabiliz kalkulatu dira,  $z$  aldagaiaren balio ezberdinetarako.



## 4. Emaitzak

### 4.1 Lehenengo fasearen emaitzak

17. Taulak modelatutako eraikin-arketipoen urteko berokuntza-eskariak laburbiltzen ditu. Etxebizitza adierazgarri bakoitzaren azalera eta modelatutako arketipo populazio osoaren gaineko kuota kontuan hartuta, bizitegi-parkearen urteko batez besteko berokuntza-eskaria 43,08 kWh/m<sup>2</sup>-koa da.

17. Taula: modelatutako eraikin-arketipoen urteko berokuntza-eskariak.

| Eraikin-arketipoa      | Etxebizitzen kuota modelatutako parke osoarekiko | Etxebizitzen azalera (m <sup>2</sup> ) | Urteko berokuntza eskaria (kWh/m <sup>2</sup> ) |
|------------------------|--|--|---|
| 1. Ark.                | %6,66  | 60                                     | 68,08   |
| 2. Ark.                | %7,24  | 75                                     | 67,41   |
| 3. Ark.                | %4,23  | 60                                     | 39,24   |
| 4. Ark.                | %9,53  | 75                                     | 39,95   |
| 5. Ark.                | %3,89  | 105                                    | 36,70   |
| 6. Ark.                | %2,74  | 120                                    | 37,79   |
| 7. Ark.                | %5,45  | 60                                     | 57,16   |
| 8. Ark.                | %6,32  | 75                                     | 57,72   |
| 9. Ark.                | %5,80  | 60                                     | 35,90   |
| 10. Ark.               | %14,71   | 75                                     | 37,39   |
| 11. Ark.               | %3,21  | 105                                    | 32,13   |
| 12. Ark.               | %3,30  | 60                                     | 52,25   |
| 13. Ark.               | %10,39   | 75                                     | 31,81   |
| 14. Ark.               | %4,08  | 105                                    | 54,70   |
| 15. Ark.               | %4,54  | 75                                     | 32,58   |
| 16. Ark.               | %5,61  | 75                                     | 27,96   |
| 17. Ark.               | %2,29  | 75                                     | 26,53   |
| <b>Batezbestekoa =</b> |  |  | <b>43,08</b>                                    |

Ikus daitekeenez, eraikuntza-ezaugarrien bilakaerak berokuntza-eskaria murrizteko joera erakusten du. Adibidez, hiri-forma bera eta antzeko eraikin-dimentsioekin, baina fatxadaren konposizio desberdinarekin, 7. Arketipoaren ( $U = 1,26 \text{ W/m}^2\text{K}$ ) eta 15. Arketipoaren ( $U = 0,63 \text{ W/m}^2\text{K}$ ) urteko berokuntza-eskariak 2. Arketipoarena ( $U = 1,77 \text{ W/m}^2\text{K}$ ) baino %15 eta %52 txikiagoak dira, hurrenez hurren.

Emaitza orokorrak eraikuntza-aldiaren arabera aztertuz, lortzen diren batez besteko berokuntza-eskariak 18. Taulan adierazten dira. Desarrollismoaren garaiko bi orriko fatxaden

eta 80ko hamarkadan fatxada-isolatzailen hedapenak berokuntza-eskariaren murrizketan izan zuten eragina ikus daiteke, bigarrenarena izanik esanguratsuagoa.


18. Taula: eraikuntza-aldiaren arabera batez besteko berokuntza-eskariak.

|                   | Urteko berokuntza eskaria<br>(kWh/m <sup>2</sup> ) |
|-------------------|--|
| 1960a baino lehen | 48,99  |
| 1960 - 1980       | 42,35  |
| 1981 - 2005       | 29,38  |

Halaber, eraikuntza-aldiaz gain eraikina kokatuta dagoen hiri-morfologia, eta honen arabera jarraitutasuna, eraikin baten urteko berokuntza-eskaria baldintzatzen duten faktore garrantzitsuak direla egiaztatu da. Euren jarraitutasun handiagoa dela eta, bloke solidoetako eraikinek bloke linealetan kokatutakoak eta eraikin bereziak baino berokuntza-eskari txikiagoa dute. Adibidez, fatxada-konposizio bera eta antzeko dimentsioekin, baina hiri-forma desberdinarekin, 1. Arketipoaren (bloke lineala) berokuntza-eskaria 4. Arketipoarena (bloke solidoa) baino %70 handiagoa da.

17. Irudiak lortutako berokuntza-eskariaren emaitzak eraikuntza-aldia eta hiri-morfologiaren arabera adierazten dira. Bloke lineala urdinez, bloke solidoa berdez eta eraikin bereziak gorritz. Ikus daitekeenez, hiri-formaren eragina urteko berokuntza-eskariaren eraikuntza-aldiarenaren bestekoa izan daiteke.

### Urteko berokuntza eskaria



17. Irudia: eraikin-arketipoen urteko berokuntza-eskariak, eraikuntza-aldia eta hiri-morfologiaren arabera.

Bizitegi-parkearentzat lortutako 43,08 kWh/m<sup>2</sup>-ko urteko batez besteko berokuntza-eskaria kontsumo terminoetara pasatzeko, %86,89ko sasoiko batez besteko efizientzia kontsideratzen da, Bilboko berokuntza-sistemaren banaketan [50] eta IDAEk emandako erreferentziazko efizientzietan [54] oinarrituz. Horrela, 49,58 kWh/m<sup>2</sup>-ko batez besteko berokuntza-kontsumoari lortzen da bizitegi-parkearentzat.

Emaitza hori bildutako baliozkotze-datuekin alderatzen dira. 19. Taulak erakusten duen moduan, lortutako batez besteko berokuntza-kontsumoa oso hurbil dago erregai-kontsumoaren inkestaren eta literaturaren balioetatik: inkestaren emaitza baino %1 handiagoa

da, UBSan oinarritutako metodoa kontuan hartuta, eta %10 handiagoa etxe-erabileren araberako erregai kontsumoaren banaketaren ikuspegia kontsideratuz.

19. Taula: modelizatutako berokuntza-kontsumoaren alderaketa baliozkotze-datuekin.

| Urteko batez besteko berokuntza-kontsumoa (kWh/m <sup>2</sup> ) |                          |                              |   |                                     |
|---|--------------------------|------------------------------|---|-------------------------------------|
| Eraikinen modelizazioaren emaitza                               | Literatura               | Erregai-kontsumoaren inkesta |   | Energia-eraginkortasun ziertagiriak |
|   | SECH-SPAHOUSEC proiektua | UBSan oinarritutako metodoa  | Etxe-erabileren araberako banaketarekin |                                     |
| 49,58   | 44                       | 48,98                        | 44,67                                   | 138,54                              |

Energia-eraginkortasun ziertagiritatik lortutako balioa, ordea, gainerakoak baino bizpahiru aldiz handiagoa da. Erdietsitako diferentzia hori, ziertagiriko eta benetako energia jardueren artekoa, bat dator literaturan aurki daitezkeen zenbait ikerketekin [92] [93]. Horren jatorria, hein handi batean, arauk ezarritako faktoreetan eta ziurtapenean maiz erabilitako balio lehenetsietan aurki daiteke. Egiaztatu da, beraz, energia-ziurtapenaren prozedurak nabarmen gain-balioesten duela etxebizitza baten energia-kontsumoa, eta ezin dela eraikinen energia-ereduak baliozkotzeko erabili.

Halaber, modelatutako berokuntza-eskariaren eraikuntza-aldiaren araberako batez bestekoak erregresioaren emaitzekin konpara daitezke (20. Taula). Azken honetan, 0,51eko determinazio-koefizientea lortu da, doitze moderatu bat adierazten duena. Erregresio eredia oro har esanguratsua da 0,022ko p-balioarekin eta aldagai guztietan hipotesi nulua baztertzen da 0,01eko  $\alpha$  baliorako. Bestalde, hondakinen independentziaren hipotesia Durbin-Watson testaren bidez aztertu da, eta lortutako 2,16ko balioa auto-korrelaziorik eza frogatzen du. Linealtasun eta homogeneotasun hipotesiak ere egiaztatu dira hondakinen sakabanatze-grafikoaren bidez.

20. Taula: modelatutako berokuntza-eskariaren alderaketa erregresioaren emaitzekin.

| Eraikitze-aldia   | Modelatutako berokuntza-eskaria (kWh/m <sup>2</sup> ) | Erregresiotik lortutako berokuntza-eskaria (kWh/m <sup>2</sup> ) | Aldea (%) |
|-------------------|---|--|-----------|
| 1960a baino lehen | 48,99   | 50,83  | - %3,8    |
| 1961 - 1980       | 42,35   | 45,47  | - %7,4    |
| 1981 - 2005       | 29,38   | 24,27  | + %17,4   |

Ikus daitekeenez, 1960 baino lehenagoko eraikinei dagozkien berokuntza-eskariak oso antzekoak dira, eta baita Desarrollismo garaikoei dagozkionak ere. 1981etik geroztik eraikitako eraikinen kasuan eraikin-arketipoen bidez modelatutako eskaria pixka bat handiagoa da erregresioarekin kalkulaturakoa baino.

Hala ere, modelatutako 1981etik 2005erako eraikin-arketipoen urteko batez besteko berokuntza-eskaria, 29,38 kWh/m<sup>2</sup>, 33,81 kWh/m<sup>2</sup>-ko kontsumoari dagokio; hau da, bizilagunen portaera energetikoa kalibratzeko erabilitako lau eraikin errealean (guztira 107

etxebizitzan) batez besteko energia-kontsumoa, 32,13 kWh/m<sup>2</sup>, baino %5 handiagoa baino ez da. Beraz, erregresiotik lortutako eskariarekiko aldea prozesu horretan sartutako lagin-kopuru mugatuak eragin dezake, eta baita 1981-2005 aldiko eraikinek bizitegi-parkean duten kuota txikiagoak ere, hauentzat zehaztasun gutxiagoko emaitza itzuliz.

Bestalde, eraikin-arketipoentzako lortutako emaitzak bizitegi-parke osoari estrapolatu zaizkio, berokuntza-eskari ezberdinak eraikin-arketipo bakoitzaren deskribapenarekin bat datozen etxebizitzan kopuruarekin biderkatuz. 21. Taulan ikus daitekeenez, lortutako Bilboko berokuntza-eskari osoa eta 2004-2017 aldiko kontsumo errealetatik ondorioztatutakoa oso antzekoak dira, euren arteko aldea %4koa baino ez izanik.

21. Taula: modelatutako bizitegi berokuntza-eskari agregatuaren alderaketa Bilboko datu historikoarekin.

|   |         |
|---|---------|
| <b>Bizitegi berokuntza-eskaria (MWh)</b>              | 461.584 |
| Bilboko 2004 – 2017 aldiko batzbestekoa               |         |
| <b>Modelatutako bizitegi berokuntza-eskaria (MWh)</b> | 481.915 |

Laburbilduz, metodologia Bilboko bizitegi-parkeari aplikatuz frogatu da proposatutako metodoa gai dela hiri-mailako egungo berokuntza kontsumoak zehaztasunez karakterizatzeko.

## 4.2 Bigarren fasearen emaitzak


### 4.2.1 Energia berritze-paketeak

Berokuntza-eskarian EEN pasibo ezberdinen eragina alderatuz, fatxaden kanpo-isolamenduak energia aurrezpen handiena eragiten duela ikusten da. Efektu hori fatxadaren azalerarekin eta gaizki isolatutako (zaharragoak diren) fatxadekin areagotzen da. Eraikinaren arabera, fatxaden kanpo-isolamenduak berokuntza eskaria %19-%49 murriztu dezake. Transmittantzia ertaineko fatxadak dituzten eta bloke solidoetan dauden eraikinei dagokio beheko muga; haietan, lor daitekeen eskari-aurrezpena %13 eta %19 bitartean egon daiteke, gehitutako isolamenduaren lodieraren arabera. Bestetik, goiko mugak bloke linealetan kokatutako eta gaizki isolatutako eraikinei dagokie (%35-%47), eta baita transmittantzia maila ertaineko eraikin bereiziei ere (%31-%46). Bien bitartean, eraikin berriek (hobeto isolatuta daudenak), oro har bloke linealetan kokatzen direnak, bloke solidoetan kokatutako eta gaizki isolatutako eraikin zaharrenen (%24-%36) pareko aurrezpen-ahalmena dute (%22-37).

Aldiz, lotutako zubi termikoen igoeraren ondorioz, fatxaden barne-isolamenduek eraginkortasun askoz ere txikiagoa dute, kanpotik jarritako pareko isolamendu mailarekin lor daitekeen aurrezpen erdiaren ingurukoa. Halere, leihoak aldatzeak asko murrizten du berokuntzarako energia-eskaria, transmittantzia termikoaren eta airearen infiltrazio tasaren hobekuntzak eraginda. Eskari-aurrezpena hainbat eraikinetan beira bikoitzeko leiho sinpleak jarri lortutako %20tik, beira bikoitzeko E-baxuko leihoekin eraikin batzuetan lortutako %36ra artekoa da. Bestetik, teilatuaren eta barruko hormen isolamenduak ez du eragin nabarmenik izan berokuntza-eskarian.


Aurrezki horiek EP-eb terminoetan txikiagoak dira, UBSren kontsumoa ere kalkuluan sartzen denean. 18. Irudian EEN pasiboko hainbat pakete ezberdinekin lortutako EP-eb kontsumoaren

eta KGaren aldaketak ikus daitezke. Neurrien pakete desberdinen EP-eb eta KG balioak eraikin motaren arabera alda daitezke, baina 18. Irudian ikus daitezkeen patrioiak kualitatiboki EE guztiei aplikatu ahal zaizkie, erabilera termikorako erregaia edozein delarik ere. Fatxaden kanpo-isolamendu optimoa 7-8 cm-takoa dela ikusi da. Sistema elektrikoak dituzten EEetan optimo hori nabarmenagoa da; GNren kontsumitzaileetan, ordea, KG minimoaren tartea zabalagoa da, optimoaren inguruko isolamendu maila ezberdinen KG parekoa izanik. Bestalde, bi motatako leihoek antzerako emaitzak lortu dituzte KG aldetik, bata edo bestea gaitetik egonik EEren arabera. Halere, E-baxuko leihoek EP- eb aurrezpen gehigarri aipagarriak dituzte beira bikoitzeko leiho simple baten ondoan. Halaber, aldi berean leihoa aldatzea eta fatxada isolatzeak EP-eb aurrezpen osagarri aipagarriak eragin ditzake, kasu horietan KG asko handitzen den arren. Edonola ere, teilatua eta barruko hormak isolatzea baino askoz ere eraginkorragoa izango litzateke zeinak, antzerako KGrekin, EP-eb aldetik hobekuntza txikia eragiten duten. Guztira, kanpotik isolatutako fatxada duen eraikin batean, E-baxuko beira bikoitzeko leihoek eta teilatua eta barruko hormak isolatzeak EP-ebren %28 eta %39 bitarteko aurrezpen osagarria eragin dezakete, EEren arabera.




18. Irudia: berritze-pakete pasiboekin lortutako EP-eb eta KGen mapa.

Bestalde, eraikinen energia-sistemetan egindako esku-hartzeen efektuak 19. Irudian eta 20. Irudian laburbiltzen dira, zeinak perspektiba mikroekonomikoan lor daitezkeen EP-eb eta KG mailen ikuspegi kualitatibo bat ematen duten, GN eta elektrizitatea kontsumitzen duten eraikinetan, hurrenez hurren. Eraikina zenbat eta hobeto isolatuta egon, kondentsaziozko galdara bat jartzearen eragina txikitu egiten dela ikus daiteke; aldiz, energia berriztagarriek eraikinaren EP-eb kontsumoan eragin aipagarria dute, eraikina ongi isolatuta badago ere. Gainera, energia iturri berriztagarriak erabiltzen ez diren bitartean, ikusten da esku-hartzeen ondoriozko eraginkortasuna ez dela inola ere gerturatuko NZEB mailetara. Halaber, aipatu beharra dago, erabilera termikoetan elektrizitatea erabiltzen duten eraikinek NZEB kontsumo mailak lortzeko, ezinbestekoa dela energia iturri berriztagarriak ezartzeaz gain, sistema termikoa GNera aldatzea.



19. Irudia: neurri-paketeek eragindako efektuen ikuspegi pribatu kualitatiboa, GN kontsumitzen duten Eetan.

Oro har, helburu termikoetarako elektrizitatea kontsumitzen duten eraikinetan, kostu-maila optimoak neurri pasiboen eta eguzki energia termikoaren konbinazioarekin lortzen dira. Azken honek UBS eskaria hein handi batean asetzeari laguntzen du, bestela elektrizitate kontsumo garesti bat eragingo zuena. Aldiz, GN kontsumitzen duten eraikinen kostu-maila optimoak heterogeneoagoak dira. Kasu batzuetan, eraikinen fatxada-isolamenduaz osatuta daude soilik; beste batzuetan horren eta sistema berriztagarriaren baten konbinazioa dira. Azken hauen barruan, eguzki-kolektore termikoak eta sistema fotovoltaikoak oso antzerako KG dituzte, sistema fotovoltaikoentzat aurreikusitako auto-erabilerarekin. Halere, sistema fotovoltaikoen ustiapena optimizatuz gero, autokontsumoa areagotuz (eta, ondorioz, sarera gehitutako soberakina murriztuz), sistema horren onurak eguzki kolektore termikoen ondoan areagotuko litzateke.



20. Irudia: neurri-paketeek eragindako efektuen ikuspegi pribatu kualitatiboa, sistema termiko elektrikoak dituzten Eetan.

#### 4.2.2 Kostu-maila optimoak

Kalkuluaren emaitzek 59,01 kWh/m<sup>2</sup> eta 50,34 kWh/m<sup>2</sup>-ko kostu-maila optimoak ematen dituzte ikuspegi pribatuan eta makroekonomikoan, hurrenez hurren; horiek erabilera termikoen egungo EP-eb kontsumoaren (116,10 kWh/m<sup>2</sup>) erdia inguru dira. Emaitza horiek ez dira gehiegi aldentzen Estatu mailako gobernuaren kalkuluetatik [17], zeinek apartamentu-blokeentzat 68,1 kWh/m<sup>2</sup> eta 39,0 kWh/m<sup>2</sup>-ko batez besteko kontsumo optimoak ematen dituen, hurrenez hurren, ikuspegi pribatuan (%10ko deskontu tasarekin) eta makroekonomikoan (%4ko deskontu tasarekin).



Hala ere, emaitzek agerian uzten dute kostu optimoko EP-eb kontsumoa asko aldatzen dela EE batetik bestera (22. Taula eta 23. Taula). Ikuspegi pribatua, 27,28 kWh/m<sup>2</sup> eta 70,56 kWh/m<sup>2</sup> bitartean dago GN kontsumitzen duten EEtan, eta 38,99 kWh/m<sup>2</sup> eta 91,49 kWh/m<sup>2</sup> bitartean, sistema termiko elektrikoak dituzten EEtan. Aipatu beharra dago, zenbait kasutan kostu-maila optimoa NZEBren mailari dagokiola edo honi gerturatzen zaiola. Beraz, klima-baldintza berberak eta eraikuntza soluzio antzerakoak badituzte ere, eraikinen ezaugarri geometriko, jarraitutasun eta erabilera termikoetarako erabilitako erregai ezberdinek kostu-maila optimoa nahiko alda dezakete.

22. Taula: GN kontsumitzen duten EEen kostu-maila optimoak.

|                          |          | ERREFERENTZIAKO AGERTOKIA   |                |        |                        | ENERGIAREN PREZIO ALTUEN AGERTOKIA <sup>4</sup> |                |        |                        | BRL AGERTOKIA <sup>4</sup>  |                |        |                        |
|--------------------------|----------|-----------------------------|----------------|--------|------------------------|---|----------------|--------|------------------------|-----------------------------|----------------|--------|------------------------|
|                          |          | EP-eb (kWh/m <sup>2</sup> ) | EP-eb aurrezt. | ΔKG    | Amortiz. epea (urteak) | EP-eb (kWh/m <sup>2</sup> )                     | EP-eb aurrezt. | ΔKG    | Amortiz. epea (urteak) | EP-eb (kWh/m <sup>2</sup> ) | EP-eb aurrezt. | ΔKG    | Amortiz. epea (urteak) |
| Ikuspegi pribatua        | EE 1-GN  | 70,56                       | %48,7          | %1,1   | -                      | 70,56   | %48,7          | -%2,0  | >28                    | 70,56                       | %48,7          | -%13,9 | 14,1                   |
|                          | EE 2-GN  | 62,43                       | %51,5          | %0,7   | -                      | 62,43   | %51,5          | -%2,6  | >28                    | 62,43                       | %51,5          | -%15,0 | 13,9                   |
|                          | EE 3-GN  | 56,80                       | %40,6          | -%3,3  | >28                    | 56,80   | %40,6          | -%5,5  | 22,5                   | 56,80                       | %40,6          | -%10,4 | 21,3                   |
|                          | EE 4-GN  | 52,55                       | %40,9          | -%1,4  | >28                    | 52,55   | %40,9          | -%3,7  | >28                    | 52,55                       | %40,9          | -%10,1 | 22,2                   |
|                          | EE 5-GN  | 52,96                       | %38,7          | -%1,1  | >28                    | 52,96   | %38,7          | -%3,4  | >28                    | 52,96                       | %38,7          | -%9,4  | >28                    |
|                          | EE 6-GN  | 51,03                       | %39,2          | -%0,7  | >28                    | 51,03   | %39,2          | -%3,2  | >28                    | 51,03                       | %39,2          | -%9,6  | 23,4                   |
|                          | EE 7-GN  | 66,97                       | %45,0          | %7,3   | -                      | 66,97   | %45,0          | %4,2   | -                      | 66,97                       | %45,0          | -%9,3  | 20,2                   |
|                          | EE 8-GN  | 60,98                       | %46,9          | %7,6   | -                      | 60,98   | %46,9          | %4,2   | -                      | 60,98                       | %46,9          | -%10,0 | 17,0                   |
|                          | EE 9-GN  | 54,13                       | %40,4          | %3,0   | -                      | 54,13   | %40,4          | %0,5   | -                      | 54,13                       | %40,4          | -%6,5  | 21,9                   |
|                          | EE 10-GN | 47,65                       | %44,1          | %2,2   | -                      | 47,65   | %44,1          | -%0,5  | >28                    | 47,65                       | %44,1          | -%7,8  | >28                    |
|                          | EE 11-GN | 27,28                       | %60,3          | %1,3   | -                      | 27,28   | %60,3          | -%2,4  | >28                    | 27,28                       | %60,3          | -%5,8  | 22,4                   |
|                          | EE 12-GN | 69,56                       | %39,3          | %3,9   | -                      | 69,56   | %39,3          | %1,4   | -                      | 69,56                       | %39,3          | -%12,0 | 18,5                   |
|                          | EE 13-GN | 52,37                       | %32,1          | %0,9   | -                      | 52,37   | %32,1          | -%1,0  | >28                    | 52,37                       | %32,1          | -%8,2  | >28                    |
|                          | EE 14-GN | 55,68                       | %50,5          | %3,7   | -                      | 55,68   | %50,5          | %0,3   | -                      | 55,68                       | %50,5          | -%14,1 | 15,7                   |
|                          | EE 15-GN | 50,07                       | %46,6          | %15,4  | -                      | 50,07   | %46,6          | %11,8  | >28                    | 50,07                       | %46,6          | -%3,2  | 21,4                   |
|                          | EE 16-GN | 45,17                       | %48,1          | %8,2   | -                      | 45,17   | %48,1          | %5,0   | >28                    | 45,17                       | %48,1          | -%4,3  | 21,8                   |
|                          | EE 17-GN | 44,47                       | %47,7          | %12,7  | -                      | 44,47   | %47,7          | %9,2   | >28                    | 44,47                       | %47,7          | -%3,9  | 16,5                   |
| Ikuspegi makroekonomikoa | EE 1-GN  | 67,27                       | %51,1          | -%13,5 | 23,2                   | 67,27   | %51,1          | -%15,4 | 21,7                   | 67,27                       | %51,1          | -%21,6 | 11,9                   |
|                          | EE 2-GN  | 62,43                       | %51,5          | -%15,3 | 22,3                   | 62,43   | %51,5          | -%17,3 | 20,7                   | 62,43                       | %51,5          | -%23,6 | 11,8                   |
|                          | EE 3-GN  | 40,30                       | %57,9          | -%14,6 | 20,7                   | 40,30   | %57,9          | -%16,9 | 19,2                   | 40,30                       | %57,9          | -%18,4 | 16,3                   |
|                          | EE 4-GN  | 34,31                       | %61,4          | -%14,9 | 21,7                   | 34,31   | %61,4          | -%17,4 | 20,2                   | 34,31                       | %61,4          | -%19,6 | 16,8                   |
|                          | EE 5-GN  | 32,53                       | %62,4          | -%14,2 | 22,4                   | 32,53   | %62,4          | -%16,6 | 20,8                   | 32,53                       | %62,4          | -%18,6 | 18,7                   |
|                          | EE 6-GN  | 32,44                       | %61,3          | -%13,6 | 22,8                   | 32,44   | %61,3          | -%16,0 | 21,3                   | 32,44                       | %61,3          | -%18,3 | 17,5                   |
|                          | EE 7-GN  | 65,32                       | %46,3          | -%8,2  | >28                    | 65,32   | %46,3          | -%10,1 | 24,7                   | 65,32                       | %46,3          | -%17,2 | 15,9                   |
|                          | EE 8-GN  | 60,98                       | %46,9          | -%8,9  | >28                    | 60,98   | %46,9          | -%11,0 | 24,6                   | 60,98                       | %46,9          | -%18,4 | 13,8                   |
|                          | EE 9-GN  | 34,67                       | %61,8          | -%6,9  | >28                    | 34,67   | %61,8          | -%9,4  | 24,4                   | 34,67                       | %61,8          | -%12,2 | 17,0                   |
|                          | EE 10-GN | 30,59                       | %64,1          | -%11,6 | 23,7                   | 30,59   | %64,1          | -%14,4 | 22,0                   | 30,59                       | %64,1          | -%17,0 | 18,3                   |
|                          | EE 11-GN | 27,28                       | %60,3          | -%13,8 | 21,0                   | 27,28   | %60,3          | -%16,4 | 19,5                   | 27,28                       | %60,3          | -%17,5 | 16,9                   |
|                          | EE 12-GN | 53,29                       | %53,5          | -%10,2 | >28                    | 53,29   | %53,5          | -%12,3 | 24,2                   | 53,29                       | %53,5          | -%19,0 | 14,9                   |
|                          | EE 13-GN | 24,91                       | %67,7          | -%9,3  | >28                    | 24,91   | %67,7          | -%12,0 | 24,2                   | 24,91                       | %67,7          | -%14,3 | 19,9                   |
|                          | EE 14-GN | 52,88                       | %53,0          | -%13,6 | 24,7                   | 52,88   | %53,0          | -%15,7 | 23,2                   | 52,88                       | %53,0          | -%23,1 | 13,1                   |
|                          | EE 15-GN | 50,07                       | %46,6          | -%3,6  | >28                    | 50,07   | %46,6          | -%5,7  | >28                    | 50,07                       | %46,6          | -%13,5 | 18,1                   |
|                          | EE 16-GN | 45,17                       | %48,1          | -%7,9  | 24,7                   | 45,17   | %48,1          | -%9,9  | 23,1                   | 45,17                       | %48,1          | -%14,6 | 17,4                   |
|                          | EE 17-GN | 44,47                       | %47,7          | -%5,2  | >28                    | 44,47   | %47,7          | -%7,3  | >28                    | 44,47                       | %47,7          | -%14,1 | 17,7                   |

<sup>4</sup> Energia prezio altuen eta eta BRL agertokiak 4.2.4 eta 4.2.5 ataletan deskribatzen dira, hurrenez hurren.



23. Taula: sistema termiko elektrikoak dituzten EEn kostu-maila optimoak.

|                          |         | ERREFERENTZIAKO AGERTOKIA   |                |        |                        | ENERGIAREN PREZIO ALTUEN AGERTOKIA <sup>5</sup> |                |        |                        | BRL AGERTOKIA <sup>5</sup>  |                |        |                        |
|--------------------------|---------|-----------------------------|----------------|--------|------------------------|---|----------------|--------|------------------------|-----------------------------|----------------|--------|------------------------|
|                          |         | EP-eb (kWh/m <sup>2</sup> ) | EP-eb aurrezt. | ΔKG    | Amortiz. epea (urteak) | EP-eb (kWh/m <sup>2</sup> )                     | EP-eb aurrezt. | ΔKG    | Amortiz. epea (urteak) | EP-eb (kWh/m <sup>2</sup> ) | EP-eb aurrezt. | ΔKG    | Amortiz. epea (urteak) |
| Ikuspegi pribatua        | EE 1-E  | 91,49                       | %51,1          | -%10,3 | 22,7                   | 91,49   | %51,1          | -%15,2 | 20,3                   | 91,49                       | %51,1          | -%22,0 | 12,0                   |
|                          | EE 2-E  | 87,80                       | %49,9          | -%10,5 | 22,7                   | 87,80   | %49,9          | -%15,2 | 20,3                   | 87,80                       | %49,9          | -%22,5 | 11,4                   |
|                          | EE 3-E  | 48,83                       | %62,5          | -%10,9 | 21,9                   | 48,83   | %62,5          | -%17,1 | 19,7                   | 48,83                       | %62,5          | -%16,9 | 17,3                   |
|                          | EE 4-E  | 44,34                       | %63,4          | -%10,4 | 22,7                   | 44,34   | %63,4          | -%16,7 | 20,3                   | 44,34                       | %63,4          | -%17,5 | 17,3                   |
|                          | EE 5-E  | 44,24                       | %62,4          | -%12,0 | 21,5                   | 44,24   | %62,4          | -%18,1 | 19,4                   | 44,24                       | %62,4          | -%18,3 | 16,7                   |
|                          | EE 6-E  | 44,12                       | %61,3          | -%10,9 | 22,2                   | 44,12   | %61,3          | -%17,0 | 19,9                   | 44,12                       | %61,3          | -%17,7 | 16,9                   |
|                          | EE 7-E  | 88,84                       | %46,3          | -%4,1  | >28                    | 88,84   | %46,3          | -%9,2  | 23,7                   | 88,84                       | %46,3          | -%17,4 | 13,6                   |
|                          | EE 8-E  | 86,29                       | %44,7          | -%3,9  | >28                    | 86,29   | %44,7          | -%8,8  | 24,0                   | 86,29                       | %44,7          | -%17,7 | 13,1                   |
|                          | EE 9-E  | 70,23                       | %43,2          | -%6,4  | 23,0                   | 47,16   | %61,8          | -%10,4 | 23,3                   | 70,23                       | %43,2          | -%14,7 | 14,6                   |
|                          | EE 10-E | 44,56                       | %61,6          | -%8,8  | 23,7                   | 44,56   | %61,6          | -%15,2 | 21,1                   | 44,56                       | %61,6          | -%17,0 | 17,3                   |
|                          | EE 11-E | 44,16                       | %52,8          | -%10,0 | 21,5                   | 44,16   | %52,8          | -%15,2 | 19,4                   | 44,16                       | %52,8          | -%15,6 | 16,6                   |
|                          | EE 12-E | 76,48                       | %50,9          | -%7,9  | 24,4                   | 76,48   | %50,9          | -%13,1 | 21,6                   | 76,48                       | %50,9          | -%20,7 | 12,4                   |
|                          | EE 13-E | 38,99                       | %62,8          | -%8,0  | 23,9                   | 38,99   | %62,8          | -%14,6 | 21,2                   | 38,99                       | %62,8          | -%15,6 | 20,9                   |
|                          | EE 14-E | 75,73                       | %50,5          | -%10,5 | 22,9                   | 75,73   | %50,5          | -%15,4 | 20,5                   | 75,73                       | %50,5          | -%23,6 | 10,7                   |
|                          | EE 15-E | 68,09                       | %46,6          | %1,1   | >28                    | 68,09   | %46,6          | -%4,6  | >28                    | 68,09                       | %46,6          | -%13,6 | 15,1                   |
|                          | EE 16-E | 61,44                       | %48,1          | -%5,6  | 24,6                   | 61,44   | %48,1          | -%10,7 | 21,7                   | 61,44                       | %48,1          | -%15,5 | 15,0                   |
|                          | EE 17-E | 60,48                       | %47,7          | -%1,4  | >28                    | 60,48   | %47,7          | -%7,0  | 24,7                   | 60,48                       | %47,7          | -%14,6 | 15,3                   |
| Ikuspegi makroekonomikoa | EE 1-E  | 55,07                       | %70,6          | -%22,7 | 21,6                   | 55,07   | %70,6          | -%28,4 | 20,0                   | 55,07                       | %70,6          | -%29,2 | 10,8                   |
|                          | EE 2-E  | 87,80                       | %49,9          | -%23,7 | 17,9                   | 41,00   | %76,6          | -%27,3 | 22,1                   | 87,80                       | %49,9          | -%30,3 | 10,4                   |
|                          | EE 3-E  | 48,83                       | %62,5          | -%25,7 | 17,5                   | 42,04   | %67,7          | -%29,8 | 18,5                   | 48,83                       | %62,5          | -%28,8 | 14,7                   |
|                          | EE 4-E  | 44,34                       | %63,3          | -%26,0 | 17,9                   | 37,71   | %68,8          | -%30,2 | 18,8                   | 44,34                       | %63,3          | -%29,8 | 14,6                   |
|                          | EE 5-E  | 44,24                       | %62,4          | -%26,7 | 17,2                   | 38,07   | %67,6          | -%30,5 | 18,4                   | 44,24                       | %62,4          | -%30,1 | 14,2                   |
|                          | EE 6-E  | 44,12                       | %61,3          | -%25,9 | 17,6                   | 37,88   | %66,8          | -%29,7 | 18,7                   | 44,12                       | %61,3          | -%29,4 | 14,4                   |
|                          | EE 7-E  | 88,84                       | %46,3          | -%18,0 | 20,4                   | 43,78   | %73,5          | -%21,2 | 23,8                   | 88,84                       | %46,3          | -%25,4 | 12,1                   |
|                          | EE 8-E  | 86,29                       | %44,7          | -%17,6 | 20,7                   | 41,19   | %73,6          | -%19,4 | 24,6                   | 86,29                       | %44,7          | -%25,3 | 11,7                   |
|                          | EE 9-E  | 47,16                       | %61,8          | -%20,7 | 20,2                   | 39,64   | %67,9          | -%25,4 | 20,7                   | 47,16                       | %61,8          | -%25,0 | 16,6                   |
|                          | EE 10-E | 44,56                       | %61,6          | -%24,7 | 18,5                   | 37,25   | %67,9          | -%28,9 | 19,5                   | 44,56                       | %61,6          | -%29,0 | 14,6                   |
|                          | EE 11-E | 44,16                       | %52,8          | -%22,5 | 17,2                   | 37,13   | %60,3          | -%25,7 | 19,5                   | 44,16                       | %52,8          | -%25,5 | 14,2                   |
|                          | EE 12-E | 72,47                       | %53,5          | -%21,8 | 20,1                   | 37,75   | %75,8          | -%26,1 | 21,7                   | 72,47                       | %53,5          | -%28,8 | 11,2                   |
|                          | EE 13-E | 33,88                       | %67,7          | -%24,2 | 20,0                   | 33,88   | %67,7          | -%29,4 | 18,7                   | 33,88                       | %67,7          | -%28,2 | 16,8                   |
|                          | EE 14-E | 71,92                       | %53,0          | -%23,8 | 19,2                   | 71,92   | %53,0          | -%27,3 | 18,0                   | 71,92                       | %53,0          | -%31,0 | 9,8                    |
|                          | EE 15-E | 68,09                       | %46,6          | -%14,0 | 22,5                   | 68,09   | %46,6          | -%17,9 | 20,7                   | 68,09                       | %46,6          | -%22,1 | 13,7                   |
|                          | EE 16-E | 61,44                       | %48,1          | -%18,3 | 19,1                   | 44,33   | %62,6          | -%21,2 | 21,0                   | 61,44                       | %48,1          | -%23,8 | 13,1                   |
|                          | EE 17-E | 60,48                       | %47,7          | -%15,8 | 21,2                   | 60,48   | %47,7          | -%19,6 | 19,7                   | 60,48                       | %47,7          | -%23,1 | 13,3                   |


EE bakoitzak ordezkaten duen etxebizitza-kopurua kontuan izanik, kostu-maila optimo pribatuek guztira %48,4ko EP-eb aurrezpena eragingo lukete parkearen egungo kontsumoarekiko (24. Taula). Halere, aurrezpen hori ikuspegi ekonomikoaren eta erregaiaren arabera aldatzen da. 21. Irudiak identifikatutako kostu-maila optimoekin lortuko litzatekeen EP-eb aurrezpenen banaketa erakusten du. Ikuspegi pribatua, kostu-maila optimoekin lor daitekeen batez besteko EP-eb aurrezpena egun gas naturala erabiltzen duten EEn %44tik, elektrizitatea erabiltzen duten EEn %54ra bitartean dago. Ikuspegi makroekonomikoan, aldiz,

<sup>5</sup> Energia prezio altuen eta eta BRL agertokiak 4.2.4 eta 4.2.5 ataletan deskribatzen dira, hurrenez hurren.



aurrezpenak antzerakoak dira GN eta elektrizitatea erabiltzen duten EEetan (%56 eta %57, hurrenez hurren), bi kasuetan handiagoak izanik ikuspegi pribatuaren aldean.


Hortaz, ikuspegi pribatuaren eta makroekonomikoaren kostu-maila optimoen alde nabarmena da GN erabiltzen duten EEetan. Horrek esan nahi du beharrezkoa izan daitekeela nolabaiteko finantza laguntza eraginkortasun energetikoko inbertsio batzuk ekonomikoki interesgarriak izan daitezkeen erabiltzaileentzat.



#### 21. Irudia: kostu-maila optimoekin lortuko litzatekeen EP-eb aurrezpenen banaketa.


Izan ere, aipatu beharra dago GN erabiltzen duten EEn aldaera optimo pribatuen KGak oinarrizko kasuen KGen oso antzerakoak direla. EE askotan, 1960 osteko eraikin ia guztietan, lehena bigarrena baino zertxobait handiagoa ere bada; beraz, eraginkortasun energetikoaren arloan jardutea okerrerako izan daiteke ikuspegi ekonomikotik. GN kontsumitzen duten EEetan, aldaera optimo pribatuen KG batez beste %3,3 altuagoa da oinarrizko egoeretan baino. Bestetik, erabilera termikoetarako elektrizitatea kontsumitzen duten EEetan, hori salbuespen bakarrean gertatzen da, 15. EEean (1981 ondorengo eraikina izanik, hobeekin isolatuen artean dago eta, ondorioz, haren eraginkortasun energetikoa hobetzeko marjina txikiagoa du). Emaitza horiek ikusita, Bilboko negu epelen (barnealdeko beste eskualdeetako eguraldi gogorragoaren aldean) eta inbertsioei aurre egiteko behar diren finantza kosteen konbinazioak, GNren prezio baxuekin batera (elektrizitatearekin alderatuz), eraginkortasun energetikoan jardutearen onura ekonomikoa muga dezake.

Adibide gisa, 22. Irudiak 14. EERI dagozkion hainbat berritze-paketeren KG banaketa erakusten du. EE14 - GN kasuan, kostu optimoko aldaerak oinarrizko kasua baino KG altuagoa duela egiaztatzen da; beraz, lortuko litzatekeen energia murrizketak ez luke beharrezkoa den inbertsioaren kostua gaindituko. Aldiz, elektrizitatearen prezio altuagoak EE14 - Eren energia kostua igotzen du eta, ondorioz, kostu optimoko aldaerak KG aurreztea eragiten dute oinarrizko kasuarekiko. KGren aurrezpen hori, edozein kasutan ere, txikia da sistema termiko elektrikoa duten EEn artean: aldaera optimo pribatuen KGren batez besteko aurrezpena %7,7koa da.




22. Irudia: 14. EERI dagozkion hainbat berritze-paketeren KG banaketa.

Gainera, GN kontsumitzen duten EEtan, KG pribatuaren kurba laua da nagusiki, kostu optimoaren inguruko tarte handi batean, non KGren aldaketa baxua den (oinarrizko kasuaren KGren gaineratik zein azpitik egon). 23. Irudian 1. EErentzat lortutako kurba jarri da adibide gisa. Horrek esan nahi du, gehiegizko laguntza publikoren beharrik gabe, EP-eb aurrezpen nabarmen bat sustatu daitekeela kurba lauaren ezker ertzeko esku-hartzeak marjinalki erakargarriak bihurtuz erabiltzaileentzat. Edonola ere, kostu-maila optimoa ezartzeko, 244/2012 Erregelamendu Delegatuak zehazten du hainbat esku-hartzeek antzerako KG badute, EP txikieneko hautatu beharko dela, analisi honetan egin den bezala.



23. Irudia: EE1 – GNrentzat lortutako KG kurba.

Aldiz, ikuspegi pribatu beraren barruan, berokuntzarako elektrizitatea erabiltzen duten EEn puntuen hodeiek eta kostu-kurbek forma nahiko desberdina dute. Oro har, esku-hartzeen kopuru handiago bat dago oinarrizko kasuaren KGtik behera, kurba gehiago makurtzen da kostu optimoko zonaren eskuin aldera eta optimo hau oinarrizko kasuaren puntutik urrutirako kokatzen da, EP-eb aurrezpen handiagoa eraginez. Alderdi horiek 24. Irudian ikus daitezke, non EE5 - Eren emaitzak adierazten diren.



**24. Irudia: EE5 - Erentzat lortutako KG kurba.**

Hala ere, kostu optimoaren esku-hartzei dagozkien amortizazio-epaek gehiegizkoak jarraitzen dute izaten, 21 urtetik gora baitaude EE guztientzat. Kasu batzuetan, kostu optimoen metodologiaren aplikazioaren barruan kontuan hartutako 28 urteko epea baino luzeagoak dira, eta horrek esan nahi du aldi horren amaieran lortutako hondar-balioari esker lortzen direla oinarrizko kasuenak baino KG txikiagoak.

24. Irudiako puntu ilunagoak berokuntza sistema elektrikoa GN instalazio oso berri batez aldatzea dakarten esku-hartzei dagozkie, kondentsazio-galdara eta erradiadoreen sistema barne hartuta. Balizko sistema-aldaketa horrek esku-hartzeen KG igotzea eragiten du, grafikoetan beste aldaera batzuetatik bereiztea ahalbidetuz. Halere, aipatu beharra dago GNezko instalazio berri honekin CTEaren NZEB kontsumo mailetara iritsi daitezkeela eraikin hauek.


Bestalde, ikuspegi makroekonomikoak kostu optimo ezberdinak dakartza GN kontsumitzen duten EE gehienetan. Optimo horiek ikuspegi pribatukoak baino EP-eb kontsumo txikiagoa dute. Halaber, ikuspegi makroekonomiko honetan are nabarmenagoa da kostu optimoko gunea eta azken honek KG aurrezpen nabarmena adierazten du EE guztietan oinarrizko kasuarekiko; KG kurba ia lauaren joera ez da gertatzen. Aldiz, berokuntzarako elektrizitatea erabiltzen duten EEtan, ikuspegi makroekonomikoa ikuspegi pribatuarekin lerrokatuagoa dagoela ikusi da eta, oro har, emaitza optimo berberak ematen ditu, kostuei dagokienez. Halere, ikuspegi makroekonomikoak amortizazio-epe laburragoak ematen ditu kasu guztietan (altuak izaten jarraitu arren): 21 eta 17 urtetik gorakoak GN eta elektrizitatea erabiltzen duten EEtan, hurrenez hurren. Laburbilduz, ikuspegi makroekonomikoan lortutako kostu-maila optimoko esku-hartzeekin, PE-eb eta KG aurreztepenak %57,1 eta %16,23ra arte igotzen dira, hurrenez hurren (24. Taula).

24. Taula: agertoki desberdinetan balioetsitako batz besteko kostu-maila optimoko aldaerak.

|                          |                           | Erreferentziako agertokia | Energiaren prezio altuen agertokia | BRL agertokia |
|--------------------------|---------------------------|---------------------------|------------------------------------|---------------|
| Ikuspegi pribatua        | EP-eb aurrezkia           | %48,4                     | %48,9                              | %48,4         |
|                          | CO <sub>2</sub> aurrezkia | %46,7                     | %47,1                              | %46,7         |
|                          | KG aurrezkia              | %1,97                     | %6,0                               | %13,2         |
| Ikuspegi makroekonomikoa | EP-eb aurrezkia           | %57,1                     | %62,4                              | %57,1         |
|                          | CO <sub>2</sub> aurrezkia | %56,2                     | %61,2                              | %56,2         |
|                          | KG aurrezkia              | %16,2                     | %19,3                              | %22,3         |

#### 4.2.3 NZEB berritze-mailak

Esku-hartze energetikoen bidez lor daitekeen PE-eb aurrezpen maximoa 2050erako energia kontsumoa murrizteko Europako helburuaren neurrikoa da. Berokuntzarako gas naturala erabiltzen duten EEtan, batez beste %76 aurrez daiteke oinarrizko kasuekiko (%69 eta %84 bitartean EEaren arabera). PE-eb aurrezteko ahalmen hori %82ra igotzen da berokuntza elektrikoko sistemak dituzten EEtan (%77 eta %88 bitartean, EEaren arabera). Emaidza horiek 25. Irudian adierazi dira, non zirkuluen tamainak EE mota bakoitzak bizitegi-parkean duen pisua adierazten duen. EE guztiak CTEk eraikin berrientzat ezarritako atalase-baliora iritsiko lirateke; hau da, zaharberitze energetiko baten bidez, eraikin guztiak NZEB bihurtzeko Espainiako definizioan oinarrituta.




25. Irudia: birgaitze energetikoaren bidez lortu daitezkeen EP-eb aurrezki maximoak, horiekin lotutako KGaren igoeren arabera.

Halere, beharko litzakeen KG pribatuaren igoera, oinarrizko kasuarekiko, izugarri handia izango litzateke: %54 inguruko esfortzu ekonomiko gehigarria beharko litzateke. Batez besteko hori antzerakoa da GN eta elektrizitatea erabiltzen duten EEntzat. Aldiz, aipatu beharra dago KGren igoera hau askoz ere txikiagoa dela ikuspegi makroekonomikoan, %15ekoa hain zuzen. Beraz, diferentzia nabarmena dago bi ikuspegiarten artean esku-hartze energetiko sakonen eragin ekonomikoan. Ikuspegi makroekonomiko batetik, NZEB bihurtzeko KGren igoera txiki bat baino behar ez duten EEk ere badaude, hasierako inbertsio gisa kontzentratuta bada ere.

Halaber, ahalegin ekonomiko horren eraginkortasuna ezberdina izango litzateke inbertitutako euro bakoitzeko lortutako EP-eb aurrezki unitarioari dagokionez. 26. Irudian aurreztutako EP-eb unitate bakoitzeko beharrezkoa den KGren igoera adierazten da, zaharberitutako etxebizitza bakoitzean lor daitekeen EP-eb aurrezpenaren aldean. "Aurreztutako kWh-ko

euroak” 2 eta 94 zentimoren artean daude ikuspegi makroekonomikoan, EE zaharrenak azpiko tartean eta berrienak goiko tartean egonik, hurrenez hurren. Bestetik, ikuspegi pribatuan lortutako erlazio baxuena 50 zentimoetatik gora dago.



**26. Irudia: aurreztutako EP-eb unitate bakoitzeko beharrezkoa den KGren igoera, birgaitutako etxebizitza bakoitzeko EP-eb aurrezkiaren arabera.**

Emaitza horiek bidez, epe luzera energia aurrezteko helburuekin bat datorren energia-eraginkortasunaren hobekuntza-maila sustatzeko beharrezkoak izan daitezkeen laguntza planen berri eman liteke. Hala ere, garrantzitsua da nabarmentzea ikuspegi makroekonomikoan ere, NZEB berritze-mailak lortzea ez litzatekela errentagarria izango onartutako erreferentziako agertokian. Esku-hartze sakon horiek errentagarri izateko beharrezkoa litzateke inbertsio-kostuak murriztea (ikasketa kurben eta eskalako ekonomien ondorioz), lehengai energetikoen prezioak altuagoak izatea eta finantzazio-interesak txikitzea.

#### 4.2.4 Energiaren prezio altuen agertokia

Sentikortasun azterketa bat burutu da GNren eta elektrizitatearen prezioen bilakaerak emaitzetan duen eragina zein den ikusteko. Horretarako, energia prezio altuagoko beste agertoki bat zehazten da, ereduaren gainerako parametroak finko mantentzen direlarik.

Azken urtean pairatutako neurrigabeko energia prezioei dagokionez, aipatu beharra dago salbuespeneko egoera geopolitiko baten ondorio direla. Egoera horren bilakaeraren eta EBak hartutako energia arloko azken erabakien arabera, oraindik ikusteke dago epe luzean izan dezakeen eragina. Izan ere, ikerketa honetan aztertutako aldia 28 urtekoa da eta, beraz, alde batera utzi da epe laburrean eman daitezkeen prezioen hegakortasuna.

CNMCren arabera [94], 2011-2018 bitartean Espainian elektrizitatearen prezioak izandako urteko batazbesteko igoera %3,2koa izan zen. Aldiz, erreferentziako agertokiaren urteko batez besteko igoera %1,81koa da. Beraz, beste agertoki honetan urteko %3ko igoera konstantea zehaztu da. GNri dagokionez, PNIECaren 2030 urterako aurreikuspenak erreferentziako agertokia zehazteko kontuan izandako gainerako analisiek baino lehengaien kostuen eboluzio nahiko handiagoa dakar [27]. Agertoki alternatibo honetan GNren prezioaren tarteko bilakaera definitu da, erreferentziako agertokiaren eta PNIECaren hipotesiaren artean.

Horrela, erabilera termikoentzat GN erabiltzen duten EEentzako lortutako kostu-maila optimoak ikuspegi pribatuan eta makroekonomikoan erreferentziako agertokian lortutako berberak dira (22. Taula); beraz, bi ikuspegien arteko diferentzia hor jarraitzen du. Kasurik onenean, amortizazio-epeak zertxobait hobetzen dira (1,5 urte inguruan), baina EE batzuen kasuan, kostu-maila optimoek errentagarriak izan gabe jarraitzen dute. Hortaz, emaitzek erakusten dute GNren prezio handiagoaren efektua mugatua dela.

Elektrizitatea kontsumitzen duten EEtan, kostu-maila optimo pribatuek eredu berari jarraitzen diote (23. Taula). Oro har, amortizazio-epeak 2-3 urtetan lubertzen dira. Halere, inpaktu nagusia kostuen-maila optimo makroekonomikoetan gertatzen da, zeinak PE-eb kontsumo baxuagoen tarteetan mugitzen diren. Hortaz, kostu-maila optimo pribatu eta makroekonomikoak erreferentziako agertokian lerrokatuta zeuden bitartean, diferentzia nabarmena sortu da energiaren prezio altuen agertokian (GN erabiltzen duten EEen antzerakoa).

#### 4.2.5 BRL agertokia


Erreferentziako agertokian, oinarrizko kasuak inolako birgaitzerik gabeko EEek adierazten dituzte. Halere, baliteke eraikin zahar batek fatxadaren mantentze esku-hartze bat beharrezkoa eta ezinbestekoa izatea. Egoera horretan, ordezeko EENen errentagarritasuna ebaluatzeko esparru ekonomikoa aldatzen da. Kasu honetan, EEen oinarrizko kasuetan oinarrizko esku-hartze maila bat zehaztu beharra dago (*Base Refurbishment Level*, BRL), zeinak zaharberritzeko beharra duen eraikin bati aplikatu dakioken gutxieneko berritze-maila adierazten duen. Azken hau 15 mm-ko geruza bakarreko mortero estaldura moduan definitu da, zeinaren propietate iragaztezin eta transpiragarriek fatxadaren jokabide higrotermiko egokia ahalbidetzen duten arren, ez dute haren isolamendu termikoa hobetzen. BRL honentzat 35 €/m<sup>2</sup>-ko kostua zenbatetsi da.

Agertoki honetan, aztertutako esku-hartzeen EP-eb kontsumoa eta KG erreferentziako agertokiko berberak jarraitzen dute izaten, oinarrizko kasuaren KG bakarrik aldatzen da. Beraz, KGren grafikoa ez da aldatzen eta kostu-maila optimoak erreferentziako agertokiarenak dira (22. Taula eta 23. Taula). Hala ere, kostu-maila optimoaren errentagarritasunaren ebaluazioa aldatzen da, oinarrizko kasuen kostua areagotzearen ondorioz, eta amortizazio-epearen murrizketa nabarmenak ikusten dira erreferentziako agertokiarekiko. Kasu honetan, kostu-maila optimoak oso errentagarriak dira EE guztietan, 14 eta 23 urte bitarteko amortizazio-epe pribatuekin GN kontsumitzaileentzat (12-18 urte ikuspegi makroekonomikoan), eta 11 eta 17 urte bitartekoa erabilera termikoentzat elektrizitatea kontsumitzen duten EEentzat (10-15 urte ikuspegi makroekonomikoan). Hortaz, birgaitze energetiko sakonenen errentagarritasuna oso adierazgarria dela egiaztatu da eraikinak fatxada zaharberritzea behar duen testuinguruan.

#### 4.2.6 Diru-laguntzak

Aurreko ataletan aurkeztutako emaitza ekonomikoek desberdintasun nabarmenak erakusten dituzte ikuspegi makroekonomikoaren eta pribatuaren artean; esku-hartze batzuk ez dira errentagarriak inbertitzaile pribatuarentzat eta, errentagarriak direnean, inbertsio horien amortizazio-epeak handiegiak dira. Horrek guztiak erakusten du laguntza publikoak behar direla birgaitze energetikoa jendearentzat erakargarria izan dadin.

27. Irudiak erakusten du kostu-maila optimo makroekonomikoak amortizazio-epe pribatu ezberdinekin lortzeko beharrezkoa izango litzatekeen diru-laguntza. Iterazio-prozesu bat egin da, diru-laguntzen maila handituz eta urrats bakoitzean nahi den amortizazio-epea lortzen den egiaztatuz. Diru-laguntza maila bakoitza sartzeak, bistan denez, ikuspegi pribatuaren maila optimoa etengabe aldatzea ekarriko luke eta, beraz, azterketa hau lortutako maila optimo makroekonomikoetan oinarritu da, maila horiek finkoak baitira. EE bakoitzarentzat kalkulua bi aldiz burutu da, %4ko erreferentziako finantzazio tasarekin eta %2ko tasa murriztu batekin.




**27. Irudia: kostu-maila optimo makroekonomikoak amortizazio-epe pribatu ezberdinekin lortzeko beharrezkoa izango litzatekeen diru-laguntza.**

Inbertitzaile batentzat inbertsioa erakargarria izateko idealiki 10 urtetik gertuko amortizazio-epea beharrezkoa balitz ere, erreferentziako agertokiaren emaitzek erakusten dute era zabal batean sustatu ahalko litzatekeen amortizazio-epe laburrena 15 urtera mugatu beharko litzatekeela. Amortizazio-epe honek eskatzen dituen batez besteko diru-laguntzak nabarmenak dira jada, baina 10 urtetik gertuagoko amortizazio-epeak lortzeko beharrezkoak diren diru-laguntzak izugarri handitzen dira.

Bestalde, emaitzek diru-laguntza zuzenak interes baxuko maileguekin konbinatzearen onura adierazten dute. Azken hauen ekarpena ezinbestekoa da diru-laguntza zuzenak laguntza publikoko aurreko programekin aldera daitekeen tarte batean mantentzeko, non laguntzak inbertsioaren %30-35era irits daitezkeen [9]. %2ko finantzazio-tasarekin, erreferentziako agertokian beharrezkoa litzatekeen batez besteko diru-laguntza %38koa da.


Halere, alde nabarmenak daude EE bakoitzak 15 urtetik beherako amortizazio-epea bermatzeko beharrezkoa duen diru-laguntza publikoen artean. 28. Irudian, EE bakoitzak behar duen diru-laguntzaren zatia adierazi da, %2ko finantzazio-tasa ontzat hartuz, esku-hartze energetiko horrek eragingo lukeen PE-eb aurrezpenaren ondoan. Zirkuluen tamainak etxebizitzaren kopurua adierazten du.



**28. Irudia: %2ko finantzazio-tasarekin EE bakoitzak behar duen diru-laguntzaren zatia, 15 urtetik beherako amortizazio-epea bermatzeko aldaera optimoetan.**

Ikus daitekeenez, sistema termiko elektrikoak dituzten EEk GN kontsumitzen duten EEk baino laguntza publiko gutxiago behar dute. Lehenengo kasuan laguntza hori ohiko diru-laguntzen tartean dago; aldiz, bigarrenetan inbertsioaren %48ra igotzen da batez beste. GN elektrizitatea baino merkeagoa izateak, GN erabiltzen duten EEn urteko gastu energetikoa sistema termiko elektrikoak dituztenena baino txikiagoa izatea eragiten du. Ondorioz, energia kontsumoaren murrizketa jakin bati lotutako aurrezpena txikiagoa da GNren kontsumitzaileentzat eta horrek amortizazio-epe handiagoak eragiten ditu antzerakoak diren inbertsioentzat. Ondorio nagusia da diru-laguntza handiagoak behar direla eraginkortasun energetikoko inbertsioak azken erabiltzailearentzat erakargarriak izan daitezen.

Prezio altuen agertokiak diru-laguntzen antzerako banaketa erakusten du 15 urterako amortizazio-epearentzat, 29. Irudian ikus daitekeenez. Agertoki honetako optimo makroekonomikoek erreferentziako agertokian baino energia aurrezpen handiagoa erakusten badute ere (24. Taula), behar diren diru-laguntzak antzerakoak dira bi agertokietan. Aldiz, BRL agertokian behar den laguntza asko murrizten da, hainbat EEk ez baitute laguntza publikorik behar 15 urteko amortizazio-epea bermatzeko.



**29. Irudia: diru-laguntzen banaketa 15 urteko amortizazio-epearentzat.**

Esku-hartze sakonagoetarako beharrezkoa izan daitekeen diru-laguntza gehigarria zenbatesteko, birgaitze energetiko maila sakonago bat aukeratu da EE bakoitzerako, NZEB tartean edo hurbil egonik, aurrezpenaren eta kostuen arteko konpromiso egokia adierazten duena. Esku-hartze maila horiek lortzeko beharrezkoak diren diru-laguntzen banaketa, zeinekin batez besteko 36,0 kWh/m<sup>2</sup>-ko PE-eb kontsumoa lortuko litzatekeen, 29. Irudian adierazten da hiru agertokietako bakoitzarentzat.



Aipatu beharra dago prezio altuen agertokian batez besteko diru-laguntza (%43), erreferentziako eta prezio altuko agertokietan kostu-maila optimora iristeko beharrezkoa den laguntzara hurbiltzen dela. Horrek esan nahi du produktu energetikoen kostuak inpaktu adierazgarria izan dezakela NZEB mailako esku-hartzeak aukeratzeko gaitasunean. Bestalde, azken hau bermatuta egongo litzateke, %25ko laguntza publiko batekin, berritu beharra duten eraikinetan.

Hala ere, etxeko energia-kontsumoak eragindako GHG emisioak murriztea baldin bada helburu nagusia, baliteke sistema termiko elektrikoak dituzten EEetan esku-hartze sakonak sustatzea (NZEB mailakoak) merezi ez izatea. Batetik, kostu optimoko esku-hartze makroekonomikoekin lortuko litzatekeen GHG emisioen aurrezpena merituzko %56,2ra iritsiko litzateke. Bestetik, aurreikusitako sare elektrikoaren deskarbonizazioak gainerako EP-eb kontsumoari lotutako emisioak minimizatuko lituzke berez. PNIECean oinarrituz, 2030eko elektrizitate *mix*-aren arabera  $0,08 \text{ kgCO}_2/\text{kWh}_{\text{EF}}$  konbertsio faktorea zenbatetsi daiteke etxeetan kontsumitutako elektrizitaterako, egungo faktorearen laurdenari dagokiona. Hortaz, horrek kostu optimoko esku-hartzeak epe luzean %80-90 murrizteko helburuarekin lerrokatuko lituzke.

### 4.3 Hirugarren fasearen emaitzak

#### 4.3.1 Ereduaren estimazio emaitzak

DCE esperimentuaren emaitzen arabera, etxebizitzaren jabeek interes handia dute haien etxeak termikoki isolatzeko. Azpimarratu beharra dago, aukera-multzoen %86an inkestatuek fatxada isolatzeko bi aukeretako bat aukeratu dutela, eta %14ean bakarrik aukeratu dute birgaitzerik ez egitea. Inbertsio kostuen maila altua (12.000€) izan duten aukera-multzoetan ere, egungo egoera mantentzea aukeratu duten kasuak %17 baino ez dira. Fatxadaren berritze energetikoa burutzeko interes handi hori, neurri batean behintzat, DCE egin zen testuinguruak azal dezake. Izan ere, INEren datuen arabera, Espainiako etxeek aurrezpen tasa maximo historikora heldu ziren COVID-19ko krisialdian zehar [95]. Finantza-gaitasun horrek, azken hilabetetan Europak aurre egindako energiaren prezio altuen kezkarekin batera, etxeak eraginkortasun energetikoa handitzera bultzatu ditzake. Halaber, esan behar da inkesta neguan egin dela, etxeak berokuntza-gastuekiko sentikorrak izan daitezkeenean. Testuinguru makroekonomiko horretaz gain, diru-sarrera txikiagoak dituzten etxeak, emaitzen arabera birgaitzeko joera gutxiago dutenak, laginean gutxiegi aurkeztuta daude.

25. Taula:25. Taulak MXL ereduaren estimazioaren emaitzak aurkeztu ditu, erreferentzia gisa erabilitako MNL ereduarekin batera. Egiantza-ratioaren testa egin da bi ereduak elkarren artean konparatzeko. Espero bezala, emaitzek adierazten dute MXL-k MNL gainditzen duela ( $LR=308,2$ ,  $df=5$ ,  $p\text{-balioa}<0,001$ ), lehentasun-aldaketak egokitzeko zorizko parametroek eskaintzen duten malgutasuna agerian utziz. Halaber, zenbatetsitako MXL ereduak datuen arrazoizko doikuntza bat ematen du; lortutako  $0,37$ ko pseudo- $R^2$  koefizienteak doikuntza bikaina adierazten du [96] eta antzeko azterketekin aldera daiteke [97].

25. Taula: MXL ereduaren estimazioaren emaitza.

| Atributuak                               | MNL        | MXL           |                         |
|--|------------|---------------|-------------------------|
|  |            | Batazbestekoa | Desbideratze estandarra |
| Inbertsio-kostua (1,000€tan)             | -0,321 *** | -1,128 ***    | 0,609 ***               |
| <i>Diru-sarrera &lt; 35.000€</i>         | 0,109      | -0,132        |                         |
| Energia aurrezkia (%/urte)               | 0,080 ***  | 0,108 ***     | 0,086 ***               |
| <i>Diru-sarrera &lt; 35.000€</i>         | -0,036 **  | -0,048 *      |                         |
| Zuzeneko diru-laguntza (%an)             | 0,061 ***  | 0,084 ***     | 0,023 ***               |
| <i>Diru-sarrera &lt; 35.000€</i>         | -0,025 *** | -0,029 **     |                         |
| Finantziazio biguna ( <i>dummy</i> )     | 0,136 *    | 0,224 **      | 0,017                   |
| <i>Diru-sarrera &lt; 35.000€</i>         | 0,414 **   | 0,441 **      |                         |
| Kenkari fiskal handitua ( <i>dummy</i> ) | 0,677 ***  | 0,863 ***     | 0,065                   |
| <i>Diru-sarrera &lt; 35.000€</i>         | -0,544 *** | -0,569 **     |                         |
| ASC (isolatzea vs egungo egoera)         | -0,392     | 1,502 *       |                         |
| <i>55 – 65 bitarteko adina</i>           | 2,760 ***  | 4,293 ***     |                         |
| <i>65etik gorako adina</i>               | 1,990 ***  | 3,305 **      |                         |
| <i>Haurrak etxean</i>                    | 1,280 **   | 2,255 *       |                         |
| <i>Berokuntza sistema elektrikoa</i>     | -1,087 *   | -2,034 *      |                         |
| <i>“Beste” berokuntza sistema bat</i>    | -1,678 *** | -3,047 ***    |                         |
| Inkestatuak                              | 191        | 191           |                         |
| Behatutako hautaketak                    | 1.145      | 1.145         |                         |
| Egiantzaren logaritmoa                   | -948,9     | -794,83       |                         |
| Pseudo-R <sup>2</sup>                    | 0,25       | 0,37          |                         |
| AIC                                      | 1.929,85   | 1.631,59      |                         |
| BIC                                      | 2.010,55   | 1.737,49      |                         |

\* p < 0,1 mailako adierazgarritasun estatistikoa.

\*\* p < 0,05 mailako adierazgarritasun estatistikoa.

\*\*\* p < 0,01 mailako adierazgarritasun estatistikoa.

25. Taulan inbertsio-kostuarentzat adierazten diren batez bestekoa eta desbideratze estandarra inbertsio-kostuaren koefizientearen logaritmo naturalarenak dira, zeinak banaketa log-normala duen. Gainerako atributuen parametroek (urteko energia-aurrezkia, zuzeneko diru-laguntza publikoa, finantzaketaren interes-tasa eta kenkari fiskala) gizabanakoen artean banaketa normalak jarraitzen dituztela kontsideratu da. Lortutako parametro guztiek espero zen zeinua dute, eta gehienak zerotik desberdinak dira %1eko adierazgarritasun-mailarekin. Espero daitekeen moduan, energia gehiago aurrezteak eragin positiboa du erabilgarritasunean. Zenbatetzitako desbideratze estandar esanguratsuak adierazten du datuetan lehentasun-heterogeneotasun nabarmena dagoela. Gobernuak ezar litzakeen laguntza-mekanismoek ere (hau da, diru-laguntza, finantzaketarako interes-tasa eta kenkari fiskala) fatxadak birgaitzeko aukeran efektu bultzatzailea eragiten dute.



Bost atributu horiek etxeko errentarekin interakzioan jarri dira. Azken hau DCEan kategoria diskretuetan eskatu denez, eredian *dummy* aldagai bat definitu da 35.000€-tik beherako diru-sarrerak dituzten etxeak sailkatzeko. Errentaren eragin nabarmena aurkitu da gizabanakoek atributu horiek aintzat hartzeko orduan, eta hori ez dator bat literaturan egindako beste azterketa batzuekin, zeinak zenbatetsi zuten etxeetako diru-sarrerak ez dutela eragin neurgarririk fatxaden isolamendu-jardueran [98] edo, are gehiago, diru-sarrera baxuagoak dituzten biztanleek aukera handiagoa dutela kanpo-isolamendua aplikatzeko [99].

Energia-aurrezkiaren erabilgarritasuna txikiagoa da diru-sarrera txikiko etxeentzako. Finantza-arrazoak direla eta, energia-kontsumo arrunt txikiago bat izan daiteke horren zergatia: Espainian korrelazio handia dago diru-sarreraren mailaren eta etxean neguan tenperatura egokia izateko ezintasunaren artean [100]. Kontsumo arrunt txikiagoa duten etxeek aurrezte potentzial gutxiago eta amortizazio-epe luzeagoak izan ditzakete energia-eraginkortasuneko inbertsioetarako. Halaber, ikusi da diru-sarrera txikiko etxebizitzek erabilgarritasun txikiagoa hautematen dutela diru-laguntza publikoko unitate bakoitzeko; beraz, *caeteris paribus*, diru-laguntza handiagoa beharko lukete fatxadaren isolamendu energetikoa burutzeko. Gainera, inbertsio hori finantzatzeko kredituen mende are gehiago daudenez, diru-sarrera txikiko etxeek balio handiagoa ematen diote balizko finantzaketa bigunari: azken honen erabilgarritasun gehigarri garrantzitsu bat hautematen dute etxebizitza horiek. Aldiz, errenta handiko familiek kenkari fiskala erabilgarriagoa ikusten dute, hau da, fiskalitatea gutxitzeari gehiago erantzuten diotela dirudi.

Bestalde, fatxada-isolamendu alternatiben konstante espezifikoak (ASC) horiekin lotutako eta hautematen ez diren faktoreen batez besteko eragina hartzen du, egungo egoera mantentzearekiko. Faktore horiek onurak izan daitezke, hala nola erosotasun termiko handiagoa, etxe beroago batean bizitzeak osasunari dakartzkion onurak, etxeen balio altuagoa, etab., eta baita espero den energia aurreztearekin lotutako ziurgabetasuna edota obren eragozpenak ere, hala nola zarata, hautsa eta abar. Hasiera batean, ASC desberdin bat esleitu zaio DCEan sartutako fatxada berritzeko aukeretako bakoitzari, frogatzeko aukera-multzoetan agertu diren ordenak ez duela eraginik izan aukeratzeko orduan. Hau egiaztatu ostean, azkenean ASC bera erabili da fatxada berritzeko aukeren erabilgarritasunean. Konstantetzat hartu da, eta lortutako koefiziente positiboak adierazten du erabilgarritasunean sartu ez diren faktore horiek batez beste handitu egiten dutela fatxada berritzeko probabilitatea: guztira, badirudi onurek nabarmen gaintzen dituztela fatxada-isolamenduekin lotutako eragozpenak.

ASC interakzioan jarri da inkestatutakoen zenbait ezaugarriekin, biztanleen azpitalde ezberdinek fatxada berritzeko joera handiagoa edo txikiagoa duten aztertzeke. DCEan, elkarrizketatuen datuak eskatu dira, aurretiko ikerketa empirikoen edo intuizioaren arabera birgaitze energetikoan eragina izan dezaketen alderdiei buruz. Inkestatuen ezaugarri horiek beren t-estatistiko sendoaren arabera sartu dira erabilgarritasun-ereduan, estatistikoki esanguratsuak diren ezaugarriak soilik kontsideratuz.

Elkarrizketatuen adina adierazgarria da eredian. Alde batetik, belaunaldi nagusienek fatxada isolatzeko borondate handiagoa erakutsi dute. Are zehatzago, erretirotik gertu dauden pertsonak (55 eta 65 urte bitartekoak) dira fatxadaren isolamenduan inbertitzeko probabilitate

handiena dutenak. Emaidza horren azalpen onargarri bat diru-aurrezki handiagoarekin lotuta egon daiteke. Gainera, zenbait literaturaren arabera, erretiroaren hasiera une garrantzitsutzat jotzen da etxejabeek energiarekin lotutako esku-hartzeak egiteko [101]; ziurrenik, erretiroa hartzean fatxada berritzeak dakartzan istiluak eta segurtasunarekin eta erosotasunarekin lotutako eragozpenak saihesteko helburuarekin. Arrazoiketa hori emaitzetara egokitzen dela dirudi. Neurri txikiagoan bada ere, erretiratuek ere (65 urtetik goragokoek) joera handiagoa dute fatxadaren birgaitze energetikoa burutzeko, inkestatu gazteenek eta adin ertainekoek baino. Sarritan etxean denbora gehiago ematea dakarren bizimoduak azal dezake erosotasun-baldintza egokiak bermatzeko nahi hori. Bestalde, belaunaldi gazteenen eta adin ertainekoen artean ez dago alde nabarmenik. Azken hau ez dator bat egindako beste ikerketa batekin, gazteenek eraginkortasun energetikoan inbertitzeko joera handiagoa dutela ondorioztatu zuena [102].

Gizabanakoen adinaz gain, etxeko berokuntza-sistemari buruzko informazioa ere sartu da MXL ereduan. Izan ere, gas naturalezkoa edo elektrikoaren ordez “beste” berokuntza-sistema bat duten etxeetan, fatxadaren isolamendu termikoa ez da hain erakargarria. “Beste bat” moduan definituriko berokuntza-sistema horietako gehienak berokuntza-sistema zentralak dira (komunalak), gasolioa kontsumitzen dutenak. Beraz, emaitza hori energia ordaintzeko metodoak azal dezake. Berokuntza-sistema zentralerako bizitegi-eraikinetan, 2012/27/EB Zuzentarauak 2017rako etxebizitza bakoitzean banakako neurketa-gailuak jartzea eskatu bazuen ere, honen transposizioa atzeratu egin zen Espainiako araudian [103]. Ondorioz, etxebizitza askok oraindik ez dute kontsumitzen duten energiaren arabera ordaintzen, komunitatean duten partaidetza-koefizientearen arabera baizik [104]. Beraz, etxejabe batek uste badu bere etorkizuneko energia-kostuak bizilagun guztien portaera termiko orokorrarekin lotuta egoten jarraituko dutela (bere kontroletik kanpo dagoena), baliteke eraginkortasun energetikoko neurri batean inbertitzeko prest ez egotea, haren itzulkina zalantzarriagoa baita.

Gainera, fatxadak isolatzeko joera txikiagoa da berokuntza elektrikoko sistemak dituzten etxeetan, gas naturala kontsumitzen duten etxeetan baino. Hasiera batean, berokuntza elektrikoko sistema duten etxeek pizgarri handiagoa izan dezaketela iragarri da, urteko energia-kostuak handiagoak baitira gas naturaleko berokuntza-sistemekin alderatuta. Hala ere, DCEaren testuingurua bat etorri da 2022aren hasieran izan den gas naturalaren prezioen igoera handiarekin, eta horrek kezka handia sortu du. Gas naturalaren prezioen paradigma-aldaketa horrek azal dezake gas naturalaren kontsumitzaileen joera handiagoa eraginkortasun energetikoa handitzeko.

Beste ikerketa batek zioenaren aurka [105], etxe batean 15 urtetik beherako haurrak egoteak eragin nabarmena duela ikusi da fatxadako birgaitzearen erabilgarritasunean. Hasierako hipotesia egiaztatu da; hots, haurren erosotasunarekiko eta sarritan haurrekin bizitzeak dakarren energia-kontsumo handiagoarekiko kezka dela eta, haurrak dituzten etxeek energia-eraginkortasunerako neurriak hartzeko joera handiagoa dutela.

Egungo berokuntza kontsumo-mailak eragina izan dezake etxe baten eraginkortasun energetikoa hobetzeko jarreran; izan ere, lehendik dagoen kontsumoa jada txikia denean, fatxadako esku-hartze batek eragin dezakeen aurrezki txikiagoa da. Hala ere, DCEak ez du




zuzenean eskatu etxeetako energia-kontsumo erreala, elkarrizketatuari galdeketa momentuan bertan erantzutea eragotziko bailioke, eta aurreko energia-fakturak bilatzeko eskatu. Online egindako DCEaren testuinguruan, horrek inkestatuek galdetegia betetzeko gogoia galtzea eragin dezake. Energia-kontsumoaren *proxy* edo ordezkoko gisa, galdetegiak normalean etxeak programatzen duen berokuntzaren kontsigna-tenperatura eskatu du, baina frogatu da honek ez duela eragin adierazgarrikerik erabilgarritasunean.

Muga horrek, inkestatuen zereginaren esfortzua mugatzearekin lotuta, beste datu garrantzitsu batzuk biltzea ere oztopatu du. Datu horiek eragina izan dezakete fatxada berritzean inbertitzeko probabilitatean, hala nola eraikinaren adina edo etxebizitzek duten diru-aurrezkiaren zenbatekoa: inkestatuen kontsulta gehigarriak eskatuko lukete biek. Bestalde, eraikinaren egungo kontserbazio-egoera ere analitiko kanpo utzi da, uste baita elkarrizketatuen erantzunek, deskribapen kualitatiboan gama batetik aukeratuak izan daitezkeenez, subjektibotasun handia izango luketela. Alde horretatik, datuak biltzeko prozesu landuago batek ikerketa berriak egitea ahalbidetuko luke, faktore horiek guztiak barne hartzeko.

Halaber, fatxada-isolamenduaren bidez lortutako berokuntza-energia aurrezkiei etxeek ematen dieten diru-balioa zehazteko, energia-aurrezki horien WTP zenbatetsi da.

Inbertsio-kostuari eta urteko energia aurrezpenari lotutako koefizienteen batez bestekoak eta desbiderapenak erabiliz 17. ekuazioan, WTParen mediana kalkulatu da etxeen hurrengo bi errenta-tarteentzat: 35.000€-tik beherakoa (errenta baxua) eta 35.000€-tik gorakoa (errenta ertaina eta altua). Emaitzek alde handia erakutsi dute: errenta txikiko etxeen WTP (172€ aurreztutako %-unitateko) askoz ere baxuagoa da errenta ertainak eta altuak dituzten etxeen WTP baino (294€). Laginaren etxeetako diru-sarreraren banaketa kontuan izanik, WTP totalaren 241€ko mediana lortzen da aurreztutako %-unitateko.

Kalkulatutako WTPak, energia-aurrezpen horiek lortzeko beharrezkoak diren benetako inbertsio-kostuekin aldera daiteke, metodologiaren bigarren fasean aztertu direnekin hain zuzen ere. Konparaketa horren emaitzek erakusten dute egungo bizitegi-parkean egin beharreko inbertsio-kostuak kalkulaturako WTP totalaren azpitik daudela. 30. Irudian, Bilboko etxebizitzaren banaketa-funtzioa adierazten da, eraikin-arketipo bakoitzaren pisuan oinarritua, fatxadak isolatzeko egin beharreko inbertsioaren arabera. Ikus daiteke etxebizitzaren ia %100k inbertsio kostu txikiagoa behar dutela azterketa honetan lortutako WTPak baino. Proporzio hori %72 ingurura jaisten da 35.000€-tik beheragoko diru-sarrerak dituzten etxebizitzentzat.



**30. Irudia: Bilboko etxebizitzaren banaketa-funtzioa, fatxadak isolatzeko egin beharreko inbertsioaren arabera. WTP totala erakusten du, eta baita errenta baxuko etxeena ( $WTP_{eb}$ ) eta errenta ertain eta handikoena ere ( $WTP_{ea}$ ).**

Emaizten arabera, fatxadaren energia-berritzeari eta neurri horiek dakartzaten onurei buruzko informazio osoa izanez gero, etxe gehienak prest egongo lirateke beren etxebizitzak termikoki isolatzeko. Beraz, ereduak adierazten du gaur egungo laguntza publikoko mekanismoek nahikoa izan behar dutela fatxadaren birgaitze energetikoak eskala handian hartzea sustatzeko, eta azken hau indultzeko modu eraginkor bat kostuei eta onurei buruzko informazio argiagoa ematea izan daitekeela, horiek kuantifikatuz, eraginkortasun energetikoan inbertitzea pentsatzen ari diren etxejabeek.

#### 4.3.2 *Ereduaren aplikazioa Bilboko bizitegi-parkean*

Estimaturako MXL ereduaren aplikagarritasuna Bilboko bizitegi-parkeari aplikatzen zaio, fatxadak isolatzeko inbertsioari buruzko etxejabeen erabakiak simulatzeko eta birgaitze hori egiteko probabilitateak zenbatesteko. Horrela, hirugarren fasean garaturako aukera diskretuko ereduak, lehenengo fasean burututako bizitegi-parkearen karakterizazioarekin konbinatuz, etxeko kategoria bakoitzak eskatzen dituen laguntza-mekanismo espezifikoak identifika daitezke, eta horrek fatxadako isolamendu termikoak modu zabalagoan sustatzeko lagun dezake, aldi berean pizgarrien eraginkortasunaren hobetuz.

Balioetsitako MXL ereduaren aplikagarritasuna frogatzeko, hiru eraikin-arketipoen kasuak aztertu dira (6, 7 eta 14. arketipoenak zehazki), modelaturako hiri-morfologia guztiak barne hartzeko xedearekin hautatu direnak. Horietan 8 cm-ko fatxada-isolamendu termikoa aztertu da, lodiera optimotzat egiaztatu dena. Eraikin-arketipo horien ezaugarri nagusiak 26. Taulan laburtzen dira. Bakoitzari berokuntza-sistema nagusi bat esleitu zaio, INEk emandako banaketaren arabera [50], eta gehien kontzentratzen den hiri-auzoarekin harremandu da. Hortaz:


- 6. arketipoa Abando auzoari dagokio, hiriaren erdialdean dagoena. Bere hiri-morfologia XIX. mendeko zabalgunetako bloke solidoa da.
- 7. arketipoa Otxarkoagako auzo periferikoan nagusi den estilo arrazionalistako bloke lineal ohikoa da.
- 14. arketipoa eraikin berezia da, altuera handikoa, Txurdinagako auzoan aurki daitekeena.

Ondorioz, etxe bakoitzari esleitutako diru-sarreraren maila, EUSTATEk emandako auzo horren batez besteko diru-sarrerari dagokio [106]. Etxebizitza bakoitzean adin ertaineko familiaburua onartzen da.

26. Taula: aztertutako eraikin-arketipoen ezaugarri nagusiak.

|                     | 6. ark.           | 7. ark.       | 14. ark.            |
|---------------------|-------------------|---------------|---------------------|
| Hiri-morfologia     | Bloke solidoa     | Bloke lineala | Eraikin berezia     |
| Eraikuntza-aldia    | 1960a baino lehen | 1961–1980     | 1961–1980           |
| Berokuntza sistema  | Gas naturala      | Elektrikoa    | Zentrala (gasoleoa) |
| Inbertsio-kostua    | 5.000€            | 7.000€        | 10.000€             |
| Energia-aurrezkia   | %30               | %37           | %43                 |
| Etxeko diru-sarrera | 82.630€           | 24.406€       | 44,998€             |

Lehenik eta behin, aukera diskretuko eredua erabiliz, eraikin-arketipo bakoitzean fatxada-isolamenduak egiteko probabilitatea kalkulatu da, inolako diru-laguntzarik gabe. Ondoren, simulazio ezberdinak burutu dira, gero eta diru-laguntza handiagoa emanez. 31. Irudian lortutako probabilitateak ikus daitezke.



31. Irudia: birgaitzeko probabilitatearen aldaketa diru-laguntzaren mailaren arabera.


Egiaztatu da fatxadaren birgaitzeko probabilitatea linealki handitzen dela, gutxi gorabehera, diru-laguntzaren mailarekin. %60ko probabilitate-maila hartu da eraikin baten kanpo-isolamendu termikoa benetan gauzatu dela pentsatzeko erreferentzia gisa, hori baita Jabetza Horizontalaren Espainiako Legearen (LPH) 10.3 artikulua eraikin baten jabe-komunitate bati eskatzen dion quoruma, "fatxadako eraginkortasun energetikoa hobetzeko ingurutzaila aldatzea" adosteko.

6. arketipoa atalase horretara iristen da inolako diru-laguntzarik gabe (%80ko probabilitatea erakusten du). Zabalguneko bloke solido trinkoan eraikinek duten fatxada txikiagoa dela eta,

beharrezkoa den inbertsio txikiagoa gailentzen dela dirudi. Inbertsio-kostu/energia-aurrezpen erlaziorik onenaz gain, lortutako MXL ereduak adierazten du gas naturaleko berokuntza-sistemek (eraikin horiek sarritan izaten dituztenak) gehiago estimulatzen dituztela fatxadako energia-berritzeak, beste sistema batzuekin alderatuta. Hauek hirigune askotan aurki ditzakegun baldintzak dira, Bilbokoan kasu. Beraz, *free-riding* potentziala ahalik eta gehien murrizteko, komeni da horrelako egoerak kontuan hartzea pizgarri-politika bat definitzean. Politika-egile baten ikuspegitik, merezi du aipatzea energia aurrezteko ahalmen txikiena duen etxearen kategoria dela fatxada isolatzeko prestasun handiena erakusten duena.

Aldiz, %31ko diru-laguntza maila beharko litzateke 7. arketipoan, fatxadaren isolamendua %60ko probabilitatea izateko; aldiz, 14. arketipoan, %22ko diru-laguntza. Bi zenbatekoak ohiko laguntza-programek emandakoak baino txikiagoak dira [85] [86]. Halaber, 14. arketipoak 6. arketipoak bezalako birgaitzearen aldeko joera du, energia aurrezteko inbertsio-ratioa askoz okerragoa izan arren (€/%). Horrek agerian uzten du kostu-aurrezki azterketa soil batetik haratago joan behar dela, eta beste aldagai batzuk kontuan hartu behar direla politika espezifikokoak diseinatzeko, hala nola errenta edo berokuntza-sistema.

Bestetik, diru-laguntzak interes baxuko maileguekin elkartzearen eraginkortasuna adierazten dute emaitzek. Neurri osagarri horiek zuzeneko diru-laguntzekin lotutako gastu publiko murrizten lagun dezakete. Neurri horiek gehituta, B eta C arketipoek %60ko birgaitze-probabilitatera iristeko beharko lukeen diru-laguntza txikiagoa 32. Irudian ikus daiteke.



32. Irudia: %60ko birgaitze-probabilitatera iristeko beharko lukeen diru-laguntza.

14. arketipoan (errenta ertaineko eta altuko etxebizitzetan) nahiago da zerga-murrizketa handiagoa, finantziario biguna baino, azken honen eragina mugatua izanik. %25eko kenkari fiskala izanez gero (egungo %18aren aldean), behar diren diru-laguntzak erdira murriztuko lirarteke, gutxi gorabehera. Aldiz, 7. arketipoan (diru-sarrera txikiak dituzten etxeetan) interes-tasa txikiko maileguekiko sentikortasuna askoz handiagoa da, kenkari fiskal handiagorekin alderatuta. Finantzaketa bigun eta diru-laguntzen konbinazioari esker, bigarrenen maila optimiza daiteke; 7. arketipoan, zenbatetsitako diru-laguntza %40 inguru murrizten da.

#### 4.3.3 Aldagai esplikatzaileen efektu marjinalak

Deskribatutako kasuak aztertzeo, etxebizitza "tipikoak" hartu dira kontuan. Etxebizitza horiek, bizitegi-eraikin batzuen adierazgarri izan arren, hipotetikoak izaten jarraitzen dute. Beraz, interesgarria da aztertzea aldagai esplikatzaile desberdin batek nola eragiten dien aukera-probabilitateei.



Horretarako, 7. arketipoa hartu da oinarrizko kasutzat, eta atributu bakoitza bata bestearen atzetik da, gainerako aldagai esplikatzaileak berdin mantenduz. Hala, sentikortasunaren analisia egin da, aldagai bakoitzaren aldaketaren efektu isolatua aztertuz. 27. Taulan simulazio horren emaitzak bildu dira.

27. Taula: belioetsitako probabilitate aldaketak, oinarrizko kasuarekiko, atributu-aldaketa bakoitzarentzako.

| Aldaketa   | Birgaitze energetikoaren probabilitate-aldaketa |
|--|---|
| Diru-sarrera handiagoa (35.000 – 70.000€)        | + %15   |
| Etxejabearen adina 55-65 bitartekoa              | + %39   |
| Etxejabearen adina 65etik gorakoa                | + %32   |
| Berokuntza sistema zentrala                      | - %10   |
| Gas naturalezko berokuntza sistema               | + %20   |
| Haurrak etxean                                   | + %23   |
| Inbertsio-kostuak %10 handiagoak                 | - %2  |
| Energia-aurrezkiak %10 handiagoak                | + %2  |
| %10eko diru-laguntza                             | + %6  |
| Finantzaketa biguna (%5-etik %2ra pasatzea)      | + %7  |
| Kenkari fiskal handiagoa (%18tik %25ra pasatzea) | + %3  |

Birgaitze energetikoaren probabilitatea nabarmen handitzen da diru-sarreraren maila altuagoekin. Lortutako probabilitate-mailak iradokitzen du diru-sarrera aldagai jarraitu gisa hartzeak edo, are gehiago, diru-sarrera kategoria diskretu gehiagotan bereizteak eredu finagoa ekar dezakeela. Halaber, 27. Taulan ageri da etxejabeen adinak eragin nabarmena duela fatxada birgaitzeko erabakian. Oinarrizko kasuarekin alderatuta, belaunaldi nagusiagoek birgaitzeko probabilitate nabarmen handiagoa erakusten dute. Berokuntza sistema zentrala edukitzeak fatxadaren birgaitze energetikoaren erabilgarritasuna gutxituko luke; aldiz, haurrak etxean edukitzeak inbertitzeko joera handitzen du.

Azpinarratu beharra dago, birgaitzeko probabilitateak inbertsio-kostu edota energia-aurrezpen handiagoekiko duen sentikortasunak magnitude-orden txikiagoa erakusten duela. Kostuak %10 handituz gero, fatxada berritzeko probabilitatea %2 baino ez litzateke txikituko, balio hori %10 handiagoa den energia aurrezkiarekin lortutako probabilitate-igoeraren antzekoa izanik. Emaitza horiek erakusten dutenez, kostu/etekin ekonomikoaren ebaluaziotik haratago, etxearen zenbait ezaugarri eragin nabarmena izan dezakete energia-berritzeen ezarpenean, eta hori kontuan hartu behar da lehentasun-heterogeneotasuna atzemateko.

Tresna politikoen eragin sustatzaileari dagokionez, ikusi da 7. arketipoaren oinarrizko kasuan, %10eko diru-laguntzarekin lortutako igoeraren probabilitatea interes baxuko maileguekin lortutakoaren baliokidea izango litzatekeela. Halaber, emaitzen arabera, kenkari fiskala handitzea baino hobea litzateke azken hori.

## 5. Erreferentzia iturriak

- [1] IEA, «CO2 emissions from fuel combustion. Highlights,» 2017.
- [2] IPCC, «Global Warming of 1.5 °C. Summary for Policymakers,» 2018.
- [3] European Commission (EC), «A Clean Planet for all. A European strategic long-term vision for a prosperous, modern, competitive and climate neutral economy,» 2018.
- [4] Eurostat, «Energy production and imports,» [En línea]. Available: [https://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php?title=Energy\\_production\\_and\\_imports#More\\_than\\_half\\_of\\_EU\\_energy\\_needs\\_are\\_covered\\_by\\_imports](https://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php?title=Energy_production_and_imports#More_than_half_of_EU_energy_needs_are_covered_by_imports).
- [5] EIA, «International Energy Outlook,» 2021.
- [6] European Commission (EC), «European Energy Security Strategy. COM(2014) 330 final,» 2014.
- [7] European Commission (EC), «Energy Performance of Buildings Directive,» [En línea]. Available: [https://energy.ec.europa.eu/topics/energy-efficiency/energy-efficient-buildings/energy-performance-buildings-directive\\_en](https://energy.ec.europa.eu/topics/energy-efficiency/energy-efficient-buildings/energy-performance-buildings-directive_en).
- [8] T. Häkkinen, «Systematic method for the sustainability analysis of refurbishment concepts of exterior walls,» *Construction and Building Materials*, vol. 37, pp. 783-790, 2012.
- [9] Ministerio de Movilidad, Transportes y Agenda Urbana, «Actualización 2020 de la Estrategia a largo plazo para la Rehabilitación Energética en el Sector de la Edificación en España, ERESEE,» 2020.
- [10] G. M. Mauro, M. Hamdy, N. B. Giuseppe Peter Vanoli y J. L. Hensen, «A new methodology for investigating the cost-optimality of energyretrofitting a building category,» *Energy and Buildings*, vol. 107, p. 456–478, 2015.
- [11] Y. Xing, N. Hewitt y P. Griffiths, «Zero carbon buildings refurbishment—A Hierarchical pathway,» *Renewable and Sustainable Energy Reviews*, vol. 15, pp. 3229-3236, 2011.
- [12] European Commission (EC), «A European Green Deal,» [En línea]. Available: [https://ec.europa.eu/info/strategy/priorities-2019-2024/european-green-deal\\_en](https://ec.europa.eu/info/strategy/priorities-2019-2024/european-green-deal_en).
- [13] Official Journal of the European Union, «Directive 2010/31/EU,» 2010.
- [14] Official Journal of the European Union, «Directive 2012/27/EU,» 2012.
- [15] Official Journal of the European Communities, «Directive 2002/91/EC,» 2002.
- [16] Official Journal of the European Union, «Commission Delegated Regulation (EU) No 244/2012,» 2012.
- [17] Official Journal of the European Union, «Guidelines accompanying Commission Delegated

Regulation (EU) No 244/2012,» 2012.

- [18] Boletín Oficial del Estado, «Real Decreto 235/2013, de 5 de abril, por el que se aprueba el procedimiento básico para la certificación de la eficiencia energética de los edificios,» 2013.
- [19] Ministerio de Obras Públicas, «Report on the calculation of the cost-optimal levels of the minimum energy performance requirements for buildings in the new Spanish regulations and their comparison with the current requirements,» 2018.
- [20] Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, «Código Técnico de la Edificación. Documento Básico HE Ahorro de Energía.»
- [21] Ministerio de Fomento, «Estrategia a largo plazo para la Rehabilitación Energética en el Sector de la Edificación en España,» 2014.
- [22] European Commission (EC), «Clean energy for all Europeans package,» [En línea]. Available: [https://energy.ec.europa.eu/topics/energy-strategy/clean-energy-all-europeans-package\\_en](https://energy.ec.europa.eu/topics/energy-strategy/clean-energy-all-europeans-package_en).
- [23] Official Journal of the European Union, «Directive (EU) 2018/844,» 2018.
- [24] Official Journal of the European Union, «Directive (EU) 2018/2002,» 2018.
- [25] Official Journal of the European Union, «Regulation (EU) 2018/1999,» 2018.
- [26] Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico, «Estrategia Descarbonización a Largo Plazo 2050,» 2020.
- [27] Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico, «Plan Nacional Integrado de Energía y Clima 2021-2030,» 2020.
- [28] Official Journal of the European Union, «Regulation (EU) 2021/1119,» 2021.
- [29] European Commission (EC), «Renovation wave,» [En línea]. Available: [https://energy.ec.europa.eu/topics/energy-efficiency/energy-efficient-buildings/renovation-wave\\_en#:~:text=The%20Renovation%20Wave%20initiative%20builds,and%20climate%20plans%20\(NECPs\)..](https://energy.ec.europa.eu/topics/energy-efficiency/energy-efficient-buildings/renovation-wave_en#:~:text=The%20Renovation%20Wave%20initiative%20builds,and%20climate%20plans%20(NECPs)..)
- [30] European Commission (EC), «Proposal for a Directive of the European Parliament and of the Council on the energy performance of buildings (recast), COM(2021) 802 final,» 2021.
- [31] Covenant of Mayors, «Covenant of Mayors for Climate and Energy,» [En línea]. Available: <https://www.covenantofmayors.eu/en/>.
- [32] DesignBuilder Software Ltd, «DesignBuilder simulation tool,» [En línea]. Available: <https://designbuilder.co.uk>.
- [33] MathWorks, «MATLAB,» [En línea]. Available: <https://es.mathworks.com/products/matlab.html>.

- [34] NREL, «System Advisor Model (SAM) software,» [En línea]. Available: <https://sam.nrel.gov>.
- [35] The R Foundation, «The R Project for Statistical Computing,» [En línea]. Available: <https://www.r-project.org/>.
- [36] L. G. Swan y V. I. Ugursal, «Modeling of end-use energy consumption in the residential sector: A review of modeling techniques,» *Renewable and Sustainable Energy Reviews*, vol. 13, pp. 1819-1835, 2009.
- [37] M.Kavgic, A.Mavrogianni, D.Mumovic, A.Summerfield, Z.Stevanovic y M. Djurovic-Petrovic, «A review of bottom-up building stock models for energy consumption in the residential sector,» *Building and Environment*, vol. 45, pp. 1683-1697, 2010.
- [38] A. Mastrucci, O. Baume, F. Stazi y U. Leopold, «Estimating energy savings for the residential building stock of an entire city: A GIS-based statistical downscaling approach applied to Rotterdam,» *Energy and Buildings*, vol. 75, pp. 358-367, 2014.
- [39] R. McKenna, E. Merkel, D. Fehrenbach, S. Mehne y W. Fichtner, «Energy efficiency in the German residential sector: A bottom-up building-stock-model-based analysis in the context of energy-political targets,» *Building and Environment*, vol. 62, pp. 77-88, 2013.
- [40] Aalborg Universitet, «Cost optimal levels for energy performance requirements,» 2011.
- [41] European Council for an Energy Efficient Economy, «Cost optimal building performance requirements. Calculation methodology for reporting on national energy performance requirements on the basis of cost optimality within the framework of the EPBD,» 2011.
- [42] P. Zangheri, R. Armani, M. Pietrobon y L. Pagliano, «Identification of cost-optimal and NZEB refurbishment levels for representative climates and building typologies across Europe,» *Energy Efficiency*, vol. 11, p. 337-369, 2018.
- [43] Buildings Performance Institute Europe (BPIE), «Cost Optimality. Discussing methodology and challenges within the recast Energy Performance of Buildings Directive,» 2011.
- [44] UNE, «UNE-EN 15459-1:2018: Eficiencia energética de los edificios. Procedimiento de evaluación económica de los sistemas energéticos de los edificios,» 2018.
- [45] T. Domencich y D. L. McFadden, *Urban Travel Demand: A Behavioral Analysis*, North-Holland Publishing Co., 1975.
- [46] K. E. Train, *Discrete Choice Methods with Simulation*, Cambridge University Press, 2009.
- [47] ChoiceMetrics, «Ngene 1.2 User Manual & Reference Guide,» 2018.
- [48] P. Mariel, D. Hoyos, J. Meyerhoff, M. Czajkowski, T. Dekker, K. Glenk, J. B. Jacobsen, U. Liebe, S. B. Olsen, J. Sagebiel y M. Thiene, *Environmental Valuation with Discrete Choice Experiments*, Springer, 2021.
- [49] R. Winkelmann y S. Boes, *Analysis of Microdata*, Springer, 2006.

- [50] INE, «Censos de Población y Viviendas 2011,» [En línea]. Available: <https://www.ine.es/censos2011/tablas/Inicio.do>.
- [51] European Commission (EC), «E-retrofit Kit Project,» [En línea]. Available: <https://ec.europa.eu/energy/intelligent/projects/en/projects/e-retrofit-kit>.
- [52] Instituto Cerdá, «Proyecto RehEnergía. Rehabilitación energética de edificios de viviendas. Jornada Rehabilitación Energética,» 2008.
- [53] WWF España, «Potencial de ahorro energético y de reducción de emisiones de CO2 del parque residencial existente en España en 2020,» 2010.
- [54] IDAE, «Escala de calificación energética. Edificios existentes,» 2011.
- [55] I. Lizundia, La Construcción de la Arquitectura Residencial en Gipuzkoa durante la Época del Desarrollismo, Universidad del País Vasco (UPV/EHU), 2012.
- [56] Dirección de Vivienda, Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco, «Catálogo de Rehabilitación Energética,» 2014.
- [57] BOE, «Ley 8/2013, de 26 de junio, de rehabilitación, regeneración y renovación urbanas,» 2013.
- [58] Boletín Oficial del Estado, «Real Decreto Legislativo 7/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana,» 2015.
- [59] H. Sanaieian, MartinTenpierik, K. v. denLinden, F. M. Seraj y S. M. M. Shemrani, «Review of the impact of urban block form on thermal performance, solar access and ventilation,» *Renewable and Sustainable Energy Reviews*, vol. 38, pp. 551-560, 2014.
- [60] AEMET, «Atlas de Radiación Solar en España utilizando datos del SAF de Clima de EUMETSAT.,» 2012.
- [61] Boletín Oficial del Estado, «Real Decreto 2429/79, de 6 de julio, por el que se aprueba la Norma Básica de la Edificación NBE-CT-79, sobre Condiciones Térmicas en los edificios,» 1979.
- [62] IDAE, «Proyecto SECH-SPAHOUSEC. Análisis del consumo energético del sector residencial en España,» 2011.
- [63] Eusko Jaurlaritz. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila, «Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria,» [En línea]. Available: <https://www.euskadi.eus/certificado-eficiencia-energetica/web01-a2indust/es/>.
- [64] Ministerio de Industria, Energía y Turismo, «Factores de emisión de CO2 y coeficientes de paso a energía primaria de diferentes fuentes de energía final consumidas en el sector de edificios en España,» 2014.
- [65] IDAE, «Condiciones de aceptación de procedimientos alternativos a LIDER y CALENER,» 2009.

- [66] EEE-EVE, «Claves energéticas del sector doméstico en Euskadi,» 2013.
- [67] IDAE, «SPAHOUSEC II: Análisis estadístico del consumo de gas natural en las viviendas principales con calefacción individual,» 2019.
- [68] D. George, N. S.Pearre y L. G.Swan, «High resolution measured domestic hot water consumption of Canadian homes, *Energy and Buildings*,» *Energy and Buildings*, vol. 109, pp. 304-315, 2015.
- [69] A. S. Vieira, C. D. Beal y R. A.Stewart, «Residential water heaters in Brisbane, Australia: Thinking beyond technology selection to enhance energy efficiency and level of service,» *Energy and Buildings*, vol. 82, pp. 222-236, 2014.
- [70] Department for Environment, Food and Rural Affairs, «Measurement of Domestic Hot Water Consumption in Dwellings,» 2008.
- [71] A. Bertrand, AlessioMastrucci, N. Schüler, R. Aggoune y F. Maréchal, «Characterisation of domestic hot water end-uses for integrated urban thermal energy assessment and optimization,» *Applied Energy*, vol. 186, pp. 152-166, 2017.
- [72] J. C. Evarts y L. G. Swan, «Domestic hot water consumption estimates for solar thermal system sizing,» *Energy and Buildings*, vol. 58, pp. 58-65, 2013.
- [73] Passive House Institute, «Criteria for the Passive House, EnerPHit and PHI Low Energy Building Standard,» 2016.
- [74] Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana, «CTE. Catálogo informático de elementos constructivos (CEC),» 2011.
- [75] A. J. Tiberio y P. E. Branchi, «Análisis de la estanqueidad al aire en la construcción y rehabilitación energética de edificios de viviendas,» *CSCAE Anexo*, vol. 17, p. 12, 2015.
- [76] A. Meiss, J. Feijo-Muñoz y M. Padilla-Marcos, «Evaluación, diseño y propuestas de sistemas de ventilación en la rehabilitación de edificios residenciales españoles. Estudio de caso,» *Informes de la Construcción*, vol. 68, nº 542, 2016.
- [77] E. Barreira, R. M. Almeida y M. Moreira, «An infrared thermography passive approach to assess the effect of leakage points in buildings,» *Energy and Buildings*, vol. 140, pp. 224-235, 2017.
- [78] C. Rodriguez-Jimenez, M. Carretero-Ayuso y J. Claro-Ponce, «Influencia de las infiltraciones en la rehabilitación energética de la envolvente. El caso del plan de actuaciones en el parque público residencial de Andalucía,» *Informes de la Construcción*, vol. 70, nº 551, 2018.
- [79] S. Klein, W. Beckman y J. Duffie, «A design procedure for solar heating systems,» *Solar Energy*, vol. 18, pp. 113-127, 1976.
- [80] N. Diorio, C. Christensen, J. Burch y A. Dobos, «Technical Manual for the SAM Solar Water Heating Model,» 2014.

- [81] NREL, «SAM Photovoltaic Model Technical Reference Update,» 2018.
- [82] CYPE Ingenieros, «Generador de precios de la construcción,» [En línea]. Available: <http://www.generadordeprecios.info>.
- [83] Eusko Jaurlaritzza, «Base de Precios de Edificación y Urbanización,» 2015. [En línea]. Available: <http://www.euskadieuprecios.com>.
- [84] IDAE, «Programa PAREER-CRECE,» [En línea]. Available: <https://www.idae.es/ayudas-y-financiacion/para-rehabilitacion-de-edificios-programa-pareer/programa-de-ayudas-para-la>.
- [85] EEE-EVE, «Programa de ayudas para actuaciones de rehabilitación energética en edificios existentes en Euskadi. Programa PREE,» [En línea]. Available: <https://www.eve.eus/Programa-de-ayudas/2020/Rehabilitacion-energetica-en-edificios-existentes?lang=es-es>.
- [86] BOPV, «ORDEN de 21 de julio de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, sobre medidas financieras para actuaciones protegibles en materia de rehabilitación en viviendas y edificios, accesibilidad y eficiencia energética,» 2021.
- [87] Kutxabank, «Préstamo verde,» [En línea]. Available: <https://portal.kutxabank.es/cs/Satellite/kb/es/particulares/productos/prestamos-consumo/prestamo-coche-verde/pys>.
- [88] BBVA, «Préstamo Eficiencia Energética,» [En línea]. Available: <https://www.bbva.es/finanzas-vistazo/ef/prestamos/asi-es-el-nuevo-prestamo-eficiencia-energetica-bbva.html>.
- [89] CincoDías, «Santander se lanza a por los créditos verdes para la rehabilitación de viviendas,» [En línea]. Available: [https://cincodias.elpais.com/cincodias/2021/08/07/companias/1628335523\\_801440.html](https://cincodias.elpais.com/cincodias/2021/08/07/companias/1628335523_801440.html).
- [90] ICO, «Empresas y Emprendedores,» [En línea]. Available: <https://www.ico.es/web/guest/ico-empresas-y-emprendedores>.
- [91] BOB, «Norma Foral 13/2013 de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas,» 2013.
- [92] S. Cozza., J. Chambers y M. Patel, «Measuring the thermal energy performance gap of labelled residential buildings in Switzerland,» *Energy Policy*, vol. 137, p. 111085, 2019.
- [93] C. BALARAS, E. DASCALAKI, K. DROUTSA y S. KONTOYIANNIDIS, «Empirical assessment of calculated and actual heating energy use in Hellenic residential buildings,» *Applied Energy*, vol. 164, p. 115–132, 2016.
- [94] CNMC, «Informe de supervisión del mercado minorista de electricidad. Año 2018,» 2019.
- [95] INE, «Cuentas Trimestrales no Financieras de los Sectores Institucionales. Cuarto trimestre de 2020,» 2021.

- [96] D. McFadden, *Behavioural Travel Modelling*, David A. Hensher and Peter R. Stopher, 1979.
- [97] M. Achtnicht y R. Madlener, «Factors influencing German house owners' preferences on energy retrofits,» *Energy Policy*, vol. 68, pp. 254-263, 2014.
- [98] J. Friege, «Increasing homeowners' insulation activity in Germany: An empirically grounded agent-based model analysis,» *Energy and Buildings*, vol. 128, pp. 756-771, 2016.
- [99] O.Kaya, A.M.Klepacka y W. Florkowski, «The role of personal and environmental factors in rural homeowners decision to insulate; an example from Poland,» *Renewable and Sustainable Energy Reviews*, vol. 150, p. 111474, 2021.
- [100] Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico, «Estrategia Nacional contra la Pobreza Energética 2019-2024».
- [101] M. I. Abreu, R. A. d. Oliveira y J. Lopes, «Younger vs. older homeowners in building energy-related renovations: Learning from the Portuguese case,» *Energy Reports*, vol. 6, pp. 159-164, 2020.
- [102] G. Nair, L. Gustavsson y K. Mahapatra, «Factors influencing energy efficiency investments in existing Swedish residential buildings,» *Energy Policy*, vol. 38, pp. 2956-2963, 2010.
- [103] BOE, «Real Decreto 736/2020, de 4 de agosto, por el que se regula la contabilización de consumos individuales en instalaciones térmicas de edificios,» 2020.
- [104] El Correo, «57.500 hogares vizcaínos con calefacción central deben instalar contadores individuales,» [En línea]. Available: <https://www.elcorreo.com/bizkaia/57500-hogares-vizcainos-20211224213807-nt.html#:~:text=Son%20los%20efectos%20colaterales%20de,para%20la%20primavera%20de%202023..>
- [105] J. Dolšak, N. Hrovatin y J. Zorić, «Factors impacting energy-efficient retrofits in the residential sector: The effectiveness of the Slovenian subsidy program,» *Energy and Buildings*, vol. 229, p. 110501, 2020.
- [106] Eustat, «Errenta pertsonala eta familiarra,» [En línea]. Available: [https://www.eustat.eus/estadisticas/tema\\_395/opt\\_0/tipo\\_1/ti\\_renta-personal-y-familiar/temas.html](https://www.eustat.eus/estadisticas/tema_395/opt_0/tipo_1/ti_renta-personal-y-familiar/temas.html).
- [107] T. Hong, Y. Chen, X. Luo, N. Luo y S. H. Lee, «Ten questions on urban building energy modelling,» *Building and Environment*, vol. 168, p. 106508, 2020.
- [108] Y. Chen, T. Hong, X. Luo y B. Hooper, «Development of city buildings dataset for urban building energy modelling,» *Energy and Buildings*, vol. 183, pp. 252-265, 2019.
- [109] D. Majcen, L. Itard y H. Visscher, «Theoretical vs. actual energy consumption of labelled dwellings in the Netherlands: Discrepancies and policy implications,» *Energy Policy*, vol. 54, pp. 125-136, 2013.



- [110] B. Hårsman, Z. Daghbashyan y P. Chaudhary, «On the quality and impact of residential energy performance certificates,» *Energy and Buildings*, vol. 133, pp. 711-723, 2016.
- [111] S. Kelly, D. Crawford-Brown y M. G. Pollitt, «Building performance evaluation and certification in the UK: is SAP fit for purpose?,» *Renewable and Sustainable Energy Reviews*, vol. 16, pp. 6861-6878, 2012.
- [112] C. Nägeli, M. Jakob, G. Catenazzi y Y. Ostermeyer, «Towards agent-based building stock modelling: Bottom-up modelling of long-term stock dynamics affecting the energy and climate impact of building stocks,» *Energy and Buildings*, vol. 211, p. 109763, 2020.
- [113] INE, «Censo de Población y Viviendas 2001,» [En línea]. Available: <https://www.ine.es/censo/es/inicio.jsp>.
- [114] N. Basurto, Los maestros de obras en la construcción de la ciudad. Bilbao 1876-1910, Bizkaiko Foru Aldundia, 1999.
- [115] Eraikal, «Guía de la rehabilitación energética integral de la envolvente de los edificios en Euskadi. Manual de buenas prácticas en la rehabilitación energética integral de los edificios,» 2015.
- [116] Laboratorio de Control de Calidad en la Edificación del Gobierno Vasco, UPV/EHU, «Catálogo de Rehabilitación Energética,» 2014.
- [117] E. J. Uranga, La intervención energética en el patrimonio edificado residencial. Análisis del Barrio de Gros de Donostia/San Sebastián, UPV-EHU, 2017.
- [118] Eusko Jaurlaritz. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila, «EuskoRegite. Ikuskaritza Teknikoari buruzko informazio eta kudeaketarako ataria,» [En línea]. Available: <https://www.euskadi.eus/web01-a1ite/es/>.
- [119] A. López de Guereña, N. Rubio, F. García, A. Mora, I. Pérez, E. de la Fuente, F. Romero y A. de Lorenzo, «Guía Metodológica para la Inspección Técnica de Edificios,» 2013.
- [120] F. J. Muñoz, «La arquitectura racionalista en Bilbao (1927-1950). Tradición y modernidad en la época de la máquina,» UPV/EHU, 2011.
- [121] A. Santas, Urbanismo y Vivienda en Bilbao. Veinte años de posguerra, COAVN, 2005.
- [122] J. Martínez, Bilbao. Desarrollos Urbanos. Ciudad y Forma 1960-2000, Gobierno Vasco, 2010.
- [123] Bilboko Udala, «GeoBilbao,» [En línea]. Available: <https://www.geobilbao.eus/geobilbao/>.
- [124] Eustat, «Ingurumenaren Inkesta - Familiak,» [En línea]. Available: [https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema\\_217/opt\\_1/tipo\\_1/ti\\_ingurumenaren-inkesta---famiak/temas.html](https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_217/opt_1/tipo_1/ti_ingurumenaren-inkesta---famiak/temas.html).
- [125] INE, «Encuesta de Hogares y Medio Ambiente,» [En línea]. Available: [https://www.ine.es/ss/Satellite?L=es\\_ES&c=INECifrasINE\\_C&cid=1259925028717&p=1254735116567&pagename=ProductosYServicios%2FPYSLayout](https://www.ine.es/ss/Satellite?L=es_ES&c=INECifrasINE_C&cid=1259925028717&p=1254735116567&pagename=ProductosYServicios%2FPYSLayout).



- [126] Orkestra, «Energías renovables en calefacción y refrigeración en los sectores residencial y terciario,» 2017.
- [127] IHOBE, «Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan: ingurumen-adierazleak,» 2003.
- [128] Bilboko Udala, «Indicadores de Sostenibilidad de Bilbao,» 2008.

## Bigarren Atala: ikerketaren ondorioak

### 6. Ondorioak eta etorkizunerako ikerketa-lerroak

#### 6.1 Ondorioak

##### 6.1.1 Lehenengo fasearen ondorioak

Egungo bizitegi-parkeen karakterizazio energetiko egokia lagungarria izan daiteke behar diren energia-eraginkortasuneko politikak ahalik eta modurik eraginkorrean aplikatzeko. Informazio geografikoko sistemak berriki hobetu direnez, hiri-parkeentzat garatutako ereduak hobetu dira. Hala ere, behar dituzten datuak ez daude beti eskuragarri, eta gainera eredu batzuen sofistikazioa desabantaila bihur liteke horiek erreplikatzeko orduan.

Era berean, tokiko agintariek laguntza handia izan dezakete energia aurrezteko politikak ezartzeko. Eredu horretan laguntzeko asmoz, tesi honek hiri-mailako bizitegi berokuntza-kontsumoa karakterizatzeko metodologia bat aurkezten du. Arreta berezia jarri zaio aplikagarritasunari eta, beraz, metodologia eskura dauden datu publikoen iturrietan oinarritzen da. Hortaz, edozein hiriri aplika dakiok.

Aurkezten den metodologia behetik gorako ingeniari-tza metodoetan oinarritzen da, zeintzuek hainbat erronka dituzten. Sarrera-informazio ugari eskatzen dute ereduak eraikitze eta baliozkotzeko prozesuetarako. Datuen eskuragarritasunarekin lotutako zailtasunei aurre egiteko, proposatutako metodologiak informazioa batzeko modu originalak proposatzen ditu, hala nola erregai-kontsumoaren inkesta burutzeko modua. Horrelako metodoen beste ahultasun bat giza portaeraren zorizko izaera adierazteko zailtasuna da, eta horrek benetako energia-kontsumoaren eta ereduaren emaitzen arteko diferentzia handiak eragin ditzake. Garatutako metodologian, kalibraketa-prozedura enpiriko bat proposatzen da, berokuntzako sistema zentralak dituzten eraikinen kontsumo errealeko datuetan oinarrituta, bizilagunen portaera-profilak eraikitze.

Ikerlariaren esperientzian oinarritutako sarrera-datuekiko gardentasunik ezak, eta sarrera-datu batzuetarako balio estandarrak erabiltzeak, askotan, ereduaren emaitzak sinesgarritasunik gabe uzten dituzte, balioztatze zorrotza egiten ez bada. Deskribatutako metodologian arreta berezia jartzen zaio ereduaren emaitzak egiaztatze prozesuari, datu errealek bilduz, datu errealetan oinarritutako balioztatzea burutzeko. Erabilitako baliozkotze-metodoek, maila desagregatuan zein agregatuan, emaitzen fidagarritasuna bermatzen dute. Erregresio lineal anizkoitzaren metodoaren egokitzapena proposatzen da ere, eskualde-eskala batean aplikatuta, posta-kodearen ohiko mailaren ordez. Halaber, sentikortasunaren analisiak kontsiderazio subjektiboen eragina mugatzen laguntzen du.

Proposaturiko metodologia Bilboko bizitegi-parkean inplementatu da, non 17 eraikin-arketipo identifikatu diren. Eraikitako eraikin-ereduen emaitzak modu esanguratsuan lerrokatzen dira bildutako kontsumo errealeko informazioarekin: maila agregatuan, %4 baino ez da aldentzen datu historikoetatik.

Eraikinen energia-eskaeraren modelizazio zehatza funtsezko tresna da birgaitze energetikoko politikei laguntzeko. Lehenengo faseko azterketa honek Bilboko energia-kontsumoaren

oinarrizko zenbatespena ematen du, eraikin motaren arabera banakatuta. Hau, energia-eraginkortasuneko estrategien ondorio ekonomikoak aztertze oinarria da. Karakterizazio honetan oinarrituta, bigarren fasean eraikin-motaren arabera neurri-multzoko optimoak identifikatu eta energia-helburu desberdinak lortzeko egin beharreko inbertsioak balioetsi dira.

Eraikinen-arketipo bidezko modelizazioan, erronketako bat funtsezko eraikin-parametro kopuru mugatu bat aurkitzea da, parkearen segmentazio-irizpidetzat erabiltzeko, arrazoizko denbora konputazionala bermatzen den bitartean. Emaitzetan ikus daitekeenez, eraikinen arteko energia-kontsumoaren aldaketa askoz handiagoa izan daiteke hiri-morfologia ezberdinetan kokatzeagatik, eraikitze-aldiak zehaztutako fatxada-soluzio desberdinetatik baino. Hiri-formek eragin nabarmena dute eraikin baten energia-jardueran. Horregatik, funtsezkoa da segmentazio-irizpideen barruan hiri-morfologia desberdinekin zeharka erlaziona daitezkeen parametroak sartzea, hala nola eraikinaren altuera eta etxebizitzaren azalera. Harreman horien iturria hiri-bilakaera historikoan eta estilo arkitektoniko desberdinen garapenean bilatu beharra dago.

Aurkeztutako metodologiaren aplikazioa eskuragarri dauden datu-iturriekin guztiz bideragarria frogatu den arren, muga batzuk daude, datu-base nahikorik ez izatearekin lotuta, hura ezartzea zailtzen dutenak. Bibliografian hainbatetan aipatzen den bezala [105] [106], badago aukera eraikin-parkeei buruzko datu-baseen garapena hobetzeko, eta baita bizitegi energia kontsumoaren ezaugarriak hobeto ezagutzeko ere. Halaber, EITek eraikinen modelizazio energetikorako datu-iturri garrantzitsu bihurtzeko gaitasun handia dute. EEZen aplikagarritasuna ere eraikinen energia-modelizazioaren emaitzak baliozkotzeko modu gehigarri gisa ebaluatu da. Hala ere, badirudi EEZe buruzko egungo praktikak berokuntza-energiaren eskariaren gainestimazioa eragiten duela, eta hori bat dator beste azterketa batzuen emaitzekin [107] [108] [109].

Laburbilduz, emaitzek erakutsi dute bideragarria dela hiri-mailako eraikin-parke baten energia termikoaren kontsumoa karakterizatzea eskura dauden datu-iturriekin, energia aurrezteko aukera ezberdinak eta horiekin lotutako CO<sub>2</sub>-aren emisio-murrizketak ikertzeko oinarri gisa.

### 6.1.2 *Bigarren fasearen ondorioak*

EENen ebaluazio ekonomikoak eraikin edo eraikin-mota bakar batean oinarritzen dira maiz, eta ezin dira estrapolatu eraikin-parke oso batera. Beste kasu batzuetan, eraikin-parke handi bat adierazteko definitzen den EEn kopuru mugatuak zaildu egiten du eraikinen tipologia-heterogeneotasun handia atzematea, ebaluazioaren emaitzak modu fidagarrian estrapolatu ahal izateko. Tesi honek kostu-maila optimoaren metodologia hiri-mailan aplikatzea proposatzen du, Bilboko etxebizitza-parkearen kostu-maila optimoak aztertuz hainbat agertokitan. Definitutako EEn kopuru zabalak bizitegi-parkearen karakterizazio zehatza bermatzen du eta, horri esker, zentzuz sustatu beharreko energia-jarduera tarte egokia identifika daiteke, hainbat eraikin motarentzat.

Azterketan ingurutzaila hobetzeko, sistema aktiboa egokitzeko eta energia berriztagarriak erabiltzeko EEN probatuak sartu dira. Fatxaden kanpo-isolamendu optimoa 8 cm ingurukoa dela ikusi da. Oro har, badirudi sistema termiko elektrikoak dituzten eraikinen kostu-maila optimoak fatxadako kanpo-isolamenduaren eta eguzki-kolektore termikoen konbinazio batez



osatuta daudela. Bestalde, GN kontsumitzen duten eraikinetarako kostu-maila optimoak heterogeneoagoak dira: kasu batzuetan, eraikinaren fatxadako kanpo-isolamenduaz baino ez daude osatuta; beste batzuetan, berriz, isolamendu horren eta eguzki-kolektore termikoen edo sistema fotovoltaikoen arteko konbinazioak dira. Azken horiek antzeko emaitza erakusten dute definitutako erreferentzia-agertokian, baina sistema fotovoltaikoaren ustiapena optimizatzen den heinean, sistema horrek eguzki-kolektore termikoekin alderatuz izango lituzkeen onurak handitu egingo lirateke.

Analisiaren emaitzek  $59,01 \text{ kWh/m}^2$  eta  $50,34 \text{ kWh/m}^2$ -ko kostu-maila optimoak ematen dituzte ikuspegi pribatuan eta makroekonomikoan, hurrenez hurren; haiek, erabilera termikoen egungo EP-eb kontsumoaren erdiaren inguru dira ( $116,10 \text{ kWh/m}^2$ ). Hala ere, emaitzen arabera, maila optimoaren EP-eb kontsumoa nabarmen aldatzen da EEen artean, ezaugarri geometriko desberdinak, eraikinaren jarraitutasun-maila eta erabilera termikoetarako erabiltzen den erregaia direla eta. Honek erakusten du lehendik dauden eraikin-parkeen kostu-maila optimoak zehazteko orduan, haiek hurbiletik aztertu behar direla, maila horiek energia-eraginkortasunaren politika eta horri lotutako tresna ekonomikoak gidatu baititzakete. Are gehiago, kontuan izanda Espainia bezalako herrialde deszentralizatueta, azken horiek neurri handi batean eskualdeetako agintariek ezarri ohi dituztela.

Izan ere, ikuspegi pribatu eta makroekonomikoen kostu-maila optimoen arteko diferentziak, erreferentzia-agertokian NG erabiltzen duten EEtara mugatzen dena eta energiaren prezio altuen agertokian berokuntza sistema elektrikoa duten EEtara zabaltzen dena, adierazten du laguntza publikoa beharrezkoa izan daitekeela inbertitzaile pribatuaren eta gizartearen interesak lerrokatzeko.

Halaber, diru-laguntza funtsezkoa da amortizazio-epe pribatuak murrizteko, 21 urtetik gorakoak direnak kostu-maila optimoentzat, eta, horrela, birgaitze energetikoak erabiltzaileentzat erakargarriak izatea lortzeko. GN erabiltzen duten EE gehienetan, aldaera optimoen KGa oinarritako kasuetako KGren oso antzekoa da (edo zertxobait handiagoa ere bai), eta horrek iradokitzen du Bilboko klima epelaren, inbertsioei aurre egiteko behar diren finantza kostuaren eta GNren prezio baxuen konbinazioak eraginkortasun energetikoan jardutearen onura ekonomikoa muga dezakela.

Hala ere, eraikin bat fatxadaren mantentze-lan baten beharrean dagoenean, energia-eraginkortasunean esku hartzeko erakargarritasuna nabarmen handitzen da. Lortuko litzatekeen KG aurrezpenak, eraikinaren jarduera energetikoa hobetzeko aukera paregabea bihurtzen du hori. Kasu askotan arrazoizko amortizazio-epe bat bermatzeko laguntza publikorik behar izan gabe ere. Horrek agerian uzten du energia-eraginkortasunerako neurri bideragarriari buruzko informazio egokia bermatzea funtsezkoa dela aukera horretaz baliatzeko.

Bestela, diru-laguntza publikoen ohiko tarteez maila optimoen amortizazio-epeak 15 bat urtera baino ezin ditzakete murriztu. GN erabiltzen duten eraikinen kasuan amortizazio-epe hori altuagoa izango da, nahitaez. Halaber, kuantitatiboki egiaztatu da mailegu bigunek funtsezko zeregina dutela zuzeneko diru-laguntzen beharra murrizteko.

| 1960 - 1980      | 68.645              | %46,5 |
| 1981 - 2005      | 24.165              | %16,4 |
| > 2006           | 4.780               | %3,2  |

\* Lehen aipatutako 147.655 etxebizitza nagusien kopurua lortzeko, estatistikan eraikitze-aldiari buruzko daturik gabe agertzen diren beste 265 etxebizitza gehitu beharko lirakeke taularatutakoei.

Ikus daitekeen moduan, bizitegi-parkearen ia erdia 20 urteko epean eraiki zen, 1960 eta 1980. urteen arteko Desarrollismo garaian. Eraikuntza-aldi bereizgarri hori guztia, beraz, batera hartu da segmentazio-parametroen muga-balio eta tartekak zehazterakoan.



## II.1. Irudia: Bilboko etxebizitza nagusien banaketa eraikuntza-aldiaren arabera.

Bestalde, etxebizitzaren %80a isolamendu termikoen erabilera lehen aldiz sustatu zuen NBE-CT-79 araua indarrean sartu baino lehen eraiki ziren. Bestalde, 2006tik indarrean dagoen CTE araua betetzen duten etxeen kopurua oso txikia da.

### II.1.1. 3. Familia bakarreko etxeak eta apartamentu-blokeak

Bizitegi-parkeak karakterizatzean, ohikoa da eraikinak familia bakarreko etxeetan eta apartamentu-bloketan bereiztea.

2011ko INEren erroldan ez dago eraikinen kategorizazio horri buruzko daturik. Hauek topatzeko, 2001eko (aurreko) erroldara jo beharra dago [111]. Hala ere, 2001eko emaitzak adierazgarritzat hartzen dira, etxebizitza nagusien %90 baino gehiago jadanik eraikita baitzegoen urte horretan.

II.3. Taulan ikus daitekeen moduan, familia bakarreko eraikinak %1 baino gutxiago ziren Bilbon, bizileku gehienak apartamentu-blokeak izanik. Beraz, etxebizitzaren sailkapenerako segmentazio-irizpide hau erabiltzea baztertu egiten da.

### II.3.Taula: Bilboko bizitegi-eraikinen banaketa.

|   |   |       |
|---|---|-------|
| 1 | Familia bakarreko eraikinak                     | %0,8  |
| 2 | Bizilekuak diren apartamentu-blokeak            | %16,4 |
| 3 | Nagusiki bizilekuak diren apartamentu-blokeak   | %81,2 |
| 4 | Nagusiki komertzialak diren apartamentu-blokeak | %0,5  |
| 5 | Etxebizitza kolektiboen eraikinak               | %1,1  |

#### II.1.2. Bizitegi-parkearen segmentazioa

Bilboko bizitegi-parkea sailkatzeko aplikatutako segmentazio-irizpideen muga-balioak eta tarteak II.4. Taulan adierazten dira. Eraikuntza-aldiarenak aipatu dira jada, eta Desarrollismo periodoarekin eta arau tekniko ezberdinen aldiarekin lotuta daude. Solairu kopuruarentzako muga-balioak IDAEek erabilitakoen antzera definitzen dira [54]. Bestalde, azalera erabilgarriaren tarteak zehazterako orduan oreka bat bilatu da segmentazio-sentikortasunaren (zeharka etxebizitza-talde bat zein auzoetan koka daitekeen bereizteko gaitasuna emango duena) eta segmentazio-irizpideak konbinatzean lortzen den etxebizitza-talde kopuruaren artean.

#### II.4. Taula: Bilboko bizitegi-parkea sailkatzeko aplikatutako segmentazio-irizpideen muga-balioak eta tarteak.

| Eraikuntza aldia | Eraikinaren solairu kopurua | Etxebizitzaren azalera erabilgarria |
|------------------|-----------------------------|-------------------------------------|
| < 1960           | 1 - 3                       | < 60 m <sup>2</sup>                 |
| 1960 - 1980      | 4 - 6                       | 60 - 90 m <sup>2</sup>              |
| 1981 - 2005      | 7 - 9                       | 90 - 120 m <sup>2</sup>             |
| > 2006           | > 10                        | > 120 m <sup>2</sup>                |

Segmentazio-irizpide horiek konbinatuz II.5. Taularen sailkapena lortzen da, etxebizitza-talde bakoitzarekin lotutako etxe kopurua adierazten duena. Taularen etxebizitza kopuru totala (137.025) lehenago aipatutako 147.655 etxebizitza nagusiak baino zertxobait txikiagoa da. Izan ere, II.5. Taula eraikitze erabilitako datu estatistiko desagregatuetan, INEk ez du 5 lagin-unitate baino gutxiago dituzten etxebizitza-moten kopuru erreala adierazten eta balio nuluak ematen ditu.

#### II.5. Taula: segmentazio-irizpideak konbinatuz lortzen diren etxebizitza-moten banaketa.

| Eraikuntza-aldia | Eraikinaren solairu kopurua | Etxebizitzaren azalera erabilgarria |                        |                         |                      | Etxebizitza kopurua | (%)    |
|------------------|-----------------------------|-------------------------------------|------------------------|-------------------------|----------------------|---------------------|--------|
|                  |                             | < 60 m <sup>2</sup>                 | 60 - 90 m <sup>2</sup> | 90 - 120 m <sup>2</sup> | > 120 m <sup>2</sup> |                     |        |
| < 1960           | < 3                         | 645                                 | 120                    | 65                      | 80                   | <b>910</b>          | %0,66  |
|                  | 4 - 6                       | 8.020                               | 8.725                  | 1.815                   | 310                  | <b>18.870</b>       | %13,77 |
|                  | 7 - 9                       | 5.100                               | 11.480                 | 4.690                   | 3.295                | <b>24.565</b>       | %17,93 |
|                  | > 10                        | 305                                 | 930                    | 385                     | 85                   | <b>1.705</b>        | %1,24  |
| 1960 - 1980      | < 3                         | 140                                 | 0                      | 0                       | 0                    | <b>140</b>          | %0,10  |
|                  | 4 - 6                       | 6.570                               | 7.615                  | 1.265                   | 0                    | <b>15.450</b>       | %11,28 |
|                  | 7 - 9                       | 6.985                               | 17.715                 | 3.865                   | 1.140                | <b>29.705</b>       | %21,68 |

|             |                            |               |               |               |              |                |        |
|-------------|----------------------------|---------------|---------------|---------------|--------------|----------------|--------|
|             | > 10                       | 3.970         | 12.515        | 4.915         | 1.115        | <b>22.515</b>  | %16,43 |
| 1981 - 2005 | < 3                        | 0             | 85            | 0             | 0            | <b>85</b>      | %0,06  |
|             | 4 - 6                      | 885           | 5.470         | 645           | 0            | <b>7.000</b>   | %5,11  |
|             | 7 - 9                      | 1.505         | 6.760         | 2.085         | 145          | <b>10.495</b>  | %7,66  |
|             | > 10                       | 0             | 2.755         | 725           | 0            | <b>3.480</b>   | %2,54  |
| > 2006      | < 3                        | 0             | 0             | 0             | 0            | <b>0</b>       | %0,00  |
|             | 4 - 6                      | 175           | 1.090         | 0             | 0            | <b>1.265</b>   | %0,92  |
|             | 7 - 9                      | 175           | 490           | 110           | 0            | <b>775</b>     | %0,57  |
|             | > 10                       | 0             | 65            | 0             | 0            | <b>65</b>      | %0,05  |
|             | <b>Etxebizitza kopurua</b> | <b>34.475</b> | <b>75.815</b> | <b>20.565</b> | <b>6.170</b> | <b>137.025</b> |        |
|             | (%)                        | %25,16        | %55,33        | %15,01        | %4,50        |                |        |

II.5. Taulak etxebizitza-talde adierazgarrienak identifikatzea ahalbidetzen du. Talde bakoitzak bizitegi-parke osoarekiko duen pisuari erreparatuz, II.6. Taula lortzen da.

II.6. Taula: sailkatutako etxebizitza-moten pisua bizitegi-parke osoan.

| Eraikuntza-aldia | Eraikinaren solairu kopurua | Etxebizitzaren azalera erabilgarria |                        |                         |                      |
|------------------|-----------------------------|-------------------------------------|------------------------|-------------------------|----------------------|
|                  |                             | < 60 m <sup>2</sup>                 | 60 - 90 m <sup>2</sup> | 90 - 120 m <sup>2</sup> | > 120 m <sup>2</sup> |
| < 1960           | < 3                         | %0,47                               | %0,09                  | %0,05                   | %0,06                |
|                  | 4 - 6                       | %5,85                               | %6,37                  | %1,32                   | %0,23                |
|                  | 7 - 9                       | %3,72                               | %8,38                  | %3,42                   | %2,40                |
|                  | > 10                        | %0,22                               | %0,68                  | %0,28                   | %0,06                |
| 1960 - 1980      | < 3                         | %0,10                               | %0,00                  | %0,00                   | %0,00                |
|                  | 4 - 6                       | %4,79                               | %5,56                  | %0,92                   | %0,00                |
|                  | 7 - 9                       | %5,10                               | %12,93                 | %2,82                   | %0,83                |
|                  | > 10                        | %2,90                               | %9,13                  | %3,59                   | %0,81                |
| 1981 - 2005      | < 3                         | %0,00                               | %0,06                  | %0,00                   | %0,00                |
|                  | 4 - 6                       | %0,65                               | %3,99                  | %0,47                   | %0,00                |
|                  | 7 - 9                       | %1,10                               | %4,93                  | %1,52                   | %0,11                |
|                  | > 10                        | %0,00                               | %2,01                  | %0,53                   | %0,00                |
| > 2006           | < 3                         | %0,00                               | %0,00                  | %0,00                   | %0,00                |
|                  | 4 - 6                       | %0,13                               | %0,80                  | %0,00                   | %0,00                |
|                  | 7 - 9                       | %0,13                               | %0,36                  | %0,08                   | %0,00                |
|                  | > 10                        | %0,00                               | %0,05                  | %0,00                   | %0,00                |

%2tik gorako pisua duten etxebizitza motak hartuz, 17 etxebizitza adierazgarri lortu dira. Oro har, Bilboko bizitegi-parke osoaren %88 osatzen dute. II.7. Taulak "EA 1"-tik "EA 17"-ra izendatu diren etxebizitza adierazgarri horien ezaugarriak laburtzen ditu.



II.7. Taula: aukeratutako 17 etxebizitza adierazgarrien ezaugarriak.

| Eraikitze-aldia | Eraikinaren solairu kopurua | Azalera erabilgarria   | Etxebizitza adierazgarria | Etxebizitza kopurua | Zatia         |
|-----------------|-----------------------------|------------------------|---------------------------|---------------------|---------------|
| 1960            | 4 - 6 solairu               | < 60 m <sup>2</sup>    | EA 1                      | 8.020               | %5,85         |
|                 |                             | 60 - 90 m <sup>2</sup> | EA 2                      | 8.725               | %6,37         |
|                 | 7 - 9 solairu               | < 60 m <sup>2</sup>    | EA 3                      | 5.100               | %3,72         |
|                 |                             | 60 - 90 m <sup>2</sup> | EA 4                      | 11.480              | %8,38         |
|                 |                             | 90- 120 m <sup>2</sup> | EA 5                      | 4.690               | %3,42         |
|                 |                             | > 120 m <sup>2</sup>   | EA 6                      | 3.295               | %2,40         |
| 1960 - 1980     | 4 - 6 solairu               | < 60 m <sup>2</sup>    | EA 7                      | 6.570               | %4,79         |
|                 |                             | 60 - 90 m <sup>2</sup> | EA 8                      | 7.615               | %5,56         |
|                 | 7 - 9 solairu               | < 60 m <sup>2</sup>    | EA 9                      | 6.985               | %5,10         |
|                 |                             | 60 - 90 m <sup>2</sup> | EA 10                     | 17.715              | %12,93        |
|                 |                             | 90- 120 m <sup>2</sup> | EA 11                     | 3.865               | %2,82         |
|                 | > 10 solairu                | < 60 m <sup>2</sup>    | EA 12                     | 3.970               | %2,90         |
|                 |                             | 60 - 90 m <sup>2</sup> | EA 13                     | 12.515              | %9,13         |
|                 |                             | 90- 120 m <sup>2</sup> | EA 14                     | 4.915               | %3,59         |
|                 | 1981 - 2005                 | 4 - 6 solairu          | 60 - 90 m <sup>2</sup>    | EA 15               | 5.470         |
| 7 - 9 solairu   |                             | 60 - 90 m <sup>2</sup> | EA 16                     | 6.760               | %4,93         |
| > 10 solairu    |                             | 60 - 90 m <sup>2</sup> | EA 17                     | 2.755               | %2,01         |
|                 |                             |                        | <b>EA totalak</b>         | <b>120.445</b>      | <b>%87,90</b> |

Ikus daitekeenez, etxebizitza adierazgarrien artean ez dago 2006. urtetik aurrera eraikitako etxebizitzarik, hau da, CTE araua betetzen duenik. Bestalde, Bilbo hiriaren bizitegi-parkearen karakterizazioaren ondorio nagusiak hurrengoak dira:

- Parke osoaren %50 1960tik 1980ra bitartean eraiki zen.
- Bilbo eraikin altuko hiria da. Etxebizitzen ia %50 7-9 solairuko eraikinetan kokatzen dira, eta beste %20 10 solairu baino gehiagoko eraikinetan.
- Etxebizitzen %55ak 60-90 m<sup>2</sup> bitarteko azalera erabilgarria du.

II.1.3. Etxebizitza adierazgarrietatik eraikin-arketipoetara

Orain arte, Bilboko bizitegi-parkearen karakterizazioa etxebizitza-moten adierazgarritasunaren arabera egin da. Hala ere, modelatu beharreko arketipoak eraikin osoak dira, eta ez etxebizitza

indibidualak. Beraz, etxebizitza adierazgarri bakoitzaren eta honek osatutako eraikinaren arteko erlazioa definitu beharra dago. Horretarako, hurrengo hurreratzea ezartzen da:

- Eraikin-arketipo bakoitzean kokatutako etxebizitza guztiak berdinak dira eta etxebizitza adierazgarri batekin bat datoz.
- Eraikin-arketipo bakoitzean solairu guztiak berdinak dira; hau da, etxebizitza kopuru eta azalera bera dute.

Horrela, definitu beharreko aspektu nagusia eraikin mota bakoitzaren etxebizitza kopurua da. Horretarako, eraikinen eraikuntza-aldia eta solairu-kopuruaren arabera distribuzioa etxebizitzarenekin gurutzatzen da, II.8. Taula lortuz. Beraz, etxebizitza-talde eta eraikin-moten arteko erlazioa hiru segmentazio-irizpideetatik bi baino ez kontsideratuz ezartzen da. Etxebizitzen azalera erabilgarria ez da honetarako kontuan hartzen; ondorioz, eraikin bakoitzeko etxebizitza-kopurua berdina izango da eraikitze-aldi eta solairu-kopuru bera duten etxebizitza-tipologia guztietan, hala nola EA 3, EA 4, EA 5 eta EA 6.

II.8. Taula: Bilboko bizitegi-eraikinen banaketa, eraikuntza-aldia eta solairu-kopuruaren arabera.

| Eraikitze-aldia | Solairu kopurua | Etxebizitza kopurua | Eraikin kopurua | Batez besteko etxebizitza kopurua eraikineko |
|-----------------|-----------------|---------------------|-----------------|--|
| <1960           | 4 - 6 solairu   | 17.156              | 2.043           | 8,40   |
|                 | 7 - 9 solairu   | 24.992              | 1.795           | 13,92  |
| 1960 - 1980     | 4 - 6 solairu   | 13.972              | 1.069           | 13,07  |
|                 | 7 - 9 solairu   | 24.861              | 1.368           | 18,17  |
|                 | > 10 solairu    | 21.425              | 565             | 37,92  |
| 1981 – 2001 *   | 4 - 6 solairu   | 6.207               | 498             | 12,46  |
|                 | 7 - 9 solairu   | 6.695               | 367             | 18,24  |
|                 | > 10 solairu    | 2.422               | 62              | 39,06  |

\* Taula eraikitze INEren 2001. urteko errolda erabiltzen da, informazio hau 2011.ekotik kanpo geratu baitzen. Beraz 1981 – 2005 eraikitze-aldia, kasu honetan, 1981-2001 aldira hurbildu beharra dago.

Eraikin-arketipo bakoitzaren etxebizitza kopurua kalkulaturako batez besteko balioetik ahalik eta hurbilen egoteko definitzen da. Horretarako, eraikin-mota bakoitzaren solairu kopurua ere doitzen da, beti ere eraikin-mota horri dagokion solairu-kopuru tartearen barruan. Etxabeetan etxebizitzarik ez dagoela suposatuz, II.9. Taula lortzen da.

II.9. Taula: etxebizitza adierazgarriek osatzen dituzten eraikin-arketipoen solairu- eta etxebizitza-kopurua.

| Eraikitze-aldia      | Solairu kopurua | Eraikin-arketipoaren solairu kopurua | Eraikin-arketipoaren solairu kopurua, etxabe barik | Solairu bakoitzeko etxebizitza kopurua | Eraikin-arketipoaren etxebizitza kopuru erresultantea | Batez besteko etxebizitza kopurua eraikineko [111] |
|----------------------|-----------------|--------------------------------------|--|--|---|--|
| 1960a baino lehenago | 4 - 6 solairu   | 5                                    | 4  | 2                                      | 8   | 8,40   |
|                      | 7 - 9 solairu   | 8                                    | 7  | 2                                      | 14  | 13,92  |
| 1960 - 1980          | 4 - 6 solairu   | 5                                    | 4  | 3                                      | 12  | 13,07  |
|                      | 7 - 9 solairu   | 7                                    | 6  | 3                                      | 18  | 18,17  |
|                      | > 10 solairu    | 13                                   | 12   | 3                                      | 36  | 37,92  |
| 1981 - 2001          | 4 - 6 solairu   | 5                                    | 4  | 3                                      | 12  | 12,46  |
|                      | 7 - 9 solairu   | 7                                    | 6  | 3                                      | 18  | 18,24  |
|                      | > 10 solairu    | 14                                   | 13   | 3                                      | 39  | 39,06  |

Ikus daitekeenez, azaldutako hurbilketarekin eraikin-mota bakoitzarentzako lortutako etxebizitza kopuru erresultantea asko hurbiltzen da INEK emandako datu errealetara. Horrela, aurretik definitutako 17 etxebizitza adierazgarriak modelatu beharreko 17 eraikin-arketipoekin erlazionatzen dira, II.10. Taulak adierazten duen moduan.

II.10. Taula: etxebizitza adierazgarrien eta eraikin-arketipoen arteko erlazioa.

| Eraikin-arketipoa | Etxebizitza adierazgarria | Eraikitze-aldia      | Solairu kopurua, etxabe barik | Solairu bakoitzeko etxebizitza kopurua | Etxebizitzen azalera erabilgarria |
|-------------------|---------------------------|----------------------|-------------------------------|--|-----------------------------------|
| 1. arketipoa      | EA 1                      | 1960a baino lehenago | 4                             | 2                                      | < 60 m <sup>2</sup>               |
| 2. arketipoa      | EA 2                      |                      | 4                             | 2                                      | 60 - 90 m <sup>2</sup>            |
| 3. arketipoa      | EA 3                      |                      | 7                             | 2                                      | < 60 m <sup>2</sup>               |
| 4. arketipoa      | EA 4                      |                      | 7                             | 2                                      | 60 - 90 m <sup>2</sup>            |
| 5. arketipoa      | EA 5                      |                      | 7                             | 2                                      | 90- 120 m <sup>2</sup>            |
| 6. arketipoa      | EA 6                      |                      | 7                             | 2                                      | > 120 m <sup>2</sup>              |
| 7. arketipoa      | EA 7                      | 1960 - 1980          | 4                             | 2                                      | < 60 m <sup>2</sup>               |
| 8. arketipoa      | EA 8                      |                      | 4                             | 2                                      | 60 - 90 m <sup>2</sup>            |
| 9. arketipoa      | EA 9                      |                      | 6                             | 2                                      | < 60 m <sup>2</sup>               |
| 10. arketipoa     | EA 10                     |                      | 6                             | 2                                      | 60 - 90 m <sup>2</sup>            |
| 11. arketipoa     | EA 11                     |                      | 6                             | 2                                      | 90- 120 m <sup>2</sup>            |

|                      |       |             |    |   |                        |
|----------------------|-------|-------------|----|---|------------------------|
| <b>12. arketipoa</b> | EA 12 |             | 12 | 3 | < 60 m <sup>2</sup>    |
| <b>13. arketipoa</b> | EA 13 |             | 12 | 3 | 60 - 90 m <sup>2</sup> |
| <b>14. arketipoa</b> | EA 14 |             | 12 | 3 | 90- 120 m <sup>2</sup> |
| <b>15. arketipoa</b> | EA 15 | 1981 - 2005 | 4  | 2 | 60 - 90 m <sup>2</sup> |
| <b>16. arketipoa</b> | EA 16 |             | 6  | 2 | 60 - 90 m <sup>2</sup> |
| <b>17. arketipoa</b> | EA 17 |             | 13 | 3 | 60 - 90 m <sup>2</sup> |

## II.2. Eraikin-arketipoen karakterizazioa

### II.2.1. Fatxada-konposizioak

Atal honek Bilboren eta Euskadiren eraikuntza-ezaugarri bereizgarriak aztertzen ditu, tokiko ikuspegi batetik.

#### II.2.1.1. Fatxaden bilakaera historikoa Euskadin

Antzinako eraikinen fatxadak karga-horma lodiz osatuta zeuden. Eraikinen estrukturan parte ziren eta masa eta inertzia termiko handia zuten. Materialei dagokienez, fatxadek aldaketa gutxi izan zuten XIX. mendera arte, adreiluzko fatxadek aurretiko harrizko hormak ordezkatu zituztenean. Bilboren kasuan, 7 cm-ko lodierako adreilua izan zen 1876 – 1910 aldiko apartamentu-bloketan erabilitako fatxada soluziorik ohikoena [112].

1910etik aurrera, Ingalaterra eta Frantziatik ekarritako hormigoi armatuak erabat aldatu zuen eraikitze modua [113]. Lehenengo aldiz, eraikinen inguratzailea estruktura-funtziotik aske geratu zen, eta horrek material gutxiago erabiltzea eta pisua arintzea baimendu zuen. Horrela, tartean aire-ganbera bat zuten orri bikoitzeko fatxaden erabilera zabaltzen hasi zen, baina Gerra Zibilak eta gerraosteak hedapen hori eten egin zuten 60ko hamarkada ingurura arte, Bilbok (eta, oro har, Euskadik) izugarritzko hazkunde demografikoa bizi izan zuenean.

1960 eta 1980 arteko Desarrollismo garaian, Euskadira migrazio handia eman zen Espainiako beste eskualde batzuetatik, euskal industrializazio-maila handia zela medio. Ondorioz, langileentzako eraikin ugari eraiki ziren oso epe laburrean, non orri bikoitzeko fatxadak orokortu baitziren [55].

Geroago, fatxaden eraikuntza-soluzioarekin lotutako hurrengo aldaketa esanguratsuen isolatzaileen erabilera aurkitzen da. 70. hamarkadan bi orrien arteko aire-ganberan isolatzaileak pixkanaka ipintzen hasi baziren ere, 1979. Urteko NBE-CT-79 arauak euren erabilera orokortu egin zuen, 1980ko hamarkadatik aurrera.

#### II.2.1.2. Euskal bizitegi-parkearen fatxada-soluzio bereizgarriak

Deskribatutako fatxaden eraikuntza-soluzioen ikuspegi orokorra osatzeko, atal honetan Euskadiren fatxada-soluzio bereizgarrietan sakontzen da literatura teknikoa aztertuz. Beste batzuen artean, hurrengo bi lanak azpimarra daitezke:



- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak argitaratutako *Catálogo de Rehabilitación Energética* katalogoa [114], EHUren laguntzarekin, euskal parkearen ohiko fatxada-tipologiak identifikatzen dituena.
- *La construcción de la arquitectura residencial en Gipuzkoa durante la época del Desarrollismo* tesia [55], Desarrollismo garaiko eraikitze-prozesua ebaluatzen duena.

II.11. Taulak [114](e)k eraikitze-aldi bakoitzean identifikatutako fatxada-soluzioak laburbiltzen ditu. Beste lan batzuek bezala [53], horma bikoitzaren hasiera gerraostearen aroan ezartzen du, nahiz eta Desarrollismo garaira arte ez zen soluzio ohikoena bihurtu.

II.11. Taula: [114](e)k eraikitze-aldi bakoitzean identifikatutako fatxada-soluzioak.

| XIX. mendera arte            | < 1936                  | Gerra zibila eta gerraostea   | 1960 - 1980  | NBE-CT-79 1980 - 2006 |
|------------------------------|-------------------------|---|--|-----------------------|
| Adobezko horma               | 1/2' adreilu trinkoa    | Orri bikoitza, bistako adreilua, bi aldeetako estaldurarekin, "P. Unceta" | 1/2' hutsune bikoitzeko adreilu  | Hormigoizko blokeak   |
| Harri-horma                  | 1,5' zulatutako adreilu |   | Orri bikoitza, bistako adreilua  |                       |
| Konkorturiko adreilu trinkoa | 1' adreilu trinkoa      |   | Orri bikoitza, bistako adreilua, "J. Gayarre II"                             |                       |
|                              | 1' gafa adreilua        |   | Orri bikoitza, bistako adreilua, "J. Gayarre I"                              |                       |
|                              | 1,5' gafa adreilua      |   | Orri bikoitza, bistako adreilua, bi aldeetako estaldurarekin.                |                       |
|                              |                         |   | Orri bikoitza, bistako adreilua, bi aldeetako estaldurarekin, "Otxarkoaga I" |                       |
|                              |                         |   | Orri bikoitza, bistako adreilua, bi aldeetako estaldurarekin, "Belostikale"  |                       |

Desarrollismo garaiak Bilboko parkean duen garrantzia dela eta, xehetasun handiagoarekin aztertu dira orri bikoitzeko fatxadak. II.12. Taulan [114]-k euskal parkean identifikatutako orri bikoitzeko soluzioak deskribatzen dira.

II.12. Taula: [114]-k euskal parkeen identifikatutako orri bikoitzeko soluzioak.

| <b>Bistako adreiluzko fatxadak</b> |                                       |                          |                                    |                             |                     |
|------------------------------------|---------------------------------------|--------------------------|------------------------------------|-----------------------------|---------------------|
| <b>Kodea [EHU, 2014]</b>           | <b>Kanpoko orria</b>                  | <b>Aire-ganbera (cm)</b> | <b>Barneko orria</b>               | <b>U (W/m<sup>2</sup>K)</b> | <b>Lodiera (cm)</b> |
| <b>EXFC05b01</b>                   | 10,5 cm zulatutako adreilua           | 5                        | 4,5 cm hutsune sinpleko adreilua   | 1,62                        | 20                  |
| <b>EXFC05b02</b>                   | 10,5 cm zulatutako adreilua           | 10                       | 9 cm hutsune bikoitzeko adreilua   | 1,36                        | 29,5                |
| <b>EXFC05b03</b>                   | 10,5 cm zulatutako adreilua           | 7                        | 7 cm hutsune bikoitzeko adreilua   | 1,50                        | 24,5                |
| <b>EXFC05c01</b>                   | 10,5 cm adreilu trinkoa               | 5                        | 7,5 cm hutsune bikoitzeko adreilua | 1,28                        | 23                  |
| <b>Estaldura duten fatxadak</b>    |                                       |                          |                                    |                             |                     |
| <b>EXFC06a01</b>                   | 10,5 cm hutsune bikoitzeko adreilua   | 5                        | 4,5 cm hutsune sinpleko adreilua   | 1,42                        | 20                  |
| <b>EXFC06a02</b>                   | 11,5 cm hutsune hirukoitzeko adreilua | 5                        | 7 cm hutsune bikoitzeko adreilua   | 1,33                        | 23,5                |
| <b>EXFC06a03</b>                   | 12 cm hutsune bikoitzeko adreilua     | 8                        | 4 cm hutsune sinpleko adreilua     | 1,33                        | 24                  |
| <b>EXFC06a04</b>                   | 9 cm hutsune bikoitzeko adreilua      | 8                        | 9 cm hutsune bikoitzeko adreilua   | 1,28                        | 26                  |
| <b>EXFC06b01</b>                   | 12 cm zulatutako adreilua             | 8                        | 4 cm hutsune sinpleko adreilua     | 1,54                        | 24                  |
| <b>EXFC06b02</b>                   | 9 cm zulatutako adreilua              | 8                        | 9 cm hutsune bikoitzeko adreilua   | 1,42                        | 26                  |

Ikus daitekeenez, transmitantzia termikoari dagokionez ez dago ezberdintasun nabarmenik bistako adreiluzko fatxaden eta estaldura duten fatxaden artean. 1,28 eta 1,62 W/m<sup>2</sup>K bitarteko transmitantzia-diferentziak hormaren lodieraren eta adreilu-moten arabera dira. Gainontzeko ondorio nagusiak hurrengoak dira:

1. Bistako adreiluzko fatxadetan erabilitako adreilu mota ohikoena zulatutako adreilua da. Estaldura duten fatxadetan, aldiz, adreilu hutsak dira.
2. Fatxadaren barneko orria adreilu hutsez osatuta dago kasu guztietan.
3. Aire-ganberaren lodiera-tartea 5 – 10 cm-koa da.
4. Kanpoko orriaren lodiera-tartea 9 – 12 cm-koa da.
5. Fatxada osoaren lodiera-tartea 20 – 29,5 cm-koa da.

Ondorio hauek bat datoz aztertutako beste lan batzuekin. Lehenengo puntua bat dator Iñigo Lizundiaren tesiarekin [55], adreilu hutsa identifikatzen duena Desarrollismo garaiko estaldura duten fatxadetan oinarritzko soluziotzat. Badago ere beste lanik, bistako adreiluzko fatxadetan

ohikoena zulatutako adreilua erabiltzea zela adierazten duena [115]. Bigarren puntuari dagokionez, Iñigo Lizundiak aztertutako kasuen %90ean barneko orria adreilu hutsez osatuta zegoen [55]. Literaturako beste analisi batzuek ere ezaugarri berresten dute [115]. Aire-ganberaren kasuan ere, aipatutako lodiera tartea bat dator Iñigo Lizundiak aztertutako proiektu-dokumentuekin (5 – 11 cm bitartean zeudenak). Bestalde, beste lan baten arabera [113], Bizkaian eta Gipuzkoan “tabicón” moduko konfigurazioa da arruntena adreilu hutsez osatutako kanpoko orrietan, 7 – 9 cm-ko orri-lodierarekin bat datorrena. Bistako adreiluen kasuan, 12 cm-ko kanpo-orria adierazten du. Azkenik, Iñigo Lizundiak 20-35 cm-ko fatxada-lodierak aurkitu zituen Gipuzkoan, II.12. taularen tartearekin bat datozenak.

### II.2.1.3. Eraikinen Azterketa Teknikoen analisia

Euskadin, Eraikinen Azterketa Teknikoek (EAT) eraikinen egoerari buruzko informazioa ematen dute, kontserbazio-egoerari, irisgarritasun unibertsalaren arauetara adostasunari eta eraginkortasun energetikoari dagokionez. Derrigorrezkoak dira 50 urte baino gehiagoko eraikinetan, eta baita hiru alderdi horietako edozein hobetzeko diru-laguntzak eskatzen dituzten eraikinentzat ere.

EATen erregistro publikoan [116] ohar informatiboak daude eskuragarri, ikuskatutako eraikinen fatxaden osaerari buruzko informazioa dutenak. Erregistro hori erabiliz, 115 eraikineko lagin baten fatxadak aztertzen dira, guztiak 1980a baino lehen eraikiak. EATen helburu nagusia dela eta (eraikinen kontserbazio-egoera ikuskatzea), arraroagoa da eraikin berriagoetan topatzea.

EATk hurrengo fatxada motak bereizten ditu, inguratzailaren osaera eta funtzioaren arabera:

- Estructuralak diren karga-hormak.
- Fatxada tradizionala, ektuktura-funtziotik askea. Orri bakar zein bikoitzekoa.
- Fatxada teknologikoa, egitura-profil osagarriekin forjatuei lotuta.

II.13. Taulak aztertutako fatxada moten banaketa laburbiltzen du. Fatxada mota bat baino gehiago duten eraikinak badaudela aipatu beharra dago, eta baita ohar informatibo batzuek ez dutela fatxadari buruzko informaziorik.

II.13. Taula: aztertutako EATetako fatxada moten banaketa.

| Eraikuntza-aldia | Aztertutako eraikin kopurua | Fatxadari buruzko informazioa dutenak | Fatxada mota |              |              |
|------------------|-----------------------------|---------------------------------------|--------------|--------------|--------------|
|                  |                             |                                       | Ektukturala  | Tradizionala | Teknologikoa |
| < 1960           | 48                          | 48                                    | 10           | 40           | 0            |
| 1960 - 1980      | 67                          | 65                                    | 1            | 64           | 1            |

Eraikuntza-metodoen bilakaerarekin bat etorritik, eta funtzio ektukturalak betetzeko hormigoi armatuaren hedapenaren ondorioz, fatxada ektukturalak eraikin zaharragoetan

kontzentratzen dira, ondoren ia desagertu arte. Hain zuzen ere, aztertutako fatxada estruktural gehienak Gerra Zibilaren aurretiko eraikinei dagozkie.

Bestalde, EATEk fatxada baten bi elementu nagusiak aztertzen dituzte: alde batetik, fatxada bera, itxitura elementu edo euskarri gisa eta, bestetik, bere estaldura edo azken geruza. Fatxada tradizionalen euskarriak gehienak adreiluz osatuta daude, 1960 aurreko eraikinetan eta baita 1960-1980 aldikoetan ere (II.14. Taula).

II.14. Taula: aztertutako EATEtako fatxada tradizionalen euskarrien banaketa.

| Eraikuntza-aldia | Fatxada tradizionala duten eraikinak | Fatxada tradizionalak – Euskarria       |          |           |
|------------------|--------------------------------------|---|----------|-----------|
|                  |                                      | Euskarriari buruzko informazioa dutenak | Adreilua | Hormigoia |
| < 1960           | 40                                   | 34                                      | 33       | 1         |
| 1960 - 1980      | 64                                   | 57                                      | 56       | 1         |

Fatxaden estaldurari edo akaberari dagokionez, EATEk estaldura jarraitua (morteroa, pintura, etab.) eta estaldura itsatsia (zeramikoa, bistako adreilua, etab.) bereizten ditu. II.15. Taulan aztertutako fatxada moten banaketa adierazten da, estaldura itsatsien artean bistako adreiluak bereiziz.

II.15. Taula: aztertutako EATEtako fatxada tradizionalen estalduren banaketa.

| Eraikuntza-aldia | Fatxada tradizionala duten eraikinak | Estaldurari buruzko informazioa dutenak | Fatxada tradizionalak – Estaldura |                    |                  |  |
|------------------|--------------------------------------|---|-----------------------------------|--------------------|------------------|--|
|                  |                                      |   | Estaldura jarraitua               | Estaldura itsatsia | Bistako adreilua | Estaldura mistoa: jarraitua + itsatsia |
| < 1960           | 40                                   | 36                                      | 19                                | 0                  | 9                | 8                                      |
| 1960 - 1980      | 64                                   | 61                                      | 24                                | 6                  | 19               | 12                                     |

Ikus daitekeenez, estaldura jarraitua da fatxada tradizionaletan soluziorik ohikoena, literaturan adierazi den moduan [112]. Estaldura itsatsiek eta bistako adreiluek gora egin zuten Desarrollismo garaian. Hain zuzen, 60ko hamarkadatik aurrera, zeramikazko estaldurak eta bistako adreiluak oso ezagunak bihurtu ziren [117].

#### II.2.1.4. Modelatutako fatxadak

Burututako analisisian oinarrituta, modelatutako eraikin-arketipo eruedetan erabilitako fatxada-osaerak II.16. Taulan adierazten dira. Material-geruzak fatxadaren kanpotik barrurako ordenan agertzen dira. Halaber, 0,13 eta 0,04 m<sup>2</sup>K/W-ko barne- eta kanpo-erresistentziak definitu dira, hurrenez hurren.



II.16. Taula: modelatutako eraikin-arketipo ereduetan erabilitako fatxada-osaerak.

|                            |                     | Lodiera (cm) | Eroankortasuna (W/mK)       | Bero espezifiko (J/kgK) | Dentsitatea (kg/m <sup>3</sup> ) |
|----------------------------|---------------------|--------------|-----------------------------|-------------------------|----------------------------------|
| <b>1. Fatxada</b>          | Kareharria          | 40           | 1,5                         | 720                     | 2.180                            |
|                            | Zementuzko morteroa | 2            | 0,72                        | 920                     | 1.850                            |
|                            | Igeltuzko luzitua   | 1            | 0,4                         | 1.000                   | 1.000                            |
| <b>Fatxadaren U-balioa</b> |                     | <b>2,043</b> | <b>W/m<sup>2</sup>K</b>     |                         |                                  |
|                            |                     | Lodiera (cm) | Eroankortasuna (W/mK)       | Bero espezifiko (J/kgK) | Dentsitatea (kg/m <sup>3</sup> ) |
| <b>2. Fatxada</b>          | Zementuzko morteroa | 2            | 0,72                        | 920                     | 1.850                            |
|                            | Zulatutako adreilua | 24           | 0,76                        | 1.000                   | 1.600                            |
|                            | Zementuzko morteroa | 2            | 0,72                        | 920                     | 1.850                            |
|                            | Igeltuzko luzitua   | 1            | 0,4                         | 1.000                   | 1.000                            |
| <b>Fatxadaren U-balioa</b> |                     | <b>1,766</b> | <b>W/m<sup>2</sup>K</b>     |                         |                                  |
|                            |                     | Lodiera (cm) | Eroankortasuna (W/mK)       | Bero espezifiko (J/kgK) | Dentsitatea (kg/m <sup>3</sup> ) |
| <b>3. Fatxada</b>          | Zementuzko morteroa | 1            | 0,72                        | 920                     | 1.850                            |
|                            | Adreilu hutsa       | 11,5         | 0,49                        | 1.000                   | 1.200                            |
|                            | Aire-ganbera        | 5            | R = 0,18 m <sup>2</sup> K/W |                         |                                  |
|                            | Adreilu hutsa       | 7            | 0,49                        | 1.000                   | 1.200                            |
|                            | Zementuzko morteroa | 2            | 0,72                        | 920                     | 1.850                            |
|                            | Igeltuzko luzitua   | 1            | 0,4                         | 1.000                   | 1.000                            |
| <b>Fatxadaren U-balioa</b> |                     | <b>1,259</b> | <b>W/m<sup>2</sup>K</b>     |                         |                                  |



|                            |                     | Lodiera (cm) | Eroankortasuna (W/mK)       | Bero espezifikoa (J/kgK) | Dentsitatea (kg/m <sup>3</sup> ) |
|----------------------------|---------------------|--------------|-----------------------------|--------------------------|----------------------------------|
| <b>4. Fatxada</b>          | Zulatutako adreilua | 10,5         | 0,76                        | 1.000                    | 1.600                            |
|                            | Aire-ganbera        | 5            | R = 0,18 m <sup>2</sup> K/W |                          |                                  |
|                            | Adreilu hutsa       | 9            | 0,49                        | 1.000                    | 1.200                            |
|                            | Zementuzko morteroa | 2            | 0,72                        | 920                      | 1.850                            |
|                            | Igeltsuzko luzitua  | 1            | 0,4                         | 1.000                    | 1.000                            |
| <b>Fatxadaren U-balioa</b> |                     | <b>1,380</b> | <b>W/m<sup>2</sup>K</b>     |                          |                                  |
|                            |                     | Lodiera (cm) | Eroankortasuna (W/mK)       | Bero espezifikoa (J/kgK) | Dentsitatea (kg/m <sup>3</sup> ) |
| <b>5. Fatxada</b>          | Zulatutako adreilua | 10,5         | 0,76                        | 1.000                    | 1.600                            |
|                            | Artile minerala     | 4            | 0,038                       | 840                      | 140                              |
|                            | Adreilu hutsa       | 9            | 0,49                        | 1.000                    | 1.200                            |
|                            | Zementuzko morteroa | 2            | 0,72                        | 920                      | 1.850                            |
|                            | Igeltsuzko luzitua  | 1            | 0,4                         | 1.000                    | 1.000                            |
| <b>Fatxadaren U-balioa</b> |                     | <b>0,626</b> | <b>W/m<sup>2</sup>K</b>     |                          |                                  |
|                            |                     | Lodiera (cm) | Eroankortasuna (W/mK)       | Bero espezifikoa (J/kgK) | Dentsitatea (kg/m <sup>3</sup> ) |
| <b>6. Fatxada</b>          | Zulatutako adreilua | 10,5         | 0,76                        | 1.000                    | 1.600                            |
|                            | Artile minerala     | 2            | 0,038                       | 840                      | 140                              |
|                            | Adreilu hutsa       | 9            | 0,49                        | 1.000                    | 1.200                            |
|                            | Zementuzko morteroa | 2            | 0,72                        | 920                      | 1.850                            |
|                            | Igeltsuzko luzitua  | 1            | 0,4                         | 1.000                    | 1.000                            |
| <b>Fatxadaren U-balioa</b> |                     | <b>0,934</b> | <b>W/m<sup>2</sup>K</b>     |                          |                                  |

|                            |                     | Lodiera (cm) | Eroankortasuna (W/mK)   | Bero espezifiko (J/kgK) | Dentsitatea (kg/m <sup>3</sup> ) |
|----------------------------|---------------------|--------------|-------------------------|-------------------------|----------------------------------|
| <b>7. Fatxada</b>          | Zulatutako adreilua | 10,5         | 0,76                    | 1.000                   | 1.600                            |
|                            | Artile minerala     | 3            | 0,038                   | 840                     | 140                              |
|                            | Adreilu hutsa       | 9            | 0,49                    | 1.000                   | 1.200                            |
|                            | Zementuzko morteroa | 2            | 0,72                    | 920                     | 1.850                            |
|                            | Igeltsuzko luzitua  | 1            | 0,4                     | 1.000                   | 1.000                            |
| <b>Fatxadaren U-balioa</b> |                     |              |                         |                         |                                  |
|                            |                     | <b>0,750</b> | <b>W/m<sup>2</sup>K</b> |                         |                                  |

5, 6 eta 7. fatxadei isolatzaile-geruza bat sartu zaie, artile mineral moduan, 1981etik gerozko eraikinei esleituko baitzaizkielako. Isolatzaile honen lodiera NBE-CT-79 arauaren eskakizunetan oinarrituta definitu da, ondoren azaltzen den moduan:

- NBE-CT-79 arauaren 2. maparen arabera Bilbo W klima-eremuan dagoenez, eraikinen fatxadek izan dezaketen transmitantzia termiko maximoa 1,8 W/m<sup>2</sup>°C-ko baliora mugatuta dago. Modelatutako 5, 6 eta 7. fatxadek eskakizun hau betetzen dute.
- Gainera, NBE-CT-79 arauak K<sub>G</sub> koefiziente moduan definitutako transmitantzia termiko maximo bat ere ezartzen du, eraikin osorako. K<sub>G</sub> koefizientea zonalde klimatikoaren, berokuntzarako erabilitako energia-iturriaren eta eraikinaren forma-faktorearen arabera da. Bilbo C zonalde klimatikoari dagokio, eta I. kasua (erregai solidoa, likidoa edo gaseosoa) kontsideratu da berokuntzarako.

Beraz, 1981 osteko eraikin-arketipo bakoitzean, forma-faktore ezberdina dutenak, material isolatzailearen lodiera desberdinekin iteratzen da K<sub>G</sub> koefiziente orokorra bete arte. Horrela, hiru lodiera-balio lortzen dira, 2 cm, 3 cm eta 4 cm, hurrenez hurren 6., 7. eta 5. fatxadei esleitzen zaizkienak.

#### II.2.1.4.1 Definitutako fatxada-moten esleipena

1. fatxada kareharri astunez osatutako fatxada estrukturala da eta, beraz, eraikin-arketipo zaharrenari esleitu zaio. Azken hau 3. arketipoa da, geroago deskribatzen den moduan Alde Zaharrari eta bere inguruari dagokiona. Orri bakarreko beste fatxada (2. fatxada) 1960 baino lehenagoko eraikitze-aldiari dagokion gainerako arketipoei esleitzen zaie.

Halaber, isolamendu termikorik gabeko orri bikoitzeko fatxadak, 3. fatxada eta 4. fatxada hain zuzen, Desarrollismo garaiko (1960-1980) eraikin-arketipoei esleitzen zaizkie. Azkenik, isolatutako orri bikoitzeko fatxadak (5, 6 eta 7. fatxadak) 1981aren osteko hiru eraikin-arketipoetan sartzen dira. Bakoitzari berea esleitzen zaio, NBE-CT-79 arauaren eskakizunak betetzeko burututako iterazio-prozesuen emaitzen arabera.

II.17. Taulak eraikin-arketipo bakoitzari esleitutako fatxada mota laburbiltzen du.

II.17. Taula: eraikin-arketipo bakoitzari esleitutako fatxada mota.

| Eraikin-arketipoa | Eraikitze-aldia  | Fatxada mota                                    |
|-------------------|------------------|---|
| 1. Ark.           | 1960 baino lehen | 2. Fatxada<br>$U = 1,766 \text{ W/m}^2\text{K}$ |
| 2. Ark.           |                  | 2. Fatxada<br>$U = 1,766 \text{ W/m}^2\text{K}$ |
| 3. Ark.           |                  | 1. Fatxada<br>$U = 2,043 \text{ W/m}^2\text{K}$ |
| 4. Ark.           |                  | 2. Fatxada<br>$U = 1,766 \text{ W/m}^2\text{K}$ |
| 5. Ark.           |                  | 2. Fatxada<br>$U = 1,766 \text{ W/m}^2\text{K}$ |
| 6. Ark.           |                  | 2. Fatxada<br>$U = 1,766 \text{ W/m}^2\text{K}$ |
| 7. Ark.           | 1960 - 1980      | 3. Fatxada<br>$U = 1,259 \text{ W/m}^2\text{K}$ |
| 8. Ark.           |                  | 3. Fatxada<br>$U = 1,259 \text{ W/m}^2\text{K}$ |
| 9. Ark.           |                  | 3. Fatxada<br>$U = 1,259 \text{ W/m}^2\text{K}$ |
| 10. Ark.          |                  | 4. Fatxada<br>$U = 1,380 \text{ W/m}^2\text{K}$ |
| 11. Ark.          |                  | 3. Fatxada<br>$U = 1,259 \text{ W/m}^2\text{K}$ |
| 12. Ark.          |                  | 4. Fatxada<br>$U = 1,380 \text{ W/m}^2\text{K}$ |
| 13. Ark.          |                  | 4. Fatxada<br>$U = 1,380 \text{ W/m}^2\text{K}$ |
| 14. Ark.          |                  | 4. Fatxada<br>$U = 1,380 \text{ W/m}^2\text{K}$ |
| 15. Ark.          | 1981 - 2005      | 5. Fatxada<br>$U = 0,626 \text{ W/m}^2\text{K}$ |
| 16. Ark.          |                  | 6. Fatxada<br>$U = 0,934 \text{ W/m}^2\text{K}$ |
| 17. Ark.          |                  | 7. Fatxada<br>$U = 0,750 \text{ W/m}^2\text{K}$ |




## II.2.2. Hiri-morfologia

Atal honetan Bilboko hiri-morfologiaren azterketa aurkezten da, eraikin-arketipo bakoitzaren propietate geometrikoak zehazteko burutu dena, hala nola, forma eta jarraitasuna. Hasieran, Bilboko hiri-garapen historikoa aztertzen da, hiriaren hiri-morfologia eremuak hobeto ulertu eta sailkatzeko. Ondoren, proposatu den metodologiaren bidez eraikin-arketipo bakoitzari bere forma eta jarraitasuna esleitzen zaio.

### II.2.2.1. Bilboko hiri-garapen historikoa

Bilboko hiri-garapenak bere izaera topografiko konplexuarekin ez ezik, lotura estua du garai bakoitzeko faktore historiko eta sozioekonomikoekin ere. XIX. mendearen amaieratik aurrera, eta XX. mendearen gehiengoan, bi arazo nagusi izan ziren. Batetik, lur-eskasia eta, bestetik, honekin eta landa-eremuetako etengabeko migrazioarekin erlazionatuta, langile-klaserako behar adina etxebizitza falta.

Sei mendetan zehar Bilbo merkataritza-hiria izan zen, Alde Zaharraren mugen barruan mantendu zena (II.2. Irudia). Merkataritza-hiri izaeratik hiri industrialerako aro aldaketaren unea 1876. urtean ezarri daiteke. Hirugarren Gerra Karlistaren amaierak eta, batez ere, Abando lautadaren Bilboko Hedapen Proiektuaren onarpenak, eraikitze-aldi garrantzitsu bati eman zioten hasiera, XIX. mendearen azken laurdenean hiriak jasan zuen meatzaritza-, industria- eta finantza-hazkundearekin batera gertatu zena.



II.2. Irudia: Bilbok 1873an zuen hedapena [112].

Abandoko Zabalgunea eraikitzeak, Nerbioi ibaiaren ezkeraldera zeharkatzea zekarrena, hamarkada asko iraun zuen. Campo Volantin eremuarekin batera, burgesiarentzat erreserbatuta egon zen hasieratik. Biztanleen gehiengoa, berriz, Alde Zaharra eta bere aldirietan pilatzen zen. XX. mendearen hasieran, lehenago Abandoko landa-lautada izan zena eraikinez beteta zegoen jada, Errekaldeko zumarkalean, San Mameseko zumarkalean eta Zababuruk itxitako eremuan. Bere hiri-morfologia XIX. mendeko bloke solido bereizgarriez osatuta zegoen, lur-zati erregularretan kokatuak.

Bitartean, Alde Zaharrean lursail hutsak bete eta fatxadak lerrokatu egin ziren arren, auzo berriak behar ziren immigrazioa egokitzeko. Erronda eta Iturribide kaleak lotzen dituen eremuranzko hedapena aipa daiteke hemen, geroago Solokoetxerantz luzatuko zena, edota

Atxuriko auzoa (Ollerías eremua) ere. Hala ere, Bilbo Zaharra izan zen garai hartan gehien hazi zen auzoa (II.3. Irudia).



II.3. Irudia: Bilbok 1901an zuen hedapena [112].

XIX. mendearen amaierako auzo berri guztietan antzeko eskema bat errepikatu zen: gehienez 6 solairuko apartamentu-blokeak eraiki ziren, beste eraikin batzuen artean kokatuak, patio txiki bat eta solairu bakoitzean bi etxebizitza zituztenak, kalearekiko simetrikoak izanez. Etxabeko etxebizitzak ez ziren ohikoak. Auzoen arteko ezberdintasunak eraikinaren kanpo-apaindurari eta etxebizitzaren azalerarekin lotuta zeuden. Azken hau 100 – 200 m<sup>2</sup> artean egon zitekeen Abandoko Zabalgunean, eta 40 – 80 m<sup>2</sup> bitartean aldirietan [112].

Alde Zaharraren eta haren aldirien pilaketak, Zabalguneko lurren kostu handiak eta inguruko eremu batzuen egoera juridiko bereziak (Udalak ez zuen horien gaineko zuzeneko aginpiderik), oso erakargarriak bihurtu zituzten azken eremu hauek. Horrela, Basurtu, Errekalde (Errekaldeberri, Iturrigorri, Larraskitu, Peñascal) edo Tivoliko hainbat sektore hazten hasi ziren, eta euren kontrol ezak 1906an ordenantza berriak onartzera behartu zuen Udala, eremu guztietan aplikatu behar zirenak.

Industrializazio azkarraren ondorioz, Bilboko eta bere inguruko populazioa 65.468 biztanletik 168.757 biztanlera igo zen 1877-1900 bitarteko aldirian. Osasungarritasun, produktibitate eta bake sozial arrazoiak zirela medio, etxebizitza sozialak eraikitze beharra onartu zen. Horrela, mende-aldaketak higienari, funtzionaltasunari edo itzulera ekonomikoari buruzko eztabaida ekarri zuen, geroago gerraosteko garaian zabaldu egingo da. 1910. urtera arte, etxebizitza-eskaintza merkatu libreko arauen mende zegoen soilik. Etxebizitza Merkeen Lehen Legearekin (1911), Administrazioak etxebizitza duinen eskaintza zerbitzu publiko gisa kontsideratzen hasi zen. Lege honek kooperatiba bidezko etxebizitzaren eraikuntza sustatu zuen, kenkari fiskalen, lurren desjabetzeen eta abarren bidez. Geroago, Etxebizitza Merkeen Bigarren Legeak (1921) eta Hirugarrenak (1924) lehenengoari jarraitu zioten.

Hasiera batean, lege horietaz baliatuz, Bilbon dentsitate handiko apartamentu-blokeak eraiki ziren Torre Urizar (Irala), Solokoetxe edota La Cruzen (Mallona). Baina Espainiako Gobernuaren dentsitate txikiko proiektuen alde agertu zen, egokiak ez zirenak langile-klasearen etxebizitza-eskasiari aurre egiteko. Gainera, diru-laguntzez baliatzeko gutxieneko errenta bat finkatu zen, handiegia zena langile-klasearentzat, eta jabetza sustatu zen alokairuaren ordez. Horrela, azkenean legeek klase ertainari egin zioten mesede batez ere.



II.4. Irudia: Torre Urizarreko eraikinak [118].

Horren ondorioz, lorategi-hiri periferikoko eredu bat nagusitu zen, Artxanda muinoaren hegaletan kokatutako familia bakarreko etxez osatuta zegoena (100 m<sup>2</sup>-tik gorako etxebizitza-azalerekin) [119]. Adibide gisa Ciudad Jardín (Uribarri), Zurbaran (Begoña), Buena Vista (Deustu) eta Talleres de Deusto (Deustu) aipa daitezke. Bilbon, aldiz, dentsitate txikiko etxebizitza gutxi eraiki ziren langileentzat. Hauek elementu apaingarririk gabeko barrakoi antzekoak ziren, lerro jarraitu eta paraleloetan eraikiak. Antigua Jabonera de Tapia y Sobrino (Zorrotza) edota Unión Begoñesa (Santutxu) dira honen adibide.

Guztira, 22 etxe merkeen kooperatiba eraiki ziren Bilbon 1911 eta 1936 bitartean, eta horietatik 5 baino ez ziren dentsitate handikoak [119]. Horrela, dentsitate txikiko etxe merkeen garapenak etxebizitza-eredu berri bat gauzatu zuen, argiaren eta aireztapenaren ideal higienikoari lotua, eta bloke solidoetan eraikitako apartamentu-eraikin tradizionaletatik urruntzen zena [118]. Hala ere, dentsitate txikiko etxe hauek lan honen analisitik kanpo geratu dira, familiabakarrekoak izateagatik edota euren solairu kopuru murriztuagatik.

Hala ere, etxebizitza merkeek periferiako eraikin gisa arrakasta izan arren, apartamentu-bloke tradizionalak jarraitu zuen eraikuntza-tipologia ohikoena izaten, 1906ko ordenantzen bidez sustatua. Izan ere, sektore pribatuak errendimendu ekonomikoa handiagoa lortzen zuen baimendutako gehieneko altuera zuten apartamentu-eraikinekin, dentsitatea ahalik eta gehien maximizatuz. Horrela, 6 eta 7 solairuko eraikinak ohikoak izan ziren garai hartan [118].

Dentsitate handiko eraikinen artean, apartamentu-bloke hauen alternatiba bat definitzeko saiakera bat Solokoetxen (1931) aurki daiteke, XIX. mendeko hiri-morfologiatik urrunduz. Emiliano Ammanek, Torre Urizarren oinarrituta, U formako eraikin bat diseinatu zuen, eremu libre eta irekiekin. Etxebizitza banaketaren ikuspegitik, korridoreak deuseztatu zituen espazio erabilgarria ahalik eta gehien ustiatzeko [118]. Proiektu horrek etxebizitza merkeen eta apartamentu-bloke tradizionalaren alternatiba gisa ekarritako gogoetak gerraostean hedatuko ziren.


Bitartean, Deustu eta Begoñaren anexioa gauzatu zen (1925), baina eremu horietako eraikuntza-jarduera ez zen diktadura frankistara arte hedatu. Gerra Zibilaren amaieran, Etxebizitza Sozialaren Legearen bidez (1939), Erregimenak etxebizitza sozialeko politika bati ekin zion eta bi estatu-entitate sortu ziren:

- *Instituto Nacional de Vivienda*, etxebizitzak ordenantzen bidez arautu eta diru-laguntzak kudeatzen zituena, 1957an Etxebizitza Ministerioa sortu zen arte.
- *Obra Sindical del Hogar y la Arquitectura, OSHA*, etxebizitzaren sustapen publikoa kudeatzeaz arduratzen zen erakunde eraikitzailea.

Lege berriaren helburua etxebizitza soziala sustatzea zen, etxebizitzaren prezioaren eta tamainaren (eta ez onuradunaren errentaren) araberako diru-laguntzekin. Arrazionalismoaren ideiekin bat eginez, eraikitzeko beste modu bat proposatu zen, XIX. mendeko zabalguneen hiri-morfologiaren espazioaren erabilera eta lorategi-hirien higie-abantailak batzen zituena. Eraikinak barne-lorategi patio baten inguruan bil zitekeen, edota bloke irekietan (linealak, U formakoak, H formakoak, etab.). Oro har, onartutako eraikinek 5 solairu zituzten gehienez [118].

Hala ere, etxebizitzaren banaketa (eta azalera) zaharkitutako familia ugari tradizionalarentzat bideratuta egoteak, etxebizitzaren jabetza sustatzeak eta errentagarritasun-irizpideen lehenesteak mugatu egin zuten, berriro ere, etxebizitza hauen hedapena, ez baitzeuden momentu hartako errealitatera egokituta. Gainera, erregimen berriaren ideologiarekin bat, landa etxebizitzak sustatu ziren batez ere [118].

Garai horretan, porrot finantzarioko egoeran zegoen Bilboko Udalak bi modu nagusitan saiatu zen etxebizitzaren eraikuntza sustatzen. Alde batetik, Etxebizitza Sozialaren Legeak ezarritako finantziarioaz baliatzen saiatu zen, 1.000 etxebizitza berri eraikitzea proposatuz. Etxebizitza horiek hiriaren periferian banatzen ziren (Solokoetxe, Santutxu, Basurtu, Deustu), eta finantziario handia eskatzen zuten. Azkenean, finantziario-ekasiala zela eta, proposamen gehienak baztertu behar izan ziren, eta Bilboko Udalak *Viviendas Municipales Sociedad en Comandita* sozietate berria sortu zuen, akzioen bidez kapital pribatua erakartzeko. Torre Madariaga (Deustu) taldea sustatu zen horrela, non bederatzi bloke lineal eta paralelo eraiki ziren 1941 eta 1951 artean. Guztira 685 etxebizitza, 4 solairutan banatuak, eta 52 – 80 m<sup>2</sup> bitarteko azalera zutenak. Torre Madariagak beharrezko etxebizitza-azalera minimoa eta arrazionalismoaren jolas-eremu irekien kontzeptu higienikoa konbinatu zituen [119].



II.5. Irudia: Bilboko mapa topografikoa, 1943 [119].

Aldi berean, Bilboko Udala Indautxun eta San Mamesen inbertsio pribatua sustatzen saiatu zen, zerga politika berriekin eta urbanizazioa hobetuz. Sortutako etxebizitza-agentziekin klase

altu eta ertainari bideratutako inbertsioak handitzen hasi ziren. 1939an Udalari eskatutako Zabalgunerako eraikuntza-lizentziak 4 baino ez baziren izan, 1944an 30 lizentzia baino gehiago eskatu ziren [119].

Bitartean, 1943an Lehen Etxebizitza Plana aurkeztu zen hamar urtetan 1.396.257 etxebizitza eraikitzeko helburuarekin, Estatuak %25 finantzatuta. Honekin lotuta 1945ean OSHA 1.069 etxebizitza eraikitzen hasi zen Bilbon, San Inazio auzoa sortuz, garai hartako proiektu handienaren bidez (1950ean amaitu zen). Hiri-morfologiari dagokionez, 60 – 100 m<sup>2</sup>-ko etxebizitzak 4-5 solairuko bloke linealetan banatu ziren. Bloke paraleloak, U formakoak edota barne-patioa zuten etxadi itxiak eratzen zituzten, argia eta aireztapena bilatuz eta, horrela, XIX. mendeko bloke itxietatik desberdinduz.

Torre Madariagaren finantzaketaren soberakinekin, 1949an Udalak beste etxebizitza-talde handi bat sustatu zuen Santutxun. Parroco Unceta izeneko talde hau bloke lineal eta paraleloetan banatzen zen, Torre Madariaga bezala, baina etxebizitzetara dagokionez “etxebizitza minimo” kontzeptua aztertu zuen. 528 etxebizitzek 45 eta 79 m<sup>2</sup> bitarteko azalera zuten. Solokoetxe eta Corteseko promozioak ere aipa litezke Udalak sustatutako etxebizitzaren adibide gehigarri (eta txikiago) gisa. Guztira, 1937 eta 1950 artean Bilbon 2.000 etxebizitza publiko inguru eraiki ziren, %50 inguru Udalak sustatuta eta beste %50 estatuak (OSHAk San Inazio) [118].

Erakunde publikoek etxebizitza eta eraikin-blokeen banaketa berriak probatzen zituzten bitartean, “etxebizitza minimoaren” kontzeptuaren arabera, sektore pribatuak sustatutako etxebizitzek ez zuten berrikuntzarik sartu. Errentagarritasun handiena bilatzen jarraitu zuten, eraikinaren altuera maximizatzen eta eraikin-patioak minimizatzen zituzten apartamentu-bloke tradizionalen bidez. Horrela, Indautxu and Campo Volantinen XIX. mendeko hiri-morfologia hedatzen jarraitu zen.

Laburbilduz, 1950erako onartuta zegoen etxebizitzaren arazoari aurre egiteko irtenbiderik onena eraikin-blokeak zirela, aurretiko etxe merkeen dentsitate baxuko kontzeptuak eta diktaduraren hasierako landa-esperientziak porrot egin ondoren. Hala ere, sustatutako etxebizitza-kopurua Lehen Etxebizitza Planak espero zuena baino askoz txikiagoa izan zen eta, Bilbon, barriadak ugaritu egin ziren [119].

Horren aurrean, Estatuak 1954ean Errenta Mugatuko Etxebizitzaren Legea onartu zuen, “etxebizitza minimoko” kontzeptua sustatuz (ordutik aurrera, zenbat eta txikiagoa izan etxebizitzaren prezioa, orduan eta handiagoa zen finantziarioa) eta, ondoren, Etxebizitzaren Plan Nazionala, hura kudeatzeko. Bilbon, Plan horretaz baliatutako lehen promozioak Torre Urizar eta Errekalden kokatutako 1.000 etxebizitza izan ziren. Horietatik, %80ak 50 – 60 m<sup>2</sup> zituzten [119]. Geroago, 1957an sortutako Etxebizitzaren Ministerioaren politikak etxebizitza publikozko ekimenetik sektore pribaturanzko aldaketa eragin zuen. Aspektu ekonomikoek lehenetsia izan zuten, eraikigarritasun parametroak handituz.

Hala ere, 50. hamarkadaren amaieran, etxebizitzarekin lotutako larrialdi sozialak, Bilboko muinoetan zehar barreiatutako barriadekin, zuzenean 3.572 etxebizitza finantzatzera bultzatu zuen Gobernuak, Otxarkoagako auzoa sortuz. Bere hiri-morfologia berria poligonoetan oinarritzen zen, 50 – 70 m<sup>2</sup>-ko etxebizitzak, batez ere, 6 solairura bitarteko bloke linealetan banatuz eta altuagoak ziren dorreak ere tartekatuz.



#### II.6. Irudia: Otxarkoaga auzoa [119].

Otxarkoagaren proiektua 1959ko abenduan aurkeztu zen eta 1961ean bukatu. Estilo arrazionalistaren kasu paradigmaticoa da, Gerra Zibila baino lehen sortu zenetik atzerapen handiarekin hedatu zena, 1950eko hamarkadan pixkanaka haziz eta 60ko hamarkadan nagusi bihurtuz. Horrela, Desarrollismo garaian zehar estilo horretako auzo periferiko berriak sortu ziren, euren eraikinen altueraren hazkundea oso bereizgarria izanik (70eko hamarkadaren hasieran, Pariseko eta Madrilgo biztanle-dentsitatea 356 eta 384 bizt./ha zen, hurrenez hurren; Bilbon, berriz, 543 bizt./ha [120]).

Garai hartako proiektu nagusiak Begoña eta Txurdinagakoak ziren non, 1961 planen arabera, 6.954 eta 3.924 etxebizitza eraikitzea espero zen, hurrenez hurren [120]. Baina arauekin eta hiri-kudeaketarekin lotutako kontuek eraikuntza-helburuen porrota eragin zuten. 70eko hamarkada arte, Udalak eta Etxebizitza Ministerioak planen zenbait berrikuspen jarraitu egin zituzten eta, ondorioz, hasierako proiektuen espiritua lausotu egin zen, eremu horien azken hiri-forma aurreikustea zailduz. Plangintza egin eta 20 urtera, hasieran espero ziren 10.470 etxebizitzetatik 2.128 baino ez ziren eraiki, Begoña eta Txurdinaga artean. Horrela, neurri handi batean, Txurdinaga auzoa 80ko hamarkadako bilakaeraren emaitza da, bere bizitegi-dorre independente bereizgarri gehienak eraiki zirenean.

Begoña eta Txurdinagaren hiri-diseinuari buruzko etengabeko ziurgabetasuna garai hartako eraikitze-boomean Bilbok izandako hazkunde anarkikoaren sintomatikoa da. Hiria modu anarkikoan eta ekimen independenteen bidez hazi zen, eta Udala ez zen gai izan espekulazioa geldiarazteko eta antolaketa nahikoa ezartzeko.

80ko hamarkadarako eraikuntzaren goraldia bukatuta zegoen. Hortik aurrera, bizitegi-eraikin berriak tarte irregularretan eraiki ziren, hirian zehar nahiko banatuta. Bi gune adierazgarri aipa daitezke hemen: Amezola eta Miribilla. Amezolan 900 etxebizitza eraiki ziren, 15 solairuko dorreetan banatuak, lehenago tren geltoki batek betetzen zuen eremuan. Miribilla 1999an urbanizatu zen eta 1.000 etxebizitza berri inguru eraiki ziren orduetik aurrera.

#### II.2.2.2. Eraikin-arketipoen forma eta jarraitasuna

II.2.2.2.1. atalak Bilbo hiriaren bilakaera historiko orokorra aztertzen du, auzo ezberdinei dagokien hiri-morfologia azaltzen duena. Hala ere, eraikin-arketipoen simulazio energetikoa

burutzeko, bakoitzaren forma eta jarraitutasuna zehaztu beharra dago. Horretarako, metodologian azaldutako prozedura aplikatzen da.

Lehenik eta behin, Bilboko hiri-morfologiak aztertzen dira, hau da, eraikinek osatzen dituzten hiri-ehun ezberdinak, prozedura aplikatzean kontuan hartuko diren hiri-formak identifikatzeko.

Ondoren, eraikin-arketipo bakoitza gehien kontzentratzen den auzoak analizatzen dira, arketipoarekin lotutako auzo horietako hiri-forma nagusia ebaluatuz. GeoBilbao [121] tresna erabiliz, auzo edo hiri-eremu bakoitzaren adin-mapak eraikitzen dira, non eraikin bakoitzari dagokion eraikuntza-aldia identifikatzen den. Bizkaiko katastroarekin, eraikinen solairu kopurua ebaluatzen da. Eraikitako 27 adin-mapen bi adibide II.7. Irudian azaltzen dira, kasu honetan San Ignazio eta Errekalde auzoei dagozkienak.



II.7. Irudia: San Ignazio eta Errekalde auzoen adin-mapak.

#### II.2.2.2.1. Kotsideratutako hiri-morfologia motak

Aurkeztutako bost hiri-morfologietatik abiatuz, Bilboren kasuan egiazta daiteke 2., 3. eta 4. hiri-forma moduan definitutakoak oso antzekoak direla eraikinen formari eta jarraitutasunari dagokienez. Azterketa honek ez du kanpoko itzalen ebaluazioan sakontzen, ezta tokiko aire-fluxuaren ereduaren azterketan ere; beraz, barne-patioa duten bloke itxia zein irekia bloke linealari hurbil dakieke.

Horren arabera, lan honetan kontsideratutako 3 hiri-morfologia nagusiak II.18. Taulan erakusten dira. Bakoitzari jarraitutasun-indize bat esleitu zaio, hiri-forma horretan kokatuko litzatekeen eraikin batek inguruko eraikinekin kontaktuan izango lukeen alde kopurua adierazten duena. Bloke solidoen barruan egon daitezkeen patio txikiak ez dira kontutan hartzen.

**II.18. Taula: analisisan kontsideratutako 3 hiri-morfologiak.**

|   | Hiri-morfologia mota | Esleitutako jarraitutasun-indizea  |
|---|----------------------|--|
| 1 | Bloke solidoa        | Inguratzaile termikoaren 4 aldeetatik 3 kontaktuan beste eraikin batzuekin |
| 2 | Bloke lineala        | Inguratzaile termikoaren 4 aldeetatik 2 kontaktuan beste eraikin batzuekin |
| 3 | Eraikin bereizia     | Ez dago inguratzailearen zatirik beste eraikin batzuekin kontaktuan        |

*II.2.2.2.2. Eraikinen Azterketa Teknikoen analisia*

Fatxadari buruzko informazioaz gain, EATen txostenek eraikin bat kokatzen den hiri-morfologiari buruzko informazioa ere ematen dute. Beraz, EATen erregistro publikoa [116] informazio-iturri interesgarria izan daiteke ere puntu honetan.

EAT ebaluazio-txostenak bost “eraikuntza-tipologia” bereizten ditu: hiri-bloke baten barruan (“en manzana”), bloke baten barruan (“en bloque”), eraikin berezian (“exenta”), mehelinen artean (“entre medianeras”) eta izkinan (“en esquina”).

Oro har, lehenengo hiru eraikuntza-tipologiak ebaluazio honetan definitutako bloke solidoko, bloke linealeko eta eraikin bereiziko hiri-morfologiei dagozkie, hurrenez hurren. Baina EATen sailkapena dela eta, baliteke eraikin batek tipologia bat baino gehiago betetzea. Adibidez, “hiri-bloke baten barruan” dagoen eraikin bakoitza ere “mehelinen artean” egon daiteke. Izan ere, EATko ohar batzuek tipologia bat baino gehiago adierazten dituzte aldi berean.

Hala ere, salbuespen bat dira, EATko ohar gehienek eraikuntza-tipologia bakarra adierazten baitute. Beraz, “mehelinen artean” edo “izkinan” moduan deskribatzen diren eraikinak, izan daiteke “hiri-bloke baten barruan” edota “bloke baten barruan” kokatzea. Ezin da jakin berariazko eraikina bilatu gabe.

Gainera, lan honetan egindako hiri-formen sailkapena kontuan hartuta, definitutako bloke solidoa ez dator guztiz bat EATen “hiri-bloke baten barruan” tipologiarekin. Egia esan, azken tipologia hori kanpo-fatxadek osatzen duten hiri-ehunean enfokatuta dago eta, beraz, barne-patioa duten bloke irekiak zein itxiak hartzen ditu barne. Azken hauek, ordea, lan honetan bloke linealtzat hartzen dira.

Hau guztia dela eta, azkenenean baztertu egiten da EATen txostenak erabiltzea eraikinen hiri-morfologiari buruzko informazio estatistikoa lortzeko.

Laburbilduz, eraikinen modelizazio energetikorako datu-iturri garrantzitsua bihur liteke EATen erregistro publikoa. Fatxadako eraikuntza-datuez gain, eraikinen hiri-formak sailkatzen lagun lezake. Zentzu honetan, oso interesgarria dirudi, estatistika-xedeetarako, EATak bereizten duen “izkina-eraikinaren” tipologia. Hala ere, hau posible izateko arreta handiagoa jarri beharko litzaioke zenbait xehetasuni, hala nola eraikuntza-tipologiaren adierazpenari, EAT burutzean ahalegin handiagorik suposatu gabe.



### II.2.2.2.3. Forma eta jarraitutasunaren esleipena

Zortzi hiri-barruti daude Bilbon, II.19. Taulan laburbiltzen direnak.

II.19. Taula: Bilboko hiri-barrutiak eta auzoak.

|   | Hiri-barrutia           | Hiri-barrutia osatzen duten auzoak   |
|---|-------------------------|--|
| 1 | Deustu                  | Arangoiti, Ibarrekolanda, San Ignazio-Elorrieta eta Deustu   |
| 2 | Uribarri                | Gazteleku, Matiko-Lorategi hiria, Uribarri eta Zurbaran-Arabella   |
| 3 | Otxarkoaga – Txurdinaga | Otxarkoaga eta Txurdinaga  |
| 4 | Begoña                  | Begoña, Bolueta eta Santutxu   |
| 5 | Ibaiondo                | Atxuri, Bilbo Zaharra, Zazpikaleak, Iturralde, La Peña, Miribilla, Adrian Deuna, San Frantzisko, Buia, Solokoetxe eta Zabala |
| 6 | Abando                  | Abando eta Indautxu  |
| 7 | Errekalde               | Ametzola, Iralabarri, Iturrigorri-Peñaskal, Errekaldeberri-Larraskitu eta Uretamendi   |
| 8 | Basurtu – Zorrotza      | Altamira, Basurtu, Olabeaga, Masustegi-Mintegitueta eta Zorrotza   |

Hiriko barrutien banaketa espaziala II.8. Irudian erakusten da.



II.8. Irudia: Bilboko hiri-barrutien banaketa espaziala.

Eraikin-arketipoak osatzen dituzten etxebizitza adierazgarrien hiri-barrutiaren arabera banaketa espaziala II.20. Taulan erakusten da [50]. Koloreztatutako zeldek etxebizitza adierazgarri bakoitza kontzentratzen den hiri-barrutiak erakusten dituzte. Hauen hiri-morfologia da xehetasunez aztertu dena. Azken zutabeak analisi sakonago honetan sartutako etxebizitza adierazgarrien zatia adierazten du.

**II.20. Taula: etxebizitza adierazgarrien banaketa espaziala, hiri-barrutiaren arabera.**

| Etxebizitza adierazgarria | Hiri-barrutiak |          |                       |        |          |        |           |                  | Aztertutako guztizko etxebizitzen zatia |
|---------------------------|----------------|----------|-----------------------|--------|----------|--------|-----------|------------------|---|
|                           | Deustu         | Uribarri | Otxarkoaga Txurdinaga | Begoña | Ibaiondo | Abando | Errekalde | Basurtu Zorrotza |   |
| EA 1                      | %11,90         | %16,29   |                       | %14,80 | %23,65   |        | %20,91    | %12,45           | %75,65                                  |
| EA 2                      | %33,93         | %9,74    |                       | %6,89  | %29,96   |        | %13,33    | %6,14            | %77,23                                  |
| EA 3                      | %13,96         | %6,76    |                       | %1,80  | %24,55   | %26,35 | %17,45    | %9,12            | %82,32                                  |
| EA 4                      | %5,76          | %4,55    |                       | %2,07  | %21,63   | %40,27 | %13,85    | %11,87           | %87,62                                  |
| EA 5                      |                |          |                       |        | %9,45    | %90,55 |           |                  | %90,55                                  |
| EA 6                      |                |          |                       |        | %7,37    | %92,63 |           |                  | %92,63                                  |
| EA 7                      | %9,98          | %24,94   | %25,02                | %14,80 | %4,42    |        | %17,99    | %2,86            | %82,75                                  |
| EA 8                      | %21,66         | %30,23   | %1,96                 | %12,21 | %6,32    |        | %20,13    | %7,49            | %84,23                                  |
| EA 9                      | %10,21         | %10,38   | %14,91                | %19,69 | %17,55   | %4,70  | %15,24    | %7,33            | %67,38                                  |
| EA 10                     | %16,46         | %8,71    | %1,36                 | %27,27 | %14,66   | %5,18  | %14,33    | %12,02           | %72,73                                  |
| EA 11                     | %25,35         | %10,38   |                       | %17,96 | %2,99    | %25,95 | %2,79     | %14,57           | %83,83                                  |
| EA 12                     | %13,29         | %9,93    | %14,90                | %47,11 | %5,37    | %3,49  | %3,22     | %2,68            | %75,30                                  |
| EA 13                     | %20,42%        | %14,66   | %10,49                | %23,47 | %12,54   | %2,88  | %9,53     | %6,01            | %71,09                                  |
| EA 14                     | %17,12         | %20,02   | %16,58                | %7,10  | %6,57    | %10,87 | %16,36    | %5,38            | %70,08                                  |
| EA 15                     | %7,79          |          | %47,21                | %4,88  | %17,33   |        | %3,84     | %18,95           | %83,49                                  |
| EA 16                     | %16,08         | %2,59    | %4,77                 | %6,95  | %32,78   | %4,05  | %16,29    | %16,49           | %81,64                                  |
| EA 17                     | %4,91          |          | %31,01                | %4,65  | %24,81   |        | %28,94    | %5,68            | %84,75                                  |

Eraikin-arketipo bakoitzerako identifikatutako hiri-barruti nagusietan arreta jarritz (kolorezko zeldak), arketiporekin lotutako hiri-formaren tipologia aztertzen da. Arketipo-barruti multzo bakoitza banan-banan ebaluatzen da, eraikin-arketipoaren kokapen nagusiak identifikatuz eta horiekin lotutako hiri-morfologia ebaluatuz. Kasu gutxi batzuetan, ez da hiri-forma argirik egiaztatu. II.21. Taulan arketipo bakoitzaren ebaluazioaren emaitzak jaso dira.

II.21. Taula: eraikin-arketipo bakoitzaren hiri-morfologiaren ebaluazioa.

| Eraikin-arketipoa | Eraikitze-aldia | Ezaugarriak                            | Hiri-barrutia | Eraikin tipologiarekiko zatia (%) | Eraikinen kokapena  | Hiri-forma nagusia  |
|-------------------|-----------------|--|---------------|-----------------------------------|---|---|
| 1. Ark            | < 1960          | 4 - 6 solairu & < 60 m <sup>2</sup>    | Ibaiondo      | %23,65                            | Gehiengoa Zazpikaleetan eta Bilbo Zaharran kontzentratzen dira, non ia eraikin guztiak 1960a baino lehen eraiki ziren, bloke solidoak osatuz.<br><br>Abusun, Miribillan and Adrian Deunan eraikinak 1960tik aurrera eraiki ziren. | Bloke solidoa   |
|                   |                 |  | Errekalde     | %20,91                            | Errekaldeko erdialdean (Gordonizen mendebaldean: Camilo Villabaso, etab.), Artazubekoan (Eskurtze parkearen inguruak) eta Iralabarrin (Kirikiño, Irala, Torre Urizar, etab.) kokatuak.  | Bloke lineala   |
|                   |                 |  | Uribarri      | %16,29                            | Hiri-morfologia nagusirik gabe.<br><br>Bloke solidoak eta bloke linealak daude Uribarriren beheko partean (Gazteleku, Huertas de la Villa...) zein goiko partean (Matiko, Uribarri, Trauko...).                                   | Hiri-morfologia nagusirik gabe: bloke solidoak eta bloke linealak |
|                   |                 |  | Begoña        | %14,80                            | Basarrate zelaiaren goikaldean Almería, Alicante, Albacete, etab., kaleak) eta Parroco Unceta gunean kontzentratuta.  | Bloke lineala   |
| 2. Ark            | < 1960          | 4 - 6 solairu & 60 - 90 m <sup>2</sup> | Deustu        | %33,93                            | Batez ere San Ignazio kokatuak, Lehendakari Aguirre zumarkalearen iparraldean.<br><br>Deustun ere, Madariaga eta Blas de Otero gunean.  | Bloke lineala   |
|                   |                 |  | Ibaiondo      | %29,96                            | Gehiengoa Zazpikaleetan eta Bilbo Zaharran kontzentratzen dira, non ia eraikin guztiak 1960a baino lehen eraiki ziren, bloke solidoak osatuz.<br><br>Abusun, Miribillan and Adrian Deunan eraikinak 1960tik aurrera eraiki ziren. | Bloke solidoa   |
|                   |                 |  | Errekalde     | %13,33                            | Errekaldeko erdialdean (Gordonizen mendebaldean: Camilo Villabaso, etab.), Artazubekoan (Eskurtze parkearen inguruak) eta Iralabarrin (Kirikiño, Irala, Torre Urizar, etab.) kokatuak.  | Bloke lineala   |
| 3. Ark            | < 1960          | 7 - 9 solairu & < 60 m <sup>2</sup>    | Abando        | %26,35                            | Zabalgunean eta Indautxun, bietan da bloke solidoa nagusi.  | Bloke solidoa   |
|                   |                 |  | Ibaiondo      | %24,55                            | Gehiengoa Zazpikaleetan eta Bilbo Zaharran kontzentratzen dira, non ia eraikin guztiak 1960a baino lehen eraiki ziren, bloke solidoak osatuz.<br><br>Abusun, Miribillan and Adrian Deunan eraikinak 1960tik aurrera eraiki ziren. | Bloke solidoa   |



|        |             |   |                                |        |  |   |
|--------|-------------|---|--------------------------------|--------|--|---|
|        |             |   | <b>Errekalde</b>               | %17,45 | Badaude bloke linealeko eraikin batzuk Gordonizeko goikaldean (Errekaldeberrin) eta Iralabarrin.<br><br>Baina eraikinen gehiengoa Autonomia kalea eta Ametzola parkearen artean kokatzen dira, Labayru, Zugastinovia eta Errekaldeko Zumarkalearen eremuetan. Gune horiek Abando auzoarekin mugakideak dira eta bloke solidoa da nagusi. | Bloke solidoa   |
|        |             |   | <b>Deustu</b>                  | %13,96 | Deustu auzoan zehar banatuak, hiri-morfologia argirik gabe.  | Hiri-morfologia nagusirik gabe: bloke solidoak eta bloke linealak |
| 4. Ark | < 1960      | 7 - 9 solairu & 60 - 90 m <sup>2</sup>  | <b>Abando</b>                  | %40,27 | Zabalgunean eta Indautxun, bietan da bloke solidoa nagusi.   | Bloke solidoa   |
|        |             |   | <b>Ibaiondo</b>                | %21,63 | Gehiengoa Zazpikaleetan eta Bilbo Zaharran kontzentratzen dira, non ia eraikin guztiak 1960a baino lehen eraiki ziren, bloke solidoak osatuz. Abusun, Miribillan and Adrian Deunan eraikinak 1960tik aurrera eraiki ziren.   | Bloke solidoa   |
|        |             |   | <b>Errekalde</b>               | %13,85 | Badaude bloke linealeko eraikin batzuk Gordonizeko goikaldean (Errekaldeberrin) eta Iralabarrin.<br><br>Baina eraikinen gehiengoa Autonomia kalea eta Ametzola parkearen artean kokatzen dira, Labayru, Zugastinovia eta Errekaldeko Zumarkalearen eremuetan. Gune horiek Abando auzoarekin mugakideak dira eta bloke solidoa da nagusi. | Bloke solidoa   |
|        |             |   | <b>Basurtu - Zorrotza</b>      | %11,87 | Aita Donostia plazaren ingurunean eta Sabino Arana eta Luis Briñas kaleen artean kontzentratuta. Zorrotzako bloke linealak solairu gutxiagokoak dira (3-4 normalean).  | Bloke solidoa   |
| 5. Ark | < 1960      | 7 - 9 solairu & 90 - 120 m <sup>2</sup> | <b>Abando</b>                  | %90,55 | Zabalgunean eta Indautxun, bietan da bloke solidoa nagusi.   | Bloke solidoa   |
| 6. Ark | < 1960      | 7 - 9 solairu & > 120 m <sup>2</sup>    | <b>Abando</b>                  | %92,63 | Zabalgunean eta Indautxun, bietan da bloke solidoa nagusi.   | Bloke solidoa   |
| 7. Ark | 1960 - 1980 | 4 - 6 solairu & < 60 m <sup>2</sup>     | <b>Otxarkoaga - Txurdinaga</b> | %25,02 | Otxarkoaga auzoaren gehiengoa mota honetako eraikinez osatuta dago, beti bloke linealak osatuz.  | Bloke lineala   |
|        |             |   | <b>Uribarri</b>                | %24,94 | Batez ere Zumalakarregi Etorbidearen iparraldean, ze Campo Volantinen eta Gaztelekun 7-9 solairuko eraikinak direlako nagusi.<br><br>Bloke lineala da nagusi, Begoñako Andramari, Zurbaranbarri, Sarrikue, Arabella, Zumaia etab. taldeetan ohikoa.  | Bloke lineala   |



|               |                    |  |                  |        |  |   |
|---------------|--------------------|--|------------------|--------|--|---|
|               |                    |  | <b>Errekalde</b> | %17,99 | Bloke lineala da nagusi.<br>Errekaldeberrin, batez ere Uretamendi eta Bizkargi/Filomena Baldezate guneeetan.<br>Iralabarrin, batez ere Irala eta Kirikiño kaleen goikaldean kokatuta.  | Bloke lineala   |
|               |                    |  | <b>Begoña</b>    | %14,08 | Hiri-morfologia nagusirik gabe.<br>Badaude bloke solido batzuk Basarrate zelaiaren ingurunean.<br>Baina badaude ere bloke linealak auzoan zehar sakabanatuta.  | Hiri-morfologia nagusirik gabe: bloke solidoak eta bloke linealak |
| <b>8. Ark</b> | <b>1960 - 1980</b> | <b>4 - 6 solairu &amp; 60 - 90 m<sup>2</sup></b> | <b>Uribarri</b>  | %30,23 | Batez ere Zumalakarregi Etorbidearen iparraldean, ze Campo Volantinen eta Gaztelekun 7-9 solairuko eraikinak direlako nagusi.<br><br>Bloke lineala da nagusi, Begoñako Andramari, Zurbaranbarri, Sarrikue, Arabella, Zumaia etab. taldeetan ohikoa.  | Bloke lineala   |
|               |                    |  | <b>Deustu</b>    | %21,66 | Batez ere San Ignazio kokatuak, Lehendakari Aguirre Etorbidearen eta Nerbioi ibaiaren arteko eremuan.  | Bloke lineala   |
|               |                    |  | <b>Errekalde</b> | %20,13 | Bloke lineala da nagusi.<br>Errekaldeberrin, batez ere Uretamendi eta Bizkargi/Filomena Baldezate guneeetan.<br>Iralabarrin, batez ere Irala eta Kirikiño kaleen goikaldean kokatuta.  | Bloke lineala   |
|               |                    |  | <b>Begoña</b>    | %12,21 | Hiri-morfologia nagusirik gabe.<br>Badaude bloke solido batzuk Basarrate zelaiaren ingurunean.<br>Baina badaude ere bloke linealak auzoan zehar sakabanatuta.  | Hiri-morfologia nagusirik gabe: bloke solidoak eta bloke linealak |
| <b>9. Ark</b> | <b>1960 - 1980</b> | <b>7 - 9 solairu &amp; &lt; 60 m<sup>2</sup></b> | <b>Begoña</b>    | %19,69 | Batez ere ipar-mendebaldeko eremuan, Solokoetxe eta Zazpikaleekin gunen mugakideetan: Fika kalearen goikaldean, Marcelino Menendez Pelayo, Remigio Gandasegui, Caserío Landaburu eta Juan de Gardeazabal eremuak, etab.<br><br>Baita ipar-ekialdean ere, Iturriagaren goikaldean eta Luis Echevarría eremua. | Bloke lineala   |
|               |                    |  | <b>Ibaiondo</b>  | %17,55 | Abusun kontzentratuta, Zamakona kalea.   | Bloke lineala   |



|                |                    |   |                                |        |   |   |
|----------------|--------------------|---|--------------------------------|--------|---|---|
|                |                    |   | <b>Errekalde</b>               | %15,24 | Hiri-morfologia nagusirik gabe.<br><br>Badaude bloke solidoak Autonomia kalea eta Ametzola parkearen arteko eremuan eta Zabalburun (Lapurdi, Pablo Picasso, etab.)<br><br>Errekaldeberrin bloke lineala da nagusi, auzoaren erdialdean kokatuta.  | Hiri-morfologia nagusirik gabe: bloke solidoak eta bloke linealak |
|                |                    |   | <b>Otxarkoaga - Txurdinaga</b> | %14,91 | Otxarkoaga auzoan kontzentratuta, non eraikin mota hau 4-6 solairukoak baino ezohikoagoa da.  | Bloke lineala   |
| <b>10. Ark</b> | <b>1960 - 1980</b> | <b>7 - 9 solairu &amp; 60 - 90 m<sup>2</sup></b>  | <b>Begoña</b>                  | %27,27 | Batez ere ipar-mendebaldeko eremuan, Solokoetxe eta Zazpikaleekin gunen mugakideetan: Fika kalearen goikaldean, Marcelino Menendez Pelayo, Remigio Gandasegui, Caserío Landaburu eta Juan de Gardezabal eremuak, etab.<br><br>Baita ipar-ekialdean ere, Iturriagaren goikaldean eta Luis Echevarría eremua. | Bloke lineala   |
|                |                    |   | <b>Deustu</b>                  | %16,46 | Hiri-morfologia nagusirik gabe.<br><br>San ignazioz bloke linealak dira nagusi, baina Deustun bloke solidoak eta linealak daude.  | Hiri-morfologia nagusirik gabe: bloke solidoak eta bloke linealak |
|                |                    |   | <b>Ibaiondo</b>                | %14,66 | Abusun kontzentratuta, Zamakona kalea.  | Bloke lineala   |
|                |                    |   | <b>Errekalde</b>               | %14,33 | Hiri-morfologia nagusirik gabe.<br><br>Badaude bloke solidoak Autonomia kalea eta Ametzola parkearen arteko eremuan eta Zabalburun (Lapurdi, Pablo Picasso, etab.)<br><br>Errekaldeberrin bloke lineala da nagusi, auzoaren erdialdean kokatuta.  | Hiri-morfologia nagusirik gabe: bloke solidoak eta bloke linealak |
| <b>11. Ark</b> | <b>1960 - 1980</b> | <b>7 - 9 solairu &amp; 90 - 120 m<sup>2</sup></b> | <b>Abando</b>                  | %25,95 | Zabalgunean eta Indautxun, bietan da bloke solidoa nagusi.  | Bloke solidoa   |
|                |                    |   | <b>Deustu</b>                  | %25,35 | Hiri-morfologia nagusirik gabe.<br><br>San ignazioz bloke linealak dira nagusi, baina Deustun bloke solidoak eta linealak daude.  | Hiri-morfologia nagusirik gabe: bloke solidoak eta bloke linealak |
|                |                    |   | <b>Begoña</b>                  | %17,96 | Batez ere ipar-mendebaldeko eremuan, Solokoetxe eta Zazpikaleekin gunen mugakideetan: Fika kalearen goikaldean, Marcelino Menendez Pelayo, Remigio Gandasegui, Caserío Landaburu eta Juan de Gardezabal eremuak, etab.<br><br>Baita ipar-ekialdean ere, Iturriagaren goikaldean eta Luis Echevarría eremua. | Bloke lineala   |



|         |             |  |                                |        |  |   |
|---------|-------------|--|--------------------------------|--------|--|---|
|         |             |  | <b>Basurtu - Zorrotza</b>      | %14,57 | Hiri-morfologia nagusirik gabe.<br>Zorrotzan bloke lineala ohikoagoa da, baina Ferrocarril eta Luis Briñasen arteko gunean bloke solidoa da nagusi.                              | Hiri-morfologia nagusirik gabe: bloke solidoak eta bloke linealak   |
| 12. Ark | 1960 - 1980 | > 10 solairu & < 60 m <sup>2</sup>     | <b>Begoña</b>                  | %47,11 | Batez ere Santutxuren hego-ekialdean, Boluetarekin eta Europa parkearekin gune-mugakideetan (Sagarminaga, Iturriaga, Azurleku, etab.)  | Bloke lineala   |
|         |             |  | <b>Otxarkoaga - Txurdinaga</b> | %14,90 | Batez ere eraikin bereziak, Otxarkoagan eta Txurdinagako iparraldean nagusi direnak.<br>Halere, Txurdinagan badaude ere bloke linealak, Europa parkearen iparraldean.            | Eraikin berezia   |
|         |             |  | <b>Deustu</b>                  | %13,29 | Batez ere Elorrietan (iparraldean) eta Sarrikon.   | Bloke lineala   |
| 13. Ark | 1960 - 1980 | > 10 solairu & 60 - 90 m <sup>2</sup>  | <b>Begoña</b>                  | %23,47 | Batez ere Santutxuren hego-ekialdean, Boluetarekin eta Europa parkearekin gune-mugakideetan (Sagarminaga, Iturriaga, Azurleku, etab.)  | Bloke lineala   |
|         |             |  | <b>Deustu</b>                  | %20,42 | Batez ere Elorrietan (iparraldean) eta Sarrikon.   | Bloke lineala   |
|         |             |  | <b>Uribarri</b>                | %14,66 | Hiri-morfologia nagusirik gabe.<br>Zumalakarregi Etorbidearen iparraldean bloke linealak daude, eta baita eraikin bereziak ere.  | Hiri-morfologia nagusirik gabe: bloke linealak eta eraikin bereziak |
|         |             |  | <b>Ibaiondo</b>                | %12,54 | Abusun kontzentratuta, Zamakona kalea.   | Bloke lineala   |
| 14. Ark | 1960 - 1980 | > 10 solairu & 90 - 120 m <sup>2</sup> | <b>Uribarri</b>                | %20,02 | Hiri-morfologia nagusirik gabe.<br>Zumalakarregi Etorbidearen iparraldean bloke linealak daude, eta baita eraikin bereziak ere.  | Hiri-morfologia nagusirik gabe: bloke linealak eta eraikin bereziak |
|         |             |  | <b>Deustu</b>                  | %17,12 | Batez ere Elorrietan (iparraldean) eta Sarrikon.   | Bloke lineala   |
|         |             |  | <b>Otxarkoaga - Txurdinaga</b> | %16,58 | Batez ere eraikin bereziak, Otxarkoagan eta Txurdinagako iparraldean (Garaizar) nagusi direnak.<br>Halere, Txurdinagan badaude ere bloke linealak, Europa parkearen iparraldean. | Eraikin berezia   |



|         |             |  |                                |        |   |   |
|---------|-------------|--|--------------------------------|--------|---|---|
|         |             |  | <b>Errekalde</b>               | %16,36 | Ametzola parkearen eta Autonomia kalearen artean kontzentratuta, eta baita Casillan ere.<br><br>Hiri-morfologia nagusirik gabe. Badaude bloke lineal batzuk (Avila, Pintores Zubiaurre, Olite, etab.) eta baita bloke solidoak ere (Felix Landin, Jose Olabarria, Errekaldeko Zumarkalea...).                 | Hiri-morfologia nagusirik gabe: bloke solidoak eta bloke linealak |
| 15. Ark | 1981 - 2005 | 4 - 6 solairu & 60 – 90 m <sup>2</sup> | <b>Otxarkoaga - Txurdinaga</b> | %47,21 | Europa parkearen inguruan, Julian Gaiarre and Arbidea gunekak.  | Bloke lineala   |
|         |             |  | <b>Basurtu - Zorrotza</b>      | %18,95 | Zorrotzabason kontzentratuta (Zorrotza auzoan).   | Bloke lineala   |
|         |             |  | <b>Ibaiondo</b>                | %17,33 | Adrian Deunaren goikaldean bloke linealak daude: Los Mimbres, Monte Eretza, etab.<br><br>Bilbo Zaharran (San Frantzisko, Cortes, Bailen, Hernani...) eta Zazpikaleetan, bloke solidoetan zeuden eraikinak ordezkatzen dituzte.  | Hiri-morfologia nagusirik gabe: bloke solidoak eta bloke linealak |
| 16. Ark | 1981 - 2005 | 7 - 9 solairu & 60 – 90 m <sup>2</sup> | <b>Ibaiondo</b>                | %32,78 | Adrian Deunan batez ere (Bilboko sarbidean).<br><br>Miribilla eta Bilbo Zaharraren artean ere: Saralegi plaza, Andrés Eliseo de Mañarikua, Olano, Mina San Luis, etab.  | Bloke lineala   |
|         |             |  | <b>Basurtu - Zorrotza</b>      | %16,79 | Basurturen goikaldean, Masustegi eta Basurtu - Kastrexana kaleen artean (Auntxeneta, Lezeaga), Bentazarran, etab. Bloke lineala da nagusi.<br><br>Halere, badaude eraikin batzuk bloke solidoetan, Novia Salcedo and Pintor Lecuona eremuan.  | Bloke lineala   |
|         |             |  | <b>Errekalde</b>               | %16,29 | Errekaldeko iparraldean.<br><br>Ametzola parkearen inguruan: Uribe Laso M <sup>a</sup> Victoria, Jaen, Ugalde, etab., bloke linealak osatuz.<br><br>Basurturekin mugakideak diren guneeetan: Biarritz, Doctor Dias Emparanza, Alfreko Kraus, etab. Bloke lineala da nagusi, bloke solido batzuk dauden arren. | Bloke lineala   |





|         |             |                                       |                                |        |   |                 |
|---------|-------------|---------------------------------------|--------------------------------|--------|---|-----------------|
|         |             |                                       | <b>Deustu</b>                  | %16,08 | San Ignazioren beheko aldean, Nerbioi ibaiaren alboan: Islas Canarias, Aragon, Asturias, etab.<br><br>Baita ere Botikazarrean/Deustuko zubiaren eremuan, eta Deustu eta Sarriko artean.               | Bloke solidoa   |
| 17. Ark | 1981 - 2005 | > 10 solairu & 60 – 90 m <sup>2</sup> | <b>Otxarkoaga - Txurdinaga</b> | %31,01 | Europa parkaren inguruan eta iparraldean.   | Eraikin berezia |
|         |             |                                       | <b>Errekalde</b>               | %28,94 | Ametzola parkearen dorreak eraikin bereziak dira.<br><br>Baina Ametzola parkearen goialdean, bloke linealak dira nagusi: Antonio de Trueba, Eskurtze, Uribe Laso M <sup>a</sup> Victoria, Jaen, etab. | Bloke lineala   |
|         |             |                                       | <b>Ibaiondo</b>                | %24,81 | Miribillan, Jardines de Gernika inguruan.   | Bloke lineala   |

II.21. Taulak erakusten du Bilbon erlazio argia dagoela eremu bateko hiri-morfologia nagusiaren eta haren topografiaren artean. Hala, Bilbo erdiko bailararen eta Nerbioi ibaiaren inguruko lur lauek bloke solidoa erakusten dute, XIX. mendeko zabalguneen motakoa. Hau da Zazpikaleetako, Uribarriko behe parteko (Campo Volantin) Deustu, Abando – Indautxu eta azken honen bazterreko Errekalde eta Basurtuko eremuen kasua. Aldiz, periferiako maldetan bloke lineala da nagusi, Otxarkoaga, Txurdinaga, Uribarri (Zurbaran) eta Irala bezalako lekuen topografia zailari hobeto egokitzen zaiona.

Era berean, eraikitze-aldiaren eta hiri-bloke moten arteko erlazioa ikusten da. Hiriaren garapen historikoa dela eta, zeinaren demografia eta eraikuntza *boom*-a estilo arrazionalista nagusi zen garaian eman zen, 1960ko hamarkadatik aurrera sortutako auzo periferikoetan bloke lineala da nagusi.

Hala ere, eraikin-arketipo eta hiri-barruti multzo desberdinen hiri-formaren emaitzetatik abiatuta, beharrezkoa da hiri-forma tipologia bakarra esleitzea arketipo bakoitzari, hiri osoko eskalan adierazgarri litzatekeena.

Eraikin-arketipoen kasu gehienetan, hiri-barruti ezberdinen hiri-forma nagusia berdina da eta, beraz, emaitza zuzena da. Antzeko adierazgarritasuna duten hiri-forma bat baino gehiago dauden kasuetan (gehienez bi hiri-formako kasuak daude), II.22. Taulak modelatutako hiri-formen hautaketa justifikatzen du.

II.22. Taula: modelatutako hiri-formen hautaketa.

| Eraikin-arketipoa | Eraikuntza-aldia | Solairu kopurua        | Etxebizitzaren azalera | Bilboko bizitegi-parkearekiko zatia | Eslelitutako hiri-forma | Azalpena, aplikagarria denean   |   |
|-------------------|------------------|------------------------|------------------------|-------------------------------------|-------------------------|---|---|
| n. 1              | < 1960           | 4 - 6 solairu          | < 60 m <sup>2</sup>    | %5,85                               | Bloke lineala           | Zazpikaleen eraikin ohikoez aparte, bloke solidoak osatzen dituztenak, bloke linealak nagusi dira hiri-mailan. Torre Urizar, Torre Madariaga eta Parroco Unceta eraikin-arketipo honi dagozkion adibide batzuk dira.                              |   |
| n. 2              |                  |                        | 60 - 90 m <sup>2</sup> | %6,37                               | Bloke lineala           | Zazpikaleen eraikin ohikoez aparte, bloke solidoak osatzen dituztenak, bloke linealak nagusi dira hiri-mailan. San Ignazioaren kasua litzateke hau, zeinen eraikuntzaren garrantzia azpimarratu den Bilboko garapen-historikoaren deskribapenean. |   |
| n. 3              |                  | 7 - 9 solairu          | < 60 m <sup>2</sup>    | %3,72                               | Bloke solidoa           |   |   |
| n. 4              |                  |                        | 60 - 90 m <sup>2</sup> | %8,38                               | Bloke solidoa           |   |   |
| n. 5              |                  |                        | 90- 120 m <sup>2</sup> | %3,42                               | Bloke solidoa           |   |   |
| n. 6              |                  |                        | > 120 m <sup>2</sup>   | %2,40                               | Bloke solidoa           |   |   |
| n. 7              | 1960 - 1980      | 4 - 6 solairu          | < 60 m <sup>2</sup>    | %4,79                               | Bloke lineala           |   |   |
| n. 8              |                  |                        | 60 - 90 m <sup>2</sup> | %5,56                               | Bloke lineala           |   |   |
| n. 9              |                  | 7 - 9 solairu          | < 60 m <sup>2</sup>    | %5,10                               | Bloke lineala           |   |   |
| n. 10             |                  |                        | 60 - 90 m <sup>2</sup> | %12,93                              | Bloke lineala           |   |   |
| n. 11             |                  |                        | 90- 120 m <sup>2</sup> | %2,82                               | Bloke solidoa           | Aztertutako eraikinen gehiengoa bloke solidoetan kokatzen da. Abandoren kasuan adibidez, non etxebizitzaren azalera handia, 7-9 solairuko eraikinetan, oso bereizgarria den.  |   |
| n. 12             |                  |                        | > 10 solairu           | < 60 m <sup>2</sup>                 | %2,90                   | Bloke lineala   |   |
| n. 13             |                  | 60 - 90 m <sup>2</sup> |                        | 9,13                                | Bloke lineala           |   |   |
| n. 14             |                  |                        |                        | 90- 120 m <sup>2</sup>              | %3,59                   | Eraikin berezia   | Egiatan, Elorrietako (San Ignazio) eta Zumalakarregiren iparraldeko (Uribarri) bloke linealen forma dela eta, inguruko eraikinekin kontaktuan zati txikia dute. Beraz, jarraitutasunari dagokionez eraikin berezi moduan kontsidera daitezke. |
| n. 15             |                  | 1981 - 2005            | 4 - 6 solairu          | 60 - 90 m <sup>2</sup>              | %3,99                   | Bloke lineala   |   |
| n. 16             |                  |                        | 7 - 9 solairu          | 60 - 90 m <sup>2</sup>              | %4,93                   | Bloke lineala   |   |
| n. 17             | > 10 solairu     |                        | 60 - 90 m <sup>2</sup> | %2,01                               | Bloke lineala           | Txurdinaga eta Ametzola parkeko dorreak aldiaren paradigmatico kontsidera daitezkeen arren, egiatan Ametzola parkearen iparraldean eta Miribillan bloke lineala da nagusi.  |   |

Bestalde, eraikin-arketipoen formari dagokionez, diseinu angeluzuzenak kontsideratu dira. Eraikin-arketipo bakoitzari tipologia horretako eraikinen formarik ohikoena esleitu zaio, beti ere hurrengo bi kontsiderazioekin:

- Diseinu angeluzuzenen modelizazioak analititik kanpo uzten du X Taldeak sustatutako aldaera arkitektonikoa, batez ere 70eko hamarkadan erabilia.
- Eraikin-arketipo bakoitzari forma bakarra esleitzeak sinplifikazio gehigarri bat egitera behartzen du bloke solidoetan kokatutako eraikinetan, kasu hauetan eraikinen forma aldakorragoa baita.

Ondorengo deskribapenean, eraikinen diseinu angeluzuzenaren aldeei luzera eta zabalera deritze. Eraikinaren luzera kalera ematen duen fatxada-lerroa litzateke. Eraikinaren zabalera, aldiz, inguruko eraikinekin kontaktuan dauden aldeei dagokie; hau da, mehelinei.

4 – 6 solairu bitarteko bloke linealei dagokionez, antzeko dimentsioak dituzte 1960 baino lehenagoko eta 1960-1980 eraikitze-aldietan. Eraikinaren zabalera, bloke linealetan bi fatxaden arteko tartea dena, 8 – 10 metro bitartekoa izan ohi da. Distantzia horrek, arrazionalismoaren ideal higienikoan oinarrituta, aireztapen gurutzatua ahalbidetzen du etxebizitzetan. Horrelako eraikinak San Ignazion, Deustun (Torre Madariaga), Otxarkoagan, Uribarrin (Arabella, Andramari de Begoña, Zurbaranbarri), Errekalden (Torre Urizar, Uretamendi) edo Begoñan (Parroco Unceta, Luis Echevarría) aurki daitezke. Ikus daitekeenez, eremu horiek batez ere periferian kokatzen dira; izan ere, horrelako eraikin-zabalera estuak historikoki etxebizitza sozialekin egon dira lotuta. Eraikinen luzera, aldiz, aldakorragoa da, eta etxebizitza kopuruaren eta azaleraren araberkoa. Parroco Unceta edo Torre Urizarren 14 – 15 metroetatik, San Ignazioko eraikin gehienek 20 metroetara alda daitezke.

Otxarkoagan, eraikin-dimentsio hauek nagusi dira ere altuera handiagoko eraikinetan. Orokorrean, 7 – 9 solairuko eraikinek 4 – 6 solairuko forma bera dute. Hala ere, hau salbuespena litzateke, 1960 – 1980 aldian eraikitako 7 – 9 solairuko eraikinek oro har diseinu ezberdina baitute.

Azken hauetan, mehelinak eraikin-diseinuen alderik luzeenak dira, kalera ematen duten fatxada-lerroak baino luzeagoak izanik normalean. Bestela esanda, eraikin-luzera eraikin-zabalera baino laburragoa da. 21 – 23 metrotako zabalera izanik, eraikinen diseinua karratuagoa da 10 metrotako zabalera duten eraikinekin konparatuz. Horrelako eraikinak Ibaiondon (Abusu), Errekalden (Camilo Villabaso, Bizkargi, Sollube, Anboto, etab.) Begoñan (Solokoetxe eta Zazpikaleekiko mugetan) edo San Ignazion aurki daitezke, azken honetan 34 metrorainoko eraikin zabalera ere existitzen diren arren.

Bestalde, bloke linealetako 10 solairu baino gehiagoko eraikinek deskribatutako bi diseinuak dituzte. Alde batetik, Santutxun 8 – 10 metrotako eraikin-zabalerak aurki daitezke (Bolueta eta Europa parkearekiko mugetan). Bestetik, fatxada lerroa baino luzeagoak diren mehelinak topa daitezke. Sarrikan, adibidez, 26 metrotako eraikin-zabalerak daude, 7 – 9 solairuko eraikinenak baino handiagoak direnak.

Bloke solidoei dagokionez, XIX. mendeko Zabalguneko eraikinetan 18 metrotako fatxadak dira nagusi [112]. Zazpikaleetan, ordea, fatxada-lerroa 8 – 14 metrotara jaisten da. Honekin lerrotatuta, 1927 eta 1950 artean eraikitako Zabalguneko eraikinek 10 – 20 metro bitarteko

fatxadak dituztela estimatzen da [118], periferian laburragoak izanik. Hala ere, benetan eraikin forma ugari aurki daitezke, baita bloke solido berean ere. Fatxada-luzerak asko aldatzen dira, eremu batean bloke solidoko hiri-forma uniformeak bada ere. Baina patroirik batzuk identifika daitezke.

Zazpikaleetan, fatxada-luzerak laburrak izan ohi dira. Eraikinek 8 metro inguruko luzerak dituzte normalean, 4 metrotako fatxadak dituzten eraikinak ere existitzen diren arren. Moyua – Abando guneko eraikinek, ordea, 16 – 24 metrotako fatxada-lerroak dituzte. Laburragoak izan daitezkeen salbuespenek gutxienez 10 metrotako luzerak erakusten dituzte. Indautxun, eta baita horri mugakide diren Errekaldeko eta Basurtuko eremuetan, fatxadek bitarteko luzerak dituzte (14 – 20 metro), Moyua – Abandokoak baino laburragoak izanik.

Bilboko hiri-morfologiaren orientazioarekin dagokionez, konproba daiteke orokorrean ez duela ipar – hego edo ekialde – mendebalde patroirik osatzen. Hiriaren erdiguneko bloke solidoa ipar – ekialdera (edota, gauza bera dena, hego – mendebaldera) orientatuta dago. Antzekoa gertatzen da Zazpikaleetan, baina honetan patroia kaotikoa da.

Periferiako bloke linealen orientazioa, ordea, topografiara egokitzeak baldintzatzen du. Hala ere, ez dago apenas hegoalderantz orientatutako auzorik. Oro har, orientazioa hego – ekialderantzkoa da, Zurbaranbarrin, San Ignazio, Adrian Deunan edo Miribillan bezala, edo hego – mendebalderantzkoa, Otxarkoagan, Txurdinagan, Santutxun or Errekalden bezala.

Aipatu denaren salbuespena Deustu auzoa litzateke, hegoaldera begira dagoen Bilboko hiri-morfologia bakarra izanik. Beraz, modelatutako eraikin-arketipoen orientazioa ezartzerakoan, hurrengo gogoetak egin dira:

- Bloke solido uniformeko hiri-morfologietan, euren izaera dela eta, fatxada lau noranzko perpendikularretako bakoitzari begira duen eraikin kopurua antzekoa izango da. Eraikin bakoitzaren berokuntza-eskaria, aldiz, honek jasotako eguzki-irradiazioaren arabera zertxobait alda daiteke (hegoaldera orientatutako eraikinek berokuntza-eskari txikiagoa izango dute iparraldera begira daudenak baino). Beraz, bloke solidoekin lotuta dauden eraikin-arketipoak mendebalderantz orientatzea erabaki da, bloke solidoa osatzen duten eraikin guztien batzbestekotzat.
- Bloke linealetan kokatutako eraikin-arketipoen fatxadak hego – mendebalderantz orientatu dira, lehenago deskribatu diren patroiekin bat datorrena. Hala ere, aipatu beharra dago emaitzak ia berdinak liratekeela hego – ekialderantz orientatu izan balitz.
- Eraikin berezia den arketipoa lau puntu kardinalen arabera orientatu da.

II.23. Taulak eraikin-arketipo eredu bakoitzaren diseinu-dimentsioak eta orientazioa laburbiltzen du. 20 m<sup>2</sup>-ko eskailerako eremua ere kontsideratu da kasu guztietan.

II.23. Taula: eraikin-arketipo bakoitzaren diseinu-dimentsioak eta orientazioa.

| Eraikin-arketipoa | Esleitutako hiri-morfologia | Etxebiz. azalera (m <sup>2</sup> ) | Etxebiz. kopurua solairuko | Eraikin-luzera (m) | Eraikin-zabalera (m) | Fatxadaren U-balioa (W/m <sup>2</sup> K) | Fatxadaren orientazioa |
|-------------------|-----------------------------|------------------------------------|----------------------------|--------------------|----------------------|--|------------------------|
| n. 1              | Bloke lineala               | 60                                 | 2                          | 14                 | 10                   | 1,766                                    | hego-mendebaldea       |
| n. 2              | Bloke lineala               | 75                                 | 2                          | 17                 | 10                   | 1,766                                    | hego-mendebaldea       |
| n. 3              | Bloke solidoa               | 60                                 | 2                          | 8                  | 17,5                 | 2,043                                    | mendebaldea            |

|       |                  |     |   |      |      |       |                  |
|-------|------------------|-----|---|------|------|-------|------------------|
| n. 4  | Bloke solidoa    | 75  | 2 | 14   | 12,1 | 1,766 | mendebaldea      |
| n. 5  | Bloke solidoa    | 105 | 2 | 17   | 13,5 | 1,766 | mendebaldea      |
| n. 6  | Bloke solidoa    | 120 | 2 | 20   | 13,0 | 1,766 | mendebaldea      |
| n. 7  | Bloke lineala    | 60  | 3 | 20   | 10   | 1,259 | hego-mendebaldea |
| n. 8  | Bloke lineala    | 75  | 3 | 24,5 | 10   | 1,259 | hego-mendebaldea |
| n. 9  | Bloke lineala    | 60  | 3 | 9,1  | 22   | 1,259 | hego-mendebaldea |
| n. 10 | Bloke lineala    | 75  | 3 | 11,1 | 22   | 1,380 | hego-mendebaldea |
| n. 11 | Bloke solidoa    | 105 | 3 | 17   | 19,7 | 1,259 | mendebaldea      |
| n. 12 | Bloke lineala    | 60  | 3 | 20   | 10   | 1,380 | hego-mendebaldea |
| n. 13 | Bloke lineala    | 75  | 3 | 9,4  | 26   | 1,380 | hego-mendebaldea |
| n. 14 | Eraikin bereizia | 105 | 3 | 18,3 | 18,3 | 1,380 | -                |
| n. 15 | Bloke lineala    | 75  | 3 | 20,4 | 12   | 0,626 | hego-mendebaldea |
| n. 16 | Bloke lineala    | 75  | 3 | 13,6 | 18,1 | 0,934 | hego-mendebaldea |
| n. 17 | Bloke lineala    | 75  | 3 | 18   | 13,6 | 0,750 | hego-mendebaldea |

Azkenik, INEren datuetatik [50] ondoriozta daiteke sotoetako garajeak ez zirela arruntak izan 80ko hamarkadara arte. Horrela, 1981-2005 aldiko eraikin gehienek (%70 inguru) garaje bat dute euren sotoan eta, beraz, garaje hauek kontsideratu egin dira 15, 16 eta 17. eraikin-arketipoen ereduetan.


### II.2.3. Ereduen kalibraketa

Atal honetan, eraikin-arketipoen ereduetan sartu diren okupazio, berokuntza eta barne-irabazien profilak azaltzen dira. Hauek definitzeko, berokuntza-sistema zentralak dituzten etxebizitza-eraikinen kontsumo-datu errealak erabili dira.

Lehenik eta behin, balizko egoerak definitzeko, hiru profil horien arteko erlazioak ezarri dira:

- Etxebizitzaren okupazio aktiboan zehar berokuntzako kontsigna-tenperatura uneoro dela aplikagarria jotzen da.
- Argiztapenarekin eta etxetresnekin lotutako barne-irabazi termikoak batera definitzen dira, eta etxebizitza okupatuta dagoen bitartean soilik existitzen direla jotzen da, gauetan izan ezik. Hau da, argiztapenaren eta etxetresnen barne-irabaziak etxebizitzaren okupazio “aktiboan” zehar baino ez dira ematen.

Bestalde, profilen definizioan eragin nabarmena izan dezakeen faktore garrantzitsu bat bizilagunen lan-egoera da. INEren datuen arabera [50], eraikin-arketipo bakoitzaren etxebizitzen gehiengoak bizilagun guztiak ditu lanean. Beraz, ohiko lan-ordutegi bati dagokion erreferentziako okupazio profila zehaztu da (II.9. Irudia). Halaber, horrekin lotutako barne-irabazien profila definitu da, CTEk okupazio-epe aktiboetarako ematen dituen zatikiak erabiliz (8,8 W/m<sup>2</sup>-ko ekarpen maximoarekiko).



II.9. Irudia: lan-egunetako erreferentziako okupazio profila.

Asteburuetarako hurrengo profilak definitu dira, etxebizitza uneoro okupatuta dagoela kontsideratuz.

| Orduak          |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |     |     |     |     |     |     |     |     |     |     |      |      |      |
|-----------------|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|------|------|------|
|                 | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11  | 12  | 13  | 14  | 15  | 16  | 17  | 18  | 19  | 20  | 21   | 22   | 23   |
| Okupazioa       |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |     |     |     |     |     |     |     |     |     |     |      |      |      |
| Barne-irabaziak |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    | %30 | %30 | %30 | %30 | %30 | %30 | %30 | %30 | %30 | %50 | %100 | %100 | %100 |

#### II.10. Irudia: asteburuatarako erreferentziako okupazio profila.

Azaldutako profiletan oinarrituta, sei berokuntza-egoera ezberdin definitu dira (A, B, C, D, E, F), kontsigna-tenperaturaren arabera sailkatuz (19 °C, 20 °C, 21 °C) eta kontsigna hori gauetan zehar ere aplikagarria den ala ez bereiziz (II.24. Taula).


#### II.24. Taula: definitutako sei berokuntza-egoerak.

|                            |     | Berokuntzaren kontsigna-tenperatura |        |        |
|----------------------------|-----|-------------------------------------|--------|--------|
|                            |     | 19 °C                               | 20 °C  | 21 °C  |
| Gauan zeharreko berokuntza | Ez  | Eg. A)                              | Eg. B) | Eg. C) |
|                            | Bai | Eg. D)                              | Eg. E) | Eg. F) |


Bestalde, Bilboko lau bizitegi-eraikin erreal aukeratu dira, kokapen eta orientazio ezberdinekoak, eta beren forma, tamaina, jarraitutasun, orientazio eta barneko patioen arabera modelatu dira Design Builderren. Eraikinen neurriak Bizkaiko katastroaren bisorea erabiliz neurtu dira, itzala eragin dezaketen kanpoko elementuak ere kontsideratuz. Lau eraikinek 107 etxebizitzez osatuta daude guztira, zeinen berokuntza-eskarien datuak urteko fakturen bitartez jaso dira.

Horrela, definitutako sei egoerak lau eraikinetako bakoitzean simulatu dira. Lortutako berokuntza-eskarien balioak eraikinaren urteko benetako eskariekin alderatu dira, eskari errealera zehaztasun handiagoz hurbiltzen den berokuntza-egoera hautatzeko. Hainbat urtetako eskarien batez bestekoa kontsideratzen da eskari errealtzat, sasoi bateko baldintza klimatiko espezifikoaren menpekoa ez izateko.

II.12 Irudian ikus daitekeenez, emaitzak asko aldatzen dira simulatutako egoeraren arabera; hau da, modelatutako okupatzaileen portaeraren arabera. Eraikin guztietan, B. egoera da errealitatera gehien hurbiltzen den berokuntza-eskaria itzultzen duena eta, beraz, eraikin-arketipoen ereduetan ezarri dena. Egoera hay 20°C-ko kontsigna-tenperatura bati dagokio, gauetan bertan behera uzten dena.



II.11. Irudia: aztertutako lau bizitegi-eraikinen Design Builderreko ereduak.



II.12. Irudia: simulazioen bidez lortutako berokuntza-eskarien balioen alderaketa eskari errealarekin.

20°C-ko kontsigna-temperatura bat dator Eustaten Ingurumen Inkestaren emaitzekin [122]; izan ere, azken honek 20°C inguruko batez besteko berokuntza-kontsigna estimatzen du Euskadin. Halaber, INEren arabera [123] Euskadin oso baxua da gauean berokuntza itzaltzen ez duten etxebizitzaren zatia (%8,7). Bi aspektuak egokitze dira, beraz, B egoeraren hipotesietara.

### II.3. Ereduen baliozkotzea


Modelatu eta simulatu diren eraikin-arketipo ereduen doitasun eta fidagarritasuna frogatzeko, modelazioaren emaitzak datu enpirikoekin alderatu beharra dago.

Datu horiek bildu eta maneiatzeko, Bilbo eta bere inguruko eremuan aplikatu da proposatutako metodologia. Atal honek burututako analisia deskribatzen du.

#### II.3.1. Literaturaren analisia

Atal honetan, bi informazio iturri aztertu dira nagusiki: SECH-SPAHOUSEC proiektuaren emaitzak [62] eta Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) argitaratutako *Claves energéticas del sector doméstico en Euskadi* dokumentua [66], Euskadiko bizitegi-sektorearen energia erabilera aztertzen dituena.

Alde batetik, SECH-SPAHOUSEC proiektuak Atlantikoko zona klimatikoarentzako emandako bizitegi-kontsumoaren banaketa II.13. Irudian erakusten da. Berokuntza da etxebizitzaren kontsumo osoaren zatirik handiena, %40, hartzen duen azken erabilera. Bestalde, zonalde klimatiko horretan kokatutako etxebizitzaren urteko batz besteko energia kontsumoa 10.331 kWh da. Beraz, berokuntzari dagokion zatia aplikatuz 4.143 kWh-ko urteko batzbesteko berokuntza-kontsumoa lortu da. 93,7 m<sup>2</sup>-ko batzbesteko etxe-azalera kontsideratuz (proiektu horrek ezarritakoa), balio hori 44 kWh/m<sup>2</sup>-ko berokuntza kontsumoari dagokio.



II.13. Irudia: SECH-SPAHOUSEC proiektuak Atlantikoko zona klimatikoarentzako emandako bizitegi-kontsumoaren banaketa.

Bestetik, EEEren analisiak 5,130 kWh-ko batz besteko gas natural kontsumoa estimatu zuen hori erregai moduan erabiltzen duten Bizkaiko etxebizitzetan (gehiengoa direnak). Halaber, EEEk 87 m<sup>2</sup>-ko batzbesteko etxebizitza-azalera kontsideratu zuen Euskadi mailan, Bizkaiari ere esleitu dakiokena (izan ere INE-k 85,5 m<sup>2</sup> adierazten ditu Euskadirentzat eta 84,7 m<sup>2</sup> Bilborentzat [50]). Azkenik, EEEren arabera Euskadiko etxeetan erregai-kontsumoaren %62 berokuntzara bideratuta dagoela kontsideratuz (II.14. Irudia), 37 kWh/m<sup>2</sup>-ko urteko batzbesteko berokuntza kontsumoa lortuko litzateke, SECH-SPAHOUSEC proiektutik ondorioztatutakoa baino apur bat txikiagoa. Hala ere, EEEk bere analisian erabilitako kontsumo-balioak 2011. urteari dagokie, klimatikoki ohikoa baino leunagoa izan zena. Hori dela eta, 2011ko kontsumo-balioak joera historiaren azpitik egon ziren.


Halaber, Orkestra institutuaren beste lan batek 0,63 tep-ko urteko batz besteko energia-kontsumoa estimatzen du Euskadiko etxeetan [124], berokuntzari %50 esleituz. INEk Euskadiko



bizitegi-parkearentzat ematen duen  $85.5 \text{ m}^2$ -ko batuz besteko etxe-azalera kontsideratuz [50],  $43 \text{ kWh/m}^2$ -ko urteko berokuntza kontsumoa estima daiteke.

Beraz, lortutako berokuntza balioak alderatuz, kontsistentzia handia berresten da aztertutako informazio-iturri ezberdinen artean.

Bestalde, Euskadiko erregai-kontsumoari dagokionez, EEEk II.14. Irudiako kontsumo termikoen egitura ematen du. Kostaldeko egitura hori eraikin-arketipo ereduak baliozkotzeko erabilitako metodo guztietan erabili da; hots, erregai-kontsumoaren inkestan (laginaren analisisan), erregresio lineal anizkoitzan erabilitako datuen prestakuntzan eta maila agregatuzko baliozkotzean.



II.14. Irudia: Euskadiko erregai-kontsumoaren banaketa, EEEren arabera.

### II.3.2. Erregai-kontsumoaren inkesta

#### II.3.2.1. Laginaren gutxieneko tamainaren kalkulua

Erregai-faktura errealak eskuratzeko arazoak direla eta, Bizkaia probintzia osoko bizitegi-parkea kontsideratu da populazio moduan, Bilbora soilik mugatu beharrean. Bizkaiko etxebizitza nagusien kopurua INEtik lortu da [50].

Populazioarentzako espero den bariantza definitzeko, lehenik eta behin zenbait etxebizitzaren erregai-kontsumoa bildu da, behin – behineko inkesta lez, eta bere desbideratzea kalkulatu da. II.25 Taulak laginaren gutxieneko tamainaren kalkuluan erabilitako parametroak laburbiltzen ditu, etxebizitzaren urteko batuz besteko berokuntza-kontsumoa lortzeko  $6 \text{ kWh/m}^2$ -ko errore-marjinarekin eta %90eko konfiantza-tartearekin.

II.25. Taula: laginaren gutxieneko tamainaren kalkulua, batuz besteko berokuntza-kontsumoa balioesteko.

| Urteko batuz besteko berokuntza-kontsumoa |   |                     |
|---|---|---------------------|
| Populazioa                                | N | 467.295             |
| Errore-marjin onargarria                  | e | $6 \text{ kWh/m}^2$ |
| Konfiantza-tartea                         |   | %90                 |

|  |                              |  |
|--|------------------------------|--|
| <b>Bataz bestekotik desbideratzea konfiantza-tartea lortzeko</b> | <b>Z</b>                     | 1,645                                  |
| <b>Populazioarentzako espero den bariantza</b>                   | <b><math>\sigma^2</math></b> | 700 (kWh/m <sup>2</sup> ) <sup>2</sup> |
| <b>Laginaren gutxieneko tamaina</b>                              | <b>n</b>                     | 53                                     |

UBS kontsumoari dagokionez, 6 L/pertsona eguneko errore-marjina eta %90eko konfiantza-tartea kontsideratu dira, II.26 Taulak laginaren gutxieneko tamainaren kalkuluan erabilitako parametroak laburbiltzen ditu.

**II.26. Taula: laginaren gutxieneko tamainaren kalkulua, bataz besteko UBS kontsumoa balioesteko.**

| <b>Eguneko bataz besteko UBS litro kontsumoa</b>                 |                              |                                 |
|--|------------------------------|---------------------------------|
| <b>Populazioa</b>  | <b>N</b>                     | 467.295                         |
| <b>Errore-marjin onargarria</b>                                  | <b>e</b>                     | 6 L/perts-egun                  |
| <b>Konfiantza-tartea</b>   |                              | %90                             |
| <b>Bataz bestekotik desbideratzea konfiantza-tartea lortzeko</b> | <b>Z</b>                     | 1,645                           |
| <b>Populazioarentzako espero den bariantza</b>                   | <b><math>\sigma^2</math></b> | 600 (L/perts-egun) <sup>2</sup> |
| <b>Laginaren gutxieneko tamaina</b>                              | <b>n</b>                     | 45                              |

### II.3.2.2. Inkestan bildutako lagina

Guztira, 65 etxebizitzaren erregai-kontsumoaren datuak jaso dira.


UBS-rako edota sukalderako, baina ez berokuntzarako, erregaia kontsumitzen duten etxebizitzak alde batera utzi dira. Gauza bera egin da duela gutxira arte hutsik egon diren etxebizitzekin edo berriki hornitzaile komertziala aldatu dutenekin, ez baitute fakturazio-datu nahikorik urtebeteko aldi oso bat betetzeko. Bestalde, bildutako kontsumo-datu historikoen grafikoek azken bi urteetako informazioa dutenez, analisisian bi urteen arteko bataz besteko balioak erabili dira.

II.27 Taulak inkestan kontsideratutako etxebizitzaren kokapena adierazten du. Ikus daitekeenez, etxebizitzaren erdia Bilbori dagozkie, gainerakoak inguruko udalerrietakoak izanik.

**II.27. Taula: inkestako etxebizitzaren kokapenaren banaketa.**

|                               | <b>Etxebizitza kopurua</b> | <b>Zatia</b> |
|-------------------------------|----------------------------|--------------|
| <b>Bilbo</b>                  | 31                         | %48          |
| <b>Getxo</b>                  | 12                         | %18          |
| <b>Bizkaia (beste batzuk)</b> | 22                         | %34          |
| <b>Guztira</b>                | 65                         |              |


Inkestatutako etxebizitzek erregaia kontsumitzen dute berokuntzarako eta UBS ekoizteko, gutxienez, baina guztiek ez dute sukalderako erabiltzen. II.15. Irudiak sukaldean erregaia erabiltzen duten etxebizitzaren zatia adierazten du.



II.15. Irudia: inkestako etxebizitzaren sukalde-motaren banaketa.

Etxebizitzaren helbidea erabiliz, beren eraikuntza-aldia Bizkaiko katastrofik hartu da, II.16. Irudiko banaketa lortuz. Bilboko bizitegi-parkearen antzinatasun banaketarekin alderatuz, laginean 1981-2005 aldiko etxebizitzaren pisua zertxobait altuagoa da.

### Eraikuntza-aldia



II.16. Irudia: inkestako etxebizitzaren eraikuntza-aldiaren banaketa.

### II.3.2.3. Laginaren azterketa

#### II.3.2.3.1. Lehenengo ikuspegia

Udako eguneko UBS per-capita kontsumoa kWh-tako unitateetatik litroetara pasatzeko, sareko uraren batez besteko tenperatura 20°C dela jotzen da, Bilboko udako batez besteko tenperaturari dagokiona, gutxi gorabehera. Halaber, UBS 60°C-tan ekoizten dela kontsideratu da.

Ondoren, alderantziz egin da. Eguneko UBS per-capita litro-kontsumotik UBSari dagokion urteko energia kontsumoa kWh-tan lortzeko, Bilboko urteko batez besteko tenperatura erabili da (14,03 °C) sareko uraren tenperatura gisa.

#### II.3.2.3.2. Bigarren ikuspegia

Bigarren ikuspegiaren aplikazioa EEEK emandako azken-erabilera termikoen arabeko erregai-kontsumoaren banaketan oinarritu da. Halaber, banaketa horretatik beste banaketa baliokide bat ondorioztatu da sukalde elektrikoa duten etxebizitzentzat. Horrela, II.28. Taulak bigarren ikuspegiaren aplikaturiko erregai-kontsumo egiturak erakusten ditu.

II.28. Taula: azken-erabilera termikoen araberako erregai-kontsumoaren banaketak.

|                   | Ondorioztatutako erregai-kontsumo egitura                            |   |
|-------------------|--|---|
|                   | Erregaia hiru erabilera termikoetarako erabiltzen duten etxebizitzak | Erregaia berokuntzarako eta UBS-rako soilik erabiltzen duten etxebizitzak |
| <b>Berokuntza</b> | %59  | %66   |
| <b>UBS</b>        | %30  | %34   |
| <b>Sukaldea</b>   | %11  | -   |


#### II.3.2.4. Emaitzen alderaketa

Ikuspegi bakoitzarekin lortutako berokuntza eta UBS kontsumoen bataz besteko balioak eta desbideratzeak II.29. Taulan laburbiltzen dira. Emaitzak antzekoak izateak adierazten du UBS kontsumoaren estimazioan oinarritutako ikuspegiak EEEn datuetatik ondorioztatutako azken-erabileren banaketa baliozkotu egin duela. Bestalde, lortutako desbideratzeek laginaren tamaina minimoa kalkulatzeko suposatutako bariantzak berretsi dituzte.

II.29. Taula: Ikuspegi bakoitzarekin lortutako berokuntza eta UBS kontsumoen bataz besteko balioak eta desbideratzeak.

|                                    |                                      | 1. ikuspegia | 2. ikuspegia |
|------------------------------------|--------------------------------------|--------------|--------------|
| <b>Urteko berokuntza kontsumoa</b> | Bataz bestekoa (kWh/m <sup>2</sup> ) | 48,98        | 44,67        |
|                                    | Desbideratzea (kWh/m <sup>2</sup> )  | 26,95        | 19,09        |
| <b>Eguneko UBS kontsumoa</b>       | Bataz bestekoa (L/perts)             | 37,18        | 43,39        |
|                                    | Desbideratzea (L/perts)              | 23,61        | 23,33        |

Aplikaturako bi ikuspegiekin lortutako urteko berokuntza kontsumoaren (kWh/m<sup>2</sup>) emaitza desagregatuak alderatuz, II.17. Irudia eratu da. Ikus daitekeenez, ikuspegi bakoitzetik lortutako balioak antzekoak dira, bi metodoen arteko kontsistentzia egokia adieraziz. Hala ere, badirudi berokuntza-kontsumo altuen kasuan, lehenengo ikuspegiak (UBS kontsumoan oinarritzen dena, alegia) kontsumo horiek gutxiesten dituela bigarren ikuspegiarekin konparatuz (EEEko energia-erabileren banaketan oinarritutakoa).



**II.17. Irudia: bi ikuspegiekin balioetsitako urteko berokuntza kontsumoaren emaitza desagregatuen alderaketa.**

Bestalde, lehenengo ikuspegiaren aplikaziotik lortzen den erregai-kontsumoaren banaketa kalkulatu da, azken-erabileren arabera, erregai hiru erabilera termikoetarako (berokuntza, UBS, sukaldea) kontsumitzen duten etxebizitzentzat eta baita berokuntzarako eta UBSrako soilik erabiltzen dutenentzat ere (II.30. Taula). Azken hauetan, lortutako erregai-banaketa EEEK emandakoaren (eta 2. ikuspegian erabilitakoaren) berdina da ia (II.28. Taula), emaitzen kontsistentzia indartuz. Erregaizko sukaldea duten etxebizitzetan, aldiz, lortutako kontsumo-banaketa zertxobait aldentzen da EEEKo banaketatik, erregaizko sukaldeko lagin-kopuru txikiagoaren ondorioa izan daitekena.

**II.30. Taula: lehenengo ikuspegian balioetsitako erregai-kontsumoaren banaketa, azken-erabileren arabera.**

|            | Erregaizko sukaldea duten etxebizitzak | Sukalde elektrikoa duten etxebizitzak |
|------------|--|---------------------------------------|
| Berokuntza | %62                                    | %67                                   |
| UBS        | %22                                    | %33                                   |
| Sukaldea   | %16                                    | -                                     |

**II.3.3. Erregresio lineal anizkoitzaren erudia**

Atal honek deskribatutako erregresioaren aplikazioaren helburua etxebizitza mota ezberdinen berokuntza-eskariak lortzea izan da, eraikin-arketipo ereduak era desagregatuan baliozkotzeko modu osagarri gisa. 3.2.1.3.3. atalean proposaturiko metodoa jarraituz, erregresio lineal anizkoitza eskualde-mailan aplikatu da.

**II.3.3.1. Udalerrietako bizitegi-sektoreen urteko berokuntza-eskarien estimazioa**


Euskadin, Agenda 21eko testuinguruan, udalerrri askok Tokiko Ekintza Planak (TEP) ezarri zituzten. 2003an Eusko Jaurlaritzak gida bat argitaratu zuen Tokiko Iraunkortasun Adierazle ezberdinak ezarritz [125]. Besteak beste, udalerrriko gas natural kontsumo totala eta bere banaketa sektoriala, bizitegi-sektorea bereiziz.

Guztira, Bizkaiko eta Gipuzkoako 17 udalerrrien gas natural bizitegi-kontsumoak biltzea lortu da, II.31. Taulan adierazten direnak. Lehenago, 4.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrriak alde batera utzi dira, beren etxebizitza kopuru txikiagoak datu estatistikoaren zehaztasuna murriztu dezakelako.

II.31. Taula: erregresian sartutako udalerriak.

| Bizkaia      | Populazioa | Gipuzkoa    | Populazioa |
|--------------|------------|-------------|------------|
| Bilbo        | 349.370    | Donostia    | 184.425    |
| Barakaldo    | 99.530     | Irun        | 60.515     |
| Portugalete  | 47.610     | Errenteria  | 39.135     |
| Durango      | 28.240     | Hernani     | 19.220     |
| Mungia       | 16.740     | Hondarribia | 16.295     |
| Arrigorriaga | 12.475     | Pasaia      | 15.690     |
| Abanto       | 9.680      | Azpeitia    | 14.310     |
| Muskiz       | 7.460      | Ibarra      | 4.250      |
| Berango      | 6.885      |             |            |

EEEren banaketa klimatikoa kontsideratuz (II.18. Irudia), konprobatu da ia udalerrri guztiak kostaldeko zonaldean kokatzen direla. Beraz, erregresioa aplikatzeko koherentzia-baldintza hori betetzen dute, batzuk hertsiki EEEk bitarteko zonaldeetat definitzen duenaren barruan kokatzen diren arren: kostaldeko zonaldeetik gertu daudenez, azken honetan kontsidera daitezke.



II.18. Irudia: EEEk emandako Euskadiren banaketa klimatikoa [66].

Horrela, udalerrri hauetako gas natural bizitegi-kontsumoak bildu dira, 2005-2011 aldiko urte ezberdinetan zehar. Bildutako informazioa azertu ostean, muturreko ezohiko edo muturreko zenbait balio alde batera utzi dira.

Gainerakoak, udalerrrien bizitegi-sektoren berokuntza-kontsumoak estimatzeko erabili dira, horretarako EEEk emandako azken erabilera termikoen arabera erregai-kontsumo banaketa erabiliz (II.14. Irudia).

Berokuntza-kontsumo horiek eskari terminoetara pasatzeko, udalerrri ezberdinen berokuntza-sistemen banaketa [50] [111] eta sistema horietako bakoitzarentzat IDAEk emandako sasoiko batez besteko efizientziak erabili dira [54].

Bestalde, gas naturalarekin ez ezik, beste energia-iturri eta erregai batzuekin ere asetzen da udalerrri bateko etxebizitzaren berokuntza-eskaria; hala nola, elektrizitatea, GLP edo gasolioa. Hala ere, lehenengoak azken energia-erabilera ugari asetzen ditu eta zaila da berokuntzari dagokion kontsumoaren zatia estimatzea. Beste erregaien kontsumoari buruzko informaziorik ez dago normalean eskuragai.

Beraz, gainerako energia-iturri hauekin asetutako berokuntza-eskaria estimatzeko, gas naturalari lotutako eskariaren balioa estrapolatu egin da bizitegi-sektorearen berokuntza-eskari totala lortzeko. Horretarako, gas naturalezko berokuntza sistemak erabiltzen dituzten etxebizitzaren azaleraren zatia kontsideratu da, udalerriko bizitegi-parkearen azalera totalarekiko.

### II.3.3.2. Erregresioan sartutako etxebizitza-motak

Idelaki, erregresioan sartu beharreko etxebizitza-motak modelatutako eraikin-arketipoen berdinak izan beharko lirateke. Halere, laginaren tamaina da oro har etxebizitzaren bereizketaren sakontasuna mugatzen duena.

Analisi honetan, 17 udalerriko laginarekin, etxebizitza-moten sailkapen sinplifikatua erabili da, etxebizitza tipologiak eraikuntza-aldiaren arabera bereiziz (II.32. Taula). Halaber, 2006aren osteko etxebizitzaren pisu txikia dela eta, hauek analisisik kanpo utzi dira. Horrela, erregresioan sartutako etxebizitza-tipologia kopuruak tipologia bakoitzeko gutxienez bost lagin izatearen arau orokorra betetzen du.

II.32. Taula: erregresioan sartutako etxebizitza-tipologiak.

|                         | 1. tipologia      | 2. tipologia | 3. tipologia |
|-------------------------|-------------------|--------------|--------------|
| <b>Eraikuntza-aldia</b> | 1960a baino lehen | 1961 - 1980  | 1981 – 2005  |

II.33. Taulak erregresioan erabilitako balioak adierazten ditu. Etxebizitza-tipologia bakoitzaren zatia etxebizitza nagusien azalera totalean oinarritzen da, udalerriko bizitegi-parke osoaren azalarekiko.

II.33. Taula: erregresioan erabilitako sarrera-satuak.

|              | Udalerriko bizitegi-sektorearen urteko berokuntza-eskaria (kWh/m <sup>2</sup> ) | 1. tipologiako etxebizitzak | 2. tipologiako etxebizitzak | 3. tipologiako etxebizitzak |
|--------------|---|-----------------------------|-----------------------------|-----------------------------|
| Abanto       | 32,42   | %28,14                      | %30,50                      | %41,36                      |
| Arrigorriaga | 40,20   | %14,04                      | %33,52                      | %52,45                      |
| Azpeitia     | 36,26   | %24,94                      | %37,90                      | %37,16                      |
| Barakaldo    | 47,22   | %26,34                      | %59,19                      | %14,47                      |
| Berango      | 34,57   | %8,15                       | %27,77                      | %64,09                      |
| Bilbo        | 43,48   | %35,86                      | %46,33                      | %17,81                      |
| Donostia     | 48,66   | %39,76                      | %34,83                      | %25,41                      |




|             |       |        |        |        |
|-------------|-------|--------|--------|--------|
| Durango     | 41,76 | %18,50 | %36,32 | %45,18 |
| Errenteria  | 41,35 | %20,74 | %65,08 | %14,17 |
| Hernani     | 43,67 | %26,80 | %45,14 | %28,06 |
| Hondarribia | 35,85 | %33,63 | %29,48 | %36,89 |
| Ibarra      | 43,17 | %10,27 | %68,42 | %21,31 |
| Irun        | 40,60 | %32,67 | %40,19 | %27,14 |
| Mungia      | 30,84 | %10,68 | %29,93 | %59,39 |
| Muskiz      | 33,18 | %23,46 | %36,22 | %40,32 |
| Pasaia      | 47,94 | %53,30 | %38,16 | %8,54  |
| Portugalete | 38,34 | %23,45 | %60,16 | %16,40 |

### II.3.4. Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien analisia

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailak bere webgunean duen Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien erregistroa erabiliz [Registro], guztira Bilboko 228 etxebizitzaren ziurtagiriak aztertu dira.

Horietan energia primarioaren eta CO<sub>2</sub> emisioen balioak bat datoz erregai bakarraren erabileraren ustearekin eta antzeko azken energia-kontsumoa ematen dute. Azken honetatik abiatuz, proposatutako metodologia aplikatu da etxebizitza bakoitzaren berokuntza-kontsumoa lortzeko.

II.19. Irudiak lagineko etxebizitzaren banaketa adierazten du, dagozkien eraikin-arketipoaren arabera, eta bizitegi-parkearen benetako banaketarekin alderatzen du.



II.19. Irudia: lagineko etxebizitzaren alderaketa bizitegi-parkearen benetako banaketarekin.

### II.3.5. Bilboko berokuntza-kontsumo agregatua


Modelatutako eraikin-arketipoen ereduaren emaitzak era agregatuan balioztatzeko, Bilboko bizitegi-parkearen gas natural kontsumoa aztertu da.



Alde batetik, argitaratutako “Indicadores de Sostenibilidad de Bilbao 2008” dokumentuak [126] kontsumo horren inguruko informazioa ematen du, baina soilik 2000, 2004 eta 2008 urteentzat.

Beraz, Udalaren Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailarekin kontaktatu da, Bilboko gas natural kontsumo historikoaren inguruko informazio gehiago eskatzeko. Bere kolaborazioari esker, 2004-2017 aldi osoko urteko gas natural bizitegi-kontsumoak eskuratu dira.

Hauetatik abiatuz, erregresio lineal anizkoitzan jarraitutako prozesu berdina aplikatuz, bizitegi-parkearen urteko berokuntza-eskariak estimatu dira, II.20. Irudian adierazten direnak.



II.20. Irudia: Bilboko bizitegi-parkearen urteko berokuntza-eskarien bilakaera.

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**Bizitegi-parkeen birgaitze energetikorako ikuspegi  
integrala: Bilboko kasua**